

Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran



Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran

	Orrialdea
Hitzaurrea	15
1. SARRERA	
1.1. Zergatik eta zertarako euskal nortasunaren azterketa	21
1.2. Lanaren egitura	22
2. METODOLOGIA ETA INFORMAZIOAREN AURKEZPENA	
2.1. Informazio bilketa	25
2.1.1. Eztabaida taldeak eta banakako elkarrizketak	25
2.1.2. Inkesta	26
2.1.3. Interneteko edukien azterketa	26
2.2. Edukiei buruzko argibideak	27
2.2.1. Informazioaren azterketa	27
2.2.1.1. Emaiza orokorrak	27
2.2.1.1.1. Inkestaren emaitzak	27
2.2.1.1.2. Azterketa kualitatiboaren emaitzak	27
2.2.1.2. Herritarren kategorizazioa nortasun kolektiboaren ikuskeraren arabera	28
2.2.1.3. Euskaltasuna eta euskal kulturari buruzko iritziak Interneten	29
2.2.2. Ondorio eta gogoetak	29
3. INFORMAZIOAREN AZTERKETA	
3.1. Emaiza orokorrak	33
3.1.1. Lurraldea	33
3.1.1.1. Inkestaren emaitzak	33
3.1.1.1.1. Euskal Herriaren lurralde irudikapena	33
3.1.1.1.2. Lurraldeen arteko harremanak	35

3.1.1.1.3.	Beste lurraldeekiko hurbiltasun sentimendua	37
3.1.1.1.4.	Euskal Herriko lurraldeen arteko mugimenduak	39
3.1.1.1.5.	Euskal Herriko gainerako lurraldeetara joateko arrazoi nagusia	40
3.1.1.1.6.	Norberaren identifikazio eremua	41
3.1.1.1.7.	Atxikimendu sentimenduaren eremu geografikoa	42
3.1.1.1.8.	Lurraldeen arteko harremanei buruzko nahia	43
3.1.1.2.	Azterketa kualitatiboaren emaitzak	45
3.1.1.2.1.	Euskal Herriaren irudikapena	45
3.1.1.2.2.	Lurraldeen arteko ezagutza eta harremanak	46
3.1.1.2.3.	Lurraldeen arteko harremanak etorkizunean	46
3.1.2.	Nortasuna	47
3.1.2.1.	Inkestaren emaitzak	47
3.1.2.1.1.	Nortasun sentimendua: Euskal herritarra - espainiarra, euskal herritarra - frantsesa, nafarra	47
3.1.2.1.2.	Nortasunen bilakaera	49
3.1.2.1.3.	Euskal nortasunaren osagaiak	51
3.1.2.2.	Azterketa kualitatiboaren emaitzak	54
3.1.2.2.1.	Nortasun sentimenduen mapa	54
3.1.2.2.2.	Euskal nortasunaren osagaiak	54
3.1.2.2.3.	Euskal nortasunaren etorkizuna	55
3.1.3.	Hizkuntza	56
3.1.3.1.	Inkestaren emaitzak	56
3.1.3.1.1.	Gaitasuna: ulermena, mintzamina, irakurketa, idazketa	56
3.1.3.1.2.	Lehen hizkuntza	59
3.1.3.1.3.	Gaitasun alderatua	60
3.1.3.1.4.	Euskararen ikasketa	62

3.1.3.1.5.	Euskara ikasteko edo ikasi nahi izateko arrazoiak	63
3.1.3.1.6.	Euskara ez ikasteko arrazoiak	65
3.1.3.1.7.	Euskaldunen bazterkeria sentimendua	67
3.1.3.1.8.	Ez euskaldunen bazterkeria sentimendua	68
3.1.3.1.9.	Seme-alabekiko nahiak euskarari dagokionez	69
3.1.3.1.10.	Euskal izenekiko jarrerak	70
3.1.3.2.	Azterketa kualitatiboaren emaitzak	72
3.1.3.2.1.	Euskararen gizarte presentzia	72
3.1.3.2.2.	Euskararen egoera	72
3.1.3.2.3.	Hizkuntza bateratzaile zein zatitzaile	72
3.1.3.2.4.	Erabilera	73
3.1.4.	Euskal kultura	73
3.1.4.1.	Inkestaren emaitzak	73
3.1.4.1.1.	Euskal kulturaren kontzeptua	73
3.1.4.1.2.	Nafar kulturaren eta euskal kulturaren arteko harremana	75
3.1.4.1.3.	Euskal kulturaren ezaugarriak	76
3.1.4.1.4.	Euskal kulturaren elementurik garrantzitsuenak	77
3.1.4.1.5.	Kultur ekintzen sustapena	79
3.1.4.1.6.	Euskal kultura eta globalizazioa	82
3.1.4.2.	Azterketa kualitatiboaren emaitzak	84
3.1.4.2.1.	Euskal kulturaren definizioa	84
3.1.4.2.2.	Euskal kulturaren osagaiak	86
3.1.4.2.3.	Euskal kultura eta globalizazioa	87
3.1.5.	Kultur praktikak	88
3.1.5.1.	Inkestaren emaitzak	88
3.1.5.1.1.	Kultur jardueretan parte hartzea	88
3.1.5.1.2.	Euskarazko telebistaren kontsumoa	90
3.1.5.1.3.	Euskarazko irratia- ren kontsumoa	91

3.1.5.1.4.	Euskarazko egunkari, aldizkari eta liburuen kontsumoa	91
3.1.5.1.5.	Euskal musikaren kontsumoa	92
3.1.5.1.6.	Kirol jarduerak	93
3.1.6.	Elkarte bizitza	95
3.1.6.1.	Inkestaren emaitzak	95
3.1.6.1.1.	Elkarteetako partehartze maila	95
3.2.	Herritarren kategorizazioa nortasun kolektiboen ikuskeraren arabera	101
3.2.1.	Azterketari buruzko argibideak	101
3.2.2.	Euskal herri mailako azterketa	101
3.2.2.1.	Herritar taldeen kokapena ardatzetan	101
3.2.2.2.	Jarrera nabarmenenak	103
3.2.3.	Lurraldekako azterketa	105
3.2.3.1.	EAE	105
3.2.3.2.	Nafarroa	105
3.2.3.3.	Iparraldea	105
3.3.	Euskaltasunari eta euskal kulturari buruzko pertzepzioak Interneten - Emaidza nagusiak	109
3.3.1.	Sarrera	109
3.3.2.	Emaidza orokorrak	109
3.3.2.1.	Aztertutako iritzien zenbait ezaugarri	109
3.3.2.2.	Euskaltasunari buruz interneten dauden iritzien gai nagusiak	109
3.3.2.3.	Hizkuntza	110
3.3.2.3.1.	Hizkuntzaren estatusa	110
3.3.2.3.2.	Hizkuntzaren transmisioa	110
3.3.2.3.3.	Euskararen erabilera	111
3.3.2.3.4.	Hizkuntza politika	111
3.3.2.3.5.	Erakundeak, gertaerak eta pertsonaiak	112
3.3.2.3.6.	Eremu geografikoa	112
3.3.2.3.7.	Jatorria eta beste hizkuntzen eraginak	113
3.3.2.4.	Beste kultur adierazpide batzuk	113
3.3.2.4.1.	Kulturaren definizioa	113
3.3.2.4.2.	Arteak	114

3.3.2.4.3. Gastronomía	115
3.3.2.4.4. Kirolak	116
3.3.2.4.5. Herri tradizioak	117
3.3.2.5. Nortasuna eta beste gizarte gai batzuk	117
3.3.2.5.1. Gizarte nortasuna	117
3.3.2.5.2. Lurralde nortasuna	118
3.3.2.5.3. Izaera	118
3.3.2.5.4. Gizarte egitura	118
3.3.2.5.5. Azturak, ohiturak eta bizimodua	118
3.3.2.5.6. Historia	119
3.3.3. Ondorioak	120

4. GOGOETA ETA ONDORIOAK

4.1. Sarrera: gogoeta hauen aurrebaldintzak	123
4.1.1. Nolako euskal kultura eta nortasuna dugu hizpide?	123
4.1.2. Nortasun kolektiboak nola ikertu?	127
4.1.3. Izenaren eta lurraldearen korapiloa	129
4.1.4. Ingurune aldakor baten baitan	130
4.2. Euskal kultura eta nortasuna, nora doaz?	131
4.2.1. Barne-dilema politikoa	131
4.2.2. Kultura eta nortasun komun baten premia auzian	134
4.2.3. Nola aldatu?	136
4.2.4. Euskaltasunaren muina eta periferia	139
4.2.5. Hizkuntzaren paradoxa	140
4.2.6. Eguneroko kulturaren garapena	143
4.2.7. IKT-en erronka eta aukera	145
4.2.8. Belaunaldi berriek parte hartzea	147
4.2.9. Kanpoko euskal herritarren ekarria	148
4.2.10. Kultura, XXI. mendeko euskal gizartearen motorea	150
4.2.11. Azken buruan, zer?	152
4.3. Ondorio laburtuak	155

BIBLIOGRAFIA

TAULEN AURKIBIDEA

3.1.1. LURRALDEA

• 3.1.1. Taula-1 Zure ustez zein lurraldek definitzen dute hobekien Euskal Herria?	33
• 3.1.1. Taula-2 Zure ustez zein lurraldek definitzen dute hobekien Euskal Herria? (Lurraldez-lurralde)	34
• 3.1.1. Taula-3 Zure ustez zein lurraldek definitzen dute hobekien Euskal Herria? (Inkestaren hizkuntzaren arabera)	35
• 3.1.1. Taula-4 Auzo lurraldeen artetik zeinekin duzu harreman gehien?	36
• 3.1.1. Taula-5 Auzo lurraldeen artetik zeinekin duzu harreman gehien? (Lurraldez-lurralde)	37
• 3.1.1. Taula-6 Auzo lurraldeen artetik nondik sentitzen zara hurbilen?	37
• 3.1.1. Taula-7 Auzo lurraldeen artetik nondik sentitzen zara hurbilen? (Lurraldez-lurralde)	38
• 3.1.1. Taula-8 Euskal Herriko gainerako lurraldeetara joateko ohitura	39
• 3.1.1. Taula-9 Zertara joaten zara gehienbat?	40
• 3.1.1. Taula-10 Zein lurralderekin identifikatzen zara gehien?	41
• 3.1.1. Taula-11 Gaur egun dituzun bizi eta lan baldintza berberak izango bazenitu, non nahiago zenuke bizitzea?	42
• 3.1.1. Taula-12 EAE, Nafarroa eta Iparraldearen artean nolako harremanak egotea nahiko zenuke?	43
• 3.1.1. Taula-13 Zein arlotan nahi dituzu orain baino harreman handiagoak?	44

3.1.2. NORTASUNA

• 3.1.2. Taula-1 Euskal herritarra eta espainiarra/frantsesa izatearen artean, nola sentitzen duzu zure burua?	47
• 3.1.2. Taula-2 Identitate sentimendu nagusia	48
• 3.1.2. Taula-3 Nola sentitzen zara duela hamar urterekin konparatuz?	49
• 3.1.2. Taula-4 Eta hemendik hamar urtetara nola sentituko zarela uste duzu?	50
• 3.1.2. Taula-5 Zure ustez zeintzuk dira bi baldintza garrantzitsuenak pertsona batek bere burua euskal herritartzat izateko?	51

3.1.3. HIZKUNTZA

- 3.1.3. Taula-1 Nola ulertzen duzu euskaraz? Nola hitz egiten duzu euskaraz? Nola irakurtzen duzu euskaraz? Nola idazten duzu euskaraz? 56
- 3.1.3. Taula-2 Zein izan zen zure lehen hizkuntza 3 urte bete arte? 59
- 3.1.3. Taula-3 Euskararen ezagutza lehen hizkuntzaren arabera 60
- 3.1.3. Taula-4 Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu errazago? Zein hizkuntzatan irakurtzen duzu errazago? 60
- 3.1.3. Taula-5 Euskara ikasten ari zara? 62
- 3.1.3. Taula-6 Euskara ikasteko edo ikasi nahi izateko arrazoiak 63
- 3.1.3. Taula-7 Euskara ikasi nahi ez izateko arrazoiak 65
- 3.1.3. Taula-8 Baztertua sentitu zara euskaraz hitz egin nahi izateagatik? 67
- 3.1.3. Taula-9 Baztertua sentitu zara euskaraz ez jakiteagatik? 68
- 3.1.3. Taula-10 Seme-alabarik baldin baduzu, edo edukiko bazenitu, nahiko zenuke haiek euskaraz jakitea? 69
- 3.1.3. Taula-11 Euskal izenak (herri, etxe, leku edo kaleenak) mantendu eta bultzatzearen oso alde, alde, kontra edo oso kontra zaude? 70

3.1.4. EUSKAL KULTURA

- 3.1.4. Taula-1 Zer da zuretzat euskal kultura? 74
- 3.1.4. Taula-2 Zein esaldi duzu gustokoen? (Euskal kulturanafar kultura) 75
- 3.1.4. Taula-3 Nolakoa da zure ustez euskal kultura? 76
- 3.1.4. Taula-4 Euskal kulturarekin gehien lotzen diren elementuak 77
- 3.1.4. Taula-5 Gustatuko litzaizuke euskal kulturarekin lotutako aktibitate eta ekitaldi gehiago egotea? 79
- 3.1.4. Taula-6 Euskal kulturarekin lotutako zein arlo bultzatu beharko lirateke gehien? 80
- 3.1.4. Taula-7 Euskal kulturarentzat kultura globalizatua zer da? 82
- 3.1.4. Taula-8 Kultura globalizatuarentzat euskal kultura zer da? 83

3.1.5. KULTUR PRAKTIKAK

- 3.1.5. Taula-1 Azken hiru hilabeteotan zenbatetan joan zara...? 88
- 3.1.5. Taula-2 Hizkuntza erabilera kultur jardueretan 89
- 3.1.5. Taula-3 Azken hiru hilabeteetan zenbatetan ikusi duzu telebista euskaraz? 90
- 3.1.5. Taula-4 Azken hiru hilabeteetan zenbatetan entzun duzu irratia euskaraz? 91
- 3.1.5. Taula-5 Azken hiru hilabeteetan zenbatetan irakurri dituzu euskarazko egunkari, aldizkari edo liburuak? 91
- 3.1.5. Taula-6 Azken hiru hilabeteetan zenbatetan entzun dituzu euskal musikazko disko edo kasetak? 92
- 3.1.5. Taula-7 Kirolen bat egiten duzu? 93
- 3.1.5. Taula-8 Kirolen baten zalea zara? 94

3.1.6. ELKARTE BIZITZA

- 3.1.6. Taula-1 Kide edo partehartzaile direneko elkarte kopurua 95
- 3.1.6. Taula-2 Ondoko elkarte motetako kidea zara edo izan nahiko zenuke? 96

HITZAURREA: NORTASUN ARAZOAK GOGOETATZEA XXI. MENDEAREN HASIERA HONETAN: ZENBAIT LAN-HIPOTESI

Nortasun arazoa inoiz baino aktualitatekoa goa da. Modu batean edo bestean agertzen da gizarte garaikide gehienetan, izan dadin Iparraldeko gizarte aitzinatu edo Hegoaldeko gizarte azpi-garatuetan. Egoeren aniztasunetik eta honek har ditzakeen adierazpide desberdinetatik haratago joanez, iduritzen zait nortasunaren jalgitze honek problematika orokor batekin zerikusia duela. Hain zuzen ere, problematika honen bost ardatz nagusi azpimarratu nahi nituzke hemen, iduritzen baitzait XXI. mendearen hasiera honetan gogoetatze elementu lagungarri izan daitezkeela ondoko galderari erantzuten saiatzeko: nortasunak zergatik dauka zentzua gure gizarte garaikideetan.

1/ *Modernitateak (edo modernitate ondo-koak) ez ditu kideztapen kultural edo etnikoak baliogabe bihurtu.* Teoria eboluzionistek iragarri zuten ez bezala, modernizazioak ez du nortasun beharra suntsitu. Ekonomia, sozial eta politika aldakuntzek ez dute mundu desberdin bat sortu, bertan kideztapen horiek zentzurik gabe geldituko edo modernitateari gogor eginen zioten sektore eta talde arkaikoen adierazpen hutsa bihurtuko baitziren. Datu hau oso garrantzitsua da nortasun esparru horretan gertatzen dena ulertu nahi badugu. Izan ere, usu pentsatzen dugu nortasunari lotu adierazpen eta aldarrikapenak krisian diren gizarteetan, gizarte “atzeratueta”, “feudaleta” edo “tradizionaleta” baizik ez direla gertatzen. Tentsio etniko azkarrak bizitzen dituzten gizarte afrikarretan ere, azalpen horiek ez dute dena esplikatzen, historialari eta antropologo batzuen lanek erakusten duten bezala: hauen arabera, ohituraren erresistentzia edo garapen txar baten adierazlea baino, esperientzia kolonialari eta gaurko Estatuaren ernatzeari lotu ekoizpen historiko bat da etnizitatea.

Erran nahi baitu mundu garaikide honetan nortasun arazoa pausatzeko modua modernitatearen ekoizkin bat dela –gutxi-asko kaotikoa, dudarik gabe–, eta ez hainbeste nola edo hala sinbolizatu zuen mundu zahar baten adierazpena.

Beraz, nortasuna ez da gehiago kideztapen modu zaharkitutzat pentsatu behar, batzuek hala hartzen badute ere. Zilegitasuna kentzeko

asmoz, hauek diote aurrerapen, modernitate eta unibertsalismoarekin elkartezina dela. Paradigma jakobino honen kontrako hartuz, ondoko hipotesia egiten dut: nortasun aldarrikapenak, bestetasunari irekiak badira eta garbitasun etnikoa goستن duten tribu-ideologiei lotuak ez badira, demokraziaren muga berri bat direla. Izan ere, nortasun arazoak pausatzen duena kultur askatasun, berdintasun eta duintasun arazoa da, azken gai hauek Pierre Bayle, John Locke edo Voltaire bezalako idazleek erlijiozko ordena edo ordena politikorako eskatu zuten tolerantziaren filosofiaren gaurkotze bat baitira. Tolerantziaren filosofo berriek, hala nola Michael Walzer-ek, Charles Taylor-ek edo Will Kymlicka-k argi eta garbi erraten dute ez dela egiazko demokraziarik kultur aniztasunaren tratamendu politiko egokirik gabe. Alain Touraine arabera –eta arrazoia ematen diot–, lehenbait lehen onartu behar da “kultur aniztasuna dela izpiritu demokratikoak lehenetsi behar duen helburu nagusia” (Touraine, 1993: 319).

Funtsean, unibertsalismo abstraktu baten izenean tribalismo atzerakoien ifernura baztertzea baino, garrantzitsua da kultura berezitasunak modernitate politikoaren ekoizkin gisa aztertu eta problematika demokratiko baten arabera tratatzea.

2/ Bigarren hipotesia, aurrekoari lotua: *globalizazioa prozesu kontraesankor eta paradoxikoa da. Egia da gizartearen homogeneizazio zerbait eragiten duela, baina ber-denboran prozesu orokor horren indigenizazio moduak sortzen ditu, egile batzuek **glokalizazioa** deitzen dituztenak.*

Neologismo honetan sartzen diren fenomenoak honako hauek dira: egokitzea, interpretazioa, berreskuratzea, bai eta kanibalizazioa ere. Kanpoko kultura forma nagusiak fenomeno guzi hauek hunkituak dira tokiko kultura formekin topo egiterakoan. Mestizaje horiek ez dira globalizazioaren ezaugarri hegemonikoaren aurkakoak. Seinlatzen dute menperatuak diren kulturak ez direla sekula pasiboak, eta halako egoeretan maiz berpizten direla. Jean-Loup Amselle-k “adarkatzearen” metafora erabili du tokiko eta

globalaren arteko artikulazioak azaltzeko: adierazle planetario batzuk tokiko adierazi batzuek desbideratuak dira. “Gainaldea” “behereak” lokalki eraldatua da. Eta adibidetzat hartzen du Maliko N’ko mugimendua, kultura etniko baten –mandingue kulturaren– bertsio berria dena, kultura arabiar-musulmanari zein kultura europarrei egin dizkien maileguetan (Amselle, 2001). N’ko mugimendua “mandingue” izeneko kulturaren berrasmatzea da globalizazioaren aroan. Kasu hori ez da bakarra eta adibideak biderka genitzake bai Afrikako eremuan, bai eta Europako kultura gutxiengodunen esparruan ere. Askari dugu pentsatzea sorkuntza sinkretiko anitz berrinterpretazio horietatik atera direla, izan dadin musika, arkitektura, hizkuntza edo erlijio arloan. Arjun Appadurai antropologo indiarrek dinamika globalatan gertatzen diren eraldaketa lokalizatuko prozesu horiei buruzko teoria bat eratu du (Appadurai, 2001). Erakusten digunez, kultura nortasuna ohiturari baino mundu globaleko dinamiken tokiko sustraitzeari lotuagoa da, kultura markatzaileen ezaugarri ezegonkorra agerian utziz. Azken hauek “iraganeko betierekotasunean” finkatzen dituzten ikusmolde eta hizkuntza kulturalista klasikoei aurka eginez, erakusten du kultura nortasunak berritasunez eta kanpoko ekarpenez aberasten direla, beren logiken arabera moldatu eta eraldatuz. Erabat britaniarra den “cricket” bezalako kirolaren indigenizazioaren kasua Indian, haren liburuaren kapitulu batean aztertzen duena, adibide zinez esanguratsua da.

Ororen buru, gogoan atxik dezagun globalizazioa tokiko kultura nortasunen birdefinitze iturri bat ere badela. Hauen irudimena obratzen du, une jakin batean, kultura ezaugarri baten bertsio bat baizik ez den “ohitura” eraldatzeko. Kultura bat ohitura horretan kosta ahala kosta gorde nahi izatea, aniztasunen ekoizpenaren historia ukatu eta ghetto batean konfinatzea da.

3/ *Gaurko munduaren ezaugarri nagusiak diren populazio mugimenduek eta informazio eta komunikazio teknologia berriek “adarkatze” eta artikulazio horiek sustatzen dituzte.* Izan ere, aurreko lerrokan azertu ditudan fenomenoak ez dira berriak gizadiaren historian. Kolonizazioak eta, orokorkiago konkista guziek globalizazioa ekoiztu dute; baina migrazioek nahiz informazio eta komunikazio teknologia berriek lasterragotu dituzte mugimendu horiek. Lurraldean lehertzea eta nortasun forma berrien sortzea eragin dituzte. Azken hauek bitarteko nortasunak edo nortasun zatituak dei ditzakegu eta nire iduriko, nortasun ekoizpen garaikideen ezaugarri interes-

garrienerarik osatzen dute. Alabaina, iduritzen zait bloke bateko nortasunen garaia joana zai-gula. Nahi eta nahi ez, ez gara gehiago euskaldun, zulu ala frantsesak duela mende bat izan ginen bezala. “Arlekin” moduko gizabanakoak gara, Michel Serres (1991) filosofo gaskoiak adierazi duenez. Gure nortasunak ez dira gehiago lursailek edo administrazio-mugek zedarrituak. Anitz, sinkretiko, deszentratu, ibiltariak dira. Bilakaera horiek kontuan ez hartzea gure nortasunen geroa eta hauen kudeatze demokratikoa modu errealistan pentsatzea debekatzea da. Alde batetik ez da gehiago gizarte homogeneorik kultura ikuspuntutik (inoiz existitu badira ere), bestetik gizabanako bakoitza, nahitaez, esperientzia desberdinez eginga da. Isolamendurik ezagutzen ez duen mundu zapartatu batean bizi gara. Montaigne-k jadanik erron zuen bere *Saiakeretan*: “Ez dut izana margotzen, iragaita margotzen dut” (III. liburua, 2. kapituluua: “Damuaz”). Inoiz baino gehiago, denok iragaita horretan gara, hau da, mugimenduan.

Mendebaldeko European, inmigratortik atera erkidegoen garrantzi demografikoak mugimendu problematika hori are hautemangarriago bihurtzen du; gainera, ipar-Afrika eta Afrika beltzetik, besteak beste, etorritako populazio horiek, nahiz European finkatuak izan, jatorrizko herrialdeekiko harreman tinkoak atxikitzen dituzte –hain zuzen ere informazio eta komunikazio teknologia berriei esker–. Herrialdera maiz egiten dituzten bidaiak ere konexio-kultura hori mantentzen dute. Populazio horiek hangoak eta hemengoak dira; hemengoa izateak esanahi desberdinak izan ditzake: Berbere marokiar bat edo Senegaleko Peul bat supra edo azpi-estatuko kidezapenetan sar daiteke, europar, euskaldun, katalan, okzitaniar, Tolosar edo Marseillekoa izanez. Bitarteko nortasun horiek nazio, etniko edo tokiko nortasunen birmoldatzean ere parte hartzen dute –nabarmena da musika adierazpideen arloan: okzitaniar esparruari dagokionez, aski da *Fabulous Trobadors* edo *Massilia Sound System* taldeak entzutea–. Gure kultura nortasunek ematen dute gero eta mestizatuagoak direla, nortasunari eta integrazioari buruzko gure ikusmolde zaharrak astindu, korapilatu eta aberastuz. Kulturaren ikusmolde kontserbatzaile baten izenean mestizaje horiek kontuan ez hartu edo ukatzen dituztenak modernitatearen dinamikei iragazgaitzak diren nortasun “erreserbatan” babesten dira.

4/ *Nortasun dinamika horiek kidezapen modu individualizatuagoetan ere sartzen dira. Hauek ez dira bakarrik herentziari eta usadioari*

lotuak, baina inoiz baino gehiago pertsonaren banakako hautuari. Nortasunak, esleituak baino aldarrikatuak dira. “Egia da talde, erkidego, erlijio batean sortzen garela; nazio edo etniko jatorria badugu baina gehienetan hautatua: erabakitzen dugu jatorri horretan mantentzea ala ez, egotea ala ez, edo belaunaldi bat edo batzuen buruan jatorri horretara itzultzea ere. Halako erabaki bat hartzen dugu pertsona gisa ukatua ez izan, erreferentzia-puntuak ukan, ekintzarako gaitasun bat adierazi, gure bizitzaren bidea marraztu, gure esperientzia menperatze-ko. Bi hitzez, subjektibitatea desberdintasunaren osagai nagusi bihurtzen da”, azaltzen du Michel Wieviorka soziologoak (2001: 142).

Beraz, neurri antolatutako nortasunak baditugu, pertsonaren autonomia markatzen dutenak, kidezapenei plastikotasun zerbait emanaz. Erkidegoa ez da gehiago arbasoek zehaztu eta ohituraren lege gogorrek arautu kultura multzo bat, baizik eta pertsona autonomoen elkarte bat. Norberak katalan, euskaldun, musulman izatea hautatzen du, hautu horiek gida ditzaketen egoerak baldin badira ere. Nortasunen indibidualizazioa kidezapenen dinamiketan eragileak daukan tokiaren lekukoa da.

5/ *Nortasunen ekoizpenean azpimarratu ditudan aldaketek ez dute kultura gutxiengodunen hauskortasuna ezkutatu behar.* Hauetarik batzuek benetako bizkortasuna erakusten badute ere, bizirik irauten dutela frogatuz, beste batzuk egoera larriagoan daude. Hizkuntzalariek maiz atzarrarazten gaituzte “hizkuntzen heriotzari” lotu **kultura hondamendien** berri emanaz (honela deitu bere liburu ospetsuan, Claude Hagège-k seinalatzen du hamabostero hizkuntza bat desagertzen dela (Hagège, 2000)). Pierre Clastres etnologoak etnozidioaren kontzeptua garatu du kulturen desagertze fenomeno horiek ezagutarazi eta aztertze-ko. Badirudi historiaren mugimendu natural bati dagozkiola, baina errealitatean, aurrerapen eta nazio-integrazioaren izenean eratu kultura desberdintasunen kentze-ko sistema programatu batean oinarritzen dira (Clastres, 1980). Gaur egun, sei mila hizkuntza inguru inbentoriatuak izan dira; baina adituen arabera, hauetarik hiru mila desagertuko dira XXI. mendean, bi mila lauhun galzorian direlarik. Juan de Dios Luque Duran-en iduriko, “munduko hizkuntzetarik 90% arriskuan dira, erran nahi baitu milaka urtetan metatu hizkuntza eta kultura ondasunaren parte handi bat betiko

galduko dela” (Luque Duran, 2005: 54). Badirudi estatuko politikak direla aniztasunaren eta desberdintasunaren gutxitze horren errudunak, hizkuntza aniztasunak ez baitituzte kontuan hartu eta nazio-batasunaren obsesioa izan baitute. Instituzio onarpenik eta eremu publikoan lekurik ez badute, hizkuntza gutxiengodunak desagertzera kondenatuak dira, zeren gaurko munduan ez baitute bizirik irauten ahalko eremu pribatuan baizik ez badira erabiltzen. Hizkuntza amankomun baten sustapen bortxatua dararmaten politika guziek etnozidioa eragiten dute. Estatu anitzek ez dituzte halako praktikak alde batera utzi. Gutxi ezagutua den Txinaren kasua aipa dezakegu: 2001eko lege batek “putonghua” izeneko hizkuntza (mandarin-txineran oinarritua) Errepublika popularreko hizkuntza ofizial bakartzat izendatu du. Horra nazio-batasunaren kontzeptio erabat etnozentriko horien adibide adierazgarri bat. Geroari begira, hizkuntza afrikar nagusiak ere arriskuan daude, bereziki frantsesaren guztiahaltasunaren aurrean, frantsesa Administrazioaren eta hezkuntzaren hizkuntza abantzu bakarra baita Frantziako kolonia ohietan. Nahiz gaur egun nazioarteko erkidegoak gizadiaren ondare aberats horretaz gehiago zaintzen duen, mobilizazio handiak beharko liriteke unibertsalismoztat maiz baliatuak diren eta bestea norberari mugatzen duten unitarismo eta “berdintze” asmakeria horiek erabat geldiarazteko. Ondareztat tratatu eta honen izenean zilegitasun bat emateko ordez, iduritzen zait hizkuntza eta kultura gutxiengodunak hobeki defendatzen ditugula hauen gaurkotasun eta bizkortasuna azpimarratuz.

Ororen buru, erronka horiei hobeki erantzun ahal izateko, hizkuntza eta kultura gutxiengodunak sustatzen dituzten taldeek, elkarteek eta instituzioek ez lukete bakarrik gogor egin behar iragan eta ohitura idealizatuen izenean. Antropologoek, soziologoek eta psikologoek berriki aztertutako gaurko nortasun problematikek gure mundu globalizatuan agerian uzten dituzten eraldaketa, mestizaje, adarkatze guziak kontuan hartu eta azpimarratu behar lituzkete. Ikuspuntu horretatik, baliteke globalizazioa, eragiten dituen mugimendu, berrikuntza eta askatze guziekin batera, nortasunak bestela pentsatzeko parada ere izatea gure mundu modernoan.

Christian Coulon
Zientzia Politika Irakaslea
Bordeleko Ikerketa Politikoetako Institutua

1. Sarrera

1.1. ZERGATIK ETA ZERTARAKO EUSKAL NORTASUNAREN AZTERKETA

Zertan dira euskal nortasuna eta euskal kultura XXI. mendearen hasiera honetan? Zer eta nolakoa da euskal nortasuna herritarren iritziz? Zein eduki edo kontzeptu lotzen ditugu euskal kulturarekin? Euskal Herriko biztanleek zenbateraino identifikatzen dute beren burua nortasun eta kultura horrekin? Gisa honetako hainbat galderatik abiatu da ikerketa hau egiteko asmoa. Izan ere, nortasun kolektiboen osagaiak, nortasun desberdinak dituzten taldeen bizikidetzeta eta kulturen arteko harremanak gure gizartean gaurkotasan handiko gaiak dira azken urteotan. Hortaz, XXI. mendearen hasierako egoera identitario aldakor, nahasi eta interesgarri honetan, herritarren usteetan euskal nortasunak eta euskal kulturak zein paper betetzen duen aztertzeko nahiak bultzatu du eskuartean duzun lana.

Helburua beraz, Euskal Herriko¹ biztanleek euskal nortasunari eta kulturari buruz dituzten pertzepzio, iritzi eta jarrerak aztertzea izan da. Gaiaren inguruan eginiko lehen hurbilpen bat da, baina zenbait alderdi sakontasunez, eta ikuspuntu desberdinetatik aztertu dituen, eta beraz, errealitatearen isla osatu xamarra eskaintzen duena.

Aurrez argi gera bedi lan honen asmoa ez dela euskal nortasuna zer den edo zer ez den definitzea, are gutxiago zer izan behar duen edo zer ez, eta noski, ezta euskal herritarren definizioa ematea ere. Aztergaia Euskal Herriko biztanleek (beren burua euskal herritar gisa definitzen dutenek eta ez dutenek) euskal nortasunaren eta euskal kulturaren inguruan dituzten pertzepzio, iritzi eta jarreraren multzoa izan da, gure gizartea hobeto ulertzen eta aurrera begira egin daitezkeen egitasmoei bidea argitzen lagunduko duelakoan.

Zeregin horretan, gure muga eta gabeziekin ez ezik, aztergai ditugun kontzeptuen zailtasun propioekin ere egin dugu topo, ezinbestean. Kultura eta nortasun kontzeptuetatik urratsak ematen hastea, bide interesgarri bezain labainkorretik abiatzea da. Giro akademikotan bai *kultura*, baita *identitate* edo *nortasun* kontzeptuak ere oso landuak -inoiz baino lan-

duagoak- dira eta,aldi berean, oso eztabaidatuak, hainbat diziplinaren baitan.

Kontzeptu horien gainean dauden zalantzez eta eztabaidez jabetuta, begi-bistakoa da halako gaiak lantzeak bere baitan daraman zailtasuna, bidearen nondik norakoak finkatzen saiatzen garen lehenbiziko unetik. Hasteko, ezin dugu ahaztu kulturak eta nortasun kolektiboek bai elkarrekin, bai bestelako osagai soziopolitikoekin loturak eta harremanak ere badituztela. Begi bistakoa da kultura eta identitatearen arteko harremanak estuak direla eta haien arteko eragina, ziurrenik bi norabideetako delat. Horrek guztiak, jakina, are gehiago korapilatzen du gure lan-esparrua.

Lan honetan lurraldea, nortasuna, hizkuntza, kultura, kultur praktikak eta elkarte bizitzari buruzko pertzepzio eta iritzia aztertu dira. Euskal identitatea eta kulturarekin lotutako gaien aukeraketarako, zer ikertu, zer galdetu erabakitzeke orduan, aurreko beste ikerketa batzuek, baina baita ikerle-taldearen aurreiritziek, suposizioek edo identitatea eta kultura ulertzeko modu jakin batzuek ere eragina izango zuten, noski; aukeraketa hori erabat bestelakoa ere izan zitekeen; baina zailtasunak zailtasun, eta mugak muga, lan honen ekarria euskal nortasunaren gaur egungo egoera ulertzeko aurrera pausoa izango dela uste dugu, egindako landa-lanaren aberastasuna eta erabilitako azterketa moten aniztasuna kontuan hartuta.

Lana osatzeko erabilitako epearen luzeak garbi adierazten du kontzeptu labain horiek azertzearen konplexutasuna, baita Euskal Herri osoan ikerketak egiteak berez dakartzan zailtasunak berak ere. Izan ere, lurraldez-lurraldeko errealitate desberdinak modu egokian jasotzeko helburuak, ikerketa tokiko errealitatera egokitzeko beharra sortzen baitu, eta aldi berean, eremu osorako baliagarri izango diren ondorioak bilatzeak, ikerketaren planteamendua lurralde guztietan ahalik eta antzerakoena izatea eskatzen baitu. Horrek guztiak, ikerketa prozesuan zehar sortutako aldaerek eta bestelakoek, desiragarri litzatekeena baino gehiago luzatzea ekarri badu ere, ikerle taldeak lanaren aberastasunaren mesedetan izan delako ustea du.

Euskal nortasuna eta euskal kulturari buruz, guk dakigunez, Euskal Herri osoa lan eremutat hartuz egindako lehenengo ikerketa izaki, eztabaida eta ikerketa ildo berrien abiapuntu izango dela espero dugu.

1. Ikerketa eremua Euskal Herri osoa izan da, hau da Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako lurraldeak.

1.2. LANAREN EGITURA

Eskuartean duzun lanak, sarrera honez gainera, ondoko atal nagusiak ditu (horietako bakoitzari buruzko xehetasun gehiago topatuko dituzu metodologia atalean):

- ▶ Metodologia eta informazioaren aurkezpena: Zehaztasun metodologikoak eta txostenaren egituraren nondik-norakoak azaltzen dira.
- ▶ Informazioaren azterketa: Atal honetan ikerketarako bildutako informazioa azaltzen da, zenbait azpiataletan antolatuta:
 - Emaidza orokorrak: Inkesta, eztabaida taldeak eta banakako elkarrizketak erabiliz jasotako informazioaren emaitzak, sei gai nagusitan sailkatuta: lurraldea, nortasuna, hizkuntza, euskal kultura, kultur praktikak eta elkarte bizitza.
 - Herritarren kategorizazioa euskal nortasunaren ikuskeraren arabera: Inkestaren bidez jasotako informazioaren sintesia, euskal herritarrak iritzien arabera sailkatuz.
 - Euskal kultura eta euskaltasunari buruzko iritziak Interneten: Interneten gai hauen inguruan aurkitutako iritzien azterketaren emaitza nagusiak.

- ▶ Ondorio eta gogoetak: Jasotako informazioa eta bestelako erreferentziak kontuan hartuta egindako hausnarketa, emaitzen interpretazio hutsetik haratago, aurrera begira euskal nortasunak eta euskal kulturak dituzten erronka nagusien inguruko gogoeta.

Bestalde, liburu honekin batera doan CDan, ondoko dokumentuak aurkituko dituzu:

- Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean EAE), Nafarroako Foru Komunitateko (aurrerantzean Nafarroa) eta Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako (aurrerantzean Iparraldea) azterketa kualitatiboak.
- Inkestaren emaitzak lurraldez-lurralde (EAE, Nafarroa eta Iparraldea).
- Interneten euskal kultura eta euskaltasunari buruz aurkitutako iritzien azterketa osoa.
- Inkestarako erabilitako galdesortak.
- Eztabaida taldeetan eta elkarrizketetan erabilitako gidoia.

2. Metodologia eta informazioaren aurkezpena

2.1. INFORMAZIO BILKETA

Hiru informazio bilketa desberdin egin dira, herritarrek euskal kulturari eta euskal nortasunari buruz dituzten pertzepzio, iritzi eta jarrerak aztertzeko: Batetik, aldagai jakin batzuen arabera sortutako taldeekin eztabaida taldeak eta banakako elkarrizketak egin dira. Bestetik, inkesta bidez, galdera zehatz batzuek egin zaizkio herritarren lagin errepresentagarri bati. Eta azkenik, interneten euskaltasunari eta euskal kulturari buruz dauden iritzien azterketa bat egin da, gainerako informazioaren osagarri.

Eztabaida taldeen eta elkarrizketen bidezko lanak ez du errepresentagarritasun estatistikorik, ez iritziak kuantifikatzeko asmorik, aldiz pertzepzio, iritzi eta jarreretan sakontzea du xede; herritarrek aztertutako gaien inguruan dituzten ideiak eta irudiak eta egiten dituzten loturak aztertzen ditu.

Inkestaren bidez jasotako informazioa, aldiz, baliagarri izan da iritzi edo jarrera jakin batzuk biztanleriarengan zenbateraino zabaldua dauden jakiteko eta hainbat aldagai soziodemografiko eta jarrerazkoren arabera osatutako taldeek nolako pertzepzio, iritzi eta jarrerak dituzten jakiteko.

Azkenik, interneten bidezko informazio bilketak, jendeak, inor galdezka joan gabe botatuko iritziak aztertzeko aukera eman du, ikertzaileek planteatutako gaiei buruz baino, jendeak euskaltasunaren inguruan aipatzen ditueni buruzko azterketa ahalbidetu du.

Hiru informazio moten erabilera bateratuak euskal herritarrek beren identitateari, hizkuntzari eta euskal kulturari buruz dituzten pertzepzioak modu zabal eta osatuan ikertzeko aukera eman du². Jarraian informazio bilketa horietako bakoitzari buruzko xehetasunak azalduko ditugu.

2.1.1. Eztabaida taldeak eta banakako elkarrizketak

Informazio bilketa 2004ko urria eta 2005eko uztaila bitartean egin da; guztira 22 eztabaida talde, 7 elkarrizketa eta hiru bizitza-istorio labur egin dira.

Eztabaida taldeak bi motakoak izan dira, zein bere dinamikarekin. Alde batetik, talde orokorrak deitu litezkeenak eratu dira eta bestetik “berariazko taldeak”; talde orokorretako kideak, gaiari buruzko ezagutza berezirik gabeko pertsonak, aldagai jakin batzuen arabera hautatu dira. EAE n eta Nafarroan seina talde orokor bildu dira eta Iparraldean lau. Horrelako taldeen profila ondoko irizpide hauei jarraiki zehaztu da:

- Kokapen geografikoa: lurralde bakoitzeko zonalde desberdinetan egin dira taldeak.
- Euskalduna / ez euskalduna³: euskara jakitea edo ez jakitea bereizgarri nagusietako bat izan zen EAEko eztabaida taldeak eta Nafarroako taldeetako batzuk sortzeko orduan.
- Euskaltzalea / ez euskaltzalea: Nafarroako beste talde batzuetan eta Iparraldeko taldeetan, euskararen ezagutzaren orde euskaltzaletasuna erabili da taldeak osatzeko aldagaitzat. Beraz, euskaltzaleen taldeetan sartu dira euskararekiko atxikimendua, euskal kulturarekiko jarrera positiboa eta euskal munduarekiko hurbiltasuna adierazten zuten pertsonak eta ez euskaltzaleen taldeetan, aldiz, euskararekiko atxikimendurik adierazi ez dutenak eta euskal mundua axola gabe eta kanpotik ikusten dutenak.
- Adina: hau ere aldagai nagusietako bat izan da talde batzuk taxutzeko, gazteek (20-35 urte), helduek (36-55 urte), edo tarteko adinekoek (25-50 urte) osatutako taldeak sortu ziren.
- Landa edo hiri ingurunea: eztabaida talde gehienak Euskal Herriko hiriburuetan sortu arren, taldeak eratu ziren landa aldekatzat jo litezkeen beste toki batzuetan ere.
- Kostaldea edo barrualdea: bereizkuntza hau soilik Iparraldean baliaitu da, lurralde horrek berezkoak dituen ezaugarriak aintzat harturik.

Gainera, EAEko taldeetako partaideen profila zehazterakoan beste bi bereizgarri hartu dira

2. Interneten bidez egindako informazio bilketak, euskal herritarren pertzepzioak baino, euskaltasunari buruz iritziak adierazi dituztenenak (euskal herritar izan ala ez) azterzea ahalbideratu du.

3. Ez euskaldun terminoa erabili da, ohikoagoa den *erdaldunen* orde, gaur egun euskaldun guztiak elebidun izanik, *erdaldun* deitu ohi diren horiek bereizten dituen ez baita erdararen ezagutza, euskara ez ezagutzea baizik.

kontuan, garrantzi gutxiago eman bazaie ere: batetik, jatorria, hau da, Euskal Herrian jaiok izan edo ez, eta bestetik, haien gurasoak ere Euskal Herrian jaiok izan edo ez.

Esan bezala, talde orokorrez gain, bigarren talde mota bat zehaztu da: “berariazko taldeak” deitu zaie, bakoitzeko kideak gizarte esparru jakin batetik edo ezaugarri zehatz batzuen arabera aukeratu direlako, bereizketa horiek emankorrak izango zirelakoan ikerketarako. Profil berezkoagoaz edo neurtuagoaz gain, talde horiek hiru lurraldeetako –EAE, Nafarroa eta Iparralde– pertsonekin osatu dira.

Ondoko esparruetako taldeak egin dira:

- Hezkuntza
- Euskalgintza
- Kultura
- Hedabideak
- Gizarte mugimenduak
- Mugaz gaindiko ekintzak edo jarduerak

Iparraldean talde gutxiago sortu ziren, eta desoreka hori konpentsatzearen lurralde horretan elkarrizketa sakonak egin zitzaizkien ikerketako gaietan adierazgarri diren zenbait pertsonari. Hona hemen elkarrizketatutako horiek:

- Kultura-programatzaile bat. Ez euskalduna.
- Biarritzeko kultura zerbitzuetako teknikari bat. Ez euskalduna.
- Euskaraz lan egiten duen aktore-ablesari bat.
- Iparraldeko elkarte mugimenduko ordezkari bat, gazteak lan-munduratzean jarduten duena. Euskalduna.
- Frantziako alderdi sozialistako politikari bat, ardura politikoak dituena (bere eginkizunak kultur alorrekoak dira). Euskalduna.
- Euskarazko hedabideetan diharduen kazetari bat.
- Iparraldeko elkarte mugimenduko ordezkari bat; urte asko daramatza gazteen arteko kultur topaketak antolatzen ingurune euskaldunenean. Euskara ulertzen du.

Azkenik, komenigarri ikusi zen profil oso berezia duten hiru pertsonarekin ere lan egitea, daukaten esperientzia pertsonalagatik edo ibilbi-

de profesionalagatik ekarpen biziki interesgarriak egin zitzaizketelakoan berez konplexu samarrak diren ikergai hauetan. Hala, bada, bizitza-historia labur bana egin zen hiru pertsona hauekin:

- Euskal diasporako pertsona bat.
- Politikako eta gizarte mugimenduetako militante bat.
- Sorkuntzaren munduari lotutako pertsona bat.

Landa lan kualitatiboa Kualitate Lantaldea, Stat’Adour, eta Aldia enpresek egin zuten.

2.1.2. Inkesta

Informazio bilketa 2004ko urriaren 5etik 22ra egin zen EAEn, urriaren 5etik azaroaren 5era Nafarroan eta Iparraldean irailaren 30etik azaroaren 15era, galdesorta egituratu eta itxia erabiliz, EAEko, Nafarroako eta Iparraldeko lagin adierazgarri bati etxean egindako banakako elkarrizketa bidez.

Lagina, 16 urte edo gehiagoko biztanleek osatua, honela banatu zen: 1.204 pertsona EAEn, 1.008 Nafarroan eta 1.610 Iparraldean; beraz 3.822 pertsona elkarrizketatu ziren guztira. EAEn eta Nafarroan gizabanakoen hautaketa prozedura polietapiko eta estratifikatuaren bidez egin zen, ausazko ibilbideak erabiliz, ondoren pertsonak sexuaren, adinaren eta lan egoeraren arabera kuoten bidez aukeratuz. Emaitzak EAEko eta Nafarroako lurraldeetako eta horien baitako zonaldeetako biztanleria zentsuaren arabera haztatu dira. Iparraldean prozedura estratifikatua erabili da, sexua, lanbidea, adina eta bizilekuaren arabera. Ondoren udalerrien tamainaren arabera haztatu dira datuak.

3.822 pertsonako lagin horri dagokion lagin errorearen estimazioa, erabat ausazkoak diren laginketel egozgarria, \pm %1,61 da Euskal Herri osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik.

Landa lana Ikertalde eta Stat’Adour enpresek egin dute.

2.1.3. Interneteko edukien azterketa

2004ko uztailaren 1a eta 2005eko ekainaren 30 bitartean interneten sartutako edukiak hartu dira bilaketa oinarritzat.

Eduki horien artean: eusk- erroa edo hainbat hizkuntzatako haren aldaerak dituzten testuak bilatu dira (eusk-, vasc-, basqu-, bask-...). Testu horien artetik, alde batera utzi dira pertsona baten iritzia adieraztera bideratu gabekoak (erakundeen web-etakoak, egunkariak,....). Gelditu zaizkigunen artetik, politikari, ekonomiari edo datu estatistikoei erreferentzia egiten dietenak ere alde batera utzi ditugu, euskaltasuna eta kulturarekin zerikusi zuzenagoa izan dezaketenak hartzeko.

Ondoren jasotako iritzien eduki azterketa egin da. Horregatik, zenbait kasutan kuantifikazioaren bat egin bada ere analisiaren muina euskaltasunarekin eta euskal kulturarekin lotura duten hainbat gai, termino eta alorren azterketa kualitatiboa da.

Azterketa honetarako landa lana Sistemas Judo enpresak egin zuen.

2.2. EDUKIEI BURUZKO ARGIBIDEAK

2.2.1. Informazioaren azterketa

2.2.1.1. Emaidza orokorrak

Sei gai aztertu dira: Lurraldea, Nortasuna, Hizkuntza, Euskal kultura, Kultur praktikak eta Elkarte bizitza.

Gai horietako bakoitzari buruz, bi informazio eskaintzen dira:

2.2.1.1.1. Inkestaren emaitzak

Inkestaren emaitza nagusiak aurkeztu dira, gaika sailkatuta, herritar guztien erantzunak batearata kontuan hartuz eta baita herritarrak irizpide desberdinen arabera taldekatuta ere. Taldekatze horiek egiteko, hainbat aldagai soziodemografiko eta jarrerazko erabili dira, hala nola:

- Lurraldea: *Euskal Autonomia Erkidegoa (aurrerantzean EAE); Nafarroako Foru Komunitatea (aurrerantzean Nafarroa); Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa (aurrerantzean Iparraldea).*
- Sexua: *gizonezkoa; emakumezkoa.*
- Adin taldeak: *16-29; 30-45; 46-64; >=65.*
- Euskararen ezagutza: *Ez (ez du batere hitz egiten edo hitz batzuk soilik); Pixka bat; Bai (ongi edo oso ongi hitz egiten du).*

- Jatorria: *Etorkina; Euskal Herrikoa eta gurasoetako bat edo biak etorkinak; Euskal Herrikoa eta gurasoak ere bai.*

- Nortasun sentimendu nagusia⁴: *Gehienbat nafarra; Euskal herritarra-nafarra; Gehienbat euskal herritarra; Nafarra-espainiarra; Euskal herritarra-espainiarra edo euskal herritarra-frantsesa; Gehienbat espainiarra edo frantsesa; Bestelakoak.*

Datuak, besterik aipatu ezean, goitik beherako ehunekoetan aurkezten dira.

Interesgarritzat jotzen denean, lurraldez lurralde ere aparteko taulak aurkeztuko dira, esate baterako, galderaren izaera bera medio, inkestatuei eskainitako erantzun aukerak lurraldez lurralde desberdinak izan direnean.

Inkestaren emaitzen bukaeran, ondorio nagusiak laburbiltzen dituen taula bat eranstean da.

Horrez gainera, lan honekin batera doan CD-an inkestako galdera bakoitzaren datuak aurki daitezke, lurraldez-lurralde, *zonaldea, sexua, adina, euskararen ezagutza, jatorria eta nortasun sentimendu nagusia* aldagaien arabera.

2.2.1.1.2. Azterketa kualitatiboaren emaitzak

Eztabaida taldeen bileretatik eta banakako elkarrizketetatik ateratako ondorio nagusiak laburbiltzen dira, Lurraldea, Nortasuna, Hizkuntza eta Euskal Kultura gaiei buruz. Kultur praktikak eta Elkarte bizitzari buruzko ataletan ez da informazio kualitatiborik aurkezten, ez baita gai horiei buruzko informazio kualitatiborik jaso.

Informazio kualitatiboaren lanketa lurralde bakoitzerako (EAE, Nafarroa eta Iparraldea) aparteko azterketetan egin da. Atal honetan, hala ere, Euskal Herri osorako emaitzak aurkezten dira, lurralde bakoitzean ateratako ondorioen sintesi bat eginez. Lurraldeen arteko aldeak aipagarriak direnean, horien erreferentzia ere egiten da.

4. Aldagai hau osatzeko, inkestatuei galdetu zaie non kokatzen duten beren burua euskal herritar-espainiar edo euskal herritar-frantses muturren arteko ardatzean (6 erantzun aukera izan dituzte). Nafarroako herritarrei gainera nafar-euskal herritar ardatzean eta nafar-espainiar ardatzean kokatzeko ere eskatu zaie. Galdera horien konbinaketatik sortu da *nortasun sentimendu nagusia* aldagaia.

Lan honekin batera doan CD-an, lurralde bakoitzean egindako azterketa kualitatiboaren txostenak aurki daitezke.

2.2.1.2. Herritarren kategorizazioa nortasun kolektiboaren ikuskeraren arabera

Korrespondentzia bitarren faktore analisia egin da, herritarren ezaugarri soziodemografikoak eta inkestan lurraldetasunaren, identitatearen eta hizkuntzaren inguruan egindako zenbait galderei emandako erantzunak kontuan hartuz. Hasiera batean Euskal Herri osorako azterketa egin da, eta ondoren lurraldez lurraldekoa. Azterketa honetarako erabilitako galderak eta aztertutako taldeak ondokoak dira:

- Adina: 16-29 urte, 30-45 urte, 46-64 urte, 65 urte edo gehiago.
 - Lurraldea: EAE, Nafarroa, Iparraldea (Euskal Herri mailako azterketan).
 - Zonaldea: EAEn Araba, Bizkaia, Gipuzkoa; Nafarroan Mendialdea, Iruñaldea, Erdialdea eta Hegoaldea; Iparraldean Ipar Kostaldea, Hego Kostaldea, Lapurdi barnealdea eta Behe Nafarroa-Zuberoa. (Lurraldekako azterketan).
 - Jatorria: Etorkina, Euskal Herrian jaioa eta gurasoetako 1 edo 2 etorkinak, Euskal Herrian jaioa eta gurasoak ere bai.
 - Euskararen ezagutza: Euskaldun zaharra (euskaraz daki eta lehen hizkuntza du), euskaldun berria (euskaraz daki baina ez du lehen hizkuntza), euskaraz pixka bat daki, ez daki euskaraz.
 - Identitate sentimendu nagusia⁵: Gehienbat nafarra, Gehienbat euskal herritarra, Euskal herritarra eta espainiarra edo euskal herritarra eta frantsesa, Gehienbat espainiarra edo frantsesa, Bestelakoak.
- Auzo lurraldeen artetik hurbilen sentitzen duena: Euskal Herriko lurralde bat, Beste lurralde bat, Ed/Ee.
 - Beren buruekin gehien identifikatzen duten eremua: Bizi den herri edo hiria, Lurraldea, Euskal Herria, Estatua(Espainiakoa edo Frantziakoa), Atzerria.
 - Pertsona bat euskal herritartzat hartzeko baldintzak: Euskal Herrian jaiotzea, Euskal abizenak edo arbasoak edukitzea, Euskal Herrian bizi eta lan egitea, Euskaraz hitz egitea, Euskal Herriaren defendatzaile izatea, Euskal herritar izan nahi izatea, Euskal dantzak, kirolak edo jokoak praktikitzea eta bestelakoak.
 - Seme-alabek euskara ikas dezaten nahi izatea: Bai, Ez edo berdin zaio.

Teknika honen helburua, modu sintetiko batean herritarren iritzi eta jarreraren arteko harremanak eta iritzi horiekiko herritar talde desberdin horien kokapena aurkeztea da. Hau da, aztertutako gaiei buruz antzerako iritziak dituzten herritar taldeak definitzea; nortasuna, lurraldea eta hizkuntzari buruzko jarreraren arabera herritarrak multzokatzea.

Mapa faktorialak lagungarri izango dira kategorizazio hori grafikoki ulertzeko. Mapan, azalpe nerako adierazgarri gertatzen diren kolektiboak bakarrik aurkeztuko dira.

Mapa horretan, aztertutako iritzi desberdinak eta aldagai soziodemografiko eta jarrerazkoen arabera herritar taldeak azaltzen dira, bi ardatzen arabera kokapen jakinetan. Ezkerretik eskuinerako ardatzarekiko kokapena zirkulu batekin markatzen da, eta goitik beherako ardatzarekiko kokapena hiruki baten bidez⁶.

6. Talde bakoitzak daraman sinboloaren tamainak ez du adierazten talde horretako jende kopurua, baizik eta ardatzaren definizioan iritzi edo talde horrek daukan garrantzia. Adibidez, ezkerretik eskuinerako ardatza definitzean gehienbat espainiar edo frantses sentitzeak indar handia du, garrantzia handia du herritarrak sailkatzeko erabiliko dugun ardatz edo eragile hori osatzean, eta horregatik borobil handia erabili da kokapena markatzeko. Euskal herritar zein espainiar edo frantses sentitzeak pisu handia dauka goitik beherako ardatzaren definizioan; herritarrak sailkatzeko irizpide hori, beste batzuen artean, identitate sentimenduak markatzen du nabarmen, eta horregatik hiruki handia erabili da kokapen hori markatzeko. Horrez gainera, hirukiak borobilak baino txikiagoak dira, bigarren faktoreak (goitik beherakoak) lehenengoak (ezkerretik eskuinerakoak) baino indar gutxiago duelako jendearen iritziak azaltzeko.

5. Txosten osoan zehar erabilitako beste bi talde, nafarra-euskal herritarra eta nafarra-espainiarra, ez dira azterketa honetarako erabili, herritar guztiekiko portzentaje txikiak osatzen dituztenez, azterketa faktorialerako ez baitira egokiak. Nafarra-euskal herritarra kategorian Gehienbat euskal herritarra kategorian barneratu da eta Nafarra-espainiarra kategorian Gehienbat espainiarra/frantsesa kategorian, iritzi eta jarreretan antzekotasunik handiena duten taldeetan alegia.

Bi modutako azalpena egingo da helburu horrekin: Alde batetik, bi ardatzetako bakoitzean herritar taldeek duten kokapena azalduko dugu. Bestetik, kokapen horiek kontuan hartuz, azal dutako ikuspuntu desberdinen arabera euskal gizartean aurkitzen ditugun azpimunduak deskribatuko dira.

2.2.1.3. Euskaltasuna eta euskal kulturari buruzko iritziak Interneten

Atal honetan, hasteko Interneten aurkitutako euskal kultura eta euskaltasunari buruzko iritzien zenbait ezaugarri aurkezten dira, hala nola zein hizkuntzatan idatzita dauden eta Interneteko zer-nolako kokapenetatik datozen.

Ondoren, jasotako iritzien azterketa egingo da, gaika sailkatuta.

Jasotako emaitzak interpretatzean kontuan hartu behar da:

- Jendeak modu espontaneoan, herritarrek inork galdetu gabe emandako iritziak direla.

- Gaiari buruzko ezagutza bereziturik eduki beharrik ez duen jendearen iritziak direla.

- Interneten iritziak ematen dituen jendearen iritziak direla (beraz, ez dira gizartearen lagin adierazgarri bat, Interneten dagoenaren adierazgarri baizik).

Paperezko euskarrian, azterketa honen emaitza nagusiak topa daitezke. Txosten osoa ikusteko, honekin batera doan CDra jo behar da.

2.2.2. Ondorio eta gogoetak

Informazioaren azterketaren emaitzak aurkeztu ondoren, emaitza horiek guztiak, bestelako kanpo erreferentziak eta ikertzaile taldearen eztabaidak bilduz, informazio soiletik haratago doan gogoeta baten emaitza aurkezten da.

Atal honen helburua, euskal nortasunak eta euskal kulturak aurrera begira dituzten erronkak zeintzuk izan daitezkeen, eta horien inguruan har daitezkeen bide desberdinei buruzko gogoeta egitea da, euskal nortasuna eta kulturari buruzko eztabaida eragitearekin batera.

3. Informazioaren azterketa

3.1. EMAITZA OROKORRAK

3.1.1. Lurralde

3.1.1.1. Inkestaren emaitzak

3.1.1.1.1. Euskal Herriaren lurralde irudikapena

Herritarrek Euskal Herriaz, lurralde aldetik zein irudi duten aztertu nahi izan da galdera

honekin, Euskal Herria kontzeptua zein lurralde-ekin lotzen duten⁷.

3.1.1. Taula-1

Zure ustez zein lurraldek definitzen dute hobekien Euskal Herria?*

	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gi-zona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixkabat	Bai
Zazpi probintziak	30	30	26	35	31	29	35	35	28	17	20	35	44
EAE+Nafarroa	7	6	10	4	8	6	5	7	6	9	8	7	5
EAE	30	32	38	-	29	31	31	31	29	30	37	31	18
Iparraldea	2	1	1	10	2	2	2	2	3	2	2	3	2
Beste	23	22	14	46	23	22	21	18	24	29	22	20	25
Ez dakit zer den	1	1	3	0	1	2	1	1	2	1	2	1	1
Ez dago Euskal Herri-rik, asmakeria da	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Ed/Ee	7	7	7	3	6	8	5	6	7	11	9	4	6
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA**						
	Etor-kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etorkinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai	Gehienbat nafarra	Euskal herri-tarra-nafarra	Gehienbat euskal herri-tarra	Nafar-es-painiarra	Euskal herritarr-espainiarra/frantse-sa	Gehienbat espainiarra/frantse-sa	Bestelakoak
Zazpi probintziak	15	29	38	15	67	46	4	14	15	21
EAE+Nafarroa	5	7	8	11	12	7	8	6	3	11
EAE	41	34	22	42	6	18	62	47	30	35
Iparraldea	2	1	3	1	2	2	0	2	5	2
Beste	26	19	23	17	9	23	14	24	34	17
Ez dakit zer den	2	2	1	5	2	1	3	1	1	1
Ez dago Euskal Herri-rik, asmakeria da	0	0	0	0	0	0	2	0	0	1
Ed/Ee	10	7	5	9	2	4	7	6	12	11
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Inkestatuei eskainitako erantzun aukerak ez dira berberak izan lurralde guztietan. Eman gabeko erantzun aukerei dagozkien laukitxoak hutsik agertzen dira. Hurrengo taulan azaltzen dira zehazki lurralde bakoitzeko inkestatuei emandako aukera guztiak.

** Aldagai honi buruzko argibide gehiago *Metodologia eta datuen aurkezpena* atalean *Nortasuna* kapituluari topa daiteke.

7. Galdera honi emandako erantzunak interpretatzean kontuan hartzekoa da galderak berak aukera ematen duela modu desberdinetan ulertzeko eta beraz erantzunak ere ziurrenik ez dituela jende guztiak zentzu berean eman: litekeena da zenbaitek Euskal Herria osatzen duten lurraldeei

buruz erantzutea, bestelako hausnarketarik egin gabe, eta beste batzuek aldiz Euskal Herriaz duten ideala edo euskaltasunari egotzen dizkioten ezaugarriak gehienbat zein lurraldetan ikusten dituzten adieraztea.

Euskal Herriaren bi ideia dira gehien zabaldua daudenak: bata Euskal Herria EAE, Nafarroa eta Iparraldeko zazpi lurraldeek osatuta ikusten duena (biztanleen %30ek dute ideia hori) eta bestea Euskal Herria EAArekin identifikatzen duena (beste %30ek dute). %7ren ustez EAE eta Nafarroak definitzen dute hobekien Euskal Herria eta %2ren ustez Iparraldea. Bestelako erantzunak eman dituztenak %23 dira. Azken horien artean, hurrengo taulan ikus dezakegun bezala, lurralde bakoitzean proposatutako erantzun aukera desberdinak ditugu: Nafarroan eta batez ere EAEn askok esan dute Gipuzkoa eta Bizkaia definitzen dutela hobekien Euskal Herria (%14k eta %22k hurrenez hurren) eta Iparraldeko herritarren %31k esan dute Iparraldeko barnealdeak definitzen duela hobekien.

Argi dago beraz lurraldeen arabera alde handiak daudela Euskal Herriaren lurralde irudikapenari buruz:

EAEn lehen aipatutako joera nagusitzen da.

Nafarroan beste lurraldeetan baino handiagoa da Euskal Herria EAArekin identifikatzeko joera.

Iparraldean aldiz Euskal Herria zazpi lurraldeek osatzen dutela diotenak gainerako lurraldeetan baino gehiago dira eta bigarren erantzun aipatuena da Iparraldeko barnealdeak definitzen duela hobekien Euskal Herria.

3.1.1. Taula-2

Zure ustez zein lurraldek definitzen dute hobekien Euskal Herria?

	EAE		NAFARROA		IPARRALDEA	
Euskal Herriko zazpi probintziak	30	Euskal Herriko zazpi probintziak	26	Euskal Herriko zazpi probintziak	35	
EAE	32	EAE	38	Hegoaldea (EAE+Nafarroa)	4	
EAE+Nafarroa	6	EAE+Nafarroa	10	Iparraldea	10	
Iparraldea	1	Iparraldea	1	Iparraldeko barnealdea	31	
Bizkaia+Gipuzkoa	22	Bizkaia+Gipuzkoa	14	Iparraldeko kostaldea	16	
Ez dakit Euskal Herria zer den	1	Ez dakit Euskal Herria zer den	3	Ez dakit Euskal Herria zer den	0	
Ez dago Euskal Herririk, asmakeria da	0	Ez dago Euskal Herririk, asmakeria da	1	Ez dago Euskal Herririk, asmakeria da	0	
Ed/Ee	7	Ed/Ee	7	Ed/Ee	3	
(Ehuneko bertikalak)	100	(Ehuneko bertikalak)	100	(Ehuneko bertikalak)	100	

Euskal Herriaren kontzeptu zabalena (EAE, Nafarroa eta Iparraldea barne hartzen dituena) 45 urtetik beherakoek, euskaraz ongi dakitenek, bai beraiek bai gurasoak Euskal Herrian sortutakoek, eta beren burua gehienbat euskal herritartzat edo euskal herritar eta nafartzat dutenek adierazi dute batez ere.

Aldiz, Euskal Herria EAE bezala identifikatzen dutenak gehiago dira euskaraz ez dakitenen eta etorkinen artean, baita gehienbat nafar,

nafar eta espainiar, edo euskal herritar bezain espainiar edo euskal herritar bezain frantses sentitzen direnen artean ere⁸.

Kontuan hartu behar dugu galdera honetan euskaraz *Euskal Herriaz* galdetu denean gazte-

8. Taldekako joera horiek ez dira berdinak lurralde guztietan. Datu horietan sakontzeko ikus CDan, Inkestaren datuak lurraldeka 3, 30 eta 61. orriak.

laniaz *País Vasco* eta frantsesez *Pays Basque* terminoak erabili direla. Euskaraz ez dakiten guztiek, jakina, erdaraz egin dute inkesta, eta beraz *País Vasco/ Pays Basque* kontzeptuari buruz eman dute iritzia; euskaldunei berriz aukera eman zaie inkesta nahi zuten hizkuntzan egiteko, eta honela, batzuek euskaraz egin dute (eta beraz *Euskal Herriari* buruz erantzun dute) eta

beste batzuek erdaraz (eta beraz, *País Vasco/ Pays Basqueri* buruz erantzun dute). Hasiera batean, pentsa daiteke kontzeptua adierazteko erabilitako hitzak berak izan dezakeela eraginik erantzunetan, hau da, jendearen erantzunak desberdinak izango direla *Euskal Herriaz* edo *País Vascoz / Pays Basquez* galdetuta. Datuei begiratuta, hala dela dirudi.

3.1.1. Taula-3

Zure ustez zein lurraldek definitzen dute hobekien Euskal Herria?

	EUSKALDUNAK GUZTIRA	INKESTA EGIN DEN HIZKUNTZA	
		Gaztelaniaz/ Frantsesez	Euskaraz
Zazpi probintziak	44	38	59
EAE+Nafarroa	5	6	4
EAE	18	20	12
Iparraldea	2	3	1
Beste (Bizkaia+Gipuzkoa, Kostaldea, Barnealdea)	25	27	18
Ez dakit zer den	1	1	0
Ez dago Euskal Herririk, asmakeria da	0	0	0
Ed/Ee	6	6	6
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100

Taulan ikus dezakegun bezala, inkestari hizkuntza batean edo bestean erantzun izanak badu eraginik emandako erantzunetan. Euskaldunak bakarrik kontuan hartuta, inkestari euskaraz erantzun diotenenek (*Euskal Herriari* buruz erantzun dutenek) joera handiagoa azaldu dute Euskal Herriaren kontzeptu zabalarenarekiko, gaztelaniaz edo frantsesez *País Vasco* edo *Pays Basqueri* buruz erantzun dutenek baino.

Beraz, esan dezakegu euskaldunen eta euskaraz ez dakitenen artean badagoela aldeirik lurralde irudikapenean, baina euskaldunen artean ere, erabilitako terminoa *Euskal Herria*

izan edo *País Vasco/Pays Basque* izan, lurralde horren irudikapen desberdina dutela⁹.

3.1.1.1.2. Lurraldeen arteko harremanak

Galdera honen bidez aztertu nahi izan da euskal herritarrek zenbaterainoko harremana duten beraiek bizi diren lurraldea ez, Euskal Herriko beste lurraldeekin.

9. Baliteke beste efektu baten ondorio izatea ere: inkesta gaztelaniaz edo frantsesez egin duen euskaldunak Euskal Herria EAerekin identifikatzeko joera handiagoa izatea, inkesta euskaraz egin duen euskaldunak baino. Ez da lan honen egitekoa gai honetan sakontzea, baina hurrengo lanetan aztertzea izan daiteke.

3.1.1 Taula-4

Auzo lurraldeen artetik zeinekin duzu harreman gehien?*

	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
Euskal Herriko lurralde batekin	43	41	58	33	45	42	45	48	43	35	34	43	60
Beste lurralde batekin	39	40	31	51	38	40	39	39	38	39	45	45	25
Ed/Ee	18	20	11	16	17	19	15	13	19	26	21	12	15
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						
	Etor-kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etorkinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai	Gehienbat nafarra	Euskal herri-tarra-nafarra	Gehienbat euskal herri-tarra	Nafar-es-painiarra	Euskal herritarrak-espainiarra/frantsesa	Gehienbat espainiarra/frantsesa	Bestelakoak
Euskal Herriko lurralde batekin	28	38	55	46	91	52	35	33	20	46
Beste lurralde batekin	47	46	31	40	4	32	49	47	58	32
Ed/Ee	25	15	15	13	5	16	16	20	21	22
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Inkestatu bakoitzari bizi den lurraldearekin muga duten lurraldeei buruz egin zaie galdera, eta ondoren sailkatu dira *Euskal Herriko lurraldeak* eta *Beste lurraldeak* kategorietan.

Euskal herritarrek harreman gehixeago dituzte Euskal Herriko beste lurraldeekin, muga-kide dituzten gainerako lurraldeekin baino. %43k esan dute Euskal Herriko beste lurralde batekin dutela harreman gehien, eta %39k Euskal Herrikoak ez diren bestelako lurralde batzuk aipatu dituzte harreman handienekotzat.

Nafarroako herritarrek gainerakoek baino neurri handiagoan aipatu dituzte Euskal Herriko lurraldeak harreman handienekotzat. EAEn artean oso antzerako portzentajeak osatzen dituzte Euskal Herriko lurraldeak aipatu dituzte-

nek eta beste lurralde batzuk aipatutakoek eta Iparraldean aldiz erdiek baino gehixeagok (%51) Euskal Herrikoak ez diren beste batzuekin dute harreman gehien.

Harreman gehien Euskal Herriko beste lurraldeekin dutela diotenak gainerako taldeetan baino gehiago dira euskaldunen artean, bai eurak bai gurasoak Euskal Herrian sortutakoen artean eta gehienbat euskal herritar, edo nafar eta euskal herritar sentitzen direnen artean.

Hurrengo taulan lurralde bakoitzean eskainitako erantzun aukeren datuak aurkezten ditugu:

3.1.1. Taula-5

Auzo lurraldeen artetik zeinekin duzu harreman gehien?

	EAE		NAFARROA		IPARRALDEA
Nafarroarekin	36	EAErekin	54	Euskal Herriko Hegoaldearekin	33
Iparraldearekin	5	Iparraldearekin	4	Landekin	20
Kantabriarekin	15	Aragoiekin	14	Biarnoarekin	14
Burgosekin	12	Errioxarekin	17	Gainerako Akitaniarekin	18
Errioxarekin	12	Ed/Ee	11	Ed/Ee	16
Ed/Ee	20				
(Ehuneko bertikalak)	100	(Ehuneko bertikalak)	100	(Ehuneko bertikalak)	100

Lurralde bakoitzean emandako erantzun desberdinetan gehiago sakonduz, esan dezakegu EAEko herritarrek batez ere Nafarroarekin dituztela harreman gehien, Iparraldea harreman gehieneko lurraldetzat aipatu dutenak Kantabria, Burgos edo Errioxa aipatu dutenak baino gutxiago dira, %5 besterik ez.

Nafarroan ere antzera gertatzen da, harreman gehien EAErekin dute gehienek (%54), eta harremanik gehien duten lurraldea Iparraldea dela diotenak Errioxa edo Aragoi aipatu dutenak baino gutxiago dira.

Iparraldean heren batek (%33) Euskal Herriko hegoaldearekin ditu harreman gehien, %20k Landekin, %14k Biarnoekin eta %18k Akitaniako gainerako lurraldeekin.

Beraz, esan dezakegu Nafarroa eta EAeren artean harreman asko daudela eta aldiz Iparraldeak Hegoalderako joera handia badu ere, ez dela alderantziz berdin gertatzen, Nafarroak eta EAEk Iparralderanzko joera txikiagoa dute.

3.1.1.1.3. Beste lurraldeekiko hurbiltasun sentimendua

Harreman gehien zein lurralderekin duten alde batera utzita, euskal herritarrei hurbiltasun sentimendu subjektibo handiena zein lurraldek eragiten dien jakin nahi izan dugu (beren lurraldeak sortzen diena alde batera utzita, jakina).

3.1.1 Taula-6

Auzo lurraldeen artetik nondik sentitzen zara hurbilen?*

	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
Euskal Herriko lurralde batetik	46	45	57	38	50	45	50	51	47	39	36	46	68
Beste lurralde batetik	33	33	31	39	30	35	33	31	32	35	40	37	16
Ed/Ee	20	22	12	23	20	20	17	18	21	26	24	17	16
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Inkestatu bakoitzari bizi den lurraldearekin muga duten lurraldeei buruz egin zaie galdera, eta ondoren sailkatu dira Euskal Herriko lurraldeak eta Beste lurraldeak kategorietan.

Auzo lurraldeen artetik nondik sentitzen zara hurbilen?*

	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						
	Etor- kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etor- kinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai	Gehien- bat nafarra	Euskal herri- tarra- nafarra	Gehien- bat euskal herri- tarra	Nafar- espai- niarra	Euskal herritarra- espai- niarra/ frantsesa	Gehien- bat espai- niarra/ frantsesa	Beste- lakoak
Euskal Herriko lurralde batetik	25	41	62	46	95	59	31	33	19	40
Beste lurralde batetik	45	40	22	39	2	23	51	43	53	34
Ed/Ee	30	19	16	16	3	17	18	23	28	26
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Inkestatu bakoitzari bizi den lurraldearekin muga duten lurraldeei buruz egin zaie galdera, eta ondoren sailkatu dira *Euskal Herriko lurraldeak* eta *Beste lurraldeak* kategorietan.

Gehiago dira Euskal Herriko beste lurraldeetatik hurbil sentitzen direnak, mugakide diren gainerako lurraldeetatik hurbil sentitzen direnak baino. %46k Euskal Herriko beste lurralde bat aipatu dute hurbilen sentitzen duten lurraldetzat eta %33k Euskal Herriko kanpoko lurralde bat.

Iparraldeko biztanleen artean txikiagoa da Euskal Herriko lurraldeekiko hurbiltasun sentimendua; gainerako euskal herritarrek baino gehiago jotzen dute mugakide dituzten beste lurraldeekiko (Biarriorekiko, Landekiko e.a.) hurbiltasun sentitzera.

Aipatzekoa da halaber, aurreko atalean ikusitako datuekin alderatuta, Euskal Herriko

lurraldeekiko hurbiltasun sentimendua benetako harremana baino zabalduago dagoela.

Hurbiltasun sentimendurik handiena Euskal Herriko lurralde batek sortzen diela esan dute gainerako taldeetan baino gehiago dira euskaldunen artean, bai bera bai gurasoak Euskal Herriko jaiotakoaren artean eta gehienbat euskal herritar edo euskal herritar eta nafar sentitzen diren artean.

Ondoko taulan, lurralde bakoitzean eskainitako erantzun aukerei dagozkien datuak aurkezten ditugu:

3.1.1. Taula-7

Auzo lurraldeen artetik nondik sentitzen zara hurbilen?

	EAE		NAFARROA		IPARRALDEA
Nafarroatik	38	EAEtik	54	Euskal Herriko hegoaldetik	38
Iparraldetik	7	Iparraldetik	4	Landetatik	14
Kantabriatik	12	Aragoitik	14	Biarnotik	10
Burgosetik	10	Errioxatik	16	Gainerako Akitaniatik	15
Errioxatik	11	Ed/Ee	12	Ed/Ee	23
Ed/Ee	22				
(Ehuneko bertikalak)	100	(Ehuneko bertikalak)	100	(Ehuneko bertikalak)	100

Lurraldeen arteko aldeak aurreko galderan aurkitutako ildotik doaz, hau da hurbiltasun sentimendua ez da berbera Euskal Herriko lurralde guztien artean. EAEko eta Nafarroako biztanleak elkarrengandik hurbil sentitzen dira, baina Iparraldearekiko hurbiltasun sentimendua, Espainiako

estatuko beste lurralde batzuekiko baino txikiagoa da. Iparraldeko herritarren artean hegoaldeko lurraldeekiko hurbiltasun sentimendua dago zabalduen (%38), baina mugakide diren Frantziako estatuko beste lurraldeetatik hurbil sentitzen direnak batuz, gehixeago dira azken horiek (%39).

3.1.1.1.4. Euskal Herriko lurraldeen arteko mugimenduak

3.1.1. Taula-8

Euskal Herriko gainerako lurraldeetara joateko ohitura*

	GUZTIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gi-zona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
Bai	65	61	76	79	68	63	62	73	71	51	59	70	75
Ez	33	37	24	21	30	36	37	26	28	48	40	30	24
Ed/Ee	1	2	0	0	2	1	2	1	1	2	1	0	2
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						
	Etor-kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etorkinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai	Gehienbat nafarra	Euskal herritarranafarra	Gehienbat euskal herritarra	Nafar-espainiarra	Euskal herritarr-espainiarra/frantsesa	Gehienbat espainiarra/frantsesa	Bestelakoak
Bai	53	57	76	66	97	72	67	55	56	64
Ez	45	41	23	34	3	27	33	44	43	33
Ed/Ee	2	2	1	0	0	1	0	1	1	3
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Inkestatu bakoitzari bizi den lurraldeaz gainerakoei buruz galdetu zaio. Adibidez Nafarroan honakoa galdetu da zehazki: "EAEra edo Iparraldera joaten zara?"; berdin beste lurraldeetan.

Euskal Herriko biztanleen %65ek Euskal Herriko beste lurraldeetara joateko ohitura dute eta beste %33 aldiz ez dira joaten. Nafarroako eta batez ere Iparraldeko herritarren artean EAEkoen artean baino joera handiagoa dago beste lurraldeetara joateko, hau da, Iparraldekoen artean gehiago dira Nafarroara edo EAEra joateko ohitura dutenak EAEko herritarren artean Iparraldera edo Nafarroara joaten direnak baino.

Euskaldunen, Euskal Herrian jaio eta gurasoak ere bertakoak dituztenen eta gehienbat euskal herritar edo nafar eta euskal herritar sentitzen direnen artean gainerakoen artean baino gehiagok dute beste lurraldeetara joateko ohitura.

3.1.1.1.5. Euskal Herriko gainerako lurraldeetara joateko arrazoi nagusia

3.1.1. Taula-9

Zertara joaten zara gehienbat?*

	GUZTI-RA*	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
Denbora pasan, tabernetara, jatetxeetara	53	58	57	10	52	54	50	51	53	60	49	49	60
Bazterrak, museoak, erakusketak bisitatzera	21	23	11	34	20	23	19	22	23	20	22	22	20
Mendira, hondartzara	9	7	18	0	11	6	11	10	7	6	10	8	7
Erosketak egitera	8	2	6	52	6	10	9	8	7	8	11	6	6
Kirola egin edo ikustera	3	3	2	1	4	1	4	3	2	0	2	6	2
Euskarazko ikuskizunetara	1	1	1	1	0	1	2	0	1	0	0	1	1
Bestelako kultur ikuskizunetara	1	1	2	1	1	1	1	1	2	1	1	2	1
Ed/Ee	5	6	4	1	6	4	5	5	5	5	6	6	3
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						
	Etor-kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etorkinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai	Gehienbat nafarra	Euskal herri-tarranafarra	Gehienbat euskal herri-tarra	Nafar-es-painiarra	Euskal herritarr-espainiarra/frantse-sa	Gehienbat espainiarra/frantse-sa	Bestelakoak
Denbora pasan, tabernetara, jatetxeetara	47	50	56	55	60	57	60	50	33	49
Bazterrak, museoak, erakusketak bisitatzera	25	25	18	11	6	22	13	26	26	21
Mendira, hondartzara	7	8	10	20	16	8	17	5	3	10
Erosketak egitera	14	6	7	7	4	3	3	9	31	9
Kirola egin edo ikustera	2	4	2	2	6	2	2	3	3	4
Euskarazko ikuskizunetara	0	1	1	1	1	1	0	0	0	0
Bestelako kultur ikuskizunetara	1	1	1	2	2	1	2	0	0	1
Ed/Ee	4	5	5	3	5	5	4	6	4	6
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Aurreko galderan Euskal Herriko beste lurraldeetara joaten direla adierazi dutenei bakarrik galdetu zaie (biztanleriaren %65).

Bi arrazoi nagusi daude Euskal Herriko beste lurraldeetara joateko: Denbora pasa, taberna edo jatetxeetara joatea (%53) eta bazterrak, museoak edo erakusketak bisitatzea (%21). Mendira edo hondartzara joaten dira %9 eta erosketak egitera %8.

Nafarroan beste lekuetan baino gehiagok dute mendira edo hondartzara beste euskal lurraldeetara joateko ohitura eta Iparraldean aldiz EAera edo Nafarroara joateko gehien aipatutako arrazoia erosketak gitea da (%52).

3.1.1.1.6. Norberaren identifikazio eremua

3.1.1.1. Taula-10

Zein lurralderekin identifikatzen zara gehien?*

Batezbestekoa (0-3)	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixkibat	Bai
Bizi den herri edo hiriarekin	2,4	2,6	2,2	2,0	2,3	2,5	2,4	2,3	2,4	2,5	2,4	2,4	2,5
Bere lurraldearekin (EAE/Nafarroa/Iparraldea)	1,6	1,5	2,0	1,4	1,5	1,6	1,5	1,7	1,5	1,6	1,6	1,6	1,5
Euskal Herriarekin	0,7	0,7	0,6	0,6	0,8	0,6	0,8	0,7	0,6	0,6	0,4	0,8	1,1
Espainia/Frantziarekin	0,6	0,6	0,6	1,2	0,6	0,7	0,6	0,6	0,7	0,7	0,9	0,5	0,3
Europarekin	0,2	0,2	0,2	0,4	0,3	0,2	0,2	0,2	0,3	0,2	0,3	0,3	0,2
Mundu osoarekin	0,2	0,2	0,2	0,3	0,3	0,2	0,2	0,3	0,2	0,2	0,2	0,3	0,2
Beste leku batekin	0,2	0,2	0,2	0,1	0,2	0,2	0,2	0,1	0,3	0,3	0,2	0,2	0,1

Batezbestekoa (0-3)	JATORRIA				NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA					
	Etor-kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etorkinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai	Gehienbat nafarra	Euskal herri-tarra-nafarra	Gehienbat euskal herri-tarra	Nafar-es-painiarra	Euskal herritarr-espainiarra/frantse-sa	Gehienbat espainiarra/frantse-sa	Bestelakoak
Bizi den herri edo hiriarekin	2,3	2,4	2,5	2,2	2,3	2,5	2,2	2,5	2,1	2,1
Bere lurraldearekin (EAE/Nafarroa/Iparraldea)	1,4	1,6	1,7	2,3	1,9	1,5	2,0	1,6	1,2	1,4
Euskal Herriarekin	0,3	0,7	0,9	0,4	1,4	1,2	0,1	0,3	0,2	0,4
Espainia/Frantziarekin	1,2	0,7	0,4	0,6	0,0	0,2	1,0	1,0	1,6	0,6
Europarekin	0,3	0,3	0,2	0,2	0,1	0,2	0,3	0,2	0,4	0,3
Mundu osoarekin	0,3	0,3	0,2	0,2	0,2	0,2	0,1	0,2	0,3	0,5
Beste leku batekin	0,4	0,1	0,2	0,1	0,1	0,2	0,3	0,1	0,3	0,6

* Eskaintako aukeren artean lehenik, bigarrenik eta hirugarrenik beren burua gehien identifikatzen duten eremua adierazi dute inkestaturiek. Batezbestekoa sortzeko 3 puntu eman zaizkio lehenengo aukerari, 2 puntu bigarrenari, puntu 1 hirugarrenari eta 0 puntu erantzun hori aukeratu ez duenari. Erantzuna eman dutenen datuak bakarrik hartu dira kontuan batezbestekoa kalkulatzeko.

Euskal herritarrek beren herri edo hiriarekin identifikatzen dute gehien euren burua eta ondoren beren lurraldearekin (EAE, Nafarroa edo Iparraldearekin). Hirugarrenik Euskal Herriarekiko identifikazio maila eta Espainia edo Frantzia estatuekikoa oso antzerakoak dira. Europarekin, mundu osoarekin edo beste eremu batzuekin gutxiago identifikatzen dira.

EAEko biztanleek gainerakoek baino joera handiagoa dute beren herri edo hiriarekin identifikatzeko, nafarrek euren lurraldearekin identifikatzeko eta Iparraldekoek Frantziarekin identifikatzeko. Iparraldean, identifikazio mailen hurrenkera beste lurraldeetakoaren desberdina

da, Frantziarekiko identifikazioa Euskal Herriarekikoa baino altuagoa baita nabarmen.

Euskal Herriarekiko identifikazio maila berdintsua da hiru lurraldeetan. Beste taldeetan baino altuagoa da euskaldunen artean, bai bera bai gurasoak Euskal Herrian sortuak direnen artean eta gehienbat euskal herritar edo euskal herritar eta nafar sentitzen direnen artean.

Estatuarekiko identifikazio maila bereziki zabaldua dago Iparraldean, euskaraz ez dakitenen eta etorkinen artean, baita nafar eta espainiar, euskal herritar eta espainiar edo euskal herritar eta frantses edo gehienbat espainiar edo frantses sentitzen direnen artean ere.

3.1.1.1.7. Atxikimendu sentimenduaren eremu geografikoa

3.1.1. Taula-11

Gaur egun dituzun bizi eta lan baldintza berberak izango bazenitu, non nahiago zenuke bizitzea?

	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
Bere lurraldean (EAE/Nafarroa/Iparraldea)	73	76	73	48	71	74	65	72	75	80	71	73	76
Nonahi Euskal Herrian	9	7	9	18	9	8	11	9	7	8	6	9	13
Nonahi estatuan (Espainia/Frantzia)	5	5	4	6	5	5	6	3	6	3	6	5	2
Beste	9	6	10	23	10	8	13	10	7	4	11	7	6
Berdin zait	3	3	3	2	3	3	4	4	2	2	4	3	2
Ed/Ee	2	2	1	3	2	2	2	2	2	3	3	3	1
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

	JATORRIA				NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA					
	Etor-kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etorkinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai	Gehienbat nafarra	Euskal herri-tarra-nafarra	Gehienbat euskal herri-tarra	Nafar-es-painiarra	Euskal herritarr-espainiarra/frantsesa	Gehienbat espainiarra/frantsesa	Bestelakoak
Bere lurraldean (EAE/Nafarroa/Iparraldea)	64	72	78	80	71	78	83	76	53	53
Nonahi Euskal Herrian	4	8	11	4	21	13	3	4	5	5
Nonahi estatuan (Espainia/Frantzia)	11	5	1	2	2	1	5	7	18	5
Beste	14	9	6	7	6	5	8	7	16	26
Berdin zait	4	5	2	5	0	2	1	4	4	4
Ed/Ee	4	2	1	1	0	2	0	2	4	6
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Euskal Herritar gehienak (%73), beste leku batean bizi eta lan baldintza berberak izanik ere, ez liriateke beste inora joango bizitzera, beren lurraldean jarraituko lukete. %9 Euskal Herriko edozein lekutan biziko liriateke, %5 bizi diren estatuko edozein lekutan biziko liriateke eta %9 beste leku batzuetan. Esan dezakegu beraz, euskal herritar gehienek lotura estua sentitzen dutela beren lurraldearekiko.

Iparraldeko biztanleen artean, gainerakoen artean baino gehiago dira bizi eta lan baldintza berberak izanez gero Euskal Herriko edozein lekutan biziko liriatekeenak (%18) eta bestelako lurraldeetara ere (Akitaniako beste leku batetara, Europa edo munduko edozein lekutara) joango liriatekeenak (%23).

3.1.1.1.8. Lurraldeen arteko harremanei buruzko nahia

3.1.1. Taula-12

EAE, Nafarroa eta Iparraldearen artean nolako harremanak egotea nahiko zenuke?

	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
Orain baino harreman handiagoak	50	54	45	32	55	46	51	52	52	44	38	57	69
Oraingo harreman berdinak	18	12	31	31	16	19	17	17	18	19	22	12	13
Orain baino harreman gutxiago	0	0	1	1	1	0	1	0	0	0	0	1	0
Ez dut nahi harremanak izatea	1	1	3	2	1	1	1	2	2	2	2	1	1
Berdin zait	23	26	16	21	21	26	24	22	23	25	28	23	14
Ed/Ee	7	7	3	13	6	8	7	6	5	10	9	7	4
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						
	Etor-kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etor-kinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai	Gehienbat nafarra	Euskal herri-tarra-nafarra	Gehienbat euskal herri-tarra	Nafar-es-painiarra	Euskal herritarr-es-painiarra/frantse-sa	Gehienbat espainiarra/frantse-sa	Bestelakoak
Orain baino harreman handiagoak	32	49	60	32	90	74	15	33	23	40
Oraingo harreman berdinak	20	15	17	38	8	7	49	24	25	17
Orain baino harreman gutxiago	1	0	0	2	0	0	2	0	1	1
Ez dut nahi harremanak izatea	2	1	2	4	0	0	8	1	3	1
Berdin zait	34	27	16	21	1	15	22	34	36	30
Ed/Ee	11	7	4	4	0	5	4	8	12	11
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Euskal herritarren erdiek (%50) EAE, Nafarroa eta Iparraldearen artean harreman handiagoak izatea nahi lukete eta %18k oraingo harremanak nahiago dituzte. %23k esan dute berdin zaiela.

EAEn Nafarroan eta Iparraldean baino handiagoa da harremanak gehitzearen aldeko jarraera. Gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino gehiago dira lurraldeen arteko harreman handiagoen aldekoak, emakumezkoen artean gai honen inguruko axola-gabezia zabalduago dago. Euskaldunek, Euskal Herrian sortu eta gurasoak ere bertakoak dituztenek eta euskal herritar eta nafar edo gehienbat euskal herritar

sentitzen direnek azaldu dute harreman horiek sendotzearekiko aldekatasunik handiena.

Oraingo harreman berdinak mantentzea nahiago luketenak asko dira beren burua gehienbat nafartzat edo nafar eta espainiarizat dutenen artean.

Lurraldeen arteko harreman gehiago edo gutxiago izatea berdin zaienek talde aipagarria osatzen dute etorkinen artean, baita euskal herritar bezain espainiar edo euskal herritar bezain frantses sentitzen direnen artean eta beren burua gehienbat espainiar edo frantsestzat dutenen artean ere.

3.1.1 Taula-13

Zein arlotan nahi dituzu orain baino harreman handiagoak?*

Baiezkoen %	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixkabat	Bai
Kulturaren	95	96	96	78	96	94	97	93	95	94	93	95	97
Hezkuntzan	90	91	90	67	89	90	90	89	90	90	87	88	92
Euskararen normalkuntzan	90	91	92	66	88	92	91	89	89	92	86	90	94
Ekonomian	88	89	86	75	89	87	83	90	88	92	87	88	89
Turismoan	88	89	89	61	87	88	84	85	91	91	89	86	87
Lurraldearen antolakuntzan	88	90	87	64	88	88	85	86	90	91	87	87	89
Osasunean	85	87	83	54	84	85	81	83	87	88	83	83	87
Beste alor batean	9	8	12	12	10	7	11	9	8	7	10	10	7

Baiezkoen %	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						
	Etor-kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etorkinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai	Gehienbat nafarra	Euskal herritarrak	Gehienbat euskal herritarrak	Nafar-espainiarra	Euskal herritarrak-espainiarra/frantse-sa	Gehienbat espainiarra/frantse-sa	Bestelakoak
Kulturaren	92	98	95	93	98	96	88	95	88	92
Hezkuntzan	87	88	91	85	95	92	71	87	83	84
Euskararen normalkuntzan	83	90	92	84	98	93	75	86	74	84
Ekonomian	88	88	88	83	89	90	73	86	86	86
Turismoan	86	88	88	86	91	89	79	87	83	86
Lurraldearen antolakuntzan	87	88	88	83	87	91	71	85	81	85
Osasunean	81	85	85	76	88	88	65	80	75	78
Beste alor batean	5	12	8	5	16	10	8	5	8	7

* Aurreko galderan EAE, Nafarroa eta Iparraldearen artean harreman gehiago nahi lituzketela adierazi dutenei bakarrik galdetu zaie, (biztanleriaren %50a).

Ehuneko batura ez da 100, arlo bakoitzari buruz banan-banan galdetu baita.

EAE, Nafarroa eta Iparraldearen artean harreman handiagoak nahi dituztenei harreman area gotze hori gauzatzeko arlo jakin batzuk aipatuta, gehiengo oso zabala osatzen dute kultur arloan, hezkuntzan, euskararen normalizazioan, ekonomian, turismoan, lurraldearen antolakuntzan eta osasun arloan harreman handiagoak nahi dituztenek. Hala ere, alde nabarmenak azaldu dira lurralde desberdinetako herritarren artean, aipatutako arlo horietan lurraldeen arteko harremanak sendotzeari dagokionez.

EAEko eta Nafarroako herritarrek oso antzerako iritziak agertu dituzte, baina Iparraldeko herritarren artean, (lurraldeen artean oro har harreman handiagoa egon dadin nahi dutenak bakarrik hartuz ere) beste lurraldeetan baino gutxiago dira aipatutako arloetan harremanak sendotu nahi lituzketenak. Bereziki aipagarria da EAE, Nafarroa eta Iparraldearen artean osasun arloan harremanak gehitzearen kontra azaldu diren Iparraldeko herritarren kopurua.

LURRALDEA: INKESTAREN ONDORIO NAGUSIAK

- ▶ Jendeak duen Euskal Herriaren lurralde irudikapena eta berau osatzen duten lurraldeen arteko harremanei buruzko iritzia oso lotuta daude EAEn, Nafarroan edo Iparraldean bizitzearekin, norberaren identitate sentimendurekin, euskarazko gaitasunarekin eta bai norberaren bai gurasoen sorlekuarekin.
- ▶ Euskal Herriaren bi irudikapen nagusi daude: Euskal Herria EAerekin identifikatzen duena eta *Zazpi lurraldeekin* identifikatzen duena. Horrez gainera EAEn nahikoa zabaldua dago Euskal Herria hobekien definitzen duten lurraldeak Bizkaia eta Gipuzkoa direla pentsatzeko joera eta Iparraldean Euskal Herria hobekien definitzen duen lurraldeetat Iparraldeko barnealdea hartzekoa. Euskal Herriaren ideia zonalde horietako ezaugarri edo topiko batzuekin lotzen dela dirudi.
- ▶ EAEn eta Nafarroaren artean harreman handia eta hurbiltasun sentimendu orokorra dago; Iparraldea eta Hegoaldearen artean loturak ahulagoak eta asimetrikoagoak dira: EAEko eta Nafarroako herritarren artean oso gutxi diote Iparraldea dela hurbilen sentitzen duten

auzo lurraldea, eta Iparraldekoen artean aldiz talde handi xamarra osatzen dute hurbiltasun handiena Hegoaldeko lurraldeekiko sentitzen dutenak. Herritarren erdiek lurralde horien artean harreman gehiago egotea nahi lukete, eta nahi hori bereziki zabaldua dago EAEko biztanleen artean, baina lurraldeen arteko harremanei buruzko axola-gabezia ere nahikoa zabaldua dago.

- ▶ Norbera bizi den lurraldeaz aparteko Euskal Herriko beste lurraldeekiko hurbiltasun sentimendua, lurralde horiekiko harreman erreala baino zertxobait zabaldua dago.
- ▶ Euskal herritarrek beren burua lehenik beren herri edo hiriarekin identifikatzen dute eta ondoren beren lurraldearekin. Hirugarrenik Euskal Herriarekin identifikatzen dute EAEko herritarrek, eta Frantziarekin Iparraldekoek, Nafarroakoek Euskal Herriarekiko eta Espainiarekiko antzeko identifikazio mailak adierazten dituzten bitartean. EAEko herritarren artean gainerakoen artean baino altuagoa da norbere herriarekiko identifikazio maila, nafarren artean beren lurraldearekikoa eta Iparraldekoen artean Frantziarekikoa.

3.1.1.2. Azterketa kualitatiboaren emaitzak

3.1.1.2.1. Euskal Herriaren irudikapena

Aztertutako hiru lurraldeetan Euskal Herriaren ideia ezagutzen den arren, egia da, bestalde, gehienetan Euskal Herriaren muga argi finkatzeko elementu zehatzak falta direla.

Hari beretik, ikerleek egiaztatu dute EAEn, Nafarroan eta Iparraldean iritzi desberdinak daudela Euskal Herria osatzen duten herrialde kopuruaz. Horren arabera, Iparraldean agertzen dira argien zazpi herrialdeak herritarren irudi-penetan, eta hala da euskaltzaleen zein ez euskaltzaleen artean. Hegoaldeko ez-euskaldunek, ordea, bertako lau herrialdeak bakarrik

aipatu ohi dituzte Euskal Herria zehaztean, eta batzuetan EAEko hiru herrialdeak baino ez, Iparraldeko hirurak kontuan hartu gabe, beraz. Gainera, hegoaldean (batez ere Nafarroan) Euskal Herriaren irudikapena oso lotuta dago norberaren ideologiarekin, Iparraldean ez bezala.

Euskaldunek eta euskaltzaleek, oro har, identifikazio maila handiagoa agertzen dute Euskal Herriaren ideiarekiko, eta euskaldun ez direnek eta ez euskaltzaleek, berriz, distantzia batetik ikusten dute eta zailtasun gehiago dituzte kontzeptu horri eduki zehatzak atxikitzeko.

Maiz zailtasunak izaten dira Euskal Herriaren kontzeptua errealtateko elementu zehatzekin identifikatzeko edo adierazteko. Badirudi Euskal Herria ideia bat dela, egunerokoan mamitutako errealtate bat baino gehiago. Euskal Herria zer den azaltzerako orduan euskara faktore erabakigarria da, batez ere Nafarroan eta Iparraldean; EAEn eguneroko bizitzako beste elementu batzuk ere aipatzen dira (kuadrilla, poteoa bezalako ohiturak, auzolana...).

Kasurik gehienetan Euskal Herriaren kontzeptua sinbolotzat hartzen da, eta ez administrazio bakar baten mende gauzatu beharreko egitasmo gisa. Euskal Herria ideiarekin instituzionalizazio politikoaren aukerak kontrako erreakzioa eragiten du maiz Nafarroan, Nafarroaren berezotasuna galtzarekin eta euskal nazionalismoaren inposizioarekin lotzen baitute. Iparraldean Euskal Herriaren instituzionalizazioaren aukera ez da kontsideratu ere egiten.

Euskal Herriaren kontzeptuarekin bat egiten dutenen artean ere, askotan aipamenek zerikusirik handiagoa dute sentimenduekin politikarekin baino, hau da, Euskal Herria euskal herritar oren lekua da, edo euskara erreferentzia duen esparrua. Adierazpen politikoetatik urruntze hori askoz nabarmenagoa da Nafarroan eta Iparraldean, hizkuntz eskubideak oraindik aitortu gabe egonik utopikoa ikusten baita administrazio-eremu bakarra lortzeko asmoa.

3.1.1.2.2. Lurrealdeko arteko ezagutza eta harremanak

Iparraldekoek Hegoaldeaz dakitena Hegoaldekoek Iparraldeaz dakitena baino askoz gehiago da, egia bada ere informazio hori, askotan, klixeez bahetik zehar eskuratu dutela, eta hortik pentsatzea, adibidez, Hegoaldean jende guztiak egiten duela euskaraz. Deigarria Iparraldea-

rentzat Hegoaldeak duen erreferentzialtasuna, batez ere gazteen artean. Hegoaldekoek, oro har, onartzen dute ezer gutxi dakitela Iparraldeari buruz, eta bertakoekiko harremanak urri direla. Zenbaitentzat Iparraldea eta Hegoaldearen arteko harremanak ez dira euskal herritarren artekoak, frantses eta espainolen artekoak baizik.

Nafarroan, bestalde, ez da begi onez ikusten Euskal Herriaren muina Bizkaia eta Gipuzkoarekin identifikatzeko joera. Bizkaia beti ageri da urruneko herrialde gisa, eta Gipuzkoa, berriz, aldameneko herrialdea da, bai geografikoki baita gogoan ere. Hau horrela da Iparraldean eta Nafarroako zati batean (nafar asko Gipuzkoako kostaldera eta beste tokietara joan ohi dira, eta han harremanak egiten dituzte).

Nafarroan Bizkaia euskaltasunaren gune nagusietako bat bezala ikusten da, baina zentraltasun hori urrundik eta –heinean batean– gaitzespen puntu batez ikusten da. Bizkaiatik heltzen zaizkien euskal nortasun kontzeptuari eta euskal abertzaletasunari nagusitasun gogoan daria nolabait, eta –batzuek hala diote– Bizkaiatik Nafarroan esku hartu nahi izan dute, bertako berezitasuna aintzat hartu gabe. Urruneko lurraldea da, batzuen iritziz Iparraldea baino haragokoa, eta bizkaitarren izaera estereotipo gutxiesgarri jantzita agertu ohi da: handiusteak, harroak, putzontziak.

Hala ere, nahiz eta lurraldeak elkarrengandik gutxi-asko aldenduak ageri, egia da Euskal Herriko biztanle gehienek, neurri batean, lotura bat onartzen dutela euren artean, eta lotura hori Euskal Herriatik kanpokoekin dutena baino sendoagoa dela. Iparraldeko eta Nafarroako asko, adibidez, *etxean bezala* sentitzen dira Bizkaian edo Gipuzkoan dabilzanean. Sakonago aztertu beharko litzateke, beraz, zein lokailuk –hizkuntzaz landa– elkartzen dituzten euskal herritarrak modu horretan.

3.1.1.2.3. Lurrealdeko arteko harremanak etorkizunean

Ez dirudi hizkuntzari aitortzen zaion balioa nahikoa denik Iparraldea eta Hegoaldearen arteko langa gainditzeko, eta hala azaldu da eztabaida taldeetan, haietan maiz aipatu baitira bi aldeko arteko desberdintasunak bizimoduan, jatorduetan, lanorduetan, etab. Jakin beharko litzateke, bada, etorkizunera begira, zein beste elementuk emango lieketen kolektibitate sena Euskal Herriaren ideia eta irudiari.

Izan ere, oraingo langa hori ezabatzeko nahia azaldu duten taldeetan ere hori lortzeko ekimenen beharra azaldu da, adibidez:

- garraio, komunikazio eta harreman azpiegiturak sortu eta hobetzea.
- euskara garatzea.
- mugaz gaindiko harremanak indartuko lituzketen ekitaldiak bultzatzea.
- kultur eta turismo eskaintza bateratua garatzea.
- bi aldeetako proiektu pribatuak eta bateratuak arlo ekonomikoan.
- tresna juridikoak sortzea estatu bateko eta besteko elkarrekin bat egin ahal izan dezaten.
- gizarte kontzientzia eta konpromiso politikoa garatzea.
- hedabideek ildo horretatik izan dezaketen zeregina garatzea.

Talde horietan azpimarratu da, halaber, lurraldeen arteko informazioa eta komunikazioa zabaltzeak daukan garrantzia, horrek argiago

agerraraziko lukeelako Euskal Herriaren irudia, gaur egun –esaten denez– Euskal Herriaren ideia lausoturik baitago, hein handi batean politika eta administrazio alorretara zabaldu gabea.

Iparraldean hedabideek egin beharreko lanaz ohartarazi da, Hegoaldearekiko ezaupidea eta elkarreragina eratzeko tresna litzetke eta. Lurraldean barnako eta herrialdeen arteko informazioa areagotzea ere etorkizunerako zeregina litzateke.

3.1.2. Nortasuna

3.1.2.1. Inkestaren emaitzak

3.1.2.1.1. Nortasun sentimendua: Euskal herritarra-espainiarra, euskal herritarra-frantsesa, nafarra

Euskal herritarrek nola definitzen dute nagusiki beren burua, nortasunari dagokionez? Galdera hau modu batean egin da EAEn eta Iparraldean eta beste modu batean Nafarroan; azken lurralde horretan nafartasun sentimenduen dimentsioa ere barneratu ahal izateko¹⁰. Ondokoak dira EAEko eta Iparraldeko emaitza nagusiak:

3.1.2. Taula-1

Euskal herritarra eta espainiarra/frantsesa izatearen artean, nola sentitzen duzu zure burua?

	EAE		IPARRALDEA
Euskal herritarra	40	Euskal herritarra	11
Euskal herritarra espainiarra baino gehiago	15	Euskal herritarra frantsesa baino gehiago	5
Euskal herritarra bezain espainiarra	28	Euskal herritarra bezain frantsesa	24
Espainiarra euskal herritarra baino gehiago	3	Frantsesa euskal herritarra baino gehiago	16
Espainiarra	6	Frantsesa	36
Beste	5	Beste	7
Ed/Ee	4	Ed/Ee	1
(Ehuneko bertikalak)	100	(Ehuneko bertikalak)	100
BITARIKO NORTASUNA*	46	BITARIKO NORTASUNA*	45

* Euskal herritarra espainiarra baino gehiago + euskal herritarra bezain espainiarra + espainiarra euskal herritarra baino gehiago edo euskal herritarra frantsesa baino gehiago + euskal herritarra bezain frantsesa + frantsesa euskal herritarra baino gehiago.

10. Nafarroan hiru galdera desberdinen bidez jaso da informazio hori; beraz, aurkezten ditugun datuak hiru galdera horien konbinaziotik eratorriak dira.

AEko biztanleen %40k euskal herritar bakarrik jotzen dute euren burua eta %15ek euskal herritar espainiar baino gehiago. %28 euskal herritar bezain espainiar sentitzen dira. %6k espainiar ikusten du bere burua eta %3k espainiar euskal herritar baino gehiago.

Iparraldean berriz, talderik nagusia frantses bakarrik sentitzen direnak osatzen dute (%36), %16 frantses sentitzen dira euskal herritar baino gehiago eta %24 euskal herritar bezain frantses. Euskal herritar bakarrik sentitzen dira %11 eta euskal herritar frantses baino gehiago %5.

Nortasun bikoitz guztiak bilduz gero, hau da, neurriren batean euskal herritar eta espainiar edo euskal herritar eta frantses sentitzen direnak elkartuta, EAEn %46 dira eta Iparraldean %45. Oso antzerko datua beraz. Alderik nabariena nortasun bakunetan ematen da: EAEn euskal herritar bakarrik sentitzen baitira %40 eta Iparraldean frantses bakarrik %36.

Euskal Herri osorako datuak bateratuta aztertu ahal izateko, Nafarroako biztanleenak ere barne, sailkapen eredu hau aldatu egin da, ondoko emaitzekin¹¹:

3.1.2. Taula-2

Identitate sentimendu nagusia													
	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
Gehienbat euskal herritarra	44	57	10	17	44	43	51	46	40	38	23	55	75
Euskal herritarra-espainiarra/frantsesa	23	29	0	24	22	23	21	22	23	25	25	27	16
Gehienbat espainiarra/frantsesa	12	9	5	53	12	13	7	10	15	18	20	5	3
Gehienbat nafarra	7	-	38	-	8	7	8	8	7	7	13	3	1
Nafar-espainiarra	4	-	19	-	4	4	3	3	4	6	7	0	0
Euskal herritarra-nafarra	3	-	15	-	3	3	3	3	3	1	2	5	3
Bestelakoak	7	5	13	7	7	6	7	8	7	5	9	6	3
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

	JATORRIA		
	Etorkina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etorkinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai
Gehienbat euskal herritarra	12	49	58
Euskal herritarra-espainiarra/frantsesa	30	31	15
Gehienbat espainiarra/frantsesa	33	7	4
Gehienbat nafarra	6	6	9
Nafar-espainiarra	4	2	5
Euskal herritarra-nafarra	1	2	5
Bestelakoak	15	4	4
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100

11. EAeko eta Iparraldeko datuei dagokienez, ondoko aldaketa egin da: euskal herritar bakarrik edo euskal herritar espainiar edo frantses baino gehiago sentitzen direnak *gehienbat euskal herritar* kontsideratu dira, eta espainiar edo frantses edo espainiar/frantses euskal herritar baino gehiago sentitzen direnak *gehienbat espainiar/frantses*. Gainera, erantzunik eman ez dutenak ezabatu egin dira, azterketa sinplifikatzeko.

Talderik nagusia gehienbat euskal herritar sentitzen direnek osatzen dute (%44) eta bigarren lekuan euskal herritar bezain espainiar edo euskal herritar bezain frantses sentitzen direnek (%23). %12 gehienbat espainiar edo frantses sentitzen dira. Dena dela, lurraldearen arabera, herritarrek oso modu desberdinean kokatzen dute euren burua beren identitateari dagokionez.

EAEen, aipatutako joera nagusia gailentzen da, erdia baino gehiagok (%57) diotelarik gehienbat euskal herritar sentitzen direla.

Nafarroan euskal herritar eta espainiar identitatez gain, beste bat ere agertzen da: nafar sentimendua¹². Nafarroan talderik nagusia (%38) gehienbat nafar sentitzen direnek osatzen dute hain zuzen ere, eta beste hiru talde adierazgarri ere badaude: bere burua nafar eta espainiarizat dutenena (%19), nafar eta euskal herritartzat dutenena (%15) eta gehienbat euskal herritartzat dutenena (%10).

Iparraldeko biztanleen erdiak baino gehiagok (%53) gehienbat frantses jotzen du bere burua, ia laurden batek (%24) euskal herritar bezain frantses, eta %17k gehienbat euskal herritar.

Adinaren arabera ere badaude aldeak; zenbat eta gazteago gehiago dira gehienbat euskal herritar sentitzen direnak (dena dela, adin talde guztietan horiek osatzen dute talderik handiena) eta gutxiago dira euskal herritar bezain espainiar edo euskal herritar bezain frantses sentitzen direnak eta batez ere gehienbat espainiar edo gehienbat frantses sentitzen direnak.

Halaber euskal herritar izatearen sentimendua zabalduago dago euskaldunen artean eta bai bera bai gurasoak Euskal Herrian jaioak direnen artean; espainiar edo frantses izatearen sentimendua orokorragoa da euskaraz ez dakitenen eta etorkinen artean.

Hala ere esan beharra dago adinak eta jatorriak eragin txikiagoa dutela Nafarroako eta Iparraldeko herritarren identitatean, EAEkoenean baino. Nafarroan eta Iparraldean identitate sentimendua euskarazko hizkuntza gaitasunarekin lotura handiagoa du adinarekin edo jatorriarekin baino¹³.

3.1.2.1.2. Nortasunen bilakaera

3.1.2. Taula-3

Nola sentitzen zara duela hamar urterekin konparatuz?*

	GUZ-TIRA*	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
Duela 10 urte baino espainiarago/frantsesago	3	3	1	6	3	3	4	3	3	1	4	2	1
Berdin	78	79	70	76	78	79	73	76	82	82	76	77	82
Duela 10 urte baino euskal herritarrago	12	11	18	15	12	12	12	13	11	12	12	13	11
Ed/Ee	7	7	11	3	7	7	11	8	4	4	8	8	5
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

*EAEen eta Iparraldean guztiei galdetu zaie, Nafarroan neurriren batean euskal herritar sentitzen direla esan dutenei bakarrik.

12. Identitateari dagokionez Nafarroan EAEen eta Iparraldean ez dauden faktore batzuk garrantzitsuak direla jakinik, Nafarroan gainerako lurraldeetan ez bezalako galderak egin dira, euskal herritar eta espainiar identitateak neurtzeaz gain nafar sentimendua ere kontuan hartu ahal izateko.

13. Joera honi buruzko datuetan sakontzeko ikus CDan, *Inkestaren datuak lurraldeka* 8, 9, 35, 66 eta 67. orriak.

Nola sentitzen zara duela hamar urterekin konparatuz?*

	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						
	Etor- kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etor- kinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai	Gehien- bat na- farra	Euskal herri- tarra- nafarra	Gehien- bat euskal herri- tarra	Nafar- espai- niarra	Euskal herri- arra-espai- niarra/ frantsesa	Gehien- bat espai- niarra/ frantsesa	Beste- lakoak
Duela 10 urte baino es- painiarrago/frantsesago	4	4	2	9	0	2	0	4	7	2
Berdin	76	76	80	46	65	78	38	84	81	69
Duela 10 urte baino euskal herritarrago	12	11	13	18	23	15	0	9	8	8
Ed/Ee	7	9	5	26	12	5	62	3	4	21
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

*EAEn eta Iparraldean guztiei galdetu zaie, Nafarroan neurriren batean euskal herritar sentitzen direla esan dutenei bakarrik.

Euskal Herriko biztanle gehienek (%78) diote duela 10 urterekin alderatuz, ez direla ez euskal herritarrago ezta espainiarrago edo frantsesago ere sentitzen. Den adela, gehiago dira orain

duela 10 urte baino euskal herritarrago sentitzen direnak (%12), espainiarrago edo frantsesago sentitzen direnak baino (%3).

3.1.2. Taula-4

Eta hemendik hamar urtetara nola sentituko zarela uste duzu?*

	GUZ- TIRA*	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparral- dea	Gizo- na	Emaku- mea	16- 29	30- 45	46- 64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
Orain baino espai- niarrago/frantsesago	1	0	1	3	0	1	1	1	1	0	1	0	0
Berdin	78	80	72	71	78	78	78	77	78	79	76	78	82
Orain baino euskal herritarrago	8	7	11	9	9	6	9	8	8	6	7	9	7
Ed/Ee	13	13	15	16	12	14	13	15	12	14	15	13	11
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						
	Etor- kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etor- kinak	Euskal Herrikoa, gura- soak ere bai	Gehien- bat na- farra	Euskal herri- tarra- nafarra	Gehien- bat euskal herri- tarra	Nafar- espai- niarra	Euskal herri- arra-espai- niarra/ frantsesa	Gehien- bat espai- niarra/ frantsesa	Beste- lakoak
Orain baino espai- niarrago/frantsesago	2	0	0	3	1	0	23	1	3	1
Berdin	75	79	79	55	68	78	38	83	81	70
Orain baino euskal herritarrago	6	6	9	11	15	11	0	4	3	3
Ed/Ee	17	14	11	31	16	10	38	12	13	25
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

*EAEn eta Iparraldean guztiei galdetu zaie, Nafarroan neurriren batean euskal herritar sentitzen direla esan dutenei bakarrik.

Etorkizunari dagokionez ere, jende gehienak dio berdin sentituko dela (%78), baina %8k uste dute gaur egun baino euskal herritarrago sentituko direla eta %1ek bakarrik gaur egun baino espainiarrago edo frantsesago sentituko direla.

Badirudi EAEn identitate sentimendua finkatuago dagoela, jende gutxiagok izan du edo espero du aldaketarik. Nafarroan gainerako lurraldeetan baino gehixeago dira (%18) duela 10 urte baino euskal herritarrago sentitzen direnak, baita hemendik 10 urtera euskal herritarrago sentituko direla uste dutenak ere (%11).

Iparraldean %15ek diote duela 10 urte baino euskal herritarrago sentitzen direla, baina beste lurraldeetan baino gehixeago dira (talde txikia osatuz ere) bai lehen baino frantsesago sen-

titzen direnak (%6) baita etorkizunean frantsesago sentituko direla uste dutenak ere (%3).

Azpitalde guztietan gutxiengoa izanik ere, Nafarroan eta Iparraldean, batez ere gazteenen eta euskaraz ez dakitenen artean izan da euskal nortasuneranzko azken 10 urteotako bilakaera hau eta euskaraz pixka bat dakitenen artean dago zabalduen datozen hamar urteetarako euskal herritarrago sentituko diren ustea¹⁴.

3.1.2.1.3. Euskal nortasunaren osagaiak

Pertsona bat euskal herritartzat hartzeko baldintzarik garrantzitsuenak zeintzuk diren galdetuta, herritarrek euskal identitatea zer-nolako elementuetan oinarritzen duten ikertu nahi izan da.

3.1.2. Taula-5

Zure ustez zeintzuk dira bi baldintza garrantzitsuenak pertsona batek bere burua euskal herritartzat izateko?*

	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
Euskal herritar izan nahi izatea	42	46	41	14	42	42	44	47	41	35	35	46	51
Euskal Herrian bizi eta lan egitea	41	46	31	24	41	41	35	42	45	41	43	45	35
Euskal Herrian sortua izatea	39	36	42	53	38	39	47	36	35	39	44	37	30
Euskaraz hitz egitea	17	16	10	40	17	17	22	14	17	17	11	8	34
Euskal herriaren defendatzaile izatea	16	17	13	13	16	15	15	15	16	17	14	16	18
Arbaso euskaldunak izatea	9	5	16	31	9	9	11	8	9	10	12	7	5
Abizen euskaldunak izatea	4	3	7	6	4	4	4	3	4	6	5	4	2
Euskal dantzak, musika, kantua edo antzerkia praktikatzeari	1	1	1	2	1	1	1	1	1	1	1	1	0
Euskal kirol edo jokoak praktikatzeari edo zalea izatea	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	0
Beste baldintza bat	3	3	5	3	4	2	4	3	3	2	2	6	3
Ed/Ee	4	4	8	3	4	5	2	5	4	7	6	3	1

* Batura ez da 100, bi baldintza aipatzeko aukera zegoelako.

14. Aipatzekoa da halaber, Iparraldean, dirudienez, euskararen gaitasuna baino gehiago ari dela zabaltzen euskal nortasun sentimendua. Lurraldez lurralde euskal identitate-ranzko joera horien xehetasunetan sakontzeko ikus CDan, *Inkestaren datuak lurraldeka* 9, 10, 36, 67 eta 68. orriak.

Zure ustez zeintzuk dira bi baldintza garrantzitsuenak pertsona batek bere burua euskal herritartzat izateko?*

	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						
	Etor- kina	Euskal He- rrikoa, guraso 1-2 etor- kinak	Euskal He- rrikoa, gura- soak ere bai	Ge- hien- bat na- farra	Eus- kal herri- tarr- na- farra	Ge- hien- bat euskal herri- tarr- a	Nafar- espai- niarra	Euskal herrita- rra-espai- niarra/ frantsesa	Gehien- bat espai- niarra/ frantse- sa	Beste- lakoak
Euskal herritar izan nahi izatea	33	40	48	33	58	51	39	38	24	40
Euskal Herrian bizi eta lan egitea	49	43	35	26	32	37	32	58	39	37
Euskal Herrian sortua izatea	32	46	38	50	25	34	48	43	45	36
Euskaraz hitz egitea	15	12	22	8	17	23	8	10	22	14
Euskal herriaren defendatzaile izatea	12	16	17	13	19	21	4	11	10	13
Arbaso euskaldunak izatea	11	9	8	17	11	5	17	8	18	12
Abizen euskaldunak izatea	4	4	5	11	3	3	4	3	5	7
Euskal dantzak, musika, kan- tua edo antzerkia praktikatzea	1	1	1	1	2	1	2	1	1	1
Euskal kirol edo jokoak prakti- katzea edo zalea izatea	1	1	1	1	0	1	1	1	1	2
Beste baldintza bat	2	3	4	3	12	4	1	2	1	3
Ed/Ee	8	3	3	9	1	1	12	3	6	8

* Batura ez da 100, bi baldintza aipatzeko aukera zegoelako.

Herritarren ustez pertsona bat euskal herritar kontsideratzeko baldintza garrantzitsuena berak horretarako nahia izatea litzateke (%42k bi baldintza garrantzitsuenen artean aipatu dute) eta ondoren Euskal Herrian bizi eta lan egitea (%41) eta Euskal Herrian sortua izatea (%39). Jende gutxiagok aipatu ditu beste baldintza batzuk, hala nola euskaraz hitz egitea (%17), Euskal Herriaren defendatzaile izatea (%16), eta arbaso euskaldunak (%9) edo abizen euskaldunak (%4) izatea.

Lurraldeen artean alde nabarmenak daude euskal herritartasunaren baldintzei buruzko iritzietan. EAEn gainerako lurraldeetan baino garrantzi handiagoa ematen zaio euskal herritar izateko nahiari eta Euskal Herrian bizi eta lan egiteari. Nafarroan EAEn baino gutxiago aipatu dira baldintza horiek eta aldiz garrantzi handiagoa eman zaio Euskal Herrian sortua izateari. Iparraldean azken hori izan da pertsona bat euskal herritartzat hartzeko baldintza bezala gehien aipatu dena, eta horrekin batera euskaraz hitz egitea eta arbaso euskaldunak izateari eman zaio garrantzi gehien. Aipatzekoa da Iparraldean

askoz gutxiago aipatu dutela beste lurraldeetan baino euskal herritar izateko borondatea.

Aipagarria da halaber bere burua euskal herritartzat ez dutenek, hau da gehienbat espainiar edo frantses, gehienbat nafar edo nafar eta espainiartzat dutenek, gainerakoek baino gehiago lotzen dutela euskal identitatea sorlekuarekin eta arbasoen jatorriarekin. Euskal herritar izan nahi izatea baldintza garrantzitsutzat dute hauek ere, baina gainerakoek baino neurri txikiagoan.

Euskal identitate markatuena dutenek aldiz gainerakoek baino garrantzi handiagoa eman diote euskal herritar izateko borondateari, Euskal Herriaren defendatzaile izateari eta euskaraz hitz egiteari.

Euskal Herrian bizi eta lan egitea pertsona bat euskal herritartzat hartzeko baldintza bezala ikusten dutenak asko dira kolektibo guztietan, baina bereziki beren burua euskal herritar zein espainiar edo euskal herritar zein frantses ikusten dutenen artean.

Joera horietan ere lurraldearen arabera bada desberdintasunik¹⁵.

Pertsona bat euskal herritartzat hartzeko baldintzen artean etorkinek garrantzi berezia ematen diote Euskal Herrian bizi eta lan egiteari, bai beraiek bai gurasoak Euskal Herrian jaiotakoak direnek aldiz gainerakoek baino gehiago azpimarratzen dute euskal herritar izan nahi izatearen garrantzia eta euskaraz hitz egitearena.

Euskal Herrian jaiotakoak eta gurasoetakoak bat edo biak kanpokoak dituztenen artean aipatzekoa da Euskal Herrian jaiotakoak izateari ematen zaion garrantzia pertsona bat euskal herritartzat hartzeko garaian.

Espero zitekeen moduan, euskaldunentzat pertsona bat euskal herritartzat hartzeko baldintza nagusienetakoa da euskaraz hitz egitea, gainerako herritarrentzat bigarren mailako baldintza den bitartean.

IDENTITATEA: INKESTAREN ONDORIO NAGUSIAK

- ▶ Euskal Herriko hiru lurraldeen artean alde nabarmenak daude identitatearen gaiari dagokionez:
 - **EAEn** gehienbat Euskal Herritar sentitzen direnek gehiengo osatzen dute, eta identitatea nahikoa finkatua dagoela dirudi, herritar gehienek ez dute uste sentimendu hori azken 10 urteotan aldatu denik, ezta hurrengo 10 urteetan aldatuko denik ere. Euskal herritar nortasuna norberaren borondatean eta Euskal Herrian bizi eta lan egitean oinarritzen dute batez ere.
 - **Nafarroan**, euskal herritar eta espainiar sentimenduak beste identitate indartsu batekin nahasten dira, nafar izatearen sentimenduekin. Honela, talderik handiena gehienbat nafar sentitzen direnek osatzen dute, eta ondoren bai nafar bai espainiar sentitzen direnek eta bai nafar bai euskal herritar sentitzen direnek. Azken urteotan euskal herritar sentimendua areagotzen ari dela dirudi. Nafarrek euskal identitatea Euskal Herrian sortua izatearekin eta euskal herritar izateko nahiarekin lotzen dute gehien.
 - **Iparraldean** aldiz jende gehienak gehienbat frantses kontsideratzen du bere burua, hor ere euskal herritar sentimendua pixka bat

areagotzen ari dela badirudi ere. Iparraldeko herritarrek Euskal Herrian sortzearekin, euskaraz hitz egitearekin eta arbasoen jatorriarekin lotzen dute euskal nortasuna batez ere.

- ▶ Euskal herritar sentimendu markatuena dutenek gehiago jotzen dute euskal herritar izateko baldintzat horretarako nahia aipatzera eta espainiar edo frantsesago sentitzen direnek aldiz gainerakoek baino gehiago sorlekuari eta arbasoei dagozkien baldintzak aipatzera. Joera horiek nahikoa desberdinak dira hala ere lurralde batetik bestera. Euskal identitatearen osagaiei buruzko iritzietan lurraldeen arteko aldeek nortasun sentimenduen arabera baino eragin handiagoa dutela esan daiteke.
- ▶ Badirudi Nafarroan eta batez ere Iparraldean euskal herritar izatea *berezko* ezaugarritzat hartzen dela gehiago, jaiotzetik datorren ezaugarritzat, eta EAEn berriz norberak eskuratutako ezaugarrien arabera definitzen dela gehiago euskal herritartasuna. Salbuespena euskaraz hitz egitearen baldintza litzateke, norberak eskura dezakeen ezaugarri bat izanik, Iparraldean, EAEn eta Nafarroan baino neurri handiagoan hartzen baita euskal herritartasunaren oinarritzko elementutzat¹⁶.

15. Ikus CDan, *Inkestaren datuak lurraldeka* 10, 37 eta 69. orriak.

16. Hurrengo atalean ikusiko dugun bezala, hala ere, euskaraz hitz egitea Iparraldean beste inon baino gehiago da *berezko* ezaugarria, familiarik jasotakoa, lurralde horretako euskaldun ia guztiek etxean jaso baitute euskara; euskaldun berriak gutxi dira lurralde horretan.

3.1.2.2. Azterketa kualitatiboaren emaitzak

3.1.2.2.1. Nortasun sentimenduen mapa

Nortasuna hizpide, lehenbiziko hausnarketa batek agerian uzten du lurralde batetik bestera samurragoa edo zailagoa dela nortasunen arteko bizikidetzeta lortzea. Izan ere, hiru lurraldeetan onartzen da badagoela lurralde horretako herritar gehienak batzen dituen nortasun bat; haatik, nortasun bakarra da, baina ez berbera lurralde guztietan.

EAEn, esaterako, euskal herritar sentimendua ez da kuestionatzen, eta nagusi den nortasun horren inguruan, beste nortasun batzuk azaltzen zaizkigu (estatuko beste lurraldeetatik etorkin etorri zirenek sendo eusten diote beren jatorriarekiko loturari: Andaluzia, Gaztela, Galizia...).

Nafarroan herrialde horretako berezkotasuna da biztanle gehienek bere hartzen duten nortasuna (bertako guztiak nafar sentitzen dira). Iparraldean gutxi egiten diote uko frantsestasunari, baina aldi berean euskal herritar sentitzeak ez die kontraesan handirik sortzen; izan ere, beharbada Iparraldean onartzen da beste inon baino normalago norbaitek maila bereko bi nortasun edukitzea, beste lurraldeetan gehiago baitira nortasun bat bestearen aurrean jarri beharrean sentitzen direnak (espainiarra baino euskal herritarragoa, nafarra ororen gainetik...).

Nafarroan eta Iparraldean badira (EAEn ia ez bezala) euskal nortasunari buruz *kanpotik* hitz egiten dutenak, haren partaide sentitu gabe. Bi lurralde horietan, eroso, *normala* da euskal nortasunetik kanpo bizitzea; EAEn oso gutxi dira neurriren batean behintzat euskal herritar sentitzen ez direnak. Nafarroan, izan ere, euskal herritar ez izatea edo ez sentitzea, talde bereizgarri nagusietako bat izateraino iristen da zenbait kolektibo jakinetan, *bestearen* fotokopia negatiboa balitz bezala. Badirudi nafarren berezitasunak baino euskal herritar ez izateak markatzen duela horien nortasuna.

Nortasunen mapan, sarritan tokiko beste nortasun batzuk ere azaleratzen dira. Hori askoz nabarmenagoa da Nafarroan, nafartasunaren ideia duela gutxi instituzionalizatu izanak lekua utzi baitie tokiko beste nortasunei. Horregatik, hain zuzen ere, Nafarroan norbanakoek nortasun gehiago dituzte aukeran bere burua toki bateko edo besteko aurkezteko orduan (erriberakoa, erronkariarra...).

roan agertu da hain justu ere norberaren identitatea definitzerakoan malgutasunik handiena. Euskara eta euskal ohiturak galdutako zenbait eskualderen kasuan –Pirinioak, adibidez– nortasun batekiko atxikimenduaren gakoak norberaren erabakia da, norberaren borondateak indar handiagoa du familiak, inguruak edo bestelako eragileek baino.

Esandakoaren erakusgarri, ez da harrizkoa etxe bateko aiton-amonak euskal hiztunak izanik seme-alabak euskal herritar ez sentitzea, eta alderantziz, horrelako familia aurrekaririk izan ez duen batek euskal kulturarekin bat egitea, uste duelako historia bera duela komun Euskal Herriko beste lurraldeekin edo gurasoak kanpokoak izan arren bertan jaioa eta sozializatua izanik, bere burua euskal herritar ikusten duelako, edo euskara ikasi eta inguru euskaldunean barneratu delako.

3.1.2.2.2. Euskal nortasunaren osagaiak

Lurralde guztietako taldeetan egiaztatu denez, indarra galduz doa nortasuna ezaugarri esentzialistenetan (itxura fisikoan, odolean, abizenetan...) bilatzeko joera; joera hori ez da desagertu, baina gero eta ahulagoa da. Aldaketa, bereziki, gazteen pentsamolde eta esanetan igartzen da, euskal nortasunaren ideia heterodoxoagoa eta malguagoa adierazten baitute.

Euskarak euskal nortasunean duen eta eduki behar duen lekuari buruz ez dago adostasunik. Euskara euskal nortasunaren funtsezko osagaitzat agertzen da nahikoa modu orokorrean, baina joera berriak ere badira. Izan ere, euskara eta euskal herritar sentimenduaren arteko lotura hori euskaldunek eta zaharrenek dute argien, eta euskararen egoera larriena den lekuetan ere zabalduago dago, bertako euskaldunek eta euskaltzaleek balore tradizionalenei heltzen baitiete euskal kulturak bizirauteko eta ez desagertzeko. Ulergarria da euskal kultura eta nortasuna kolokan ikusten dituztenek finkatuen ageri diren baloreetara jotzea, horrelakoen inguruan, gainera, errazagoa izaten baita nola-baiteko adostasuna lortzea.

Euskara euskal nortasunaren eta euskal herritar sentimenduaren ezinbesteko osagaitzat hartzeko joera motelagoa da belaunaldi gazteenetan artean, batik bat EAEko ez euskaldunen kasuan, horietako asko –baita gurasoak Espainiako estatuko beste nonbaitetik etorriak dituztenak ere– euskal herritar eta euskal kulturako

partaide peto sentitzen baitira, euskararik jakin ez arren. Gazte horien gurasoek, ordea, erlazio zuzena ikusten dute kultura eta hizkuntzaren artean, eta alde horretatik zailagoa izan zaie euskal kultura bere egitea. Haien iritziz euskal herritarra euskara dakiena da, eta haiek ez dakitenez, euskal kulturaz eta nortasunaz hitz egitean *kanpotik* egiten dute. Geroko belaunaldien eskutik aldaketa handiak izan dira era horretako iritzi eta arrazoibideetan. Jada ez da ezinbestekoa euskara jakitea norbere burua euskal herritar ikusteko; norbere borondatea, Euskal Herrian jaio izana, bertan bizi eta lan egitea, edo beste maila batean, sinbolo jakinen erabilera, musika edo estetika jakin bati atxikitzea... dira euren euskal nortasunaren osagaiak.

Alde horretatik euskal nortasunaz baina, euskal nortasunez hitz egin beharko genuke, nabarmena baita euskal herritar izateak ez duela gauza bera esan nahi hala sentitzen diren guztientzat, nortasun horrek ez dituela osagai berberak ez inplikazio berberak euskaldunentzat eta ez-euskaldunentzat, zaharrentzat eta gazteentzat, Tuteran, Gernikan, Baigorri edo Gasteizen bizi denarentzat, bertan jaiotakoentzat eta etorkinentzat.

Alde horretatik, bereziki EAEn, kritika bat edo beste zuzentzen zaio euskaldunen kolektiboari, beste kolektiboengana ez saiatzea leporatuta. Ez omen dute gogo handirik azaltzen ez-euskaldunengana hurbiltzeko, hau da, euskal nortasuna eta kulturari eutsi nahian ez omen dute ahaleginik egin esparru horretatik kanpo sentitzen diren herritarrak erakartzeko, eta horixe da eskatzen zaiena. Zehatzago, zenbait herritar (kanpoan jaioak, erdal abizenak dituztenak, euskaraz ez dakitenak edo batua hitz egiten dutenak...) bigarren mailako euskal herritartzat hartzeko edo euskal nortasunaren partaide ez jotzeko joera ikusten dute kolektibo batzuk. Euskaldunei leporatzen diete euskal nortasunaren definizio murriztegia, beren burua euskal herritar ikusten duen jende asko kanpoan uzten duen definizioa, erabiltzea.

Kritika horiek argi entzuten dira EAEn, baina ez Iparraldean, han herritar asko euskal nortasunetik kanpo eroso sentitzen direlako eta ez delako besteak gutxiesteko asmorik antzematen bere baitara bildua ageri den euskaldunen munduan, aitzitik, bide egokia irizten zaio kultur berdinkeriaren aurrean. Kontuan izatekoa da, horri dagokionez, eta Espainiako estatuan ez bezala, frantsesean euskal kultura dela estatuen instituzionalizazio prozesuari eutsi dion

bakarrenetako bat, frantsesteak tokiko kultura gehienak birrindu baitzituen, kultur hutsune ikaragarria irekiz. Iparraldeko euskal kultura, bada, erresistentziaren adibide bilakatu da, eta horrek biziki erakargarri agerrarazten du Frantziako estatuko beste herritarrentzat. Espainiako estatuan egoera desberdina da, badaudelako sendo iraun duten beste toki/nazio nortasunak, adibidez Katalunian, Galizian, Andaluzian...

Lurralde guztietako euskaldunek aldiz, nola baiteko nahigabea azaltzen dute, euskaldun ez direnen aldetik sentsibilitate falta handia sumatzen dutelako euskara eta euskal kulturarengana (berriz ere, Iparraldea salbuespena dela dirudi, ez-euskaldunak irekiago agertzen baitira euskararekiko). Atsekabea agerikoagoa da euskarak egoera zailena bizi duen lekuetan, eta Nafarroan (zonalde euskaldunenetan salbu) beste inon baino argiago: komunitate gutxitua sentitzen dira, eta talde txikiak egin behar izaten dituzte beren kidekoekin, euskarari euskarria eta babesa emateko. Komunitate gutxituaren sentimendu hori bizi-bizia da Nafarroan, bertan bere burua euskal herritar agertzen duenak ohi baino eragozpen gehiago izan omen baititzake egunerokoan, adibidez lana bilatzean, zenbaitek euskaltasuna errebindikazioen eta erradikaltasunaren seinale ikusten baitute.

Iparraldean, oso pixkanaka bada ere, aldaketa bat gertatzen ari dela dirudi: urte askotan euskal kulturarekin eta euskal nortasunaren ezaugarriekin inolako harremanik izan gabe ongi asko bizi zitekeen, baina badirudi jarrerak aldatuz doazela, apurka-apurka bada ere, gaur egun *euskaltasunak* bere egin baititu modernitatearen balioak, eta hori dela eta gero eta gazte gehiago urreratzen dira kultur edo nortasun horren esparrura. Ikerketan esandakoei kasu egitera, hein batean euskal gauzak *modan* daude Iparraldeko gazteen artean, nahiz eta bereziki sinboloetan gertatu, gazte askok ikurrina josita daramatelako arropan edo beren gauzetan, edo ahal dela, dakiten euskara apurra erabiltzen dutelako.

3.1.2.2.3. Euskal nortasunaren etorkizuna

Aurrera begira, aipatzekoa da zenbateraino den garrantzizkoa, Iparraldeko eta Nafarroako euskaldunen eta euskaltzaleen iritziz, instituzioek euskal kultura babes dezaten. Bi herrialdeetan adierazten dutenez, euskal kulturaren alde lan handia egiten den arren eta gero eta gazte gehiagok euskara ikasten duten arren, ahalegin horiek alferrikakoak izan litezke baldin eta ins-

tituzioen jarrera aldatzen ez bada, aldaketarik ezean euskara eta euskal kultura eta nortasuna kinka larrian egongo bailirateke etorkizun globalizatuan. Ezinbestekotzat jotzen dute, horrenbestez, instituzioek bestela jokatzeari.

Taldeetako adierazpenak aztertzean berehala azaleratzen da etorkizunera begirako kezka bat, zailtasunak ikusten baitira nortasun desberdinen elkarbitzita lortzeko, areago arazo berri baten

aurrean: zer egin orain arte ez bezalako fenomenoak –inmigrazioa kasu– datozen honetan.

3.1.3. Hizkuntza

3.1.3.1. Inkestaren emaitzak

3.1.3.1.1. Gaitasuna: ulermena, mintzamena, irakurketa, idazketa

3.1.3. Taula-1

Nola ULERTZEN duzu euskaraz?

	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK			
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65
Batere ez+Hitz batzuk soilik	46	37	73	59	45	47	27	42	53	62
Pixka bat	20	24	12	10	21	20	25	21	20	14
Aski ongi+ Oso ongi	34	40	16	31	35	34	49	37	28	23
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

	JATORRIA				NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA					
	Etor-kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etorkinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai	Gehienbat nafarra	Euskal herri-tarra-nafarra	Gehienbat euskal herri-tarra	Nafar-espainiarra	Euskal herritarra-espainiarra/frantsesa	Gehienbat espainiarra/frantsesa	Bestelakoak
Batere ez+Hitz batzuk soilik	80	39	31	87	33	17	95	52	83	68
Pixka bat	14	30	18	8	27	25	3	24	9	17
Aski ongi+ Oso ongi	6	31	51	4	40	57	2	24	8	15
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Nola HITZ EGITEN duzu euskaraz?

	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK			
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65
Batere ez+Hitz batzuk soilik	53	44	77	65	53	53	33	48	62	69
Pixka bat	18	22	10	8	18	18	25	22	15	9
Aski ongi+ Oso ongi	29	34	13	27	30	29	42	29	24	23
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Nola ULERTZEN duzu euskaraz?

	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						
	Etor-kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etor-kinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai	Gehien-bat nafarra	Euskal herri-tarra-nafarra	Gehien-bat euskal herri-tarra	Nafar-espai-niarra	Euskal herrita-rra-espai-niarra/frantsesa	Gehien-bat espai-niarra/frantsesa	Beste-lakoak
Batere ez+Hitz batzuk soilik	86	46	38	90	41	27	96	59	86	74
Pixka bat	10	31	16	6	27	23	2	21	7	15
Aski ongi+ Oso ongi	4	23	46	3	32	50	2	20	7	11
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Nola IRAKURTZEN duzu euskaraz?

	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK			
		EAE	Nafarroa	Iparral-dea	Gizona	Emaku-mea	16-29	30-45	46-64	≥ 65
Batere ez+Hitz batzuk soilik	54	46	78	71	53	55	33	50	65	68
Pixka bat	17	19	9	8	17	16	22	19	13	12
Aski ongi+ Oso ongi	29	35	13	20	30	29	45	31	21	20
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						
	Etor-kina	Euskal Her-rikoa, guraso 1-2 etor-kinak	Euskal He-rrikoa, gura-soak ere bai	Gehien-bat na-farra	Euskal herri-tarra-nafarra	Gehien-bat euskal herri-tarra	Nafar-espai-niarra	Euskal herrita-rra-espai-niarra/frantsesa	Gehien-bat espai-niarra/frantsesa	Beste-lakoak
Batere ez+Hitz batzuk soilik	88	49	39	92	42	28	97	61	88	77
Pixka bat	7	27	16	4	26	21	2	19	6	13
Aski ongi+ Oso ongi	5	25	45	3	32	50	2	21	7	10
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Nola IDAZTEN duzu euskaraz?

	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK			
		EAE	Nafarroa	Iparral-dea	Gi-zona	Emaku-mea	16-29	30-45	46-64	≥ 65
Batere ez+Hitz batzuk soilik	57	48	80	78	56	57	35	54	67	72
Pixka bat	17	20	9	8	16	17	23	18	14	11
Aski ongi+ Oso ongi	27	32	12	14	28	26	42	28	19	16
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Nola IDAZTEN duzu euskaraz?										
	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						
	Etor- kina	Euskal Her- rikoa, guraso 1-2 etor- kinak	Euskal Her- rikoa, gura- soak ere bai	Ge- hien- bat na- farra	Euskal herri- tarra- nafarra	Ge- hien- bat euskal herri- tarra	Nafar- espai- niarra	Euskal herrita- rra-espai- niarra/ frantsesa	Ge- hien- bat espai- niarra/ frantsesa	Beste- lakoak
Batere ez+Hitz batzuk soilik	89	51	43	94	48	32	97	64	90	78
Pixka bat	7	26	16	3	25	22	2	19	6	11
Aski ongi+ Oso ongi	3	23	41	3	27	46	2	17	5	10
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Gaztelaniaz ondo dakite EAEko eta Nafarroako biztanle guztiek eta frantsesez Iparraldeko guztiek.

Euskararen ezagutzari dagokionez berriz, %34k ongi ulertzen dute, %29k ongi hitz egiten dute eta %29k eta %27k ongi irakurtzen eta idazten dute, hurrenez hurren. Biztanleriaren gehiengoak (%53k) euskaraz hitz egiten ez daki batere edo hitz batzuk bakarrik dakizki eta %18k pixka bat daki.

EAEen %34k hitz egiten du ongi euskaraz, Nafarroan %13k eta Iparraldean %27k.

Zenbat eta gazteago izan orduan eta gehiago dira euskaraz ongi hitz egiten dutenak, 16 eta 29 urte bitartekoen artean dago euskaldun portzentajerik altuena (%42) eta adin tarte horretako herritarren ia erdiak (%49) aski ongi edo oso ongi ulertzen du euskaraz.

Adinaren eragin hori ordea, ez da berdina lurralde guztietan. Neurri desberdinetan bada ere, bai EAEen eta bai Nafarroan joera hori argia da, zenbat eta gazteago, orduan eta gehiago dira euskaldunak. Iparraldean aldiz, 65 urtetik gorakoen artean dago euskaldun portzentajerik handiena, eta zenbat eta gazteago euskaldun gutxiago

daude, nahiz eta 45 urtetik beherakoen artean galerarako joera hori gelditu egin dela dirudien¹⁷.

Etorkin gehienek (%86) ez dakite euskaraz hitz egiten, %10ek pixka bat dakite eta soilik %4k hitz egiten dute ongi. Euskal Herrian jaio eta gurasoetako bat edo biak kanpokoak dituztenen artean %23 dira euskaldunak eta %31k pixka bat dakite euskaraz. Euskal Herrian jaio eta gurasoak ere bertakoak dituztenen artean beste taldeetan baino gehiago dira euskaraz ongi dakitenak (%46) baina euskaraz ez dakitenak ere asko dira (%38).

Norberaren identitate atxikimendua eta hizkuntza gaitasuna oso lotuta daude. Gehienbat nafar, nafar eta espainiar, gehienbat espainiar edo gehienbat frantses sentitzen direnen artean gehiengo oso handia osatzen dute (%86tik gora) euskaraz ez dakitenek. Aldiz, gehienbat euskal herritar sentitzen direnen artean erdiek (%50) badakite euskaraz, eta euskal herritar eta nafar sentitzen direnen artean %32k. Tartean daude euskal herritar eta espainiar edo euskal herritar eta frantses sentitzen direnak, horien artean gehienek ez dakite euskaraz (%59) eta %20 euskaldunak dira.

17. Lurraldez lurralde adina eta euskararen gaitasunaren arteko harremanean sakontzeko, ikus CDan, *Inkestaren datuak lurraldeka* 12, 38 eta 70. orriak.

3.1.3.1.2. Lehen hizkuntza

3.1.3. Taula-2

Zein izan zen zure lehen hizkuntza 3 urte bete arte?

	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
Euskara	19	21	6	23	19	19	20	15	19	23	1	7	57
Gaztelania/frantsesa	74	72	89	63	74	74	71	77	77	71	93	86	33
Biak	4	4	3	5	4	4	7	4	2	2	1	5	8
Beste bat	3	3	2	9	3	3	2	4	3	4	5	1	1
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	1
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						
	Etor-kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etorkinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai	Gehienbat nafarra	Euskal herri-tarranafarra	Gehienbat euskal herri-tarra	Nafar-es-painiarra	Euskal herritarr-espainiarra/frantsesa	Gehienbat espainiarra/frantsesa	Bestelakoak
Euskara	1	5	36	2	16	35	1	9	4	4
Gaztelania/frantsesa	88	90	58	95	78	58	98	83	91	77
Biak	1	4	5	2	5	6	0	3	1	2
Beste bat	11	0	0	1	1	1	1	4	4	17
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Herritarren %74k gaztelania edo frantsesa izan dute lehen hizkuntza, %19k euskara eta %4k biak (euskara eta gaztelania edo euskara eta frantsesa). Biztanleen %3k beste hizkuntza batzuk ikasi zituzten etxean 3 urte bete aurretik.

Iparraldean eta EAEn lehen hizkuntza euskara izan zutenak askoz gehiago dira Nafarroan baino, lurralde horretan gehiago handi batek gaztelania bakarrik jaso baitzuten etxean. Adin talde guztietan gehiago handia osatzen dute lehen hizkuntza gaztelania edo frantsesa izan dutenek, baina aldeak ere badaude: zaharrenen artean (65 urtetik gorakoak) gainerako taldeetan baino gehiago dira lehen hizkuntza euskara bakarrik izan zutenak; ondoko adin taldeetan (46-64 eta 30-45 urtekoak) bereziki altua da gaztelania edo frantsesa lehen hizkuntza izan zutenen portzentajea eta gazteenen artean (16-

29 urte) berriro ere pixka bat igo egiten da lehen hizkuntza euskara izan dutenen portzentajea. Gazteenen artean aipatzekoa da, oraindik talde txikia osatzen badute ere, (%7) lehen hizkuntzatzat bai euskara baita gaztelania edo frantsesa ere izan dituztenen kopurua. Hori kontuan hartuta, esan dezakegu gazteen %27k euskara bakarrik edo beste hizkuntza batekin batera jaso dutela etxean.

Gaur egun euskaraz ez dakitenen artean ia guztiek (%93) gaztelania edo frantsesa bakarrik izan zuten lehen hizkuntza; euskaraz pixka bat dakiten gehien-gehienek ere (%86) gaztelania edo frantsesa bakarrik ikasi zuten etxean.

Euskaraz ongi hitz egiten dutenen artean berriz, askotariko egoerak aurkitzen ditugu: gehienek (%57) euskara izan dute lehen hizkuntza, eta

heren batek (%33) gaztelania edo frantsesa jaso du etxean eta ondoren euskaldundu da beraz. %8k euskara gaztelania edo frantsesarekin batera jaso zuten etxean. EAEko eta batez ere Nafarroako euskaldunen artean, asko dira etxean gaztelania bakarrik ikasi eta gero euskaldundu direnak, euskaldun berriak alegia. Iparraldeko euskaldunak aldiz, gehienbat txikitatik euskara jasotakoak dira. Iparraldean talde aipagarria osatzen dute etxean euskara bakarrik edo euskara eta frantsesa ikasi eta gaur egun euskaraz pixka bat bakarrik dakitenek¹⁸.

Euskararen galera eta irabaziei dagokienez, zera esan dezakegu, lehen hizkuntzatik euskara izan zutenetatik, gehien-gehienek (%90) gaur egun badakite euskaraz, %7k pixka bat baino ez dakite, eta %3k galdu egin dute¹⁹. Lehen hizkuntza gaz-

3.1.3. Taula-3
Euskararen ezagutza lehen hizkuntzaren arabera

	GUZTIRA	LEHEN HIZKUNTZA			
		Euskara	Gaztelania/ frantsesa	Biak	Beste bat
Bai	29	90	13	64	9
Pixka bat	18	7	21	23	8
Ez	53	3	66	13	83
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100

telania edo frantsesa izan zutenen artean %13 dira euskara ikasi dutenak eta %21ek pixka bat dakite. 3 urte bete aurretik bai euskara baita gaztelania edo frantsesa ere ikasi zituztenen artean %64k euskara badakite gaur egun, %23k pixka bat dakite eta %13k ez dakite.

3.1.3.1.3. Gaitasun alderatua

3.1.3. Taula-4

Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu errazago?*

	GUZTIRA*	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				LEHEN HIZKUNTZA			
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Euskara	Gaztelania/ frantsesa	Biak	Beste bat
Euskaraz	23	25	14	13	22	23	16	13	33	42	38	2	8	5
Gaztelaniaz/frantsesez	44	44	43	46	47	42	49	54	36	28	24	79	45	63
Bietan berdin	32	31	42	38	30	35	34	33	29	29	38	17	47	21
Beste hizkuntza batean	0	0	0	3	0	0	0	0	0	1	0	0	0	11
Ed/Ee	0	0	1	0	1	0	0	0	1	0	0	1	0	0
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Euskaraz aski ongi edo oso ongi hitz egiten dutela esan dutenei bakarrik galdetu zaie (biztanleriaren %29).

18. Lehen hizkuntza eta gaur egungo euskarazko gaitasunaren arteko harreman hori lurraldez lurralde aztertzeko, ikus CDan, *Inkestaren datuak lurraldeka* 13, 40 eta 72. orriak.

19. Iparraldean galera horiek beste lurraldeetan baino handiagoak dira, batez ere lehen hizkuntzatik euskara frantsesarekin batera izan zutenen artean. Ikus CDan, *Inkestaren datuak lurraldeka* 14, 40 eta 72. orriak.

Zein hizkuntzatan irakurtzen duzu errazago?*

	GUZ-TI-RA*	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				LEHEN HIZKUNTZA			
		EAE	Nafarroa	Iparaldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Euskara	Gaztelania/frantsesa	Biak	Beste bat
Euskaraz	13	15	5	4	14	13	15	5	17	20	23	2	3	1
Gaztelaniaz/frantsesez	58	58	57	62	60	56	48	68	60	59	46	73	63	70
Bietan berdin	26	25	36	29	23	30	35	24	20	19	30	20	34	18
Beste hizkuntza batean	0	0	0	3	0	0	0	0	0	1	0	0	0	6
Ed/Ee	2	2	2	2	3	1	2	2	3	2	0	6	0	4
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Euskaraz aski ongi edo oso ongi irakurtzen dutela esan dutenei bakarrik galdetu zaie (biztanleriaren %29).

Euskaraz ongi hitz egiten dutenen %44k gaztelaniaz edo frantsesez errazago hitz egiten dute, %32k erraztasun berarekin hitz egiten dute euskaraz eta gaztelania edo frantsesez, eta %23k euskaraz errazago hitz egiten dute.

Irakurketa erraztasunari dagokionez, euskaraz ongi irakurtzen duten gehienek (%58) errazago irakurtzen dute gaztelaniaz edo frantsesez, %26k berdin euskaraz eta gaztelania edo frantsesez eta %13k euskaraz errazago.

EAEko euskaldunen artean gehiago dira Nafarroakoen eta Iparraldekoen artean baino, euskaraz beste hizkuntzan baino errazago hitz egiten dutenak²⁰.

46 urtetik beherakoen artean gainerako taldeetan baino askoz altuagoa da gaztelaniaz edo frantsesez errazago hitz egiten duten euskaldunen portzentajea. 65 urtetik gorakoen artean asko dira (%42) euskaraz gaztelania edo frantsesez baino erraztasun handiagoz hitz egiten duten euskaldunak.

Etxean euskaraz ikasi izanak ere badu eraginik euskaraz edo gaztelaniaz/frantsesez errazago hitz egitearekin. Etxean euskara ikasi zutenen %38k euskaraz errazago hitz egiten dute eta beste horrenbestek bi hizkuntzetan berdin. Lehen hizkuntza gaztelania edo frantsesa izan zuten euskaldunen artean aldiz %79k hizkuntza horretan errazago hitz egiten dute euskaraz baino.

Etxean bi hizkuntzak ikasi zituztenen %47k bi hizkuntzetan erraztasun berarekin hitz egiten dutela diote eta askoz gehiago dira gaztelaniaz edo frantsesez errazago egiten dutenak (%45), euskaraz erraztasun handiagoa dutenak baino (%8).

20. Ikus *Inkestaren datuak lurraldeka*, lan honekin batera doan CDan.

3.1.3.1.4. Euskararen ikasketa

3.1.3. Taula-5

Euskara ikasten ari zara?*

	GUZ-TIRA*	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA	
		EAE	Nafarroa	Iparaldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat
Bai	5	6	2	4	4	5	11	6	2	1	1	13
Ez, baina lehenago aritu naiz	23	28	15	8	23	22	32	30	20	8	15	45
Ez, baina baldintza egokiak izanez gero gustatuko litzaidake	23	25	22	20	25	22	26	30	21	17	24	21
Ez, eta ez dut ikasteko asmorik	46	40	56	61	45	47	26	33	53	71	57	14
Ed/Ee	3	2	6	8	3	4	5	3	3	3	2	7
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						
	Etor-kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etorkinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai	Gehienbat nafarra	Euskal herri-tarra-nafarra	Gehienbat euskal herri-tarra	Nafar-es-painiarra	Euskal herri-tarra-espainiarra/frantsesa	Gehienbat espainiarra/frantsesa	Bestelakoak
Bai	2	8	5	1	9	8	0	4	1	5
Ez, baina lehenago aritu naiz	11	34	25	9	43	37	5	24	7	14
Ez, baina baldintza egokiak izanez gero gustatuko litzaidake	23	24	24	20	31	30	14	22	16	28
Ez, eta ez dut ikasteko asmorik	63	31	42	63	7	22	78	47	74	52
Ed/Ee	2	3	5	8	10	3	2	3	2	2
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Euskaraz hitz egiten pixka bat, hitz batzuk soilik edo batere ez dakitela diotenei bakarrik galdetu zaie (biztanleriaren %71).

Euskaraz ez dakitenen edo pixka bat dakitenen artean (herriarren %71), ia erdiek (%46) diote ez direla inoiz aritu euskara ikasten eta ez dutela ikasteko asmorik, %5 euskara ikasten ari dira, %23 orain ez, baina lehenago arituak dira ikasten eta beste %23 ez dira ikasten ari, baina baldintza egokiak izanez gero ikasi nahiko lukete.

EAEen gainerako lurraldeetan baino altuagoa da inoiz euskara ikasten aritu direnen portzenta-jea (%28) eta gaur egun ikasten ari direnena (%6). Iparraldean aldiz bereziki altua da inoiz ez dutela ikasi eta asmorik ere ez dutela diotenena (%61).

Euskaraz ikasten aritzea edo lehenago aritu izana arruntagoa da zenbat eta gazteago izan.

Euskaraz ongi ez dakitenen artean, 65 urtetik gorakoen %71 ez da inoiz aritu euskara ikasten eta ez du horretarako interesik ere eta 16 eta 29 urte bitarteko artean berriz %11 euskara ikasten ari dira eta %32 lehenago arituak dira.

Euskaraz batere ez dakitenen %57k ez dute ikasteko asmorik, %24ri gustatuko litzaieke eta %15ek lehenago ikasten arituak direla diote. Pixka bat dakitenen %45a ikasten arituak dira eta %13 ikasten ari dira.

Euskara ikasten ari direnak edo lehenago aritutakoek portzentaje aipagarriak osatzen dituzte euskal herritar eta nafar, gehienbat euskal herritar edo euskal herritar eta espainiar edo euskal herritar eta frantses sentitzen direnen artean.

3.1.3.1.5. Euskara ikasteko edo ikasi nahi izateko arrazoiak

3.1.3. Taula-6

Euskara ikasteko edo ikasi nahi izateko arrazoiak*

	GUZ-TIRA *	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA	
		EAE	Nafarroa	Iparaldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat
Herri honetako hizkuntza delako	41	42	38	34	39	43	34	40	48	42	42	39
Euskaldunekin komunikatu ahal izateko	34	30	50	46	32	36	29	35	40	30	37	30
Euskal herritar sentitzen naizelako	19	20	16	14	20	18	13	17	23	30	15	25
Lana aurkitzeko edo lanerako behar dudalako	17	20	10	5	16	18	30	19	6	4	12	25
Nire seme-alabak ikasten ari direlako	17	18	14	6	14	19	8	21	18	18	17	16
Herri honetan integratzeko eta baztertua ez sentitzeko	10	11	6	11	8	12	10	9	12	9	12	8
Nire erroak aurkitzeko	10	9	10	16	10	10	6	10	8	20	10	10
Ikasketengatik	6	6	5	0	6	5	14	4	1	2	4	8
Beste arrazoi bategatik	19	18	27	9	22	16	19	18	23	12	20	17
Ed/Ee	6	6	5	12	5	7	5	5	6	13	7	4

* Euskara ikasten ari direla, lehenago arituak direla, edo baldintza egokiak izanez gero ikasi nahiko luketela diotenei bakarrik galdetu zaie (euskaraz ongi ez dakitenen %51 edo biztanleria osoaren %36). Batura ez da 100, hiru arrazoi aipatzeko aukera zegoelako.

Euskara ikasteko edo ikasi nahi izateko arrazoiak*

	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						
	Etor- kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etor- kinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai	Gehien- bat na- farra	Euskal herri- tarra- nafarra	Gehien- bat euskal herri- tarra	Nafar- espai- niarra	Euskal herri- arra- espai- niarra/ frantsesa	Gehien- bat espai- niarra/ frantsesa	Beste- lakoak
Herri honetako hizkuntza delako	36	40	44	28	61	50	8	35	27	30
Euskaldunekin komuni- katu ahal izateko	43	26	36	39	52	32	44	29	40	48
Euskal herritar sen- titzen naizelako	5	18	29	1	32	33	0	8	1	7
Lana aurkitzeko edo la- nerako behar dudalako	16	25	9	15	3	14	12	24	16	20
Nire seme-alabak ikas- ten ari direlako	19	17	14	7	29	18	6	17	14	13
Herri honetan inte- gratzeko eta baztertua ez sentitzeko	21	6	7	6	4	8	8	13	17	17
Nire erroak aurkitzeko	4	6	17	8	15	13	3	8	3	4
Ikasketengatik	1	10	4	6	5	3	8	12	3	1
Beste arrazoi bategatik	23	17	18	36	21	16	40	17	23	23
Ed/Ee	6	5	7	10	0	4	8	7	9	4

* Euskara ikasten ari direla, lehenago arituak direla, edo baldintza egokiak izanez gero ikasi nahiko luketela diotenei baka-
rrik galdetu zaie (euskaraz ongi ez dakitenen %51 edo biztanleria osoaren %36). Batura ez da 100, hiru arrazoi aipatzeko
aukera zegoelako.

Euskara ikasten ari direnei, orain ari ez arren lehenago aritu direnei eta euskara ikasten aritu ez diren arren, baldintza egokiak izanez gero nahiko luketenei (guztira biztanleriaren %36ri) euskara ikasteko zein arrazoi (izan) dituzten gal-
detu zaie.

Honela, euskara ikasteko arrazoi nagusiak lirateke *herri honetako hizkuntza dela*, eta *euskaldunekin komunikatu ahal izatea*. Ondoren beste arrazoi batzuk leudeke: *euskal herritar sentitzen naizela*, *nire seme-alabak ikasten ari direla* eta *lanerako edo lana aurkitzeko behar izatea*. Gutxiago aipatu dira *herri honetan integratzeko eta baztertua ez sentitzeko*, *nire erroak aurkitzeko* eta *ikasketengatik*. Gainera, %19k *beste arrazoi batzuk* aipatu dituzte euskara ikasi nahi izateko.

EAEn gainerako lekuetan baino gehiago aipatzen da euskara ikasteko arrazoiak herri honetako hizkuntza dela, lanerako beharra, euskal herritar sentitzea eta seme-alabak ikasten aritzea; Nafarroan eta Iparraldean aldiz gehiago aipatzen dute euskaldunekin komunikatu ahal izate-
tea. Iparraldean ere gainerako lurraldeetan baino gehiago aipatu da norbere erroak aurkitzea.

Adin talde guztietan euskara ikasteko edo ikasi nahi izateko arrazoi nagusia da *herri honetako hizkuntza delako*, baina adin taldeen ar-
berako aldeak ere badaude: gazteenentzat gainerakoentzat baino garrantzitsuagoa da eus-
kara ikastea lanerako eta ikasketen motibazioa, eta nagusien artean berriz joera handiagoa dago *nire erroak bilatzeko* edo *euskal herritar sentitzen naizelako* bezalako arrazoiak aipatzeko.

3.1.3.1.6. Euskara ez ikasteko arrazoiak

3.1.3. Taula-7

Euskara ikasi nahi ez izateko arrazoiak*

	GUZ-TIRA ⁺	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZA-GUTZA	
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat
Ez dut behar komunikatzeko, denek dakite gaztelania/frantsesa	31	28	42	17	30	32	39	38	31	23	31	22
Nahiago dut nire denbora beste gauza batzuetan erabili	28	26	31	32	31	26	42	37	28	19	28	26
Adinagatik	19	27	7	11	17	22	0	2	19	37	19	21
Dakidanarekin moldatzen naiz	16	17	20	4	16	16	17	13	16	17	14	40
Ez dut behar lanerako edo lana aurkitzeko	11	12	14	6	14	9	14	21	13	3	11	18
Zaila delako	9	13	1	9	8	10	4	11	11	8	9	9
Euskara oso lotuta dago politikarekin	5	5	6	3	7	4	4	8	5	4	5	3
Ez naiz euskal herritar sentitzen	5	4	6	8	6	5	9	6	6	3	6	1
Euskal kultura ez zait interesatzen	3	2	6	3	2	4	9	1	3	3	3	3
Interesik, beharrik ez. Ikasteko arrazoirik ez	3	1	4	6	4	2	3	5	1	2	3	1
Euskara oztopo bat izan da niretzat iraganean	1	1	1	1	1	0	0	0	1	0	1	0
Beste arrazoi bategatik	3	3	3	3	3	4	3	3	3	3	3	3
Ed/Ee	9	6	14	9	8	9	12	6	7	10	9	1

* Euskara ikasten ez direla ari eta horretarako asmorik ere ez dutela diotenei bakarrik galdetu zaie (euskaraz ongi ez dakitenen %46 edo biztanleria osoaren %33). Batura ez da 100, hiru arrazoi aipatzeko aukera zegoelako.

Euskara ikasi nahi ez izateko arrazoiak*

	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						Beste-lakoak
	Etor-kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etor-kinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai	Gehien-bat nafarra	Euskal herri-tarra-nafarra	Gehien-bat euskal herri-tarra	Nafar-espai-niarra	Euskal herrita-rra-espai-niarra/frantsesa	Gehien-bat espai-niarra/frantsesa	
Ez dut behar komuni-katzeko, denek dakite gaztelania/frantsesa	28	34	33	32	17	20	56	29	29	32
Nahiago dut nire denbora beste gauza batzuetan erabili	26	35	28	31	62	20	25	32	27	32
Adinagatik	21	14	21	8	0	39	9	27	16	9
Dakidanarekin moldatzen naiz	13	18	19	28	38	23	13	13	12	10
Ez dut behar lanerako edo lana aurkitzeko	12	16	8	13	34	8	11	11	9	19
Zaila delako	12	8	6	2	0	12	1	13	9	12
Euskara oso lotuta dago politikarekin	4	7	6	5	0	1	9	5	5	6
Ez naiz euskal herritar sentitzen	8	4	3	7	0	2	4	2	9	12
Euskal kultura ez zait interesatzen	2	3	5	5	0	0	9	2	4	0
Interesik, beharrik ez. Ikasteko arrazoirik ez	3	4	2	2	0	0	4	1	4	7
Euskara oztopo bat izan da niretzat iraganean	1	0	0	1	0	0	0	1	0	0
Beste arrazoi bategatik	4	3	2	2	0	3	3	3	4	4
Ed/Ee	10	7	8	19	28	2	6	5	8	12

* Euskara ikasten ez direla ari eta horretarako asmorik ere ez dutela diotenei bakarrik galdetu zaie (euskaraz ongi ez dakitenen %46 edo biztanleria osoaren %33). Batura ez da 100, hiru arrazoi aipatzeko aukera zegoelako.

Euskara ikasten inoiz aritu ez eta asmorik ere ez dutenei (biztanleen %33ri) horretarako arrazoiak galdetu zaizkie. Arrazoi nagusiak dira inguruan denek erdara dakitenez, komunikatze-ko euskararen beharrik ez izatea (%31), denbora librea beste gauza batzuetarako erabiltzea nahiago izatea (%28) adina (%19) eta dakien euskararekin moldatzea (%16). Gutxiagok aipatu dute lanerako edo lana aurkitzeko ez dela euskararen beharrik (%11), zaila dela (%9), politikarekin oso lotuta dagoela (%5), ez dela euskal herritar sentitzen (%5), euskal kultura ez zaiela interesatzen (%3), ez dutela ikasteko

arrazoirik edo interesik (%3), euskara oztopo bat izan dela beraietzat iraganean (%1) eta bestelako arrazoiak (%3).

Zenbat eta gazteago izan orduan eta gehiago aipatzen da euskara ikasteko asmorik ez izateko arrazoitzat, komunikatzeko horren beharrik eza, ingurukoek erdaraz badakitelako, baita denbora librea beste gauza batzuetarako erabiltzea nahiago izatea ere. Aldiz adinean aurrera egin ahala gero eta gehiago dira adina bera aipatzen dutenak euskara ez ikasteko arrazoitzat.

3.1.3.1.7. Euskaldunen bazterkeria sentimendua

3.1.3. Taula-8

Baztertua sentitu zara euskaraz hitz egin nahi izateagatik?*

	GUZ-TIRA*	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK			
		EAE	Nafarroa	Iparralde	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65
Bai	25	25	31	19	22	28	23	26	25	29
Ez, inoiz ez	72	71	66	78	75	68	75	71	69	69
Ed/Ee	3	3	3	2	3	4	3	3	5	2
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						
	Etor-kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etorkinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai	Gehienbat nafarra	Euskal herri-tarra-nafarra	Gehienbat euskal herri-tarra	Nafar-espainiarra	Euskal herritarr-espainiarra/frantsesa	Gehienbat espainiarra/frantsesa	Bestelakoak
Bai	16	14	29	22	39	29	0	10	15	5
Ez, inoiz ez	77	84	68	63	57	67	100	87	83	95
Ed/Ee	7	2	3	15	4	3	0	3	2	0
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Euskaraz aski ongi edo oso ongi hitz egiten dutela diotenei bakarrik galdetu zaie (biztanleriaren %29).

Euskaldun gehienak (%72) ez dira inoiz baztertuak sentitu euskaraz hitz egin nahi izateagatik. %25ek diote aldiz baztertuak sentitu direla arrazoi horregatik. Nafarroan beste lurraldeetan baino altuagoa da baztertuak sentitu direnen portzentajea, eta Iparraldean aldiz baxuagoa.

Baztertuak sentitu direnen portzentajea altuagoa da bai bera bai gurasoak Euskal Herrian jaio-takoen artean, baita gehienbat euskal herritar eta are altuagoa euskal herritar eta nafar sentitzen direnen artean.

EAEEn 65 urtetik gorakoekin artean gainerako adin taldeetan baino gehiago dira euskaraz hitz egin nahi izateagatik baztertuak sentitu direnak. Iparraldean eta Nafarroan aldiz, gehienbat gazteenak dira baztertuak sentitu direnak²¹.

21. Lurraldez lurralde azpitalde desberdinen bazterkeria sentimenduan sakontzeko ikus CDan, *Inkestaren datuak lurraldeka* 17, 44 eta 76. orriak.

3.1.3.1.8. Ez euskaldunen bazterkeria sentimendua

3.1.3. Taula-9

Baztertua sentitu zara euskaraz ez jakiteagatik?*

	GUZ-TIRA*	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA	
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat
Bai	20	21	11	34	20	20	22	26	21	9	19	24
Ez, inoiz ez	74	76	77	58	74	74	69	69	74	87	76	69
Ed/Ee	6	3	12	8	6	5	9	5	5	4	5	8
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						
	Etor-kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etor-kinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai	Gehienbat nafarra	Euskal herritarra-nafarra	Gehienbat euskal herritarra	Nafar-es-painiarra	Euskal herritarra-espainiarra/frantse-sa	Gehienbat espainiarra/frantse-sa	Bestelakoak
Bai	21	23	17	11	21	19	6	23	25	27
Ez, inoiz ez	75	71	76	77	64	77	80	75	69	70
Ed/Ee	4	6	7	12	15	4	14	2	6	3
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Euskaraz pixka bat, hitz batzuk soilik edo batere ez dakitela esan dutenei bakarrik galdetu zaie (biztanleriaren %71).

Euskaraz batere ez dakitenen edo pixka bat dakitenen artean gehienek (%74k) diote ez direla inoiz baztertuak sentitu euskaraz ez jakiteagatik, baina bostetik batek (%20k) noizbait eduki dute sentimendu hori. Iparraldean beste lurraldeetan baino ugariagoak dira euskaraz ez jakiteagatik baztertuak sentitu direnak (%34).

Nafarroan eta Iparraldean gehienbat euskal herritar edo euskal herritar eta nafar sentitzen direnen artean ematen dira euskaraz ez jakiteagatik baztertuak sentitu direnen portzentajerik altuenak. EAEn gehienbat espainiar sentitzen direnen artean gertatzen da²².

22. Lurraldez lurralde ez euskaldunen bazterkeria sentimenduari buruzko datuetan sakontzeko ikus CDan, *Inkestaren datuak lurraldeka* 18, 44 eta 76. orriak.

3.1.3.1.9. Seme-alabekiko nahiak euskarari dagokionez

3.1.3. Taula-10

Seme-alabarik baldin baduzu, edo edukiko bazenitu, nahiko zenuke haiek euskaraz jakitea?

	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
Jadanik badakite	36	43	19	18	34	38	7	35	57	43	30	36	47
Bai, nahiko nuke jakin dezaten	51	53	48	45	53	50	80	55	30	40	48	59	52
Berdin zait	8	3	22	20	9	8	8	6	10	10	14	4	1
Ez, ez nuke nahi jakin dezaten	3	1	7	12	3	3	3	3	2	3	5	0	0
Ed/Ee	2	1	4	6	2	2	1	1	1	4	3	1	0
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						
	Etor-kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etorkinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai	Gehienbat nafarra	Euskal herri-tarranafarra	Gehienbat euskal herri-tarra	Nafar-es-painiarra	Euskal herritarrak-espainiarra/frantsesa	Gehienbat espainiarra/frantsesa	Bestelakoak
Jadanik badakite	38	26	41	12	43	46	9	35	29	26
Bai, nahiko nuke jakin dezaten	43	64	48	51	56	53	28	58	38	53
Berdin zait	12	7	7	26	1	1	42	6	18	13
Ez, ez nuke nahi jakin dezaten	5	2	2	7	0	0	14	0	10	5
Ed/Ee	2	1	2	3	1	1	7	1	4	4
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Euskal Herriko biztanleen %36k diote euren seme-alabek badakitela euskaraz eta beste %51k nahi dute euskara jakin dezaten (edo nahiko lukete, seme-alabak izanez gero). EAEn, Nafarroan eta Iparraldean baino gehiagok diote seme-alabek badakitela euskaraz. Azken bi lurralde horietan nahikoa zabaldua dago axolarik eza, %22k eta %20 diote Nafarroan eta Iparraldean hurrenez hurren berdin zaiela seme-alabek euskaraz jakin ala ez. Iparraldeko biztanleen %12k ez dute nahi beren seme-alabek euskaraz jakin dezaten.

Euskaldunen artean ia erabatekoa da seme-alabek euskara jakitearen aldeko jarrera. Euskaraz pixka bat dakitenean eta batere ez dakitenean artean ere oso orokorra da aldeko jarrera EAEn, baina Nafarroan eta Iparraldean dezente txikiagoa da euskaraz ez dakitenean artean. Bai Nafarroan bai Iparraldean euskaraz ez dakitenean laurdenak baino gehiagok dio berdin zaiola seme-alabek euskaraz ikasi ala ez²³.

23. Lurraldez lurraldeko alde hauek aztertzeke ikus CDan, *Inkestaren datuak lurraldeka* 18, 45 eta 77. orriak.

Seme-alabek euskaraz jakiteari buruzko axo-lagabezia hori aipagarria da baita ere nafar eta espainiar (%42) edo gehienbat nafar (%26) sentitzen direnen artean eta gehienbat espainiar edo frantses sentitzen direnen artean (%18). Azken talde horretan %10ek eta nafar eta espainiar sentitzen direnen %14k ez dute nahi beren seme-alabek euskara jakin dezaten.

Oro har, esan daiteke EAEn gizarte talde guztietan oso orokortua dagoela seme-alabek euskara ikastearen aldeko jarrera eta Nafarroan eta Iparraldean aldiz, jarrera hori lotuago dagoela gurasoen euskalduntasunarekin eta nortasun sentimenduarekin.

3.1.3.1.10. Euskal izenekiko jarrerak

3.1.3. Taula-11

Euskal izenak (herri, etxe, leku edo kaleenak) mantendu eta bultzatzearen oso alde, alde, kontra edo oso kontra zaude?

	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixkabat	Bai
Oso alde + alde	82	84	72	77	82	81	85	85	79	72	73	87	93
Ez alde ez kontra	15	14	21	16	15	16	13	12	16	22	22	11	7
Kontra + oso kontra	1	1	3	1	1	1	0	0	2	3	2	0	0
Ed/Ee	2	2	3	6	2	2	1	2	3	3	3	2	1
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						
	Etor-kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etorkinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai	Gehienbat nafarra	Euskal herri-tarrana-farra	Gehienbat euskal herri-tarra	Nafar-espainiarra	Euskal herritarra-espainiarra/frantsesa	Gehienbat espainiarra/frantsesa	Bestelakoak
Oso alde + alde	70	84	86	74	99	94	42	76	66	72
Ez alde ez kontra	25	13	11	19	0	6	46	20	27	21
Kontra + oso kontra	2	0	1	3	0	0	9	0	3	2
Ed/Ee	3	2	2	5	1	0	3	2	5	5
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Herri, leku, etxe eta abarren euskal izenak mantendu eta bultzatzearekiko aldeotasuna oso zabaldua dago euskal herritarren artean: %82 alde edo oso alde daude. %1 besterik ez dira aurka azaldu eta %15 ez daude ez alde ez kontra.

Kolektibo guztietan gehiengo oso zabala osatzen dute euskal izenak mantentzea-

ren aldekoek. Ez alde ez kontra daudenak %20tik gora dira nafarren artean, 65 urtetik gorakoek artean, ez euskaldunen artean, etorkinen artean, eta beren burua gehienbat espainiar edo frantsesizat dutenen, euskal herritar eta espainiar edo frantsesizat dutenen eta batez ere nafar eta espainiarizat dutenen artean.

HIZKUNTZA: INKESTAREN ONDORIO NAGUSIAK

- ▶ Euskal Herriko biztanleen %29k ongi hitz egiten dute euskaraz. EAEn biztanleen %34 dira euskaldunak, Iparraldean %27 eta Nafarroan %13.
- ▶ EAEn eta Nafarroan gazteen artean dago euskaldunen portzentajerik handiena, eta Iparraldean aldiz 65 urtetik gorako artean. Hala ere, euskaldun gazteenak dira euskarazko gaitasun alderaturik gutxien dutenak, hau da, euskaldun gazteen artean, erdiek gaztelaniaz edo frantsesez errazago hitz egiten dute, eta euskaldun zaharrenean artean aldiz arruntagoa da euskaraz gaztelaniaz edo frantsesez baino errazago egitea. Oro har euskaldunen %23k euskaraz errazago hitz egiten dute eta %32k euskaraz eta gaztelaniaz edo frantsesez erraztasun berarekin.
- ▶ Herritarren %74k gaztelania edo frantsesa bakarrik izan dute lehen hizkuntza, %19k euskara, %4k biak eta %3k beste hizkuntza bat. Lehen hizkuntza euskara bakarrik edo beste hizkuntza batekin batera izan zuten gehien-gehienek ongi dakite euskaraz, beraz euskararen galerak oro har txikiak direla esan dezakegu. Etxean erdara bakarrik jaso zuten artean berriz, euskaldundu direnak gehiago dira.
- ▶ Euskaraz pixka bat dakitenen %58 eta batere ez dakitenen %16 ikasten ari dira edo lehenago arituak dira.
- ▶ Euskara ikasten ari(tu) direnek edo baldintza egokiak izanez gero nahiko luke tenek, bi arrazoi nagusi aipatu dituzte horretarako: euskara herri honetako hizkuntzat hartzea eta euskaldunekin komunikatu ahal izatea. Euskara ikasteko interesik ez dutenek aldiz denek erdaraz badakitenez, komunikatzeko euskararen beharrik ez izatea eta beren denbora libre bestea gauza batzuetarako erabiltzea nahiago izatea aipatu dituzte arrazoitaz.
- ▶ Seme-alabei dagokienez aldiz, oso orokorra da euskara ikas dezaten nahia, batez ere EAEn. Nafarroan eta Iparraldean nahi hori oso zabalduta dago euskaldunen eta beren burua euskal herritartzat dutenen artean, baina gainerako artean axolarik eza ere oso maiz azaltzen da²⁴.
- ▶ Euskaldunen %25 inoiz baztertuak sentitu dira euskaraz hitz egin nahi izateagatik eta ez euskaldunen %20 euskaraz ez jakiteagatik. Euskaraz ez jakiteagatik baztertuak sentitu diren ez euskaldunek bi eratakoak dirudite. Baztertuak sentitu diren Nafarroako eta Iparraldeko ez euskaldunen artean askok beren burua gehienbat euskal herritartzat dute, eta bai eurek bai beren seme-alabek euskara ikastearen aldeko jarrera adierazi dute. Horiek, ziurrenik, euskararen ezagutza eza, eta horren ondoriozko bazterketa, beren muga baten ondorioz biziko dutela pentsa dezakegu, eta bereziki harreman pertsonaletan sentituko dutela bazterketa. EAEn aldiz, baztertua izateko sentimendua bereziki zabalduta dago gehienbat espainiar sentitzen direnen artean, eta euskara ikasteko interesik ez dutenen artean; horiek ziurrenik lanari lotutako kontuetan euskararen ezagutzarik ezak sortutako kaltea bidezkoa ez dela sentituko dute edo euskararen sustapena beren ideologiarekin ez da bat etorriko.

24. Deigarria da seme-alabek euskara ikas dezaten nahi dutenek gehiengo handia osatzen duten bitartean (baita ez euskaldunen artean ere), euskara ikasteko interesik ez dutenetako askok horretarako beharrik eza aipatzen dutela. Badirudi seme-alabek euskara ikas dezaten nahiaren oinarrian ez dagoela euskararen behararen pertzepziarik, ez behintzat gaur egungo behararekin; agian etorkizunean beharrezkoago izan daitekeelako pertzepzioa egon daiteke horren oinarrian.

3.1.3.2. Azterketa kualitatiboaren emaitzak

3.1.3.2.1. Euskararen gizarte presentzia

Euskarak jendearen bizitzan daukan lekua oso desberdina da lurralde batetik bestera: EAEn, euskara jakin ala ez, euskara jendearen bizitzan agertzen da, nolabaiteko lekua du, pertsonak ingurunearekin dituzten harremanetan garrantzia du. Nafarroan eta Iparraldean hori askoz aldakorragoa da zonaldeen arabera, eta errazagoa da euskararekin inolako harremanik izan gabe bizitzea.

Nolanahi ere, argi dago euskara taldeetako arazoibideen ardatza dena, esaten direnak haren aldekoak nahiz aurkakoak izan, hots, nortasun desberdinek erreferente gisa ikusten dute euskara, hizkuntzaren mesedetan zein kaltetan ere, eta oro har, taldeak bat datoz hizkuntzak euskal gizartean eta kulturaren duen garrantzia aitortzean.

Hasteko, esan daiteke EAEn eta Nafarroan euskararen inguruko diskurtsoak landuagoak direla. Urtetan euskararen inguruko eztabaida publikoa izan da eta hizkuntza politika bat garatu da, eta jendeak gaiaren inguruko jarrerak definitu ditu. Iparraldean aldiz, eztabaida publikoa ez da orokortu, gaiak ez du EAEn eta Nafarroako gizartean duen zentraltasunik. Iparraldean, euskarari buruz hitz egitean jendeak Hegoaldean baino gehiago jotzen du bere esperientzia pertsonalak, sentimenduak edo emozioak azaltzera, ez horrenbeste gizarte mailako balorazioetara, eta adierazpen horiek (alde zein kontra izan) ez dira Hegoaldean bezain sutuak. Iparraldean euskararen ofizialtasunaren eta hezkuntza elebidunaren inguruan zentratzen dira diskurtso landuenak, batez ere euskaltzaleen eta euskalgintzako elkarteetan dabilzanen aldetik. Ikerketan parte hartu dutenen esanetan, bilakaera bat ikusten da iritzietan, euskararen gaia lehen baino presentean dago Iparraldean eta jada ez da inor zuzenean aurka azaltzen, baina oso erraza da euskararekin inolako harremanik eduki gabe bizitzea.

Ikerketan ondorioztatu denez, gazteek era naturalagoan bizi dute hizkuntzaren gaia. Zaharren artean, aldiz, bestelako bi jarrera agertzen dira: euskaldunak iragan-minaz agertu ohi dira, eta ez-euskaldunei, oro har, ez die ardua hizkuntzak.

Herri txikietan hizkuntza komunitatearen bizitzari estu lotuta agertzen da. Hirialdean, berriz, elementu lausoagoa da, hezurmamitu gabea, egunerokotasunaren barruan ia aparteko izaera hartzen du.

3.1.3.2.2. Euskararen egoera

Taldeetan adierazitako iritzien arabera, nahiz eta hizkuntzak aurrera egin duen nabarmen, ez da oraindik iritsi beharrezkoak zaizkion esparruetara; euskal hiztunak gutxiengoa dira eta egoera soziolinguistikoa asko aldatzen da lurralde batetik bestera. Lurralde guztietan pertzepzio orokorra da euskararen egoera hobera doala, oso maila desberdinetatik abiatuta, ordea. Euskararen aurrerabide hori baikortasunez ikusten dute batzuek, eta etsipenez edo deskonfiantzaz beste batzuek.

3.1.3.2.3. Hizkuntza bateratzaile zein zatitzaile

Hizkuntza komunikaziorako tresna dela onartzen da, baina horrekin batera agerian jartzen da inkomunikaziorako bidea ere izan daitekeela. Euskaldunek eta euskaltzaleek nabarmentzen duten elementurik positiboena euskara erabiltzen dutenen edo berau ezagutu gabe ere euskaltzale direnen artean sortzen den elkartasun zirkulua, konplizitatea eta lotura afektiboa da, bereziki Nafarroan. Baina euskara bi kolektibo desberdintzen dituen hesi bezala ere ikusten da, baita zenbaitetan nazionalisten eta ez-nazionalisten arteko muga bezala ere. Ikuspegi hori elikatzen dute, besteak beste, honako hauek:

- Hizkuntzaren eta politikaren arteko lotura dagoelako pertzepzioak.
- Hizkuntza nahitaez ikasarazten ari delako ideiak.
- Euskara batuaz egitean euskal hiztun batzuek (euskaldun berriek) euskaldun zaharrendik sumatzen duten gutxiespenak.

Nafarroan, euskaltasunaren eta euskal nortasunaren elementu nagusia –eta ia bakarra– euskara da, hizkuntza den aldetik eta, bestalde, sinbolo gisa duen indarragatik. Hala ere, tentsio politikoak bestelakotarik agerrarazten du euskararen aldekoen jarrera; azken batean, euskara borroka politikoaren ardatz agertzen da, eta haren aldean oharkabe geratzen dira beste kultur elementu guztiak. EAEn alderdi politikoek beste alorretan izaten dituzten desadostasunak Nafarroan irakaskuntzako hizkuntz ereduen gaineko gatazkara zabaltzen dira. Eztabaida taldeetan euren ere gai hau tabu da, solaskideak jakitun direlako hizkuntzaren inguruko eztabaidak tentsioak piztu ohi dituela.

Talde gehienetan ontzat jotzen da euskara garatzea, denek onartzen dute gorde behar den

elementu bereizgarri gisa, baina ez-euskaldunen artean oniritzi hori ahulago agertzen da gaia maila *mikrora* eramandakoan edo norberaren errealitatea ukitzen denean, hau da, norbaitek uste duenean hizkuntzak aurrera egitea kaltegarri izango zaiola; iritzi kritikago horrek, bereziki, honako hauek ditu oinarri:

- Euskara ez da baliagarria.
- Normalizaziorako ekimenek euskara inposatzea dakarte.
- Euskara gero eta gehiago eskatzen da zenbait esparrutan eta horrek ez dakite-nak diskriminatzea dakar.

Euskaldunen aldetik ere iritzi ezkorrenak mailarik egunerokoenetan oinarritzen dira:

- Euskara gutxi erabiltzen da.
- Instituzioen jokabideak kontraesankorrak dira.
- Euskara ez da benetan etxetik eta eskolatik ateratzen.
- Kezka handia dago (batez ere Nafarroan) inguru erdaldunetako gazteen euskara mailaren inguruan.

Esan bezala, balore bezala euskarak onarpen maila handia du, aberastasun bezala ikusten da eta beraz beraz garatzeko ahaleginak justifikatzen dira, baina zehaztasun handiagoetara pasatakoan, hizkuntza politikaren mugak non jarri behar diren aipatzean sortzen da eztabaida.

Euskara irakaskuntzan derrigorrezkoa izatea eta haren ofizialtasuna dira euskaldunen eta ez-euskaldunen arteko desadostasunerako arrazoi nagusiak, baina neurri desberdinetan, lurraldearen eta norbera zein administrazioaren pean bizi denaren arabera. EAEn, irakaskuntzan euskara neurri batean behintzat ikastea derrigorrezkoa izateak ez ditu Nafarroan edo Iparraldean adinako kontrako iritziak eragiten, EAEn onartua dagoelako euskara ikastearen garrantzia, eta nahikoa modu naturalean hartzen delako, baita ez-euskaldunen artean ere. Nafarroan eta Iparraldean euskaltzaleen eta ez-euskaltzaleen arteko aldeak handiagoak dira gai horren inguruan.

3.1.3.2.4. Erabilera

Lurralde guztietan iritziak oso antzerakoak dira euskararen erabilerarako eta normalizaziorako oztopoei dagokienez.

Gazte askok eskola-orduetan baino ez dute euskaraz egiten, eta kostata kalean. Batzuek diotenez, euskaldun berriak euskaraz ari direlarik ez daude gustura euskaldun zahar bat begira daukatela uste badute, hobeto dakien hori azterketa egiten ari zaielakoan. Lurralde guztietan kritikatzeko da euskaldun zahar batzuen jokaera, euskaraz saiatzen den horri lagundu beharrean erdeinuz-edo begiratzen omen diotelako, haren ahaleginek duten balioa aitortu gabe.

Euskararentzat esparru publiko gehiago eskatzen dituzte euskaldunek. Esparru publikoak bilatu behar izatearen inguruko aipamenak etengabeak dira bai Hegaoaldean bai Iparraldean. Iparraldean, gainera, zailtasunak handiagoak dira, gazteenen eta zaharreneen arteko belaunaldia ez zelako euskaraz sozializatu. Zaharrek ez zieten euskara irakatsi seme-alabei, baliorik ez omen zuen bizimodu bati lotutako, baserriko mintzaira zelakoan. Horregatik uste da zaharren belaunaldi hori desagertzen denean hutsune sakona irekiko dela, gazteek ez dutelako ia norekin jardun izango, hau da, ez dute euskaraz ondo dakien mintzailerik aurkituko.

Nafarroan ere zabaldua dago hizkuntza belaunaldi bat galdu izanaren sentsazioa, han ere, antzeko arrazoiengatik, belaunaldi batek ez ziolako euskara transmititu hurrengoari. Bi lurraldeetan, haatik, galdu den hizkuntza berreskuratzeko jarrera antzematen da, baina horrekin batera, Nafarroan kezka ere agertzen da, oraingo belaunaldiek ez omen dutelako behar adina egiten euskararen alde. Belaunaldi horiek bide askoz samurragoa aurkitu dute, eta ekimen asko ere abian jarriak. Militantziaren indargabetze hori garai berrien eta poliki baina etengabe lortzen den normalizazioaren ondorio bezala ikusten da, baina askorentzat hori jakitea ez da lasaigarria, kezkaigarria baizik.

3.1.4. Euskal kultura

3.1.4.1. Inkestaren emaitzak

3.1.4.1.1. Euskal kulturaren kontzeptua

Herritarrentzat euskal kultura zer den aztertu nahi izan da galdera honekin; euskal kulturak hizkuntza jakin batean egina izan behar duen, leku edo jende jakinak egindakoa edo gai batzuen ingurukoa ote den.

3.1.4. Taula-1

Zer da zuretzat euskal kultura?*

Definizioarekin ados daudenen %	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
Euskal Herriari buruzkoa	71	71	68	70	70	71	70	71	71	69	70	77	69
Euskal Herriko jendeak egindakoa	70	74	64	54	70	70	70	70	71	68	67	75	72
Euskal Herrian egindakoa	60	63	52	51	60	60	55	60	65	58	60	62	57
Euskaraz egindakoa	47	48	43	56	48	47	48	43	47	54	44	49	52

Definizioarekin ados daudenen %	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						
	Etor-kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etorkinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai	Gehienbat nafarra	Euskal herritarra-nafarra	Gehienbat euskal herritarra	Nafar-espainiarra	Euskal herritarra-espainiarra/frantsesa	Gehienbat espainiarra/frantsesa	Bestelakoak
Euskal Herriari buruzkoa	67	74	71	64	81	72	63	74	64	68
Euskal Herriko jendeak egindakoa	66	72	71	58	80	74	58	70	63	72
Euskal Herrian egindakoa	63	59	58	48	59	58	52	63	61	66
Euskaraz egindakoa	48	44	49	43	54	54	34	39	46	43

* Batura ez da 100, definizio bakoitzari buruzko adostasunaz galdetu delako; ez zegoen definizio bakar bat aukeratu beharrik.

Euskal Herriko biztanleen %71k euskal kulturatzat hartzen dute euskal herriari buruzko guztia, edozein hizkuntzatan egina delarik ere, eta %70ek Euskal Herriko jendeak sortutakoa, Euskal Herrian zein beste leku batean egina izanagatik. Pixka bat gutxiagok uste dute (%60) gaia, hizkuntza eta egilea alde batera utziz, Euskal Herrian egindako guztia dela euskal kultura eta erdia baino gutxiagok (%47) euskaraz egindako guztia dela euskal kultura.

Badirudi beraz, euskal herritarrek batez ere gai eta egile jakinekin lotzen dutela euskal kultura kontzeptua, gutxiengo eremu geografiko jakin batekin eta nabarmen gutxiago euskararekin.

Dena dela, erantzunik eman ez dutenen portzentaje aipagarriak (%11 eta %17 artean

definizio guztietan)²⁵, euskal kulturaren definizioa osatzeko zailtasunaren isla dira.

EAEko herritarrek gainerakoek baino joera handiagoa dute euskal kultura kontzeptua Euskal Herriko jendearekin eta Euskal Herriko lurraldearekin lotzeko eta Iparraldekoek aldiz gainerakoek baino maila handiagoan identifikatu dute euskal kultura euskaraz egindakoa bezala.

Euskaldunek eta 65 urtetik gorakoek ere, gainerakoek baino maila handiagoan kontsideratzen dute euskal kultura euskaraz egindakoa dela.

25. Taulan, aukera bakoitzari baiezkoa erantzun diotenen kopuruak bakarrik aipatzen dira.

3.1.4.1.2. Nafar kulturaren eta euskal kulturaren arteko harremana

3.1.4. Taula-2

Zein esaldi duzu gustokoen?*

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
Nafar kultura euskal kulturaren parte da	42	43	40	45	43	44	32	32	68	76
Nafar kultura eta euskal kultura Nafarroan elkarren ondoan dauden bi kultura desberdin dira	29	29	30	28	32	27	29	34	18	10
Nafarroako propioa nafar kultura da, euskal kultura beste lurralde batekoa da	12	11	13	10	10	13	16	15	2	1
Ed/Ee	17	17	17	16	15	16	24	18	12	14
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						
	Etor-kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etorkinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai	Gehienbat nafarra	Euskal herritarra-nafarra	Gehienbat euskal herritarra	Nafar-espainiarra	Euskal herritarra-espainiarra/frantsesa	Gehienbat espainiarra/frantsesa	Bestelakoak
Nafar kultura euskal kulturaren parte da	28	42	47	33	76	79	20	100	17	38
Nafar kultura eta euskal kultura Nafarroan elkarren ondoan dauden bi kultura desberdin dira	32	32	27	33	12	14	39	0	30	35
Nafarroako propioa nafar kultura da, euskal kultura beste lurralde batekoa da	12	15	11	13	0	0	29	0	24	4
Ed/Ee	28	11	15	21	12	8	13	0	30	23
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Nafarroako herritarrei bakarrik galdetu zaie.

Nafar kulturari buruz lurralde horretako biztanleen artean zabalduen dagoen ikuspegjak nafar kultura euskal kulturaren barneratzen du, euskal kulturaren zati bat bezala ulertzen du. Iritzi hori dute nafarren %42k. %29k uste dute nafar kultura eta euskal kultura Nafarroan elkarrekin bizi diren kultura desberdinak direla, eta %12k uste dute nafar kultura dela lurralde horretako propioa

eta euskal kultura beste lurralde bateko kultura dela. %17k ez dute erantzunik eman.

Nafar kultura eta euskal kulturaren artean dagoen harremanari buruzko iritziak oso estuki lotuta daude euskarazko gaitasunarekin eta norberaren identitate kokapenarekin: euskaraz ongi dakitenean eta, neurri txikiagoan bada ere, pixka

bat dakitenean artean gehiengo handia osatzen dute nafar kultura euskal kulturaren parte bezala dakusatenean (%76 eta %68 hurrenez hurren). Euskaraz batere ez dakitenean artean aldiz askoz zatituagoak daude iritziak: heren bana inguru dira nafar kultura euskal kulturaren barnean ikusten dutenak eta bi kultura horiek Nafarroan elkarrekin bizi diren kultura desberdinak direla diotenak. Euskaraz ez dakitenean %15ek diote Nafarroako propioa nafar kultura dela eta euskal kultura beste lurralde batekoa dela.

Beren burua gehienbat euskal herritartzat edo nafar eta euskal herritartzat jotzen dutenen artean nafar kultura euskal kulturaren barnean ikusten du gehiengoak (%79 eta %76 hurrenez hurren). Nafar eta espainiar edo gehienbat espainiar sentitzen direnen artean aldiz talde

handiak osatzen dituzte nafar kultura eta euskal kultura elkarrekin bizi diren kultura desberdinak direla diotenek eta euskal kultura beste lurralde batekoa dela diotenek eta iritzirik eman ez dutenek ere. Gehienbat nafar sentitzen direnen artean iritzi zatiketa handia dago.

3.1.4.1.3. Euskal kulturaren ezaugarriak

Inkestatuei sei adjektibo bikote aurkeztu zaizkie, bikoteko hitz bakoitza 5 puntuko eskala baten muturrean jarritz, euskal kultura zein puntutan kokatuko luketen galdetuz. Bikoteak hauek dira: Ez abegitsua (1) – Abegitsua (5), Indibidualista (1) – Jendartekoa (5), Itxia (1) – Irekia (5), Iraganekoa (1) – Etorkizunekoa (5), Baserrikoa (1) – Hirikoa (5) eta Erlijosoa (1) – Laikoa (5).

3.1.4. Taula-3

Nolakoa da zure ustez euskal kultura?

Batezbestekoa (1-5)	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
Ez abegitsua - Abegitsua	4,4	4,4	4,4	4,4	4,4	4,4	4,4	4,3	4,5	4,5	4,4	4,4	4,5
Indibidualista - Jendartekoa	4,1	4,1	4,0	4,3	4,1	4,1	4,0	4,1	4,1	4,3	4,0	4,1	4,2
Itxia - Irekia	3,8	3,9	3,7	3,9	3,8	3,9	3,8	3,8	3,8	4,1	3,8	3,8	4,0
Iraganekoa - Etorkizunekoa	3,6	3,6	3,7	3,7	3,6	3,7	3,6	3,6	3,7	3,8	3,6	3,6	3,7
Erlijosoa - Laikoa	3,2	3,1	3,4	3,8	3,2	3,3	3,6	3,3	3,0	2,9	3,3	3,1	3,2
Baserrikoa - Hirikoa	3,1	3,2	3,1	3,0	3,0	3,2	3,1	3,2	3,0	3,3	3,2	3,2	3,1

Batezbestekoa (1-5)	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						
	Etor-kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etorkinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai	Gehienbat nafarra	Euskal herri-tarra-nafarra	Gehienbat euskal herri-tarra	Nafar-es-painiarr	Euskal herri-tarra-espainiarr/frantse-sa	Gehienbat espainiarr/frantse-sa	Bestelakoak
Ez abegitsua - Abegitsua	4,4	4,3	4,5	4,4	4,6	4,5	4,3	4,3	4,3	4,3
Indibidualista - Jendartekoa	4,0	4,0	4,2	3,9	4,4	4,3	3,8	3,9	3,9	4,0
Itxia - Irekia	3,8	3,7	3,9	3,7	3,9	4,1	3,5	3,6	3,7	3,5
Iraganekoa - Etorkizunekoa	3,7	3,5	3,7	3,7	3,9	3,8	3,6	3,5	3,4	3,6
Erlijosoa - Laikoa	3,2	3,4	3,2	3,4	3,3	3,1	3,5	3,1	3,5	3,3
Baserrikoa - Hirikoa	3,3	3,1	3,1	3,1	3,0	3,1	3,1	3,2	3,0	3,2

Euskal herritarren ustez euskal kultura nahikoa abegitsua da (1etik 5era 4,4), baita jendartekoa (4,1), irekia (3,8) eta etorkizuneko (3,6) ere. Neurri txikiagoan kontsideratu dute euskal kultura laikoa erlijiosoa baino gehixeago (3,2) eta hirikoa baserrikoa baino gehixeago (3,1), balorazioak eskalaren erdialdean kokatzen baitira.

Iparraldeko herritarrek gainerakoek baino neurri handiagoan kontsideratzen dute euskal kultura jendartekoa eta laikoa. EAEkoek aldiz gainerakoek baino apur bat hiritarrago ikusten dute euskal kultura.

16 eta 29 urte bitarteko gazteek gainerako herritarrek baino laikoago ikusten dute euskal kultura, eta 65 urtetik gorakoek aldiz jendartekoago, irekiago, etorkizunekoago eta hiritarrago.

Gehienbat nafar, nafar eta espainiar, euskal herritar eta espainiar edo euskal herritar eta

frantses, edo gehienbat espainiar edo frantses sentitzen direnek gainerakoek baino indibidualago eta itxiago ikusten dute euskal kultura. Gehienbat espainiar edo frantses sentitzen direnek, horrez gain, besteek baino iraganekoago ikusten dute.

EAEko euskaldun eta ez euskaldunen artean ez dago alde handirik, euskal kulturaren ezaguerari buruzko iritzietan. Nafarroan eta Iparraldean aldiz euskaldunek euskal kultura ez euskaldunek baino jendartekoago, irekiago eta baserrikoago ikusten dute, Iparraldean etorkizunekoago ere bai²⁶.

3.1.4.1.4. Euskal kulturaren elementurik garrantzitsuenak

Herritarrentzat euskal kultura zer den argitzen jarraitu nahian, kultura horrekin gehien lotzen dituzten elementuak identifikatzeko eskatu zaie.

3.1.4. Taula-4

Euskal kulturarekin gehien lotzen diren elementuak*

	GUZTIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparralde	Gi-zona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
Euskara	53	55	52	43	55	51	61	61	46	42	47	57	62
Dantza	34	33	35	38	26	41	36	32	34	33	37	34	28
Pilota	31	30	34	32	34	28	31	25	32	38	36	25	26
Herri kirola	30	33	30	9	34	27	30	30	32	28	29	31	32
Ohiturak	24	25	22	27	25	24	23	29	26	16	21	26	29
Gastronomia	22	24	17	19	21	24	25	23	20	21	23	25	19
Musika	15	16	11	19	14	16	14	16	16	16	15	20	13
Jaiak	9	9	6	18	9	10	14	8	8	9	9	7	12
Literatura idatzia	7	8	4	2	7	7	6	8	9	6	6	6	10
Euskal sinboloak (ikurriña, mitologia...)	7	7	7	6	8	7	9	9	6	5	7	8	7
Kantua	6	3	3	39	6	6	5	5	7	9	6	3	8
Ahozko literatura (bertsolaritza, ipuin kontaketa)	6	7	3	3	5	7	7	6	8	3	3	6	13
Arkitektura, monumentuak	3	2	2	10	3	3	1	4	4	3	3	4	2
Antzerkia euskaraz, pastorala, maskarada	2	2	2	4	2	2	2	2	2	3	2	1	3
Zinea euskaraz	1	1	1	0	1	1	0	2	1	1	1	2	1
Arte plastikoak	1	2	1	1	1	1	1	2	1	1	1	2	2
Bestelakoak	9	9	13	7	11	7	8	13	8	7	9	12	8
Ez dut axolarik euskal kulturaz	1	0	2	0	0	1	1	0	1	1	1	0	1
Ed/Ee	3	3	5	2	3	4	2	1	3	7	5	1	1

* Batura ez da 100, hiru elementu aipatzeko aukera zegoelako.

26. Lurraldez lurralde azpitaldeen artean dauden aldeak aztertzeko, ikus CDan, *Inkestaren datuak lurraldeka* 20, 47 eta 78. orriak.

Euskal kulturarekin gehien lotzen diren elementuak*

	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						
	Etor-kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etor-kinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai	Gehienbat nafarra	Euskal herri-tarranafarra	Gehienbat euskal herri-tarra	Nafar-espainiarra	Euskal herritarr-espainiarra/frantsesa	Gehienbat espainiarra/frantsesa	Bestelakoak
Euskara	43	59	55	51	67	61	41	47	34	59
Dantza	36	36	32	36	37	33	32	38	36	28
Pilota	33	31	30	31	26	28	43	31	37	37
Herri kirola	26	33	31	30	37	35	30	30	20	27
Ohiturak	22	23	27	22	34	25	15	26	22	23
Gastronomia	24	23	21	19	12	20	14	29	27	24
Musika	15	17	15	11	14	17	8	16	16	16
Jaiak	10	9	9	6	9	10	2	9	12	9
Literatura idatzia	5	9	8	4	9	8	2	9	3	5
Euskal sinboloak (ikurrina, mitologia...)	5	10	7	8	8	9	7	5	6	8
Kantua	7	4	7	3	3	4	4	6	18	5
Ahozko literatura (bertsolaritza, ipuin kontaketa)	3	6	8	3	7	10	0	3	3	2
Arkitektura, monumentuak	5	3	2	2	2	2	1	3	6	4
Antzerkia euskaraz, pastorala, maskarada	1	2	2	1	2	2	3	2	3	1
Zinea euskaraz	1	1	1	1	2	1	1	1	0	0
Arte plastikoak	1	2	1	1	1	1	1	2	0	3
Bestelakoak	9	8	10	13	13	9	13	8	7	11
Ez dut axolarik euskal kulturaz	1	0	1	3	0	1	2	0	1	0
Ed/Ee	6	2	3	6	0	1	10	2	8	3

* Batura ez da 100, hiru elementu aipatzeko aukera zegoelako.

Euskal herritarrek euskal kulturarekin gehien lotzen duten elementua euskara da, eta horren atzetik dantza, pilota eta herri kirolak. Apur bat gutxiago aipatu dira ohiturak eta gastronomia eta oraindik gutxiago musika, jaiak, euskal sinboloak, literatura idatzia, kantua edo ahozko literatura.

Iparraldean beste lurraldeetan baino gehiago aipatu dira kantua, jaiak eta arkitektura eta monumentuak euskal kulturarekin gehien lotutako elementutzat, eta gainerakoetan baino gutxiago aipatu dira euskara, herri kirolak eta literatura.

Euskaldunek, 46 urtetik beherakoek eta beren burua gehienbat euskal herritartzat edo nafar eta euskal herritartzat dutenek gehiago aipatu dute euskara gainerako taldeek baino. Edonola ere, euskara da kolektibo guztiek gehien aipatutako elementua, salbu eta gehienbat espainiar edo frantses sentitzen direnak (horiek dantza eta pilota gehixeago aipatu dituzte) eta nafar eta espainiar sentitzen direnak (horiek ere pilota euskara baino apur gehiago aipatu dute).

3.1.4.1.5. Kultur ekintzen sustapena

3.1.4. Taula-5

Gustatuko litzaizuke euskal kulturarekin lotutako aktibitate eta ekitaldi gehiago egotea?

	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
Bai, gustatuko litzaizuke	55	60	46	39	56	55	61	58	53	49	44	62	71
Berdin zait	25	23	36	24	25	26	25	24	26	28	35	20	12
Ez, ez dut beharrezko ikusten	16	14	15	32	16	15	11	14	19	18	17	14	14
Ed/Ee	4	4	3	5	4	4	3	4	3	6	4	4	3
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						
	Etor-kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etorkinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai	Gehienbat nafarra	Euskal herri-tarra-nafarra	Gehienbat euskal herri-tarra	Nafar-es-painiarra	Euskal herritarra-espainiarra/frantse-sa	Gehienbat espainiarra/frantse-sa	Bestelakoak
Bai, gustatuko litzaizuke	40	57	62	35	90	75	18	44	29	51
Berdin zait	36	26	20	45	3	11	55	34	40	32
Ez, ez dut beharrezko ikusten	18	13	16	15	6	12	25	19	22	14
Ed/Ee	6	4	2	4	1	2	3	3	8	4
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Jende gehienak (%55) euskal kulturarekin lotutako ekitaldi gehiago egon daitezkeen nahiko luke, beste %25i berdina zaie eta %16k ez dute beharrezko ikusten.

EAEko herritarrek azaldu dute euskal kulturarekin lotutako ekitaldiak bultzatzearen aldeko jarrerarik handiena. Iparraldeko herritarren ia heren batek (%32k) ez du beharrezko ikusten.

Gazteek, euskaldunek, Euskal Herrian jaiotakoek eta gehienbat euskal herritar edo euskal herritar eta nafar sentitzen direnek azaldu dute euskal kulturarekin lotutako ekintzak sustatzearekiko aldeotasunik handiena. Kontrakotasun handiena nafar eta espainiar edo

gehienbat espainiar edo frantses sentitzen direnek adierazi dute eta axola-gabeziarik handiena azken bi talde horiez gainera gehienbat nafar sentitzen direnek.

EAEn eta Nafarroan zenbat eta gazteago ekitaldi horiek ugaritzearen aldeko jarrera handiagoa azaltzen da. Bai Nafarroan eta bai Iparraldean ere aipagarria da euskaraz pixka bat dakitenek adierazi dutela euskal kulturarekin lotutako ekitaldi gehiago egoteko nahirik handiena²⁷.

27. Lurraldez lurraldeko azpitaldeen datuak aztertzeke ikus CDan, *Inkestaren datuak lurraldeka* 21, 50 eta 80. orriak.

3.1.4. Taula-6

Euskal kulturarekin lotutako zein arlo bultzatu beharko lirateke gehien? *

	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
Euskara	27	26	34	24	27	27	29	27	27	22	23	24	33
Dantza	26	24	35	31	22	30	25	21	28	32	35	20	18
Zinea euskaraz	23	26	13	12	24	22	25	29	22	11	13	20	35
Musika	22	21	25	25	19	25	26	19	22	21	23	25	20
Antzerkia euskaraz, pastoral, maskarada	19	19	18	16	15	23	22	22	18	10	12	21	26
Herri kirolak	19	19	20	7	21	17	17	16	23	20	24	21	12
Literatura idatzia	15	16	12	8	13	17	17	15	12	15	12	11	20
Ohiturak	15	14	15	21	13	17	15	17	14	14	15	21	11
Jaiak	13	13	8	21	15	11	19	12	9	9	14	15	10
Pilota	9	8	13	15	13	6	6	7	11	15	13	8	6
Ahozko literatura (bertsolaritza, ipuin kontaketa)	9	9	5	12	7	10	6	9	10	9	6	10	10
Kantua	7	5	6	33	5	8	4	5	8	11	8	4	7
Gastronomia	6	5	9	13	8	5	8	6	5	7	9	5	4
Arte plastikoak	5	5	4	4	6	3	4	5	5	4	4	6	4
Arkitektura, monumentuak	4	4	2	8	5	3	5	5	3	2	5	5	2
Euskal sinboloak (ikurriña, mitologia...)	4	3	4	6	4	3	5	3	4	1	3	3	5
Beste	10	10	12	8	11	9	10	13	9	7	8	12	12
Ed/Ee	5	5	5	3	5	4	3	5	5	8	6	5	4

* Euskal kulturarekin lotutako ekitaldi gehiago egon daitezen nahi luketela adierazi dutenei bakarrik galdetu zaie (biztanleriaren %55). Batura ez da 100, hiru elementu aipatzeko aukera zegoelako.

Euskal kulturarekin lotutako zein arlo bultzatu beharko lirateke gehien?*

	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						
	Etor- kina	Euskal He- rrikoa, guraso 1-2 etor- kinak	Euskal He- rrikoa, gura- soak ere bai	Ge- hien- bat na- farra	Eus- kal herri- tarra- na- farra	Ge- hien- bat euskal herri- tarra	Nafar- espai- niarra	Euskal herri- arra-espai- niarra/ frantse- sa	Ge- hien- bat espai- niarra/ frantse- sa	Beste- lakoak
Euskara	19	24	31	29	42	31	14	17	15	22
Dantza	33	22	25	34	35	21	56	31	32	26
Zinea euskaraz	13	24	25	4	23	29	3	18	12	12
Musika	25	23	20	21	21	22	21	19	26	29
Antzerkia euskaraz, pasto- rala, maskarada	12	19	21	10	20	22	9	16	12	16
Herri kirolak	20	22	17	22	17	18	30	23	15	19
Literatura idatzia	8	17	16	5	16	17	0	13	6	13
Ohiturak	16	15	14	17	16	16	6	10	14	13
Jaiak	13	14	12	6	11	13	3	11	15	19
Pilota	13	8	9	23	7	6	29	12	18	8
Ahozko literatura (bertsola- ritza, ipuin kontaketa)	6	9	9	3	5	10	3	6	6	5
Kantua	9	4	7	7	5	6	3	4	24	6
Gastronomia	11	5	6	12	6	5	13	6	11	12
Arte plastikoak	3	6	4	3	4	5	3	4	1	4
Arkitektura, monumentuak	3	6	3	2	1	3	3	5	4	3
Euskal sinboloak (ikurriña, mitologia...)	3	4	4	3	5	4	3	2	2	1
Beste	11	9	11	12	13	11	10	9	9	10
Ed/Ee	6	4	5	9	2	3	10	8	8	2

* Euskal kulturarekin lotutako ekitaldi gehiago egon daitezzen nahi luketela adierazi dutenei bakarrik galdetu zaie (biztanle-
riaren %55). Batura ez da 100, hiru elementu aipatzeko aukera zegoelako.

Euskal kulturarekin lotutako ekitaldiak sustatzearen aldeko jarrera adierazi dutenen iritziz, gehien sustatu beharrekoak euskara, dantza, euskarazko zinea eta musika dira.

Gehien sustatu beharreko elementu nagusi bezala euskara eta dantza asko aipatu dira Nafarroan, kantua eta dantzak Iparraldean eta

euskara, euskarazko zinea eta dantzak EAEn. Emakumeek gehiago aipatu dituzte sustatu beharreko arloen artean dantza, antzerkia eta musika eta gizonezkoek herri kirolak eta pilota; euskaldunek gainerakoek baino gehiago aipatu dituzte euskara eta euskarazko zinea eta antzerkia eta literatura idatzia.

3.1.4.1.6 Euskal kultura eta globalizazioa

3.1.4. Taula-7

Euskal kulturarentzat kultura globalizatua zer da?

	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
Traba handia + Nolabaiteko traba	26	29	24	18	31	23	33	31	25	16	20	35	34
Ez du eraginik	17	15	19	30	18	17	16	18	18	16	21	13	13
Nolabaiteko aberastasuna + Aberastasun handia	26	28	18	34	27	25	23	32	28	21	26	27	25
Ed/Ee	30	28	39	19	25	35	28	20	29	47	33	25	27
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						
	Etor-kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etorkinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai	Gehienbat nafarra	Euskal herri-tarranafarra	Gehienbat euskal herri-tarra	Nafar-es-painiarra	Euskal herritarr-espainiarra/frantsesa	Gehienbat espainiarra/frantsesa	Bestelakoak
Traba handia + Nolabaiteko traba	18	29	30	19	47	35	9	21	16	27
Ez du eraginik	21	17	15	21	13	13	24	20	26	20
Nolabaiteko aberastasuna + Aberastasun handia	26	28	25	18	22	28	15	29	24	30
Ed/Ee	34	25	30	44	18	25	52	30	34	23
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Kultura globalizatuak euskal kulturaren duen eraginari buruz iritzirik eman ez duten euskal herritarrek asko dira, %30. %26k uste dute euskal kulturarentzat kultura globalizatua traba handia edo nolabaiteko traba dela eta beste horrenbestek aberastasun handia edo nolabaiteko aberastasuna dela. %17ren ustez kultura globalizatuak ez du eraginik euskal kulturaren.

Iparraldean, EAEn eta Nafarroan baino iritzi baikorragoa dute kultura globalizatuak euskal kulturaren duen eraginari buruz, %34k nolabaiteko aberastasuna edo aberastasun handia dela uste dute. Gainera Iparraldean gainerako lurraldeetan baino gutxiago dira iritzirik eman ez dutenak. Gazteek, euskaraz pixka bat edo ongi dakitenek eta gehienbat euskal herritar edo euskal herritar-nafar sentitzen direnek gainerakoek baino gehiago ikusten dute kultura globalizatua euskal kulturarentzako traba bezala.

3.1.4. Taula-8

Kultura globalizatuarentzat euskal kultura zer da?

	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparaldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
Traba handia+ Nolabaiteko traba	5	5	6	4	7	5	7	8	4	3	4	8	7
Ez du eraginik	30	29	27	43	33	27	30	32	32	24	31	31	28
Nolabaiteko aberastasuna + Aberastasun handia	35	38	28	33	38	34	36	41	36	26	32	39	40
Ed/Ee	29	27	39	19	23	35	27	19	28	47	33	22	25
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

	JATORRIA			NORTASUN SENTIMENDU NAGUSIA						
	Etor-kina	Euskal Herrikoa, guraso 1-2 etorkinak	Euskal Herrikoa, gurasoak ere bai	Gehienbat nafarra	Euskal herritar nafarra	Gehienbat euskal herritarra	Nafar-espainiarra	Euskal herritarra-espainiarra/frantsesa	Gehienbat espainiarra/frantsesa	Bestelakoak
Traba handia+ Nolabaiteko traba	3	7	7	7	11	7	3	3	4	5
Ez du eraginik	33	31	28	27	29	28	26	30	39	33
Nolabaiteko aberastasuna + Aberastasun handia	30	38	37	23	42	40	19	39	24	38
Ed/Ee	34	24	29	44	18	24	53	28	33	24
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Euskal kulturak kultura globalizatuan duen eraginari buruz ere %29k ez dute iritzirik eman, baina kasu honetan %5 besterik ez dira euskal kultura, kultura globalizatuarentzat traba dela diotenak, eta aldiz %35k uste dute aberastasuna dela. %30ek uste dute ez duela eraginik.

Kasu honetan 30-45 urtekoek, euskaldunek eta euskal herritar, euskal herritar-nafar edo euskal herritar bezain espainiar edo frantses sentitzen direnek adierazi dute gehien euskal kulturak kultura globalizatuarentzat aberastasuna dakarrela.

EUSKAL KULTURA: INKESTAREN ONDORIO NAGUSIAK

- ▶ Euskal kultura kontzeptua gai eta jende talde batekin lotzen du jende gehienak, gutxiago dira lurralde zehatz batean egindakoa dela uste dutenak eta are gutxiagok uste dute euskaraz egindakoa dela euskal kultura. Hau da, gehienek euskal kultura Euskal Herriari buruzkoa edo Euskal Herriko jendeak egindakoa dela uste dute eta gutxiagok uste dute Euskal Herrian egiten dena edo euskaraz egindakoa dela.
- ▶ Nafarroako herritarren artean zabalduen dagoen iritziak nafar kultura euskal kulturaren barnean kokatzen du; talde handia osatzen dute halaber Nafarroako kultura eta euskal kultura Nafarroan elkarrekin bizi diren bi kultura desberdintzat dituztenek, eta gutxiagok diote Nafarroako propioa kultura nafarra dela eta euskal kultura beste lurralde batekoa.
- ▶ Euskal kultura nahikoa abegitsu, jendarteko, ireki eta etorkizuneko ikusten dute euskal herritarrek. Erlijioso-Laiko eta Baserriko-Hiriko muturren artean erdi parean kokatu dute.
- ▶ Euskal kulturarekin gehien lotzen den elementua euskara da, eta haren atzetik dantza, pilota eta herri kirolak.
- ▶ Euskal herritar gehienek euskal kulturarekin lotutako ekitaldi gehiago egon daitezkeen nahi lukete, eta bereziki euskara, dantza, euskarazko zinea eta musika lirateke sustatu beharrekoak.
- ▶ Zalantza asko azaldu dira euskal kultura eta kultura globalizatuak elkarrengan izan dezaketen eraginari buruz, antzerako taldeak osatzen dituzte kultura globalizatu euskal kulturarentzat traba dela uste dutenek eta aberastasuna dela uste dutenek. Aldiz, euskal kultura, kultura globalizatuarentzat aberastasun bezala gehiago ikusten da oztopo bezala baino.
- ▶ Itxura batean kontraesan bat aurkitzen dugu euskarari euskal kulturaren barnean ematen zaion lekuari buruz: batetik, ukatu egiten da euskara ezinbesteko baldintza denik gauza bat euskal kulturatzat hartzeko, eta bestetik, euskal kulturaren ezaugarri adierazgarriena euskara dela kontsideratzen da. Badirudi euskarak euskal kulturaren duen erreferentzialtasuna ez dela zalantzan jartzen, baina euskaraz ez dagoen guztia euskal kulturatik kanpo uzteko arazoak daudela. Aurrerantzean gehiago ikertu beharreko gaia izan daiteke.

3.1.4.2. Azterketa kualitatiboaren emaitzak

3.1.4.2.1. Euskal kulturaren definizioa

Eremu geografiko ezberdinetako taldeek esandakoetatik atera daitekeen lehendabiziko ondorioak euskal kulturaren definizio argiaren gabeziari egiten dio erreferentzia. Izan ere hainbat ikuspuntu azaldu dira euskal kultura zer den eta zer ez den azaltzerakoan; nagusienak aipatuko ditugu hemen:

- Batetik, euskara euskal eremu kulturalaren elementu bereizgarritzat jotzen dutenak daude. Interpretazio honek euskal kultura definitzeko espresio gorena hizkuntza dela baieztatzen du eta, kasu

honetan, euskal kulturaren protagonistak euskaldunak lirateke. Ikuspuntu honen arabera, pisu bereko edo maila bereko beste elementuren bat sartzeari euskal kulturaren singularitasuna arriskuan jartzea litzateke.

- Bestalde, euskal kultura zer den eta zer ez definitzeko eremu geografikoa darabiltenak daude: *euskal eremu kulturalan sortzen den oro da euskal kultura* –baieztatzen dute–. Adiera honen arabera, euskara bigarren maila batean geratuko litzateke eta definizioaren pisu guztia espazioak eta herrialdearekin zerikusia duten pertsonen hartuko lukete euren gain. Azkeneko ikuspuntu honen

jarraitzaileen ustetan, kultura hizkuntzara mugatzeak, biztanleriaren zati handi bat baztertzea suposatzen du, hizkuntza menperatzen ez duenez, euskal kulturaren unibertsoan haren partaidetza ezin ziurta dezakeelako.

- Bi ikuspegi hauen artean badira beste batzuk ere. Hauek ez dute euskal kultura mugatzen euskaraz sortzen denera eta, aldi berean, ez dute euskal kulturatzat jotzen Euskal Herrian eratzen den oro. Lan edo produktu kulturaletan jorratzen diren gaiak, izaera errebindikatiiboak eta bestelako ezaugarriek lortzen dute kultur-espresio bat euskal kulturatzat jotzea (erabilitako hizkuntza kontuan hartu gabe) –esaterako euskal rock erradikala–. Hau da, ikuspuntu honi jarraiki, badirudi Euskal Herrian egindako zerbait euskal kulturaren partetzat hartzeko, euskal erreferente bat izan behar duela, eta euskaraz egina izatea ez litzateke ezinbesteko baldintza. Izan ere, euskaraz sortzen den guztia euskal kultura den zalantzan jartzen da.

Mota honetako ikuspuntuek agerian uzten dituzte euskal kulturaren mugak zehazteko dauen zailtasun eta zalantzak. Izan ere, ikerketa burutu bitartean, nabarmendu da ez zegoela aurretiko diskurtsorik gaiaren inguruan eta, talde ezberdinetako parte hartzaileek iritzia zeinen erraz aldatzen zuten ikusita, ondoriozta daiteke ez zutela aurretik inoiz horren inguruko gogoetarik egin.

Euskal kulturaren mugen inguruko ikuspuntuek pisu desberdina dute lurraldearen arabera. Modu honetan, EAEn ikuspegi guztiak aurki daitezke, euren artean bat besteen gainetik nagusitu gabe. Euskaraz ez dakitenen artean –logikoa ematen duenez–, euskal kultura euskararekin zerikusia daukanera mugatzearen aldeko ikuspegiak arrakasta gutxiago du euskaldunen artean baino. Izan ere, pertsona ez-euskaldunen kasuan, errealitatearen eta eurentzat izan behar-ko litzatekeenaren artean bereizketa egitea posible da: euskal kulturaren definizioa zabalagoa izatea gustatuko litzateke, baina gizarteak euskarara mugatzeko apustua egin duela uste dute eta, beraz, euskal kulturatik at topatzen dute euren burua.

EAEn topa daitekeen ikuspuntu aniztasuna ez da Nafarroan neurri berean aurkitzen. Han, hizkuntzak euskal kulturaren mugak askoz ere

argiago ezartzen ditu (biztanleriaren gehien-goarentzat euskaraz sortzen dena da euskal kultura eta asko eroso sentitzen dira horretatik kanpo). Gainera, Nafarroan bada euskal nortasunarekin lehian aritzeko moduko beste nortasun bat: Nafarroako nortasuna.

Taldearen diskurtsoan sakondu ahala, Nafarroan definizioa zabaltzen doa eta Euskadiren ingurukoa izan daitekeena ere euskal kulturatzat jotzen da, euskaraz sortua ez badago ere. Esaterako, gehienetan euskal herritarren berezko ezaugarritzat jotzen den izaera errebindikatiiboarekin zerikusia duten gaiak edo jokaerak aipatzen dira.

Nafarroaren kasuan, kultura ez-euskaldun edo erdaldunaren garrantziak gora egin ahala, euskal kulturaren definizioa murriztu egiten da. Hau da, Sakanan euskaraz jorratutako kulturak garrantzi handia du eta, gainera, eguneroko bizitzaren hainbat elementu euskal kulturaren ataltzat hartzen dira (koadrila, txikiteoa, jaiak,...); hala ere, horren euskaldunak ez diren eremuetara hurbiltzen garen heinean, euskal kulturari eskainitako lekua murriztu egiten da eta eguneroko bizitzako elementuak ez dira euskal kulturarekin lotzen.

Iparraldean ere antzeko egoera ematen da, nahiz eta kasu honetan, jendearen ustetan, euskararen eta euskal kulturaren arteko harremana estuagoa izan. Hango herritarren ustez, euskal kultura euskarazko munduarekin zerikusia daukana da, baina badirudi ez euskaldunei ere irekitako errealitate bat litzatekeela, gehienbat eguneroko bizipen eta esperientziei dagokienez. Lurralde honetan, euskal kulturari buruzko euskaltzaleen eta ez euskaltzaleen diskurtsoak oso antzekoak dira. Ezberdintasun nagusia da euskaltzaleek bizi izandako zerbaiti buruz hitz egiten dutela eta ez euskaltzaleek, berriz, kanpotik ikusitakoari buruz ematen dutela iritzia.

Iparraldean euskal kultura modernotasunarekin eta globalizazioaren aurkako erresistentziarekin lotzen duen irudikapen bat sortzen hasi dela dirudi eta maila horretan, euskal identitatea agerian jartzeko modua eskaintzen duten euskal kulturako zenbait elementu garrantzitsuak dira osagai nagusiaren (euskararen) jabe ez direnentzat. Hala ere, urrats txikiak dira, hirietan oraindik ere euskal kultura tradizioarekin, baserri giroarekin eta iraganarekin lotzen baita batez ere.

Definizioei dagokionez, beste aldagai garrantzitsua adinarena da; izan ere, ikerketak ondorioztatutakoaren arabera, gazteak dira hizkuntzaz gaindiko euskal kultura defendatzeko joera nagusia erakutsi dutenak (gazteen artean, euskaldun edo euskaltzaleek ere euskal kulturaren definizioa zabaltzeko joera dute).

3.1.4.2.2. *Euskal kulturaren osagaiak*

Euskal kulturaren mugei buruzko ikuspegiak aztertu ondoren, taldeen diskurtsoan azaldutako beste guneetako bat euskal kultura osatzen duten elementuei buruzko da. Hiru lurraldeetan topa daitezke kultura tradizio moduan, sorkuntza moduan eta eguneroko bizitza moduan ulertzen duten irudikapenak.

Kultura **tradiziotzat** hartzeari dagokionez, taldeek ohituraren garrantzia nabarmentzen dute euskal kulturaren elementuak zehazteko orduan. Izan ere, ohitura oinarritzko erreferentzetat hartzen da euskal espazio kulturala baloratu behar denean.

Ohitura edo tradizioak harreman zail eta nahasiak eragiten ditu. Batetik, diskurtso politikoak tradizioa kapitalizatzeko maiz azaltzen duen joeraren berri ematen da. Bestetik, tradizioa egungo testuinguruan kokatzeko eta ohiturari ezaugarri garaikideagoak egotzeko zailtasuna aipatzen da. Baina euskal tradizioaren aberastasuna, singularitasuna eta aniztasuna ere nabarmentzen dira.

Tradizioaren balioa oso ezberdina da batzuentzat eta besteentzat. Euskaldunentzat edota euskaltzaleentzat, tradizioa oso elementu preziatua da euskal kulturaren barruan, garai zailetan aurrera egiteko bere gaitasuna goretsiz. Bestalde, tradizioa garatzeko beharra azpimarratzen du talde honek, garai berrietan txertatu eta kultura zabaldu ahal izateko. Ez euskaldun edota ez euskaltzale batzuen ustez, tradizioa lehenaldian errotuta dago eta behar bada handia jasan du. Baieztatzen dutenez, euskaldun multzo batek jarrera monolitikoa erakutsi eta ohiturari egindako edozein kritika ukatzen du eta horrek egoera are gehiago okertzen du.

Tradizioari dagokionez, oro har, helduak dira ohitura eta espresio tradizional eta folklorikoen-

ganako atxikimendu handiena erakusten dutenak. Gazteek jarrera hotzagoa erakusten dute gai honen inguruan.

Hiriko esparruan, kultura tradizio gisa pertsonen egunerokotasunetik at ikusten da. Baserri giroan, berriz, pertsonen bizipenekin eta euren inguru fisiko eta gizatiarrarekin lotura handiagoa duela ematen du. Iparraldean, hiri eta landa eremuen arteko bereizketa kostalde eta barrualdearen artekoa izatera pasatzen da. Barrualdean tradizioak bizirik dirauen bitartean, kostaldean turistentzako erakargarri bihurtu da. Azkeneko kasu honetan, kulturak bere alderdirik txarrena garatzen du ikuskizun folkloriko bihurtuta. Horregatik, kultura parametro garaikideagoetara moldatzeko eskakizunik sendoenak Iparraldeko kostaldean ematen dira.

Kultura **sorkuntzat** hartzeari dagokionez, esan beharra dago kultur-alderdi honi buruz topatu dela diskurtso gutxien. EAEn soilik eta noizean behin errekuera daitezke gai honi buruzko gogoetak edo erreferenteak. Nafarroan, sorkuntzaren gaia gaineratik baino ez da aipatzen. Iparraldean, edozein motatako ekintza burutu nahi duen pertsonak erakundeengandik jasotzen duen berme eta baliabide urritasunean oinarritzen da diskurtsoa (erreferentzia gehienak antzerkiari buruzkoak dira, Iparraldean beste lurraldeetan baino garrantzi handiagoa jasotzen baitu).

Diskurtso landu xamarra eragiten duen alderdi bakarra musika dela dirudi, euskal kultura bestelako kulturekin batu eta elkarlanean aitzeko esperimendazio eremu bihurtuta. Iparraldean, rock jaialdien bitartez, gazteak euskal kulturara hurbiltzeko ere erabiltzen da musika. Jaialdi hauei esker, gazteek giro euskaldun batekin lehen harremana izateko aukera dute, euren gustuekin eta eskakizunekin bat datorren hizkuntza erabiliz.

Musikaz gain, lurralde guztietan partekaturiko beste erreferentziarik ez da topatzen. Ez dago muga politiko-administratiboak gainditu eta ikur edo ezaugarri bihurtzeko ahalmena duen sortze-lanen irudirik.

Kultura **eguneroko bizitzat** hartzen duen ikuspegi oso garrantzitsua da euskal kulturaren irudia definitzeko garaian. Euskaltasuna

definitzeko orduan euskarari garrantzi gutxiago ematen dioteneak, harremanak izateko, jokatzeko, lan egiteko, eta elkartzeko moduei garrantzi handiagoa ematen diote.

Talde ez euskaldunak dira ideia hau eta honen inguruko espresioak gehien garatzen dituztenak. Hizkuntza ez dute menperatzen eta tradizio eta ohiturekin ez dute beti beren burua identifikatzen, beraz, horien aurrean, kultura eguneroko bizitzako elementuekin (taldeka antolatze gaitasuna, elkartasuna, izara aldarrikatzailea, erlazionatzeko moduak, gastronomia elkarteak, poteoa, auzolana...) lotzeak euren euskal nortasuna definitzen laguntzen die.

Talde batzuentzat, eguneroko kultura *gure kultura* bihurtzen da. Bizitzako kulturak edo eguneroko bizitzak guztiek partekatzen duten euskal kulturaren eremua sortzen du. Esan bezala, hau askoz ere argiagoa da EAEn; izan ere, beste lurraldeetan ez dago horren argi eguneroko bizitza hori guztiek partekatutako euskal kultura den ala ez.

Gazteen artean aisi-lekuek gailentasun nabaria lortu dute, euskal publikoari zuzendutzat har daitezkeen hainbat ekitaldik oso profil ezberdinak (euskaldunak, ez euskaldunak, etab.) batu baititzake. Modu honetan, ikastolek antolatutako jaiek eta antzeko ekitaldiek oso talde desberdinak batu ditzaketek. Erabat esanguratsua da Iparraldeko herrietako jaiek izan duten euskalduntze progresiboa, modu naturalean gazteek euskal munduarekin –musikaren kasuan bezala– harremana izaten hasteko leku eta momentu egoki bihurtu baitira.

Aurreko guztia kontuan hartuta, erreferente berrietatik abiatuta kultura zabaltzen lagunduko duten elementuak bilatu behar direla argi geratzen da. Era berean, onuragarria litzateke politikarekin zerikusirik ez duten taldeak edo pertsona ospetsuak (inongo ideologiarekin identifikatu gabeak) bilatzea, euskal kultura bertan barneratu gabekoei hurbiltzeko gai izango direnak. Ez euskaldunentzat edota ez euskaltzaleentzat oso positiboa da euskararen mundutik beste kulturen bila abiatzen diren kooperazio-ekintzak topatzea. Gainera, kulturaren kontzeptua garatzeko eta dimentsio berrietara zabaltzeko baldin bada, tradiziora jotzea ere onartua dagoela dirudi.

Taldeetako gogoeten artetik, aipatzekoa da solaskide askok nolabaiteko atsekabea adierazi dutela, *hizkuntz oztopoak* zirela-eta parte hartu ezinik geratzen direlako zenbait kultur jardueretan: jakin-mina eta interesa dute bertsoaritzan, dantzetan... baina, eurek diotenez, ez dute aukerarik euskal kulturak berezkoak dituen adierazpide horietara iristeko, hizkuntza kultur bizitzarako muga bezala bizi dute. Bide emankorra izan liteke pertsona horiei kultura euskaldunerako zubiak eskaintzea, horrek apaldu egin lezake-eta sentitzen duten frustrazioa.

3.1.4.2.3. Euskal kultura eta globalizazioa

Euskal kulturaren etorkizunari buruzko eztabaidan, globalizazioaren fenomeno da gune nagusietako bat. Horregatik, taldeek fenomeno honen garapenaren egungo hainbat alderdi positibo eta negatibo bildu dituzte.

Alderdi positiboen artean hurrengoak nabarmentzen dituzte:

- Jakintza eta komunikazio bideak zabaltzea.
- Kulturen arteko harreman eta nahasketarako aukerak.
- Kanpora zabaltzeko eta hedatzeko aukerak.

Alderdi negatiboen artean hurrengoak nabarmentzen dituzte:

- Izan ditzakeen emaitzei buruzko mesfidantza.
- Globalizazio, ekonomia eta kontsumismo terminoen arteko lotura.
- Kulturaren homogeneizazioa.
- Bizi-eredu edota bizitza kultura propioaren desagertzea.

Globalizazioaren indarra gehiago nabaritzen da Iparraldean egiten diren diskurtsoetan; izan ere, hango taldeek diotenez, mundializazio eta homogeneizazio prozesuaren barnean daude eta dagoeneko hasi dira ondorioak nabaritzen.

3.1.5. Kultur praktikak

3.1.5.1. Inkestaren emaitzak

3.1.5.1.1. Kultur jardueretan parte hartzea

3.1.5. Taula-1

Azken hiru hilabeteotan zenbatetan joan zara...?

Gutxienez behin joandakoak %	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparaldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
Zinemara	45	46	44	40	47	43	73	54	37	10	37	57	52
Kontzertuetara	28	29	27	23	30	27	57	26	17	13	22	36	35
Museo edo erakusketara	26	28	24	19	28	25	24	33	28	17	25	33	25
Euskal dantzetara	24	26	20	20	25	23	19	28	29	17	22	27	26
Monumentuak ikustera	23	24	22	16	24	21	21	30	23	13	23	31	18
Antzerkira	14	15	14	12	11	17	13	14	18	11	14	14	15
Hitzaldietara	9	9	9	4	9	8	9	8	10	7	7	12	11
Bertso saioetara	9	11	4	7	9	10	9	8	10	11	6	10	15
Pastoral edo maskaradetara	3	2	1	14	3	3	3	2	4	2	2	3	4
Dantza garaikide edo klasikora	3	3	3	8	3	4	3	3	5	3	3	4	3

Galdetutako kultur jardueren artetik, herriar gehienek egiten dutena zinemara joatea da, herritarren %45 azken hiru hilabeteotan gutxienez behin joan dira. %28 gutxienez kontzertu batera joan dira, %26 museo edo erakusketaren batera joan dira, %24 euskal dantzak ikustera eta %23 monumenturen bat bisitatzera. Gutxiago dira antzerkira joandakoak (%14), hitzaldiren bat entzutera joandakoak (%9), bertso saioetara joandakoak (%9), pastoral edo maskaradaren bat ikusitakoak (%3) eta dantza garaikidea edo klasikoa ikustera joandakoak (%3).

Ondoko taulan kultur jarduera horietan erabilitako hizkuntza aztertu dugu. Bertso saioen, pastoralen eta maskaraden hizkuntza erabilera ez da jaso, euskaraz izaten baitira beti. Halaber, dantza garaikide edo klasikoaren daturik ere ez da ematen, kopuruak oso txikiak izanik, datuen fidagarritasuna ezin baita bermatu.

Bistakoa denez, hizkuntza bakoitzean dagoen kultur eskaintza aztertu gabe zaila da hizkuntza erabileraren balorazio osatua egitea. Hala ere, egoki ikusi dugu kultur jarduera desberdinak zein hizkuntzatan egiten diren aztertzea.

3.1.5. Taula-2

Hizkuntza erabilera kultur jardueretan*

Hizkuntza bakoitzaren %, jarduera egin denaldi guztiekiko	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
ZINEMA													
Nagusiki gaztelaniaz/frantsesez	94	94	98	88	94	94	96	93	92	94	98	93	91
Nagusiki euskaraz	2	2	1	2	1	3	1	2	4	2	0	4	2
Ele bitan, beste hizkuntza batean edo hizkuntzarik ez	4	4	1	10	4	3	3	4	4	4	2	3	6
KONTZERTUAK													
Nagusiki gaztelaniaz/frantsesez	51	49	67	34	48	56	48	56	52	58	65	50	40
Nagusiki euskaraz	24	26	16	24	25	22	31	18	12	12	7	17	43
Ele bitan, beste hizkuntza batean edo hizkuntzarik ez	25	25	17	42	26	22	21	26	36	30	28	33	16
MUSEO EDO ERAKUSKETAK													
Nagusiki gaztelaniaz/frantsesez	44	35	71	55	45	42	45	38	48	47	52	31	37
Nagusiki euskaraz	4	4	1	7	5	2	2	5	4	4	2	1	10
Ele bitan, beste hizkuntza batean edo hizkuntzarik ez	53	60	28	38	50	55	53	57	48	49	46	68	53
EUSKAL DANTZAK													
Nagusiki gaztelaniaz/frantsesez	9	5	30	20	10	9	9	6	13	8	15	3	5
Nagusiki euskaraz	77	86	41	55	74	79	75	85	71	75	69	84	84
Ele bitan, beste hizkuntza batean edo hizkuntzarik ez	14	10	29	25	16	12	16	9	16	16	16	13	11
MONUMENTUAK													
Nagusiki gaztelaniaz/frantsesez	52	54	45	49	53	51	43	60	60	27	58	43	47
Nagusiki euskaraz	3	2	4	6	3	2	2	4	2	1	2	3	3
Ele bitan, beste hizkuntza batean edo hizkuntzarik ez	45	44	51	46	43	47	55	36	38	72	39	54	49
ANTZERKIA													
Nagusiki gaztelaniaz/frantsesez	86	85	92	81	89	84	87	83	86	93	98	81	68
Nagusiki euskaraz	11	14	5	10	9	13	12	15	12	0	1	14	30
Ele bitan, beste hizkuntza batean edo hizkuntzarik ez	2	1	3	10	2	2	1	1	2	7	1	6	2
HITZALDIAK													
Nagusiki gaztelaniaz/frantsesez	82	78	98	77	76	87	78	80	89	75	93	86	59
Nagusiki euskaraz	6	7	1	0	6	6	8	3	7	5	0	0	21
Ele bitan, beste hizkuntza batean edo hizkuntzarik ez	12	15	1	23	18	7	14	17	4	19	7	14	21
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Taulak jasotzen duen informazioa zera da: herritar guztien artean jarduera bakoitza egin denaldi guztietatik, ehuneko zenbat izan diren hizkuntza bakoitzean.

Hizkuntzarik erabiltzen ez duten jardueretan (dantza ikuskizunetan edo ahozko azalpenik gabeko monumentuen bisitetan adibidez), aurkezpenaren eta seinaletikaren hizkuntza erabilera hartu da kontuan.

Jarduera horietako hizkuntza erabilerari dagokionez, egoera oso desorekatua da. Jen-deak gehien egiten duen jardueran, zineman, euskararen presentzia oso eskasa da: biztanle guztien artean azken hiru hilabeteetan zinera joandako aldi guztietatik %2 baizik ez da euskaraz izan. Euskararen presentziarik handiena euskal dantzen ikuskizunetan (%77 euskaraz) aurkitzen dugu. Kontzertuetara joandako aldien %24 ere euskaraz izan dira. Euskararen presentzia askoz ere txikiagoa izan da antzerkian (%11), hitzaldietan (%6), museo edo erakusketen bisitetan (%4), monumentuen bisitetan (%3) eta, lehen aipatu bezala, zineman (%2).

Beraz, kultur jarduera gehienetan (eta batez ere jende gehienak egiten dituenetan), gaztelania edo frantsesa da nagusi.

EAEen beste lurraldeetan baino gehixeago egiten dira kultur jarduerak euskaraz, baina hala ere oso kasu gutxitan osatzen dute portzentaje aipagarria. Euskaldunek, espero zitekeen moduan, gainerakoek baino joera handiagoa dute euskarazko kultur jarduerak egiteko.

3.1.5.1.2. Euskarazko telebistaren kontsumoa

3.1.5. Taula-3

Azken hiru hilabeteetan zenbatetan ikusi duzu telebista euskaraz?

	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparralde	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
Egunero	22	26	14	13	23	22	25	24	20	20	6	20	54
Astean behin edo gehiagotan	21	24	13	15	23	18	23	21	19	20	15	25	27
Astean behin baino gutxiagotan	25	25	24	21	26	24	23	24	27	25	30	29	13
Inoiz ez	32	25	49	51	28	36	29	31	33	36	49	25	6
Ed/Ee	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Euskal herritarren %22k egunero ikusten dute telebista euskaraz, %21ek astean behin edo gehiagotan eta %25ek hori baino maiztasun txikiagoarekin. %32k diote ez dutela inoiz ikusten telebista euskaraz.

EAEko herritarrek ikusten dute gehien euskarazko telebista, Nafarroan eta Iparraldean biztanleriaren erdiak inguruk ez du inoiz ikusten.

Gazteen artean gehixeago dira euskarazko telebista ikusten dutenak. Deigarria da euskaraz ez dakitenen %6k diotenez egunero ikusten dutela telebista euskaraz eta %15ek astean behin edo gehiagotan. Euskaldunen %54k egunero ikusten dute telebista euskaraz eta %27k astean behin edo gehiagotan. Euskaraz pixka bat dakitenen %20k egunero ikusten dute eta %25ek astean behin edo gehiagotan.

3.1.5.1.3. Euskarazko irratia-aren kontsumoa

3.1.5. Taula-4

Azken hiru hilabeteetan zenbatetan entzun duzu irratia euskaraz?

	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
Egunero	15	17	8	15	15	14	20	13	14	12	2	11	39
Astean behin edo gehiagotan	8	9	4	10	9	7	9	10	6	7	3	9	17
Astean behin baino gutxiagotan	12	13	6	14	13	11	14	13	13	9	7	18	18
Inoiz ez	65	61	81	60	62	67	57	64	67	71	87	61	26
Ed/Ee	0	0	1	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Herritarren %15ek egunero entzuten dute irratia euskaraz, %8k astean behin edo gehiagotan eta %12k maiztasun txikiagoarekin. %65ek ez dute inoiz entzuten.

EAE eta Iparraldean Nafarroan baino gehiago entzuten da irratia euskaraz. Gazteenek entzuten dute gehien, 30 urtetik beherakoek. Euskaldunen %39k egunero entzuten dute irratia euskaraz eta %17k astean behin edo gehiagotan.

3.1.5.1.4. Euskarazko egunkari, aldizkari eta liburuen kontsumoa

3.1.5. Taula-5

Azken hiru hilabeteetan zenbatetan irakurri dituzu euskarazko egunkari, aldizkari edo liburuak?

	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
Egunero	8	9	5	3	8	7	9	7	9	5	1	5	22
Astean behin edo gehiagotan	9	10	5	5	9	8	15	9	6	6	0	7	24
Astean behin baino gutxiagotan	12	13	6	12	11	13	15	15	8	10	3	16	26
Inoiz ez	71	67	83	78	70	72	61	69	77	79	95	71	28
Ed/Ee	1	0	1	1	1	0	1	1	0	1	1	1	0
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Herritarren %8k diote egunero irakurtzen dutela egunkari, aldizkari edo libururen bat euskaraz, %9k astean behin edo gehiagotan eta %12k gutxiagotan. %71k ez dute inoiz halakorik irakurtzen.

Euskaldunen %22k egunero eta %24k astean behin edo gehiagotan irakurtzen dute euskaraz. Euskaldunen %28k inoiz ez.

3.1.5.1.5. Euskal musikaren kontsumoa

3.1.5. Taula-6

Azken hiru hilabeteetan zenbatetan entzun dituzu euskal musikazko disko edo kaseteak?

	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
Egunero	10	11	8	10	10	10	16	10	9	5	2	10	24
Astean behin edo gehiagotan	17	18	11	17	18	16	21	19	16	10	9	20	30
Astean behin baino gutxiagotan	22	24	16	27	24	20	20	24	24	19	19	26	26
Inoiz ez	50	47	65	45	47	53	41	46	52	66	69	43	20
Ed/Ee	0	0	1	1	0	0	0	1	0	1	0	1	0
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Herritarren %10ek diote egunero entzuten dutela euskal musikazko diskoren bat eta %17k astean behin edo gehiagotan. %22k hori baino maiztasun gutxiagorekin kontsumitzen dute euskal musika eta %50ek inoiz ez.

Gazteenek eta euskaldunek entzuten dute euskal musika gehien.

3.1.5.1.6. Kirol jarduerak

3.1.5. Taula-7

Kirolen bat egiten duzu?*

Kirol bakoitza egiten dutenen %	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK			
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65
Ibilaldiak	36	33	47	35	27	45	18	31	43	55
Mendia	13	13	10	12	18	7	13	15	14	7
Igeriketa	12	12	13	8	10	13	13	15	10	7
Gimnasia, aerobica	9	9	10	7	5	12	12	9	8	5
Txirrindularitza	8	8	8	13	12	5	10	11	9	2
Futbola	7	8	8	3	14	1	20	8	1	0
Pilota	5	4	5	9	9	1	6	7	4	1
Lasterketa, atletismoa	5	6	4	4	8	2	6	10	3	0
Eskia, neguko kirolak	4	3	4	6	4	3	8	4	2	1
Boleibola, eskubaloia, saskibaloia	3	3	3	2	4	2	8	3	1	0
Ehiza, arrantza	3	3	4	3	6	0	3	4	4	1
Tenisa, paddlea, squasha	3	3	3	3	5	2	6	5	1	1
Ur kirolak	2	2	1	3	3	1	3	4	1	0
Errugbia	1	0	0	3	1	0	2	1	0	0
Herri kirola	1	1	1	1	1	0	0	1	1	0
Beste kirol bat	5	5	5	10	5	5	9	6	4	1

* Batura ez da 100, kirol bakoitzari buruz galdetu zelako.

3.1.5. Taula-8

Kirolen baten zalea zara?*

Kirol bakoitzaren zaleen %	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK			
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65
Futbola	30	31	26	32	42	18	24	26	34	39
Pilota	19	20	20	15	24	14	11	14	23	31
Boleibola, eskubaloia, saskibaloia	13	13	11	9	17	8	13	13	14	10
Txirrindularitza	13	14	11	13	19	7	9	15	13	13
Tenisa, paddlea, squasha	10	9	9	13	12	7	10	11	8	9
Errugbia	6	4	2	38	9	4	6	7	6	5
Igeriketa	6	6	7	5	6	6	5	8	7	4
Lasterketa, atletismoa	6	6	6	8	8	4	6	8	6	5
Mendia	5	5	8	3	6	5	4	6	7	4
Herri kirola	5	6	5	5	8	3	5	7	5	5
Gimnasia, aerobica	5	5	5	5	5	5	5	7	4	2
Ur kirolak	4	4	3	4	6	3	4	5	5	3
Eskia, neguko kirolak	4	5	3	5	5	3	5	5	5	3
Ibilaldiak	3	3	2	2	4	1	2	3	3	2
Ehiza, arrantza	3	3	3	3	5	1	4	3	3	2
Beste kirol bat	5	5	5	8	7	4	7	6	6	3

* Kirol horietako bakoitza egiten ez dutenei dagozkien datuak.
Batura ez da 100, kirol bakoitzari buruz galdetu zelako.

Euskal herritarrek gehien egiten duten kirola ibiltzea da, %36k egiten dutelarik; ondoren datoz mendia (%13), igeriketa (%12), gimnasia (%9), txirrindularitza (%8), futbola (%7), pilota (%5), lasterketa (%5), eskia eta neguko kirolak (%4), ehiza eta arrantza (%3), boleibola, eskubaloia eta saskibaloia (%3), tenisa, paddlea eta squasha (%3), ur kirolak (%2), errugbia (%1), herri kirolak (%1) eta bestelakoak (%5).

Kirol gehienetan, (salbu eta ibiltzean, mendian, igeriketan eta ur kirolan) egiten dutenak baino gehiago dira egin gabe ere zaleak direnak: futbola (%30), pilota (%19), boleibola, eskubaloia eta saskibaloia (%13), txirrindularitza (%13), tenisa, paddlea eta squasha (%10), errugbia (%6), igeriketa (%6), lasterketa (%6), mendia (%5), herri kirolak (%5), gimnasia (%5), ur kirolak (%4), eskia eta neguko kirolak (%4), ehiza eta arrantza (%3), ibilaldiak (%3) eta bestelakoak (%3).

Oro har, adinean aurrera egin ahala gero eta herritar gutxiagok egiten dute kirola (ibiltzean ezik, hori gero eta gehiago egiten baita adinean aurrera egin ahala). Zaletasuna aldiz, ez doa adinari hain lotuta kirol gehienetan; pilota eta futbola lirarteke salbuespenak, zenbat eta zaharrago orduan eta gehiago baitira zaleak.

Lurralde desberdinetako herritarren artean ez da alde handirik nabari kirol praktika eta zaletasunei dagokienez. Alde esanguratsu bakarra da Iparraldean errugbiaren zaleak asko direla (%38), EAEn eta Nafarroan oso gutxi diren bitartean. Aipatzekoa da baita ere Nafarroan ibilaldiak egiten dituztela herritarren %47k.

Gizonezkoen artean kirolari eta zaletu gehiago daude emakumezkoen artean baino, hiru kirolan salbu: gimnasia eta aerobika, ibilaldiak eta igeriketa.

KULTUR PRAKTIKAK: INKESTAREN ONDORIO NAGUSIAK

- ▶ Herritar gehien erakartzen duen kultur jarduera zinema da, ondoren kontzertuak, museo edo erakusketak, euskal dantzak eta monumentuak. Jarduera gehienak nagusiki gaztelaniaz edo frantsesez egiten dira.
- ▶ Praktikan, euskararen erabilera aipagarria euskal kultura tradizionalako jardueretan ematen da (bertsolaritza, dantza...). Praktika *unibertsalagoak* (zinema, kontzertuak...) beste hizkuntzetan egiten dira. Hala ere, gai honetan oso kontuan hartzekoa litzateke hizkuntza bakoitzean dagoen eskaintza ere.
- ▶ Herritarren %22k egunero ikusten dute telebista euskaraz. Aztertutako hedabide eta produktuen artean gehien kontsumitzen dena telebista da. Euskaldunen erdiak baino gehiagok egunero ikusten dute eta gutxi edo batere ez dakitenen artean ere kontsumoa aipatzekoa da. Euskarazko telebistaren kontsumoa batez ere EAEn dago zabalduen.
- ▶ Iparraldean gehixeago dira egunero irratia euskaraz entzuten dutenak egunero telebista euskaraz ikusten dutenak baino.
- ▶ Euskarazko irratia eta egunkari, aldizkari eta liburuak berriz gehienbat euskaldunek kontsumitzen dituzte. Horien %39k egunero entzuten dute euskarazko irratia eta %22k egunero irakurtzen dute egunkari, aldizkari edo libururen bat euskaraz.
- ▶ Euskaldunen %28k ez dute inoiz euskarazko egunkari, aldizkari edo libururik irakurtzen, %26k ez dute inoiz irratia euskaraz entzuten eta %20k ez dute euskal musikarik entzuten. Telebista euskaraz inoiz ikusten ez dutenak %6 dira.
- ▶ Kirol jarduerarik zabaldiena ibiltzea da, eta ondoren mendia eta igeriketa. Kirol gehienetan nabarmen gehiago dira zaleak kirola praktikatzen dutenak baino, batez ere futbola eta pilotaren kasuan.

3.1.6. Elkarte bizitza

3.1.6.1. Inkestaren emaitzak

3.1.6.1.1. Elkarteetako partehartze maila

3.1.6. Taula-1

Kide edo partehartzaile direneko elkarte kopurua*

	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparralde	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
Bat ere ez	70	73	58	67	66	74	79	65	71	66	70	68	70
Bat	22	20	29	20	24	20	18	24	20	26	22	24	21
Bi	6	5	9	7	7	4	3	7	6	7	6	7	5
Hiru edo gehiago	3	2	3	6	3	2	1	5	3	1	2	2	3
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

* Inkestatuei ez zaie zuzenean kopurua galdetu, elkarte mota bakoitzari buruz, kide ote diren galdetu zaie eta horren arabera osatu da taula hau.

Taula honetan ikus daitekeen bezala euskal herritarren %70 ez dira inolako elkarteetako kide ezta partaide ere, %22 elkarte bateko kide edo partaide dira, %6 bi elkartetan dabilta, eta %3 hiru elkartetan edo gehiagotan.

Nafarroako herritarren artean gainerako lurraldeetako artean baino gehiago dira elkar-teren bateko kide edo partaide, ondoren Iparraldekoak datoz eta azkenik EAEkoak. Aipatzekoa da Nafarroan biztanleriaren %9 bi elkartetako

kidea dela eta Iparraldean %6 hiru elkarte edo gehiagotakoa.

Gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino nabarmen gehiago dira elkarteetako kideak. 30 eta 45 urte bitartekoak eta 65 urte-rik gorakoak artean ematen dira elkarteetako partaidetza kopururik altuenak. Aipatzekoa da 30 eta 45 urte bitartekoak laurden bat (%24) elkarte bateko kide dela, %7 bi elkartetakoa eta %5 hiru elkarte edo gehiagotakoa.

3.1.6. Taula-2

Ondoko elkarte motetako kidea zara edo izan nahiko zenuke?

	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
GURASO ELKARTEA													
Ez eta ez nuke nahi	94	95	94	92	96	93	98	89	94	99	95	94	94
Ez, baina nahi nuke	1	1	1	3	1	2	1	2	1	0	1	2	1
Bai, kide, partehartzaile edo arduraduna naiz	3	3	4	4	2	4	1	9	3	0	3	3	4
Ed/Ee	1	1	0	0	1	1	1	0	1	1	1	1	0
SINDIKATU EDO ELKARTE PROFESIONALA													
Ez eta ez nuke nahi	93	93	93	95	92	95	96	89	92	98	93	91	95
Ez, baina nahi nuke	1	1	1	2	1	1	1	2	0	0	1	1	1
Bai, kide, partehartzaile edo arduraduna naiz	5	5	7	4	7	3	2	8	5	0	3	7	4
Ed/Ee	1	1	0	0	1	1	1	0	1	1	1	1	0
ELKARTE HUMANITARIOA													
Ez eta ez nuke nahi	92	92	94	88	93	91	91	90	92	96	92	87	94
Ez, baina nahi nuke	4	5	2	6	4	5	7	5	4	1	3	7	4
Bai, kide, partehartzaile edo arduraduna naiz	3	2	5	5	3	4	0	5	4	2	3	5	1
Ed/Ee	1	1	0	0	1	1	1	0	2	1	1	1	0
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Ondoko elkarte motetako kidea zara edo izan nahiko zenuke?

	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparaldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixkat	Bai
ERLIJIO EDO PARROKIAKO ELKARTEA													
Ez eta ez nuke nahi	97	96	97	97	97	96	98	97	96	95	96	97	98
Ez, baina nahi nuke	1	1	0	2	1	1	0	2	1	0	1	0	0
Bai, kide, partehartzaile edo arduraduna naiz	2	2	2	1	1	2	1	1	2	3	1	2	2
Ed/Ee	1	1	0	0	1	1	1	0	2	1	1	1	0
KULTUR ELKARTEA													
Ez eta ez nuke nahi	90	91	88	86	90	91	89	91	89	93	91	88	91
Ez, baina nahi nuke	3	3	2	4	3	3	5	3	2	0	2	4	2
Bai, kide, partehartzaile edo arduraduna naiz	6	4	9	9	7	5	5	5	7	6	5	8	6
Ed/Ee	1	1	1	0	1	1	1	0	2	1	1	1	0
KIROL ELKARTE EDO TALDEA													
Ez eta ez nuke nahi	88	89	86	85	84	92	86	85	90	95	90	87	87
Ez, baina nahi nuke	3	3	1	4	4	2	4	4	2	0	2	5	2
Bai, kide, partehartzaile edo arduraduna naiz	8	6	13	10	11	5	9	12	6	4	6	8	10
Ed/Ee	1	1	1	0	1	1	1	0	2	1	1	1	0
INGURUMENAREN DEFENTSARAKO ELKARTEA													
Ez eta ez nuke nahi	96	95	97	93	96	95	95	94	95	98	96	93	97
Ez, baina nahi nuke	3	3	1	4	3	2	4	4	2	1	2	5	2
Bai, kide, partehartzaile edo arduraduna naiz	1	0	1	3	0	1	1	1	1	0	0	1	1
Ed/Ee	1	1	0	0	1	1	1	0	2	1	1	1	0
EUSKARAREN DEFENTSARAKO ELKARTEA													
Ez eta ez nuke nahi	96	96	98	94	97	96	97	96	96	97	97	95	96
Ez, baina nahi nuke	2	2	1	3	2	2	2	3	1	1	1	4	2
Bai, kide, partehartzaile edo arduraduna naiz	0	0	1	2	0	0	0	1	0	0	0	0	1
Ed/Ee	1	1	0	0	1	1	1	0	2	1	1	1	0
JUBILATU EDO ERRETIRATUEN ELKARTEA													
Ez eta ez nuke nahi	94	95	92	95	94	94	99	99	95	80	92	97	96
Ez, baina nahi nuke	1	1	0	2	1	1	0	1	1	0	1	0	1
Bai, kide, partehartzaile edo arduraduna naiz	5	3	8	4	4	5	0	0	2	18	6	1	2
Ed/Ee	1	1	0	0	1	1	1	0	2	1	1	1	0
AUZO EDO HERRI ELKARTEA													
Ez eta ez nuke nahi	96	97	96	94	96	96	97	96	95	97	95	97	98
Ez, baina nahi nuke	1	1	1	3	1	1	1	2	1	0	2	1	0
Bai, kide, partehartzaile edo arduraduna naiz	1	1	3	4	2	1	1	1	2	1	2	1	1
Ed/Ee	1	1	0	0	1	1	1	0	2	1	1	1	0
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Ondoko elkarte motetako kidea zara edo izan nahiko zenuke?

	GUZ-TIRA	LURRALDEA			SEXUA		ADIN TALDEAK				EUSKARAREN EZAGUTZA		
		EAE	Nafarroa	Iparraldea	Gizona	Emakumea	16-29	30-45	46-64	≥ 65	Ez	Pixka bat	Bai
EHIZTARI EDO ARRANTZALE ELKARTEA													
Ez eta ez nuke nahi	98	97	98	97	97	99	98	98	97	99	97	97	99
Ez, baina nahi nuke	1	1	0	2	1	0	1	1	0	0	1	1	0
Bai, kide, partehartzaile edo arduraduna naiz	1	1	1	0	2	0	1	1	1	0	1	2	0
Ed/Ee	1	1	0	0	1	1	1	0	2	1	1	1	0
TALDE, MUGIMENDU EDO ALDERDI POLITIKOA													
Ez eta ez nuke nahi	97	97	98	96	97	98	98	98	96	98	97	98	97
Ez, baina nahi nuke	0	0	0	1	0	0	0	1	1	0	0	0	0
Bai, kide, partehartzaile edo arduraduna naiz	1	1	1	2	2	0	1	1	1	1	1	0	2
Ed/Ee	1	1	0	0	1	1	1	0	2	1	1	1	0
GAZTE ELKARTEA													
Ez eta ez nuke nahi	98	98	98	95	98	98	97	98	98	99	98	97	98
Ez, baina nahi nuke	1	0	0	3	1	1	1	1	0	0	1	2	0
Bai, kide, partehartzaile edo arduraduna naiz	0	0	0	2	0	1	1	0	0	0	0	0	1
Ed/Ee	1	1	0	0	1	1	1	0	2	1	1	1	0
ETXEJABEEN EDO ALOKATZAILEEN ELKARTEA													
Ez eta ez nuke nahi	98	98	99	97	98	98	99	97	98	98	97	98	99
Ez, baina nahi nuke	0	0	0	2	0	0	0	1	0	0	0	0	0
Bai, kide, partehartzaile edo arduraduna naiz	1	1	0	1	1	0	0	2	0	0	1	1	0
Ed/Ee	1	1	0	0	1	1	1	0	2	1	1	1	0
ONDARE ELKARTEA													
Ez eta ez nuke nahi	98	98	99	98	98	98	98	99	98	98	98	98	99
Ez, baina nahi nuke	1	1	0	2	1	1	2	1	1	1	1	1	1
Bai, kide, partehartzaile edo arduraduna naiz	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Ed/Ee	1	1	0	0	1	1	1	0	2	1	1	1	0
GUDARI EDO SOLDADU OHIEN ELKARTEA													
Ez eta ez nuke nahi	99	99	99	97	99	98	99	99	98	98	98	99	100
Ez, baina nahi nuke	0	0	0	2	0	0	0	1	0	0	1	0	0
Bai, kide, partehartzaile edo arduraduna naiz	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Ed/Ee	1	1	1	0	1	1	1	0	2	1	1	1	0
BESTE ELKARTE MOTA BAT													
Ez eta ez nuke nahi	91	91	90	95	91	92	92	92	89	93	90	91	93
Ez, baina nahi nuke	0	0	0	1	0	1	1	0	0	0	0	1	0
Bai, kide, partehartzaile edo arduraduna naiz	2	2	3	4	3	2	1	3	3	3	3	3	2
Ed/Ee	5	6	6	0	6	5	6	5	6	4	6	6	5
(Ehuneko bertikalak)	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Euskal herritar gehien-gehienak ez dira inolako elkarteetako kide eta elkarte mota gehienetan %90etik gora dira kide izan nahi ez luketenak. Kide gehien duten elkarte motak kirol elkarte edo taldeak (%8), kultur elkarteak (%6), jubilatuen elkarteak (%5) eta sindikatu edo elkarte profesionalak (%5) dira.

Herritar gutxi batzuk adierazi dute ez direla ondoko elkarte motetako kide baina nahiko luketela: elkarte humanitarioa (%4), kultur elkar-
tea (%3), kirol elkar-
tea (%3) eta ingurumenaren defentsarako elkar-
tea (%3).

ELKARTE BIZITZA: INKESTAREN ONDORIO NAGUSIAK

- ▶ Herritarren %30 dira elkarte bateko edo gehiagotako kide, partehartzaile edo ardura-dun. Herritar gehienek beraz ez dute elkar-
teetan parte hartzen eta ez dute horretarako interesik ere.
- ▶ Nafarroan gainerako lurraldeetan baino gehixeago dira elkarteetan parte hartzen dutenak.
- ▶ Kirol taldeek, kultur elkarteek, jubilatuen edo erretiratuena elkarteek eta sindikatu eta elkarte profesionalak biltzen dute jende gehien.
- ▶ Talde txikia osatzen badute ere, badira bi, hiru edo elkarte gehiagotako kideak, batez ere 30 eta 45 urte bitartekoen artean eta Iparraldeko eta Nafarroako biztanleen artean.

3.2. HERRITARREN KATEGORIZAZIOA NORTASUN KOLEKTIBOEN IKUSKERAREN ARABERA

3.2.1. Azterketari buruzko argibideak

Atal honen helburua, inkestaren bidez jasotako informazioan oinarrituta euskal herritarrak sailkatzea da, euskal nortasuna, lurraldea eta hizkuntzari buruz dituzten ikuspegi desberdinen arabera. Horretarako inkestatik jasotako zenbait daturen berariazko tratamendu bat egin da. Horri buruzko xehetasunak metodologia atalean aurkituko dituzu.

Azterketa hau batetik Euskal Herri osorako aurkeztuko da eta bestetik EAE, Nafarroa eta Iparralderako, bereizita.

Teknika honen helburua, modu sintetiko batean herritarren iritzi eta jarreraren arteko harremanak eta iritzi horiekiko herritar talde desberdin horien kokapena aurkeztea da. Hau da, aztertutako gaiei buruz antzerako iritziak dituzten herritar taldeak definitzea; nortasuna, lurraldea eta hizkuntzari buruzko jarreraren arabera herritarrak multzokatzea.

Mapa faktorialak lagungarri izango dira kategorizazio hori grafikoki ulertzeko. Mapan, azalpenarako adierazgarri gertatzen diren kolektiboak bakarrik aurkeztuko dira.

Mapa horretan, aztertutako iritzi desberdinak eta aldagai soziodemografiko eta jarrazkoen araberrako herritar taldeak azaltzen dira, bi ardatzen araberrako kokapen jakinetan. Ezkerretik eskuinerako ardatzarekiko kokapena zirkulu batekin markatzen da, eta goitik beherako ardatzarekiko kokapena hiruki baten bidez²⁸.

28. Talde bakoitzak daraman sinboloaren tamainak ez du adierazten talde horretako jende kopurua, baizik eta ardatzaren definizioan iritzi edo talde horrek daukan garrantzia. Adibidez, ezkerretik eskuinerako ardatza definitzean gehienbat espainiar edo frantses sentitzeak indar handia du, garrantzia handia du herritarrak sailkatzeko erabiliko dugun ardatz edo eragile hori osatzean, eta horregatik borobil handia erabili da kokapena markatzeko. Euskal herritar zein espainiar edo frantses sentitzeak pisu handia dauka goitik beherako ardatzaren definizioan; herritarrak sailkatzeko irizpide hori, beste batzuen artean, identitate sentimenduak markatzen du nabarmen, eta horregatik hiruki handia erabili da kokapen hori markatzeko. Horrez gainera, hirukiak borobilak baino txikiagoak dira, bigarren faktoreak (goitik beherakoak) lehenengoak (ezkerretik eskuinerakoak) baino indar gutxiago duelako jendearen iritziak azaltzeko.

Bi modutako azalpena egingo da helburu horrekin: Alde batetik, bi ardatzetako bakoitzean herritar taldeek duten kokapena azalduko dugu. Bestetik, kokapen horiek kontuan hartuz, azalduko ikuspuntu desberdinen arabera euskal gizartean aurkitzen ditugun azpimunduak deskribatuko dira.

3.2.2. Euskal herri mailako azterketa

Mapa honetan ikus dezakegunez Euskal Herriko biztanleak, bi faktore nagusiren inguruan kokatzen dira, nortasuna, hizkuntza eta lurraldetasunari buruzko gaiekiko. Lehenengo faktorea ezkerretik eskuinerako ardatzak adierazten du eta joeren deskribapenean indar handiena duena da. Faktore edo eragile hori euskaltasuna - erdaltasuna²⁹ dei genezake. Bigarrenak (goitik beherakoak) pisu txikiagoa du herritarren kokapena azaltzerakoan, eta nortasun sendoa - nortasun malgua³⁰ dei dezakegu.


3.2.2.1. Herritar taldeen kokapena ardatzetan

Lehenengo faktorean, euskaltasun - erdaltasun binomioak definitutakoan, euskaltasun handienaren muturrean kokatzen dira beren burua gehienbat euskal herritar bezala definitzen dutenak, hurbiltasun handiena eragiten dien auzo lurraldea Euskal Herriko lurralde bat dela diotenak, beraien burua batez ere Euskal Herria eremuarekin identifikatzen dutenak, euskaldunak (euskaldun zaharrak euskaldun berriak baino muturrerago kokatzen dira), bai eurak bai gurasoak Euskal Herrian jaiotakoak eta pertsona bat euskal herritar kontsideratzeko baldintza garrantzitsuenak euskaraz hitz egitea, Euskal Herriaren defendatzaile izatea eta euskal herritar izan nahi izatea direla uste dutenak. Faktore honetan euskaltasunaren aldean kokatzen dira, baina ez hain muturrean, EAEko biztanleak, seme-alabek euskara ikas dezaten nahi dutenak, euskaraz pixka bat dakitenak eta beren burua batez ere bizi diren herri edo hiriarekin identifikatzen dutenak.

29. Euskaltasuna eta erdaltasuna terminoak modu zabalean ulertu behar dira, ez hizkuntzari bakarrik lotuta.

30. Nortasun sendoa - nortasun malgua kontzeptuak Gatti-rengandik hartuak dira eta *Gogoeta eta Ondorioak* atalean, 4.2.6 puntuan landuko dira sakonago. Hemen nahikoa zaigu oinarritzko aipamen batekin, *nortasun malgua* kontzeptua ohiko *nortasun sendoei* kontrajartzen zaiela argitzea. *Nortasun sendoek* oinarri ideologikoak dituzte eta *nortasun malgu* horien oinarrian berriz erreferente ideologikorik edo estrukturalik ez dago, baizik eta egunerokotasunaren arabera sortutako atxikimenduak eta erreferenteak.

HERRITARREN KATEGORIZAZIOA NORTASUN KOLEKTIBOEN IKUSKERAREN ARABERA



Lehenengo faktore horretan erdaltasunaren muturrean kokatzen dira aldiz beren burua gehienbat espainiar edo frantses bezala definitzen dutenak, seme-alabek euskara ikas dezaten nahi ez dutenak edo berdin zaienak, bere burua batez ere Espainia edo Frantzia Estatua-rekin identifikatzen dutenak, Nafarroako eta Iparraldeko biztanleak, beren burua gehienbat nafartzat dutenak, etorkinak, hurbiltasun handiena eragiten dien auzo lurraldetzat Euskal Herrikanpoko bat aipatu dutenak edo batere aipatu ez dutenak, euskaraz ez dakitenak eta pertsona bat euskal herritartzat hartzeko baldintza garrantzitsuenak kontsideratzen dituztenak euskal arbaso edo abizenak izatea eta Euskal Herrian sortua izatea. Talde horretan egongo liriteke halaber beren burua batez ere bizi diren lurraldearekin edo Europa edo munduarekin identifikatzen dutenak, eta sentimendu identitarioari dagokionean beren burua euskal herritar-espainiar/frantses-nafar aldagaitik kanpo, *bestelako* sentimendu batean kokatu dutenak.

Ondoko kolektiboak ere erdaltasunaren aldean kokatzen dira, baina muturretik urrunago: Euskal herritar bezain espainiar edo frantses sentitzen direnak eta Euskal Herrian jaio eta gurasoetako bat edo biak etorkinak dituztenak.

Aipatzekoa da pertsona bat euskal herritartzat hartzeko baldintzei buruzko iritziei dagokienean, euskaltasunaren aldean kokatutako herritarrek joera handiagoa erakusten dutela norberak eskura ditzakeen baldintzak aipatzeko, hau da euskaraz hitz egitea, euskal herritar izan nahi izatea, edo Euskal Herriaren defendatzaile izatea. Aldiz, erdaltasunaren aldean kokatutakoek gehiago aipatzen dituzte jatorrizko baldintzak, Euskal Herrian sortua izatea, euskal arbaso edo abizenak izatea. Pertsona bat euskal herritartzat hartzeko beste baldintza bat, hau da Euskal Herrian bizi eta lan egitea, euskaltasun - erdaltasun faktorearen erdialdean kokatzen da, ez da ez talde baten ez bestearen ezaugarri bat.

Bigarren faktorea bizi direneko lurraldeak eta identitate sendoa edo malgua izateak markatzen du. Identitate sendoaren muturrean topatzen ditugu Iparraldeko eta Nafarroako herritarrak, seme-alabek euskara ikas dezaten nahi ez dutenak edo axola ez zaienak, pertsona bat euskal herritartzat hartzeko euskaraz hitz egiteari, arbaso edo abizen euskaldunak izateari eta euskal dantza, joko edo kirolak praktikatzeari garrantzia ematen diotenak, euskaldun zaharrak, beren burua euskal herriarekin identifikatzen dutenak, hurbiltasun handiena Euskal Herriko beste lurralde batekiko sentitzen dutenak eta bai eurak bai gurasoak Euskal Herrian sortuak.

Identitate sendoaren aldean daude halaber, baina ez lehen aipatutako taldeak bezain muturrean, bai beren burua gehienbat euskal herritartzat dutenak, bai espainiar edo frantsesetzat dutenak, eta 16 eta 29 urte bitarteko gazteak ere.

Ardatz horren beste aldean, nortasun malgua dutenen artean topatzen ditugu beren burua bai euskal herritar bai espainiar edo frantses ere ikusten dutenak, EAEko herritarrak, euskaraz pixka bat dakitenak, etorkinak eta Euskal Herrian sortu baina gurasoetako bat edo biak etorkinak dituztenak, hurbiltasun handiena sortarazten dien auzo lurraldea Euskal Herrikanpoko lurralde bat dutenak, edo lurralde hori zein den adierazi ez dutenak, beren burua batez ere Europarekin edo munduarekin identifikatzen dutenak, eta pertsona bat euskal herritartzat hartzeko baldintza garrantzitsuena Euskal Herrian bizi eta lan egitea dela uste dutenak.

Ikuspegi horren alderik moderatuenean topatzen ditugu euskaraz ez dakitenak, *bestelako* sentimendu identitarioa dutenak, beren burua gehienbat Espainia edo Frantzia estatuekin edo bizi diren herri edo hiriarekin identifikatzen dutenak, seme-alabek euskaraz ikas dezaten nahi luketenak eta 45 urtetik gorakoak.


3.2.2.2. Jarrera nabarmenenak

Sintesi bat eginez, aipatutako herritar taldeen multzokatzeak hiru kategoriatan labur ditzakegu³¹:

1. Euskal azpimundukoak: beren burua Euskal Herriarekin identifikatzen dute eta euskal herritar sentitzen dira, euskaraz ongi edo oso ongi hitz egiten dute, euskara izan delarik euren lehen hizkuntza, Euskal Herrian jaiotakoak dira eta euren gurasoak ere bai, eta pertsona bat euskal herritartzat hartu ahal izateko, euskaraz jakitea baldintza garrantzitsu kontsideratzen dute. Gainera auzo lurraldeen artean hurbilen sentitzen dutenaz galdetuta, Euskal Herriko beste lurralde bat aipatzen dute.

2. Erdal azpimundukoak: batez ere Iparraldeko eta Nafarroako herritarrak dira, gehienbat nafar edo espainiar / frantses sentitzen direnak, ez dute nahi euren seme-alabek euskaraz

31. Multzo hauek modu irekian ulertu behar dira; ikuspegi bakoitzaren ezaugarriak berezkoenak adierazten dituzte, baina horrek ez du esan nahi multzo itxi eta argi mugatuak direnik, ez herritar bakoitza talde horietako batean zehatz kokaturik dagoenik ere.



ikas dezaten edo berdin zaie eta euskal herritartasuna jatorrizko ezaugarriekin lotzen dute, arbasoekin eta abizenekin. Beren burua batez ere bizi diren lurraldearekin identifikatzen dute (EAE, Nafarroa edo Iparraldearekin).

3. Azpimundu mistokoak: EAEn bizi dira batez ere, euskal herritar zein espainiar edo euskal herritar zein frantses sentitzen dira, euskaraz pixka bat edo batere ez dakite, eurak edo gurasoak etorkinak dira, bizi diren herri edo hiriarekin edo Europa edo munduarekin identifikatzen dute euren burua, seme-alabek euskara ikas dezaten nahi dute eta euskal herritar izateko garrantzitsue-na bertan bizi eta lan egitea dela uste dute. Hurbiltasun handiena eragiten dien lurraldea Euskal Herriatik kanpoko lurralde bat da.

3.2.3. Lurraldekako azterketa

Euskal Herri osoko azterketaz gainera, lurraldez lurralde ere egin da faktore analisia, kasu honetan faktore bakarra erabiliko delarik deskribapenerako, ez baita aurkitu azalpen indar esanguratsua duen beste faktorerik. Hiru lurraldeetan ardatz berberak definitzen ditu herritarren iritziak: euskaltasun - erdaltasun ardatzak hain zuzen ere³².

3.2.3.1. EAE

Esan bezala, EAeko biztanleen iritziak azaltzeko faktore eraginkorra euskaltasun - erdaltasuna da. Horren arabera mutur batean leudeke beren burua Euskal Herriarekin identifikatzen dutenak, euskaldun zaharrak, pertsona bat euskal herritartzat hartzeko baldintza garrantzitsuena euskaraz hitz egitea dela uste dutenak, hurbilen sentitzen duten auzo lurraldetzat Nafarroa edo Iparraldea aipatu dutenak, Euskal Herrian jaiok eta gurasoak ere bertakoak dituztenak eta beren burua gehienbat euskal herritartzat dutenak.

Beste muturrean kokatzen dira beren burua gehienbat espainiartzat edo euskal herritar eta espainiartzat dutenak eta Espainiarekin identifikatzen dutenak, seme-alabek euskara ikas dezaten nahi ez dutenak edo axola ez zaienak, etorkinak, hurbilen sentitzen duten auzo lurral-

detzat Kantabria, Burgos edo Errioxa aipatu dutenak edo erantzunik eman ez dutenak, euskaraz batere ez dakitenak edo hitz batzuk soilik dakizkitenak eta pertsona bat euskal herritartzat hartzeko baldintza nagusia Euskal Herrian bizi eta lan egitea dela diotenak.

Gipuzkoako biztanleek euskaltasunaren aldean kokatzeko joera dute, Arabakoek erdaltasunarenean eta Bizkaikoek erdialdean.

3.2.3.2. Nafarroa

Nafarroako herritarren iritziak ulertzeko ere lagungarria da euskaltasun - erdaltasun ardatza. Lurralde honetan, euskaltasunaren muturrean kokatzen dira beren burua euskal herriarekin identifikatzen dutenak eta gehienbat euskal herritar edo nafar eta euskal herritartzat dutenak, euskaraz ongi dakitenak, euskaldun zahar zein berri eta baita euskaraz pixka bat dakitenak ere. Alde horretan kokatzen dira halaber hurbiltasun sentimendu handiena sortzen dien auzo lurraldea EAE edo Iparraldea dela esan dutenak, pertsona bat euskal herritar kontsideratzeko euskaraz hitz egitea, euskal dantza, joko edo kirolak praktikatzea eta euskal herritar izan nahi izateari garrantzia ematen diotenak, eta seme-alabek euskara ikas dezaten nahi luketenak.

Erdaltasunaren muturrean kokatzen dira beren burua gehienbat espainiartzat edo nafar eta espainiartzat dutenak eta Espainiarekin identifikatzen dutenak, hurbilen sentitzen duten auzo lurraldetzat Aragoi edo Errioxa aipatu dutenak eta bat ere aipatu ez dutenak, seme-alabek euskara ikas dezaten nahi ez dutenak edo axolarik ez zaienak, etorkinak, euskaraz ez dakitenak, pertsona bat euskal herritartzat hartzeko garrantzitsuena Euskal Herrian sortua izatea eta euskal abizen edo arbasoak izatea dela uste dutenak, 65 urtetik gorakoak eta beren burua gehienbat nafartzat dutenak eta Nafarroarekin identifikatzen dutenak.


Nafarroa iparraldeko biztanleria euskaltasunaren aldean kokatuta dago, Iruñaldekoak eta erdialdekoak nahiko erdialdean eta hegoaldekoak erdaltasunaren aldean.

3.2.3.3. Iparraldea

Iparraldeko biztanleen iritziak deskribatzean ere, euskaltasun - erdaltasun ardatza da lagungarriena. Kasu honetan ere euskaltasunaren muturrean daude beren burua gehienbat euskal herritartzat dutenak eta Euskal Herriarekin identifikatzen dutenak eta baita euskaldun zaharrak,

32. Lurraldekako azterketan, aldagai berri bat ere sartu da, zonaldea hain zuzen ere. Aldagai hori hala ere, ez da ardatzak definitzean erabili, zonalde bakoitzeko biztanleak neurtutako iritzien arabera definitutako ardatzetan non kokatzen diren ikusteko helburua du soilik.

HERRITARREN KATEGORIZAZIOA NORTASUN KOLEKTIBOEN IKUSKERAREN ARABERA (NAFARROA)



eta hurbilen sentitzen duten auzo lurraldetzat Hegoaldea aipatu dutenak ere. Iparraldean euskaltasunaren aldean topatzen ditugu halaber euskaldun berriak, euskaraz pixka bat dakitenak, seme-alabek euskara ikas dezaten nahi dutenak, beren burua euskal herritar bezain frantsesizat dutenak, bai eurak bai gurasoak Euskal Herrian sortuak eta pertsona bat euskal herritartzat hartzeko baldintza nagusia euskal herritar izan nahi izatea dela uste dutenak.

Beste muturrean, erdaltasunarenean, kokatzen dira aldiz, seme-alabek euskara ikas deza-


ten nahi ez dutenak edo axola ez zaienak, beren burua gehienbat frantsesizat dutenak eta Frantziarekin, Europarekin edo munduarekin identifikatzen dutenak, etorkinak, euskaraz ez dakitenak eta hurbilen sentitzen duten auzo lurraldea Biarno, Landak edo gainerako Akitania dela diotenak.

Euskaltasunaren aldean kokatuta daude Nafarroa Beherea eta Zuberoako biztanleak, erdialderago Lapurdi barnealdekoak eta Hego Kostaldekoak, eta erdaltasunaren aldean Ipar Kostaldekoak.

HERRITARREN KATEGORIZAZIOA NORTASUN KOLEKTIBOEN IKUSKERAREN ARABERA: ONDORIO NAGUSIAK

- ▶ Euskal Herriko herritarrek lurraldea, hizkuntza eta identitateari buruz dituzten iritziak euskaltasuna - erdaltasuna deitu dugun ardatzak markatzen du hein handi batean, eta neurri txikiagoan nortasun sendo - nortasun malgu ardatzak.
- ▶ Euskal Herriko herritarren artean hiru jarra nabarmen aurki ditzakegu lurraldeari, hizkuntzari eta identitateari buruz: euskal azpimundukoak, erdal azpimundukoak eta azpimundu mistokoak. Talde horietako bakoitzak jarrera desberdinak azaltzen diru aztertutako gaien inguruan. Aurrera begira, nortasunaren eta kulturaren inguruan egin beharreko lanean garrantzitsua izango da biztanleriaren sailkapen hau kontuan hartzea.
- ▶ Aipatzekoa da halaber, sexua eta adina bezalako aldagaiak duten eragin txikia. Hainbat gizarte gaietan iritzi eta jarrerak baldintzatzen dituzten aldagaiak izanik, deigarria da lurraldea, identitatea eta hizkuntza bezalako gaietan zein eragin txikia duten, bestelako aldagai batzuen ondoan.
- ▶ Lurraldeen arteko desberdintasunak euskararen ingurukoak dira gehienbat:
 - Euskararen ezagutzari dagokionean EAEn euskaraz pixka bat dakitenak erdaltasunaren aldean kokatuta daude, bai Nafarroan bai Iparraldean euskaraz pixka bat dakitenak euskaltasunaren aldean dauden bitartean, hau da, azken bi lurralde horietan euskaraz pixka bat dakitenen iritziak gertuago daude euskaraz ongi dakitenen eta euskal herriarekin identifikatzen direnen iritzietatik batere ez dakitenen eta estatuarekin identifikatzen direnen iritzietatik baino; EAEn alderantziz gertatzen da.
 - Euskaldun berriak Nafarroan eta Iparraldean euskaltasun ardatzaren muturrean daude, euskaldun zaharren parean edo muturrerago. EAEn aldiz, euskaldun berriak euskaldun zaharren eta euskaraz pixka bat bakarrik dakitenen artean erdibidean daudela esango genuke. Nafarroako eta Iparraldeko euskaldun berriek euskaldun zaharren antza handia dute beren iritziatan, eta EAEn berriz, euskaraz pixka bat dakitenen antza handiagoa dute.
 - Seme-alabek euskara ikastearen aldeko jarrera dutenak ere ardatzaren erdialdean kokatuta daude EAEn, hau da, ez dira euskaltasun - erdaltasun ardatzean mutur batean ez bestean kokatzen, oso iritzi desberdineko jendearen artean ere seme-alabek euskara ikastearen aldeko jarrera oso orokorra baita. Nafarroan eta Iparraldean aldiz, seme-alabek euskara ikastearen aldeko jarrera dutenak euskaltasunaren aldean kokatzen dira, lotura handia dago Euskal Herriarekin identifikatzearen eta seme-alabek euskara ikas dezaten nahi izatearen artean.
- ▶ Horrez gainera, nortasun sentimenduari dagokionean ere aldea ikusten da lurraldeen artean: Iparraldean beren burua euskal herritar eta frantses ikusten dutenen iritziak gertuago daude gehienbat euskal herritar ikusten dutenengandik gehienbat frantses ikusten dutenengandik baino. EAEn aldiz, beren burua euskal herritar eta espainiar ikusten dutenen iritziak gehiago hurbiltzen dira gehienbat espainiar ikusten dutenengana.

HERRITARREN KATEGORIZAZIOA NORTASUN KOLEKTIBOEN IKUSKERAREN ARABERA (IPARRALDEA)



3.3. EUSKALTASUNARI ETA EUSKAL KULTURARI BURUZKO PERTZEPZIOAK INTERNETEN - EMAITZA NAGUSIAK

3.3.1. Sarrera

Atal honetan gizarte ikerketan berritzailea den informazio bilketa bat erabiliz jasotako iritziak ditugu aztergai. Izan ere interneten euskal kultura eta euskaltasunari buruz dabilzan iritziak eta usteak aztertu ditugu.

2004ko uztailaren 1a eta 2005eko ekainaren 30 bitartean interneten sartutako edukiak hartu dira bilaketa oinarritzat.

Eduki horien artean: eusk- erroa edo hainbat hizkuntzatarako haren aldaerak dituzten testuak bilatu dira (eusk-, vasc-, basqu-, bask-...). Testu horien artean, alde batera utzi dira iritziak adieraztera bideratu gabekoak, eta zehazki pertsona partikularren iritziak ez direnak (erakundeen web-etakoak, egunkariak, datu estatistikoak...). Gelditu zaizkigun artean, politikari, ekonomiari edo datu historikoei erreferentzia egiten dietenak ere alde batera utzi ditugu, euskaltasuna eta kulturarekin zerikusi zuzenagoa izan dezaketenak hartzeko.

Azterketari buruzko xehetasunak metodologia atalean aurki daitezke.

Jasotako emaitzak interpretatzean kontuan hartu behar da:

- Jendeak modu espontaneoan, inork galde-tu gabe emandako iritziak direla.
- Gaiari buruzko ezagutza bereziturik eduki beharrik ez duen jendearen iritziak direla.
- Interneten iritziak ematen dituen jendearen iritziak direla (beraz, ez dira gizar-tearen lagin adierazgarri bat, Interneten dagoenaren adierazgarri baizik).

Ondoren aurkezten ditugunak, azterketa horren emaitza nagusiak dira. Azterketa osoa lan honekin batera doan CDan aurkituko duzu.

3.3.2. Emaitza orokorrak

3.3.2.1. Aztertutako iritzien zenbait ezaugarri

Jasotako iritzi gehienak weblog pertsonaletakoak dira (%40).

Ondoko hizkuntzatan idatzitako iritziak jaso dira:

- Gaztelania: %39,4
- Euskara: %33,3
- Ingelesa: %20,0
- Frantsesa: %5,6
- Beste hizkuntza batzuk: %1,7

Ondorioz, esan ahal da euskaltasunari eta euskal kulturari buruz 2004ko uztailaren 1etik 2005eko ekainaren 30era arte Interneten sartutako iritzi gehienak weblogetan idatziak izan direla eta gaztelaniaz edo euskaraz.

Aipatzekoa da halaber, ondoko emaitzek desoreka esanguratsu bat adierazten dutela Hegoaldeko (EAE eta Nafarroako) eta Iparraldeko erreferentzien artean, erakundeak, antolamenduak, hezkuntza ereduak, hizkuntzak etab. aipatzen direnean. Hau da, Interneten euskaltasunaz eta euskal kulturaz hitz egiten denean, askoz gehiago dira Hegoaldeari egindako erreferentziak Iparraldeari egindakoak baino.

3.3.2.2. Euskaltasunari buruz Interneten dauden iritzien gai nagusiak

Euskaltasunari eta euskal kulturari buruz interneten emandako iritzi gehienak hiru gai buruzkoak dira: hizkuntza, beste kultur adierazpide batzuk (gastronomia, artea eta kirola, besteak beste) eta, azkenik, nortasuna eta beste gizarte gai batzuk.

Aurretik aipatu bezala, iritzi bakar batek gai askori buruzko erreferentziak sor ditzake. Hortaz, jarraian egingo dugun zenbaketak erreferentzia egiten dio gai bakoitzari lotutako testu kopuru osoari (nahiz eta, testu bera gai bakar batekin baino gehiagorekin lotuta egon; horregatik, gai bakoitzari lotutako testuen ehunekoen batuketa 100 baino handiagoa da):

- Hizkuntza da iritzi-emaitzek gehien aipatzen duten gaia: testuen erdiek (%51,7) gai honekin dute zerikusia.
- Gastronomia, arteak edo kirola bezalako beste kultur adierazpideak testuen %31,6k aipatu dituzte.
- Iritzien %30,3k aipatzen dituzte nortasuna eta beste gizarte gai batzuk.

Jarraian aztertuko da aipatutako gai orokor bakoitza zer azpigai edo terminorekin jartzen den harremanetan.

Gogorarazi behar da gai hauek aztertzerakoan sarean dauden iritziak deskribatzen ari garela, eta ez ikerketaren egileen iritziak. Izan ere, ikertzaileek Interneteko gizarte giroa aipatzeko asmoa baino ez dute.

3.3.2.3. Hizkuntza

Hizkuntzari, hau da, euskarari egindako aipamenek honako azpigai hauei egiten diete erreferentzia: hizkuntzaren estatusa, transmisioa, erabilera, hizkuntza politika, eremu geografikoa, euskarari lotutako erakunde, gertaera edo pertsonaiak, baita (historiari lotutako ikuspuntu batetik) euskararen jatorria, euskarak jasotako eraginak eta haren berezitasunak ere.

Nabarmendu behar da gai honi lotutako testuetan euskaraz idatzitako ehunekoa (%49) batez bestekoan baino handiagoa dela (%33).

3.3.2.3.1. Hizkuntzaren estatusa

Kategoria honen barnean jasotzen dira honakoei buruzko iritziak: hizkuntzaren egoerari buruzko kezka, ezagutza, desagertzeko arriskua, berreskuratzea, garapena, euskararen gizarte babes, ...

Atal honetan bildutako gaietan oinarrituta, euskararen gaur egungo egoera ulertzeko ibilbide historikoa egin daiteke.

Lehenik eta behin, euskarak urte askotan bizi izan duen desagertze arriskua aipatzen da. Dena den, hizkuntza berreskuratze eta sustatzeko egin diren lanak aitortzen dira. Internauten iritziak, lan hauek aurrera egin behar dute eta laguntza handiagoa eskatzen da.

Azpitarratutako beste arlo bat da (eskolan, euskaltegietan,...) irakatsitako euskararen eta kalean hitz egiten den euskararen artean dagoen aldea.

Honi lotuta, euskara batua eta euskalkien arteko ezberdintasunak ere aipatzen dira. Euskalduntze prozesuak, hezkuntza sistemaren, irakaskuntzaren bidez zein euskaltegien bidezko irakaskuntzaren bidez (baita komunikabideetan

izaniko estandarizazioaren bidez ere), euskara batua bultzatu du euskalkien kaltetan.

Honen inguruan jasotako testuek aipatzen dute euskara batuak, hasiera batean eta bere izenak dioen bezala, oinarritzko funtzio bate-ratzailea zuela, denok ulertzeko moduko euskara bultzatzea zuela helburu, denek partekatua, araututako gramatika duena, ... aipatzen da euskalkiak galtzeko eta gutxieteko joera indartu egin dela. Kexa gehienak, bereziki, mendebaldeko hiztunek egiten dituzte, euren euskalkia batuaren eredutik gehiago ezberdintzen baita, esaterako, gipuzkera baino. Horregatik, euskalki hauetarako gizarte babes eta estatusa eskatzen da. Izan ere, uste dute babes hau galdu dutela euskara batuaren mesedetan.

Oro har, euskararen gizarte babesari buruz (euskalkiena ez ezik, hizkuntza osoarena ere), beste hizkuntzekiko berdintasuna eta eskubide osoko aitortza eskatzen da, baita errespetua ere. Areago, eskubide berdintasunaren aitortza eta euskararen aitortza ez ezik, euskaraz egindako ekitaldi edo jardueren aitortza ere eskatzen da.

Dena den, ez da falta aitortza *folklorikoa* baino egiten ez dionik. Areago, hauek *inposatutako* hizkuntzat hartzen dute edo uste dute abertzaleen esku dagoen bitarteko politikoa dela.

Azpitarratu behar da (euskararen estatusari dagokionez) euskaraz idatzitako aipamen gehienek hizkuntzaren gaur egungo egoeraren salaketa kutsua dutela (hizkuntzari emandako laguntza falta, babes falta, ...). Hauek hizkuntzaren erabileraren eta sustapenaren alde egiten dute nabarmen. Beste hizkuntzetan idatzitako iritziak, ordea, anitzagoak dira.

3.3.2.3.2. Hizkuntzaren transmisioa

Diskurtsoetan sarritan agertzen dira hizkuntzaren transmisioarekin harremana duten aipuak. Aitortzen da lehen (orain dela urte gutxi arte) transmisioa familia bidezkoa baino ez zela, baina gaur egun, hezkuntza sistemak garrantzi gehiago duela. Sistema honen bidez, guraso euskaldunen seme-alabei zein ez euskaldunen seme-alabei ere euskara transmititzen zaie.

Batzuek hala ere zalantzan jartzen dute hezkuntza sistemaren zenbait eredutan lortutako hizkuntza gaitasuna.

Edozein kasutan ere, transmisioaren zama guztia eskolaren bizkar uztea ere akatsa dela nabarmentzen da, haur eta gazteak eskolaz kanpoko beste zenbait esparrutan ere aritzen baitira.

Eskolak zenbait lurraldetan euskara irakatsi eta maila batean behintzat hizkuntza-aren ezagutza ziurtatzen duen arren, transmisioa ez dago erabat bermatuta kolektibo horiek (haur eta gazteek) hizkuntza egunero bizitzan erabili ezean, aztertutako hainbat iritzitan salatu den bezala (hurrengo atalean aztertuko dugu honako hau).

Nolanahi ere, ikuspegi ezkorrek gorabehera, badago hezkuntza politika honi esker (B eta D ereduak indartzea aipatzen da, hain zuzen ere) euskararen etorkizun hurbila bermatuta ikusten duenik.

Transmisio bideak aipatzerakoan, eskolaz gain euskaltegiak ere aipatzen dira. Azken hauek euskalduntze prozesuaren eragile garrantzitsuak direla esaten da, baita euren lana goratu ere. Hala ere, euskaltegiei dagokienez, kritika kutsua ere sumatzen da, bai jasotako emaitzei dagokienez, baita euskararen didaktikari dagokienez ere.

Hizkuntzaren eskola bidezko transmisioari dagokionez (familia bidezkoa alde batera utzita, beraz), aipamen bakar baina interesgarria dago euskaldunzaharren (euskara familia bidezko transmisioz, lehen hizkuntzatzat jaso dutenen) eta euskaldunberrien (bigarren hizkuntzatzat ikasi dutenen) arteko ezberdintasunari buruz. Bereizte hau sarritan egiten da, baina iritzi-emailearen ustez, garrantzitsuena da euskara erabiltzea, non eskuratu den edo zein euskara mota (batua edo euskalkia) egiten duen gorabehera.

3.3.2.3.3. Euskararen erabilera

Aztertutako testu askok kritikatzeko edo salatzen dute euskararen erabilera ez dela zabaldu euskararen ezagutza (hezkuntza eredu elebidunei edo murgiltze ereduak esker) beste, besteak beste, bi arrazoirengatik: alde batetik, euskara erabiltzeko oztupoak daude, euskara ezagutzen ez duten (edo erabili nahi ez duten) solaskide asko baitago, eta, beste alde batetik, hizkuntza dakitenek maiz ez dute erabiltzen (ero-

soagoa baitzaie gaztelaniaz³³ hitz egitea, motibazio faltagatik, ...). Egoera hau da kritikatuena.

Kritika hauek gazteei zuzentzen zaizkie bereziki. Lehen aipatu bezala, gazteen kolektiboan baitago euskaldunen portzentajerik handiena, hezkuntza ereduaren bidezko euskararen irakaskuntzari esker.

Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago egiten duen kolektibo euskaldunak jaso ditu kritika gehien, ikusi dugun bezala. Kolektibo honek defentsa kutsuko adierazpenak egiten ditu. Hauek aipatzen dute gaztelania erabiltzen dutela euskara ez dakitenei dieten begiruneagatik edo zenbait kolektiborekin gaztelania erabiltzeko duten joeragatik.

Edozein kasutan, erabilera faltaren aurrean kezka nagusia hau da: zer etorkizun izan dezake euskarak dakitenek ez badute erabiltzen?

Hainbat esparrutako euskararen erabilerari dagokionez, Interneten gero eta euskara gehiago erabiltzen dela aipatzen da. Izan ere, internet erabiltzen duen jendea, batez ere, gaztea da eta ikasketa maila altukoa. Eta kolektibo honetan euskara dakitenen ehuneko batez bestekotik gora dagoela suposa dezakegu.

Halaber, kritikatu egiten da beste zenbait esparrutan euskara gutxi erabiltzen dela, batez ere erakundeei dagozkien esparruetan (politika edo administrazioa) edo esparru ekonomikoetan.

Aipatu behar da atal honetan bildutako jatorrizko iritzien bi herenak euskaraz idatziak izan direla.

3.3.2.3.4. Hizkuntza politika

Hizkuntza politikaren gainean hitz egiterakoan, honako gai hauek aipatzen dira: hezkuntza ereduak berriro ere, normalizazioa, sustapena, finantzazioa eta diru-laguntza politika, ofizialkide-tasuna edo elebitasuna, hizkuntzaren ezagutza maila ziurtatzeko sistemak, gobernu eta herri aginteei buruzko aipamenak, baita, zentzu negatibo samarrean, euskara ezagutzeko derrigortasuna ere.

33. Atal honen hasieran aipatu bezala, iritzi gehienek Hegoaldeko egoerari egiten diote erreferentzia, eta beraz gaztelania aipatzen da euskararekin elkarbizitzen den hizkuntzatzat, ez frantsesa.

Lehenik eta behin, hizkuntza politikaren helburua ahalik eta herritar gehien euskalduntzea dela aitortzen da. Alabaina, zentzu politikoagoa ematen dionik ere ez da falta, euskal nazionalismoaren helburuekin, edo Espainiaren zatiketa bilatzearekin lotuz³⁴.

Normalizazio prozesuari eta hizkuntza politikari gaztelania-hiztunek egindako kritiken artean euskararen inposaketa aipatzen da.

Nabarmendu behar da kolektibo honek ez duela euskara bera arbuiatzen, bai ordea, zenbait arlotan euskara ezagutzeko derrigortasuna, batez ere lan mundura sartzeko.

Beste ikuspuntu batetik, ostera, euskara ezagutzeko derrigortasuna justifikatzen da, bai gizarte eskariari erantzutearren bai legeak bete eta hizkuntza ofizial gisara euskarak benetan joka dezan.

Horrela, euskarak gaztelaniaren pareko aitortza izan dezan hizkuntza politika egokiaren beharra aipatzen da.

Ugariak dira, zentzu honetan, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politikari nahikotasunik eta eraginkortasunik ez duela eta egindako kritikak. Eraginkortasunik ez duela aipatzen da, jarritako euskalduntze helburuak lortu ez dituelako eta hizkuntzaren ezagutza bermatzeko tituluetan oinarritzen delako. Titulu horiek ateratzeko azterketak sektore askok arbuiatzen dituzte (euskara ez dakitenek ez ezik, euskaldunek ere arbuiatzen dituzte). Beste alde batetik, hizkuntza politikak nahikotasunik ez duela aipatzen da, ez dituelako euskararen sustapenera zuzentzen euskalduntze plana burura eramateko beharrezkoak diren baliabide guztiak.

Gainera, hizkuntza politika beste arlo batzuetara hedatu beharra ere aipatzen da.

Nabarmen-nabarmenak dira Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikari egindako kritikak.

Hizkuntza politikari buruz aipatutako iritzien erdiak jatorriz euskaraz idatziak izan dira. Nabarmendu behar da euskarazko eta gaztelaniazko testuek duten kutsu ezberdina: gaztelaniaz idatzitako testu gehienek, oro har, euskararen

derrigortasuna kritikatzeko dute; euskarazko testuek, ordea, salatzen dute euskara sustatzeko laguntza gutxi dagoela edo hizkuntza berreskuratzeko politikak egokiak ez direla. Salbuespena Nafarroatik datozen testuak dira. Foru komunitatearen hizkuntza politikari egindako kritikak gaztelaniaz idatzita baitaude.

3.3.2.3.5. Erakundeak, gertaerak eta pertsonaiak

Hizkuntzari lotutako gaiak aipatzen dituzten testuetan euskarari lotutako erakunde, gertaera edo pertsonaiei buruzko erreferentzia puntualak ere agertzen dira.

Erakundeei buruzko aipamenetan, euskararen sustatzean (ala sustatze ezan) erakundeek betetzen duten funtzioaren arabera da tratamendua. Aipamen hauek, zenbait kasutan, kutsu positiboa dute, baina, gehienetan, euskara gutxi zaintzeagatik eta gutxi lantzeagatik egindako kritikak dira. Sektore batzuk modu orokorrean aipatzen dira (berezi komunikabideak), eta erakunde zehatzei buruzko aipamenak ere badaude (ETB, Diario Vasco, Vocento, EHU, Deustuko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitatea, Osakidetza, ELA, CCOO,...).

Gertaera batzuei buruzko aipamen puntualak ere egiten dira (Korrika, Durangoko Azoka, *Bai Euskarari Ziurtagiriaren* banaketa ekitaldia, Blog&Roll lehiaketa...). Kasu honetan ere, kutsu positibodun, aldeko aipamenak daude eta kutsu negatibodunek, berriz, gertaera edo ekintzei euren baina, horiek egiteko moduari edo horien alderdi zehatzei egiten diete erreferentzia.

Hala ere, ekintza horietako batzuen hasierako helburua ahultzen ari dela ere kritikatzeko da, eta horren eraginez euskararen sustapen lana kaltetzen ari dela.

Pertsona publikoei buruzko aipamenen artean, aipamen positibo, negatibo eta neutroak daude: positiboak (eta neutroak), batez ere, kulturari lotutako pertsonen buruzkoak dira eta negatiboak, batez ere, politikari lotutako pertsonen buruzkoak.

3.3.2.3.6. Eremu geografikoa

Atal honetan, zenbait esparru geografikotako euskararen erabilera aipatzen da. Udalerri txiki eta ertainetan, edo landa tradizioari lotutakoetan

34. Berriz ere, Interneten topatutako iritziek Hegoaldeari egiten diete erreferentzia.

euskara gehiago erabiltzen dela nabarmentzen da. Lurralde historikoen arteko ezberdintasunak ere nabarmentzen dira.

Edonola ere, azken urte hauetan euskararen erabilera hirietan igo egin dela nabarmentzen da.

Atal honetan aipamen gehiago izan dira gaztelaniaz euskaraz baino. Horrez gain, nabaria da ingelesez idatzitako aipamen asko dagoela, batez ere Euskal Herriatik kanpoko pertsonak idatziak eta Euskal Herrian bizitakoa kontatuz.

3.3.2.3.7. Jatorria eta beste hizkuntzen eraginak

Euskararen jatorriari dagokionez, aho batez onartzen dute jatorri zaharra eta ezezaguna duela hizkuntza honek.

Bitxia da euskararen jatorriari buruzko testu gehienak Euskal Herriatik kanpoko pertsonak idatzi dituztela. Gainera, jatorriari buruz idazterakoan pasadizo bezala idazten dute, euskal kulturaren murgiltzean eskuratutako ezagutza historiko-folkloriko berri bezala.

Beste hizkuntzetatik jasotako eraginei buruz, ez dago iritzi argirik. Hala ere, askok uste dute euskarak bere inguru geografiko hurbiletik eraginak jaso dituela (hitzak, egiturak, ...). Era berean, euskarak beste hizkuntza batzuei maileguak egin dizkiela onartzen da.

Berriz ere, iritzi-emaile euskaldunek (edo, zehatzago esanda, euskaraz idazten duten iritzi-emaileek) gai honen inguruan interes gutxi edo dutela dirudi. Izan ere, badirudi hauek interes handiagoa dutela euskararen gaur egungo egoeraz eztabaidatzeko, jatorriaz eztabaidatzeko baino.

LABURBILDUZ

Ematen du jendeak hizkuntza, hots, euskara euskaltasunaren eta euskal kulturaren erdiguneko osagaitzat hartzen duela, beti ere gai honen inguruan dagoen aipamen kopuruari erreparatuz gero.

Testuetan bi jarrera kontrajarri nabarmentzen dira besteen gainetik: alde batetik, euskararen sustapen handiagoa eta eragile politiko eta sozialen inplikazio handiagoa eskatzen dutenak. Hauek, gehien bat, euskaraz idazten dituzte iritziak. Gainera, kritikatzeko dute euskararen nor-

malizazioa eta gaztelaniarekiko parekidetasuna (ez ofiziala, benetakoa baizik) lortzeko jarduera gutxi (edo indar gutxikoak, behinik behin) dagoela. Beste alde batetik, euskara arrotz bezala ikusten dutenak, inposatutako zerbait bezala ikusten dutenak. Hauek ere hizkuntza politika kritikatzeko dute, baina oso bestelako arrazoiengatik, hala nola, euskararen irakaskuntzaren edo ezagutzaren derrigortasunagatik (batez ere lana lortzeko betekizuna denean).

Kasu bietan onartzen dute euskara gutxiengo baten hizkuntza edo hizkuntza gutxitua dela, iritzi-emaileak egindako interpretazioaren arabera. Euskararentzat laguntza gehiago eskatzen dutenak gutxitutzat hartzen dute eta egoera hau konpondu beharra dagoela esaten dute. Aitzitik, euskara arrotza edo inposatua dela uste dutenak hizkuntza minoritariotzat edo gutxiengo baten hizkuntzat hartzen dute, egoera hau euren aldarrikapenak zurrizko erabiltzen dutelarik, horien ustez, eguneroko bizitzan euskara ez baita inola ere beharrezkoa.

Hirugarren talde bat badago, baina honek eragin txikiagoa edo garrantzi txikiagoa du sareko eztabaidetan. Talde honetako kideek euskara goresten dute eta ondo baloratzen dute euskararen sustapena. Baina ez dira gaien inplikatzeko eta ematen du ez dutela mehatxutzat hartzen. Badirudi (emandako iruzkinen arabera) talde honetako kideek ez dakitela euskaraz, baina bere kultur balioa onartzen dutela eta ez direla Euskal Herrian bizi edo euskara jakiteko esijentziak ez diela eragiten (euren lanagatik...).

3.3.2.4. Beste kultur adierazpide batzuk

Atal honetan jasotako aipamenak kulturaren definizioari eta kultur adierazpide zehatzei dagozkie. Adierazpide hauek lau multzotan sailka ditzakegu (sarean dagoen aipamen kopurua aintzat hartuta): arteak, gastronomia, kirolak eta herri tradizioak.

Kultur adierazpideei buruzko aipamena egiten duten testuak gaztelaniaz (%33) eta ingelesez (%34) idatziak daude, batik bat. Euskaraz testuen %24 daude idatziak, frantsesez testuen %7 eta beste hizkuntza batzuetan %1.

3.3.2.4.1. Kulturaren definizioa

Sarean bildutako iritzien artean, ez dugu topatu euskal kulturaz zer ulertzen den zehatz-

mehatz eta argi adieraziko duen definizio edo deskripziorik (*definizio* hori txostenean zehar egindako aipamenetatik ondorioztatu beharra dago).

Batzuek euskal kultura folkloreakin eta ohiturekin lotuko dute; beste batzuek, aldiz, baztertu egingo dute honako hau, beraien ustez, kultura hori baino gehiago baita eta dinamikoa eta etengabeko garapena duela defendatuko baitute.

Dena den, badago kritikarik ere honen inguruan. Izan ere, batzuek uste dute gehiegizko ahalegina egin dela euskal kultura ez-zaharkitua eta modernoa dela frogatu nahian eta ahalegin horretan, sarritan, tradizioa gogorarazten duen guztia errefusatzera jotzen dela diote.

Beste alde batetik, euskal kultura propioa existitzen ez dela adierazten duenik ere bada. Hauen ustez, euskal kultura mendebaldeko Europako kulturaren aldaera bat baino ez da eta honekin duen alde bakarra hizkuntza da (euskara).

Badago, halaber, euskal kulturari politikarekin lotuegi dagoela leporatzen dionik.

Edonola ere, euskal kulturari egindako aipamenak ugariak dira. Eta, horien artean, nagusi dira kultura laudatzen dutenak.

3.3.2.4.2. Arteak

Kultur adierazpideei buruzko atal honetako testuen %47k arteei egiten diete erreferentzia.

Arteei buruzko atal honetan testu gehienak euskaraz idatziak izan dira (%44), ondoren gaztelaniazkoak datoz (%38) eta gero beste hizkuntzetan idatzitakoak (ingelesa %15 eta frantsesa %3).

Musika

Azpiatal honetan, nagusi dira musikariei edo musika taldeei buruz egindako aipamenak (baita kanta zehatz batzuei edo musika disko batzuei buruzkoak ere). Zentzu honetan, azpimarratzen dira kantautore tradizionalak (Mikel Laboa edo Imanol, kasurako), baita modernoagoak ere (Mikel Urdangarin, euskal rock erradikaleko talde batzuk (Eskorbuto, La Polla Records, ...), musika estilo berriak jorratzen dituzten

talde berritzaileak (Fermin Muguruza, Kortatu edo Negu Gorriak), edo folkari lotutako artistak (Kepa Junkera edo Oreka TX).

Ez dago musika klasikoari buruzko aipamenik, ezta beste musika estilo batzuei buruzkoarik ere. Euskal musika tresnei buruz ere ez da aipamenik, txalaparta izan ezik. Txarangei bai egiten zaie erreferentzia, euskal tradizio musikal gisara.

Beste alde batetik, hemen egindako musikak gure eremu geografikotik kanpo duen espertzio edo eragin eskasa kritikatu egiten da. Are gehiago, musika horrek euskarazko hitzak badaramatza.

Kanpoan euskarazko produkzioa onartzen denean ere, arrakasta hori euskaraz (neurri batean edo bestean) lan egiten duten komunikabideek baino ez dutela aipatzen ere kritikatu egiten da.

Beste alde batetik, salatzen da euskaraz abesten duten artistak etengabe sumoan dardela, euren ideia politikoei dagokienez beti ere.

Musika ekitaldiei edo musikari lotutako gertaerei dagokienez, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaz gain, Ertz jaialdia (musika esperimentalari buruzkoa) aipatzen da, baita Eresbil, euskal musikaren dokumentazio zentroa, ere.

Literatura

Literaturari dagokionez ere, musikaren inguruko joera bera agertzen da: aipamen ugari dago idazleei buruz edo lan zehatzei buruz. Nabarmenak dira Bernardo Atxagari buruzkoak eleberrigintzan eta Kirmen Uriberi buruzkoak poesian. Horiek gaur egungo idazleei dagokienez. Euskarazko literaturako *klasiko* deituko genituzkeenei dagokienez, Lauaxeta eta Gabriel Aresti ere aipatzen dira.

Edozelan ere, euskarazko literatur tradizio handirik ez dagoela aipatzen da eta beste iritzi-emaile askok kritikatzan dute iritzi hori. Dena den, aitortzen da gaur egun inoizko produkzio mailarik altuena dagoela.

Bertsolariei buruzko aipamenik ere bada, ahozko literatur tradizio errotua den heinean.

Euskal literaturak kontsumo handirik ez duela azpimarratzen da.

Euskarazko literaturaren salmentak bi data nagusi dituela azpimarratzen da: Liburuaren Eguna eta Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka, eta esaten da, berez, argitaletxeek bi data hauei begira egiten dutela lan.

Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka nabarmentzen da, euskarazko musika eta literatura salmenta gune bezala ez ezik euskal kultur produkzioaren eta kontsumoaren adierazgarri nagusi bezala ere.

Dantza

Dantzari dagokionez, ez dago aipamen askorik. Eta daudenak dantza tradizionalai eta bizitzaren ari diren zaharberritze prozesuari lotuta daude. Zaharberritze hau, beste alde batetik, beharrezkotzat jotzen dute gaur egungo egoera aintzat harturik. Zaharberritze honen esangura eta hedaduraren gainean, nolabaiteko ika-mika ere piztu da.

Atal honetan zenbait izen propio agertzen dira: Juan Antonio Urbeltz, Mikel Sarriegi edo Jon Maia. Gainera, dantza tradizionalai lotutako pertsona bezala (aditu bezala, ez dantzari bezala) Etxebarria (*Camarón* ezizenekoa) ere aipatzen da.

Arte plastikoak: pintura, eskultura,...

Arte plastikoei dagokionez, eskulturgileei buruzko aipuak dira nabarmenenak: Jorge Oteiza, Eduardo Chillida eta Nestor Basterretxeari buruzkoak, batik bat. Horiez gain, José Alberdi, Remigio Mendiburu, Vicente Larrea, Ricardo Ugarte eta abar ere aipatzen dira. Hauek guztiak bai banaka, bai belaunaldi bezala ere aipatzen dira.

Hala ere, pinturari dagokionez, museoetan dauden erakusketak aipatzen dira, baina erreferentzia gutxi egiten zaie euskal artistei. Aipatzen den bakarra Aurelio Arteta da.

Arkitekturari ere aipamen txiki batzuk egiten zaizkio.

Ugariak dira, aitzitik, museoai egindako aipamenak: Guggenheim Museoa, Bilboko Arte Ederren Museoa edo Chillida Leku.

Guggenheim Museoari aitortzen zaio kalitatezko obrak biltzen dituela, baita museoak duen

balio arkitektonikoa ere. Baina, gainera, balio erantsi bat ere aitortzen zaio: Bilbo biziberritze-ko izan duen gaitasuna, alegia.

Aldizka bada ere, artea erakusten duten beste zenbait leku edo espazio ireki aipatzen dira. Besteak beste, Omako basoa, edo Bilboko kaleak.

Zinema

Zinemari buruzko iritzien artean, nabarmendu behar dira film zehatzei egindako aipamenak: *Obaba*, *Aupa Etxebeste!*, ... fikziozkoen artean eta *La pelota vasca: la piel contra la piedra* dokumentalen artean.

Iritzi-emaile askok deitoratu egiten dute euskarazko zineman produkzioa eskasa dela baita zineman kritika politikoa egiteko aukera gutxi dagoela ere.

Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzak euskal ikus-entzunezkoen sektoreari laguntzen diola ere aipatzen da.

3.3.2.4.3. Gastronomía

Kultur adierazpenei buruzko atal honetako aipamenen %36 gastronomiaren ingurukoak dira.

Euskal kulturaren adierazpideen artean alor bat bereziki nabarmendu bada, hori gastronomia da. Euskal Herriko sukaldeko ohiturak, jatetxe, sukaldari eta herriko plater eta produktu tipikoak aipatzen dira, beti zentzu positiboan, euskal sukaldaritzak laudatuz.

Gai honi buruzko testuen bi herenak (%66) ingelesez idatzia daude, frantsesez %7 eta beste hizkuntza batzuetan %3. Izan ere, erreferentzia gehienak Euskal Herrira datozen bisitariek egin dituzte, gure sukaldaritzarekin txundituta geratu diren bisitariek, hain zuzen ere.

Oro har, gure gastronomia laudatu egiten dute eta euskal kulturak gastronomiari aitortzen dion garrantzia ere aipatzen dute.

Sukaldeko ohitura propioei dagokionez, bisitatzen gaituztenei oso deigarriak egiten zaizkien hiru nabarmentzen dira bereziki: pintxoak, elkarre gastronomikoak eta sagardotegiak.

Pintxoaren inguruan hainbat tabernatan daudela aipatzen da, euren kalitatea eta tabernaz taberna pintxoak jateko ohitura dagoela aipatzen da.

Elkarte gastronomikoei dagokienez, deigarriena da gizonak izatea bertan janaria prestatzen dutenak.

Sagardotegiei dagokienez, aipatzen da urteko garai zehatz batean joateko ohitura dagoela, baita ohiko menua ere, sagardoa zerbitzatzeko edo hartzeko modua nabarmenduz.

Produktu tipikoen artean, sagardotegiko ohiko menukoen gain, arrainak azpimarratzen dituzte: bakailoa (eta prestatzeko dauden maki-na bat forma), angulak, ...

Eta, edariei dagokienez, honako hauek aipatzen dira: txakolina (askotan aipatua), sagardoa, patxarana eta (Errioxako) ardoa, kalimotxa ahaztu barik.

Jatetxe eta sukaldariei dagokienez, azpimarratzen den lehen gauza da janariaren kalitatea ona dela edozein establezimendutan, izan jatetxe apalak izan goi sukaldaritzakoak.

Euskal sukaldaritza berria etxeko sukaldaritza tradizionalaren eta berrikuntzaren arteko nahasketa dela esaten dute. Ezaugarririk garrantzitsuena kalitatezko produktu freskoak erabiltzea dela esaten dute, baita horiek nahasteko irudimena ere. Euskal sukaldaritza berriaren erreferente nagusia Juan Mari Arzak da, bakarria ez bada ere.

Oro har, sukaldarien artean gehien errepikatzen diren izenak honako hauek dira: Arzak, Arguiñano, Berasategi eta Subijana. Eta jatetxeen artean, sukaldari hauek lan egiten duten jatetxeak, baita beste hauek ere: *Beltz the Black* (Bilbo), *Zortziko* (Bilbo), *Mugaritz* (Erreterria), *Arbolagaña* (Bilboko Arte Ederretako Museoan), *Etxanobe* (Bilboko Euskalduna Jaurerria), Guggenheim Museoaren jatetxea, eta abar. Kasu guztietan, janariaren kalitate onaz hitz egiten dute.

Baina gastronomia-erreferente nagusi bezala, dudarik gabe, Donostia agertzen da. Erreferentea da Donostian dauden jatetxeengatik ez ezik, alde zaharreko tabernetan dauden pintxoaren famagatik ere. Izan ere, Euskal Herria bisitatzen dutenek aipatzen dute ezinbestekoa dela tabernetatik buelta bat ematea.

Azkenik, Euskal Herriko jatetxe eta sukaldariak aipatzeaz gain, Ameriketara dauden euskal jatetxeak ere aipatzen dira.

3.3.2.4.4. Kirolak

Kulturaren inguruko atal honetan sartu ditugun testuen %21 kirolen ingurukoak dira.

Kirolei dagokien atal honetan ia testuen erdiak (%46) gaztelaniaz idatzita daude. Gainera, ingelesez (%29) eta frantsesez (%17) idatzitakoak euskaraz idatzitakoak (%8 eskas) baino gehiago dira.

Gehien aipatzen diren kirolak hauek dira: futbola, txirrindularitza eta pilota. Gutxiago aipatzen dira euskal kirol tradizionalak (herri kirolak), errugbia eta surfa.

Futboleko Bilboko Athletic taldeari buruzko aipamenak nabarmentzen dira, batez ere gehien aipatzen dena da euskal jokalariekin baino ez dutela jokatzeko, horren inguruan nolabaiteko ikamika azaltzen delarik. Talde honen jarraitzaileak ere aipatzen dira. Hauen portaera txalotzen dute taldearekin zerikusirik ez dutenek ere.

Euskal futbol taldeen arteko derbyak ere aipatzen dira.

Azkenik, Euskal Futbol Selekzioaren ofizialtasuna aldarrikatzen duenik ere bada.

Txirrindularitzan aipamen gehienak Euskaltel Euskadi taldeari buruzkoak dira, baita talde honen zale edo jarraitzaileei buruzkoak ere. Kirol honekiko zaletasuna ere aipatzen da.

Euskaltel taldeak ere (Bilboko Athleticekin futboleko gertatu bezala) euskal nortasun sentimendua nolabait sorrarazten du, euskal txirrindulariz baino ez dagoelako osatua.

Euskal txirrindularitzan izen propioak ere aipatzen dira, futboleko bezala. Aipatuenak hauek dira: Joseba Beloki, Aimar Zubeldia, Iban Mayo, ... Hala ere, historikoa den euskal txirrindulari ospetsurik ez da apenas aipatzen. Emakumezko txirrindulari bat ere aipatzen da: Joane Somarriba. Nabarmendu behar da kirolen arloan aipatzen den emakume bakarria dela. Baina ez hori bakarrik, kultur adierazpide guztietan aipatzen den emakumezko bakarria da.

Pilotari dagokionez, ez da txapelketarik aipatzen, ezta enpresarik ere. Eta pare bat

izen propio baino ez. Pilota euskal pilota legez ulertzen da, hau da, Euskal Herrian jaiotako, garatutako eta bizitako kirol legez, batez ere, Euskal Herrian bisitan izan diren atzerritarren aldetik.

Pilotaren inguruan jokoaren aldaerak eta, bereziki, kirolaren gogortasuna aipatzen dira. Hala ere, joko bizia eta dibertigarria dela aitortzen da.

Noizean behin, beste kirol batzuk aipatzen dira. Besteak beste, herri kirol tradizionalak, baita errugbia eta surfa ere.

3.3.2.4.5. Herri tradizioak

Kultur adierazpenen ataleko aipamenen %2 dira herri tradizioei buruzkoak, folkloreak, erlijioari edota mitologiari lotutakoak.

Iritzi-emaeleen ustez, tradizio hauek bizirik iraun dute urterik urte, batez ere ohitura hauek tinko defendatu direlako. Tradizioak transmititze aldera, umeez betetzen duten papera nabarmentzen da, tradizioen jasotzaile gisa.

Aitortzen da halaber atzerriko *euskal etxeek* egin duten lana, diasporan folklorea eta euskal tradizioak mantentze aldera (era berean, besteei ezagutarazteko bidea dela ere aipatzen da).

Azkenik, euskal mitologiako elementu zehatzei buruzko aipamenak badaude, baina oso gutxi.

LABURBILDUZ

Interneten jasotako iritzien artean ez dago euskal kulturari buruzko definizio zehatzik, haren berezitasuna aipatzen bada ere. Hala ere, bai aurkitu ditugu euskal kulturaren hainbat adierazpideri buruzko aipamenik. Aipamen hauek lau multzotan sailkatu ditugu: gastronomia, arteak (musika, literatura, arte plastikoak, ...), kirolak (futbola, txirrindularitza eta pilota, batik bat) eta herri tradizioak.

Gastronomia bereziki nabarmentzen dute bereizgarri modura, nazioarteko sona duten produktu tipikoekin. Sarritan aipatzen dira norbanakoak (sukaldariak). Gai hau, batez ere, Euskal Herrira etorri diren bisitariak jorratzen dute.

Kirolei dagokienez, bi baino ez dira aipatzen euskal kirol propio gisara: pilota eta kirol tra-

dizionalak (herri kirolak). Futbola edo txirrindularitza gehiago aipatzen badute ere, aipamen hauek zerikusia dute, batez ere, izen propioekin edo Euskal Herrian kirol hauekiko dagoen zale-tasunarekin.

Arteei dagokienez, ez dago artearen euskal kontzeptu propioirik, nahiz eta eskultura mugimenduaren idiosinkrasia aitortzen den. Euskal izaera propioa dantza tradizionalei eta bertsolariari baino ez zaie aitortzen (bertsolariak, dena den, apenas aipatzen dira).

Azkenik, herri tradizioak gutxi aipatzen dituzte. Hauen artean, nabarmenak dira tradizio horien transmisioari buruzko aipuak.

3.3.2.5. Nortasuna eta beste gizarte gai batzuk

Nortasuna eta beste gizarte gai batzuei buruzko aipamenek euskaltasuna eta euskal kulturaren inguruko gai batzuekin harremana dute: gizarte nortasunarekin, lurralde nortasunarekin, euskal herritarrei egotzen zaientzako izaerarekin, gizarte egiturarekin, bizimodua eta gizarte ohitura edo azturekin, euskal gizartearen kanpotik hautematen den moduarekin (beste gizarte batzuekiko alderaketa barne), politika, historia edo sinbologia ahaztu gabe.

Nabarmendu behar da gai honi lotuta euskaraz idatzitako testu gutxi dagoela (%9 eskas). Horren aldean, gaztelaniaz (%50) eta ingelesez (%32) testu asko idatzi dira; gainera, testuen %7 frantsesez idatzita daude eta %2 beste hizkuntza batzuetan.

3.3.2.5.1. Gizarte nortasuna

Kategoria honetan euskal herritarrak ezberdinak direlako ideia nabarmentzen da lehenik. Ideia hau gehienek onartzen dute. Hala ere, horrek ez du esan gura euskal herritarrak beste batzuen gainetik daudenik. Euskal herritarra izatearen harrotasuna, euskal komunitateko kide izatearen harrotasuna azpimarratzen da. Harrotasun hau nabarmenagoa da diasporako kideen artean. Izan ere, hauek euren euskal sentimendua milaka kilometrotara bizi dute eta, batzuetan, Euskal Herrian inoiz izan gabe.

Euskal nortasuna definitzeko ezaugarriarik garrantzitsuena, jasotako iritzien arabera, hizkuntza da, baina badago euskal nortasuna erro historikoetan, kulturaren, herentzia gene-

tikoan edota komunitate beraren nazio beraren partaide izateko sentimenduan oinarritzen duenik ere.

Sentimendu hau bere egiten dute bai Euskal Herrian jaiotako pertsonak, beste herri batzuetatik etorri eta euskal kulturari edo Euskal Herriko bizimoduan murgildu direnek ere. Sentimendu edo euskal nortasun hau, batzuetan, espainiar edo frantziar sentimenduarekiko kontrajartzean oinarritzen da, baina badago kontrajartzerik antzematen ez duenik ere. Hauek sentimendu edo identitate biak batu egiten dituzte. Eta badago, estatu nortasunetatik gaindi, euskal nortasuna Europakoarekin batzen duenik ere.

Badago euskal nortasuna arbuizatzen duenik ere. Hauek esaten dute euskal herritarrak, kasuaren arabera, espainolak edo frantsesak direla.

Bereziki nabarmena da Nafarroan dagoen barne gatazka, euskal eta nafar nortasunen batuketari eta kontrajartzeari dagokionez. Alde batetik, foru lurraldearen zenbait zonaldeetan, batik bat, euskal sentimendua nabaria da. Beste alde batetik, oso nabaria da halaber (agian aurrekoa baino nabariagoa) nafar sentimendu sendoa, zenbait kasutan baztertzaila, eta, beste zenbait kasutan, euskal sentimenduarekin partekatua. Dena den, gehiago dira nortasuna jaioterriak edota bizilekuak zehazten duela diotenak.

Konplexutasun hau, dirudienez, Iparraldean ez da horren muturrekoa, elkarren baztertzailak ez diren nortasunen konbinaketak aipatzen dira.

Euskal nortasunaren ikurtzat batzuek ikurriña aipatzen dute, baina batzuek kritikatzeko dute asmakizun berria dela eta ez dagokiola lurralde osoari, nahiz eta gero hedaturaz sinbolismo hori hartu duen eta badaude ikurriñaz barre egiten dutenak ere.

3.3.2.5.2. Lurralde nortasuna

Lurralde nortasunari dagokionez, nabarmena da hautemate ezberdinak daudela. Badaude Euskal Herria zazpi lurraldez osatua dagoela esaten dutenak eta Espainiako estatuan dauden lurraldeez osatua dagoela diotenak.

Sakonagoa da, ordea, Nafarroaren gaineko eztabaida, Euskal Herriaren parte den ala ez, alegia. Eztabaida honetan lurraldetasuna eta

nortasuna nahasten dira. Eztabaida hau ez da gertatzen, internauten artean behinik behin, Iparraldeari dagokionean.

Edozelan ere, gai honi buruzko aipamenak (lurraldetasunari edo Euskal Herriari esleitutako eremu geografikoari buruzkoak) nahiko urriak dira.

3.3.2.5.3. Izaera

Atal honetara biltzen dira euskal herritarrei, oro har, esleitutako kalifikatzaileak. Batik bat, Euskal Herriatik kanpoko jendeak euskal gizarteari buruz duen irudia bildu da. Kasu gehienetan, irudia positiboa da. Alabaina, kritikarik ere ez da falta, kanpokoekiko jarerra txarra dutela diote batzuk.

Euskal Herrian mota guztietako jendea dagoela onartu ere onartzen dute batzuek eta, beraz, hauen ustez ezin da ondorio orokorrik atera.

3.3.2.5.4. Gizarte egitura

Euskal gizartearen egiturari buruzko aipamenak gutxi dira. Egoera demografikoa eta jaiotze tasa txikia aipatzen dira, gainera bada ere, baita atzerritik datorren immigrazioaren fenomeno ere, azken urteotan euskal gizartean indarra hartzen ari dena.

3.3.2.5.5. Azturak, ohiturak eta bizimodua

Oro har, antzematen da bizimodu tradizionalean eta zenbait ohituretan aldaketak gertatzen ari direla. Gertatzen ari diren aldaketen aurrean atsekabea ere sumatzen den arren, baikortasuna da nagusi, dinamismo eta berritze sentimenduak gailentzen baitira. Euskal gizartea mendebaldartze prozesua bizitzen ari dela esaten da, eta bizimoduari eta ohiturei dagokionean inguruko gizartearen antza gero eta handiagoa duela.

Aipatzekoa da kanpokoek gure bizimoduaz eta ohiturez duten pertzepzioa. Iritzi-emaila atzeritar askok honi buruz egiten dute berba. Euren artean nabarmena da, lehenik eta behin, Euskal Herriak eta euskal gizarteak sortzen duten txundidura, bai hona datozen artean, bai eta kanpotik erreferentziak dituzten artean ere. Euskal Herriatik kanpoko bisitariak euskal gizartearen inguruan jasotzen duten irudian nabar-

mena da gastronomia eta tabernetara joateko ohitura, aurreko kapituluak aipatu bezala. Nabarmena da halaber irudi politikoa, independentismoarekin lotutako irudia hain zuzen ere; eta, zenbait kasutan, terrorismoarekin lotutakoa. Eta ez da falta iraganari lotutako irudia duenik edo datu historikoak (fidagarriak ala ez, frogatuak ala ez) bakarrik aipatzen dituenik ere.

Zenbait kasutan, Euskal Herritik kritikatzeko da atzerrian guri buruz dagoen irudi estereotipatua.

3.3.2.5.6. Historia

Aurreko guztiaz gain, sarean Euskal Herriko historiari buruzko zenbait aipamen aurkitu ditugu. Aipamen hauek, oro har, hiru multzotan sailka ditzakegu. Alde batetik, Euskal Herriaren jatorriari buruz dauden teoriak aipatzen dituztenak, beste alde batetik, Euskal Herriak Espainiaren eraikuntzan parte hartze aktiboa izan duela eta, hortaz, Espainiari lotua dagoela aipatzen dutenak; eta, azkenik, euskal abertzaletasunak Euskal Herriak bizi izan dituen zapalketa eta inposaketa egoeren gainean egindako salaketak errefusatu nahi dituztenak. Azken atal historiko honi buruz, nabarmenak dira Sabino Aranari buruz egindako aipamenak. Aipamen guztiak kritikak dira.

LABURBILDUZ

Euskal Herriari, besteekiko ezberdin sentitzean oinarritutako nortasun-sentimendu indartsua dagoela ondorioztatu dezakegu. Ezberdintasun sentimendu hori, besteak beste, euskal herriaren jatorri historikoen indefiniziotik, hizkuntzatik, kulturatik, edo euskal komunitatearen partaide izateko sentimendutik letorke. Sarri askotan sentimendu hau Espainiaren edo Frantziaren partaide izateko sentimenduari kontrajartzen zaio. Bitxia da Nafarroako kasua. Lurralde honetan identitate anitz daude eta, horien artean, batez ere, nafarra nabarmentzen da.

Gainera, nortasunari eta gizarte gaiei buruzko atal honetan, aipamen berezia merezi du Euskal Herritik kanpora bizi direnek euskal gizartearen gainean duten pertzepzioak. Oro har, Euskal Herriak zein euskal populuak txundidura eragiten dute, herriaren eta hizkuntzaren (euskararen) jatorriek duten misterio-kutsuagatik, batik bat. Nabarmena da, halaber, euskal herritarren izaera positiboki baloratzen dutela, baita euskal herritarrek duten sentimendu independentista sendoa ere. Nabariak dira halaber ohitura gastronomikoei buruz egindako aipamenak (ohitura hauek oso deigarriak egiten zaizkie kanpotarrei).

ONDORIOAK

- ▶ Euskaltasunari eta euskal kulturari buruz Interneten urtebeteko epean (zehazki, 2004ko ekainetik 2005eko ekainera) sartutako iritziak aztertu ondoren, nabarmendu behar da aipamen horietan euskal kultura zer den edo nola ulertzen den jasotzen duen definizio zehatzik ez badago ere, ukaezina dela hizkuntzaren nagusitasuna (euskararen nagusitasuna) beste edozein kultur elementuren gainetik. Hau da, iritziemaileek euskaltasunari buruz hitz egiten dutenean, batez ere, hizkuntzari buruz ari dira (ezin da ahaztu, jakina, politikari buruzko aipamenak baztertu egin direla eta hauek zirela alde handiz ugarienak).
- ▶ Hizkuntzari lotutako gaiak asko dira txosten osoan, baina bereziki nabarmentzen da, jasotako iritzi guztien artean, bi ikuspuntu kontrajarri daudela euskararen ezagutza, erabilera eta sustapenari dagokionez: alde batetik, euskararen sustapena eta hedatzea eskatzen dutenak eta, aldi berean, ezagutza eta erabilera ez direla elkarrekin hazten ari kritikatzeko dutenak. Hauek laguntza handiagoa eskatzen diete instituzioei, baita gizarte eragile guztiei ere (herritarrek barne). Beste alde batetik, euskara berariaz arbuaitu barik, inposatuzat eta ez-beharrezkotzat hartzen dutenak daude. Hauek euskararen sustapenaren atzean interes politikoak daudela uste dute eta euskararen derrihortasuna kritikatzeko dute, batez ere lan arloarekin zerikusia duenean.
- ▶ Hizkuntzaz gain, Interneten badaude euskaltasunarekin lotutako beste arlo batzuei buruzko aipamenak. Nabaria da gastronomiaren indarra (batik bat, kanpotik etorritako bisitariak aipatua). Adierazpide artistikoak ere aipatzen dira: musika, literatura, dantza, arte plastikoak, ...; baita kirolak (futbola, txirrindularitza, pilota, ...) eta herri tradizioak ere. Interneteko iritzi mordoiloaren artean, badaude nortasunari buruko aipamenak ere (gizarte zein lurralde nortasunari buruzkoak), baita beste gizarte gai batzuei buruzkoak ere: hala nola, euskal herritarren izaera, bizimodua, ohiturak, baita jatorri historikoari buruzko zenbait aipamen ere.
- ▶ Aipatutako arlo horien guztien artean, nabarmena da euskal nortasuna. Nortasun hau hainbat kontzepturi lotuta dago: hizkuntzari, kulturari, adierazpide kultureleiei (gastronomia, bertako kirolak, ...), sustrai historikoei, herentziari eta, batez ere baita diasporakoen artean ere) komunitate edo nazio baten partaide izateko sentimenduak (gehienak harro daude sentimendu honetatik). Nortasun-sentimendu hori sarri askotan bakarra da (edo baztertzalea edo beste batzuekin kontrajarritu sendotua) eta, beste zenbait kasutan, beste sentimendu batekin partekatua, espainol, frantses, europar edo nafar sentimenduekin, alegia.
- ▶ Bitxi-bitxia da atzerritarrek euskaltasunari buruz duten pertzepzioa. Irudi horretan nabarmenak dira honako hauek: jatorri misteriozua, parerik gabeko hizkuntza eta beste ezein hizkuntzarekin harremanik ez duena, lurraldearen paisaia, gastronomia bikaina eta diasporak identitate eta tradizioak mantentzeko Euskal Herritik milaka kilometrora duen gaitasuna.
- ▶ Edonola ere, Euskal Herriko ohituretan, bizimoduan eta gizarte egituretan aldaketak sumatzen dira. Hori dela eta, etorkizunak aldaketa esanguratsuak ekarriko dituela ematen du, bai kultur adierazpideei dagokionez, bai eta nortasun sentimenduari dagokionez ere.
- ▶ Ezin dugu aipatu gabe utzi, jasotako iritziaren artean Hegoaldea eta Iparraldearen artean somatu den desoreka. Izan ere, lurralde horiek espreski aipatzen ez dituzten iritziak ere, erakunde, hezkuntza eredu, hizkuntza... jakinak aipatzean, gehien-gehienetan Hegoaldeko erreferentziak erabiltzen dituzte. Beraz, esan dezakegu, Interneten dauden iritziak adierazten dutenaren arabera, euskaltasuna eta euskal kultura Hegoaldearekin lotutako kontzeptuak direla.
- ▶ Gainera, ezin da ahaztu txosten hau ez dela behin betiko lana, azterketa pilotua baizik, epealdi zehatz batean egindakoa. Etorkizunean azterketa hau zabaltzeko modua egon badago. Eta, horrela, frogatu ahal izango genuke euskaltasunari eta euskal kulturari buruzko iritzi eta aipamenek jasandako aldaketak. Izan ere, iritziak elementu biziak dira eta etengabe-ko aldaketa jasaten dute.

4. Gogoeta eta ondorioak

4.1. SARRERA: GOGOETA HAUEN AURREBAL-DINTZAK

Amaierakoa den atal honetan azken buruko hausnarketa bat egingo dugu XXI. mendearen hasierako euskal kulturaz eta nortasunaz Euskal Herrian bizi diren herritarrek duten usteaz, gaia miatzeko balio izan diguten hainbat informazio-bilketa kualitatibo eta kuantitatiboren emaitza eta ondorioetan oinarriturik. Orain bigarren mailan geratuko dira taldeetako solaskideek, elkarrizketak eta inkestak esanak nahiz beste informazio iturriak, haien ordez ikerketa gidatu dutenen iritzia eta hausnarketak azpimarratzeko.

Hasteko, aztergaiak berak dakartzan zenbait zailtasun eta ikerketaren planteamenduak ezarritako zenbait muga aipatuko ditugu.

4.1.1. Nolako euskal kultura eta nortasuna dugu hizpide?

Euskal nortasun eta kulturaren lanketak kontzeptu horri berari atxikirik agertzen zaizkion

hainbat zailtasunekin egiten du topo. Alde batetik, kultura ulertzeko era ezberdinak ditugu, izan ere ikuspuntu guztiek ez diete inolaz ere eduki bera ematen. Eta kultura hitzari erantsen zaizkion esanahi ezberdinen artetik egile batzuek eta besteek egiten dituzten bereizketak ere badaude. Bestetik, euskal mundua ulertzeko moduak eta moduak daude; hori dela eta, euskal kultura eta nortasuna landu nahi izatean ere aukera zabala da.

Hortaz, ikerlanaren planteamendutik beretik zailtasun bat azaldu da aztergaia mugatzean, ikertaldea berak euskal kulturaren eta nortasunaren ideia jakin bat hartu behar izan duelako abiapuntutzat. Zein euskal kultura ikertu behar dugu? Herri kultura ala kultura jaso? Herri kultura izanik ere, nolakoa? Zerk emango dio ikerketa dugun horri "euskal" izaera? Euskal kultura ulertzeko modu desberdinen artean, ikertzaile taldeak hautu bat egin du, kulturaren osagai jakin batzuk erabili ditu euskal kulturari buruzko informazio bilketa egitean.

Egilearen berreskurapena: F. Dumont eta kulturaren polisemia

Quebec-eko Fernand Dumont historialari eta teologoak egin dituen bereizketa bitarrek aukera ematen dute, aldi berean, kulturaren neurri kano goraipatzearen ekiditeko eta konplexutasunaren errazteko; hori guztia oinarritzko bereizte batzuen bitartez.

1. Hurbileko kultura (culture première) eta bigarren kultura (culture seconde): Estilazioaren bidezko bereizketa

Gizakiaren gertuko pertzepzio edo hautematea da *hurbileko kulturaren* mamia. *Hurbileko kultura* horretatik *bigarren kultura* bereizten da, Dumontek *estilazio* izendatzen duen prozesuaren bitartez: "Par rapport à la perception et à l'action spontanées, le livre, le poème, le tableau représentent évidemment des décrochages et des reconstructions". Zehatzago esanda, *estilazioa* eta *ezagutza* bereizten ditu Dumontek, biak elkarri kontrajarrita agertzen direlarik...

...est manifeste à notre époque où nous opposons la science à l'art et où nous sommes mêmes tentés d'exclure de la culture toute connaissance un peu technique. Le monde est d'abord, pour l'homme, un ensemble de significations avant d'être une nature que peuvent appréhender les stratégies objectives de la connaissance. Si le dédoublement de la culture suppose une ouverture des configurations premières de la perception, la stylisation est toujours reconquête d'un sens du monde, tandis que la connaissance est la réduction de ce sens à des procédés de rationalisation et de calcul. La connaissance est donc un processus second par rapport à la stylisation. (Dumont, 1994: 65)

Estilazioaren ideia lehenbizi agertu behar duena objektu kulturalaren autonomiaren baieztapena da, eta *estilazio* hori artelanetan ez ezik bestelako asmoa duten garapenetan ere gauza daiteke, hala nola diskurtso erlijioso edo mitikoetan. (Dumont, 1994: 91)

Egilearen berreskurapena: F. Dumont eta kulturaren polisemia

2. Kultura barreiatua eta kultura instituzionaldua

Halako formalizazio ahaleginak instituzionaltzerantz jotzen du (terminoaren adiera murriztuan). 1982an, F. Dumontek azaldu zuen kultura *barreiatu* eta kultura *instituzionalduaren* arteko bereizketak badu lotura arestian esandako *hurbileko* eta *bigarren* kulturen arteko bereizketarekin:

La disjonction entre culture première et seconde se retrouve dans toutes les civilisations. (...) elle permet, dans nos sociétés, la disjonction entre culture dispersée et culture institutionnalisée, sans s'y identifier. (Dumont, 1995: 132)

(La culture dispersée est la) culture éparsée de la vie quotidienne. Les rencontres, les communications les plus diverses produisent et reproduisent un nombre infini de messages et de signes. Nous mettons en œuvre constamment des savoir-faire qui relèvent de bricolages étrangers à la science. (Dumont, 1995: 106)

Halako *brikolajeak* arau batzuen menpe egon daitezke, nahiz eta euren plangintzan ageriko asmo orokor baten zantzurik ez egon. Barreiatuta agertzen zaigun horren nolabaiteko batasuna bilatu behar duena antropologo klasikoa da, nonbait.

Kultura *barreiatuari* kultura *instituzionaldua* kontrajartzen zaio; hau da, asmo orokorren arabera sorturiko komunikazio sorta:

Un nombre considérable de pratiques ont quitté le terrain empirique du bricolage pour dépendre désormais de professions, de spécialisations aux compétences et aux techniques réglementées. La science, la littérature, les arts ont délimité leur terrain d'exercice; leur exercice repose sur la critique des savoirs habituels. (Dumont, 1995: 107)

Kontrajartze hori eskematikoa da: badaude arauak kultura *barreiatuan*, eta, aldiz, kultura *instituzionaldua* inoiz ez dago ofizialki esaten den bezain organizaturik. Instituzionaltzeak badu ezusteko eragina, izan ere, instituzionaltzeak berak bere kontrako arbuioa sortarazten duen aldi berean, beste instituzio mota bat bultzatzera darama. Kultura paraleloek, adibidez, hainbat helburu izaten dute: bizitza-kalitatea areagotzea, talde identitarioren bat defendatzea eta abar. Hortaz, kultur horien ekintzak instituzioaren kontra doaz. Eta gero eta ugariago den instituzionaltze horren kontra, kultura *barreiatua* bere aldetik sortzaile bihurtzen da, antza. Baina, kultura *barreiatuaren* exijentziak ulertzeraz iristeko, egunerokoaren premiak eta balioak aldarrikatzeko, ingurumariaren eraginez gizakiek eta talde hertsituek galdu duten boterea berreskura dezaten, ezinbestekoa da antolamendua. Hortaz, erakunde zaharrei kontrajartzen zaizkien instituzio berriak sortzen dira.

Dumont-en bereizketei jarraiki esan dezakegu euskal nortasuna ez dela mugatzen ari *hurbileko* kultura izatera, *bigarren* kulturari dagokion garapen bat ere izan duelako, maila estilistikoan nahiz ezagutzarenean. Halako etendura gainditzea guztiz zaila da, *hurbilekoaren* irudikapenek berresten duten segida baten babesean agertzen delako: mitoak bereziki, edo, hobe esanda, ahozko tradizioaren bitartez jaso diren mitoen hondarrak euskal antropologia klasikoak landu izan ditu, bai arte-

lan gisa baita zientifikoki ere. Horren ondorioz agertu den zentzu-ezarpenak aspaldin galduta zegoen mobilizazio ahalmena berpiztu eta eragiteko ahalmena izan du.

Euskal kultura eta nortasunaren objektibazioa, halaber, ez da instituzionaltze joeratik kanpo gelditzen; alegia, nortasun kolektibo beregainen alde egin behar bada edo, bestela esanda, eguneroko kultur barreiatuak etorkizunean ahots eta leku propioa izan ditzan, berezko erakunde- eta instituzio-amaraua sortu (edo, sortzen jarraitu) beharko da, ezinbestez.

Kultura elitista, herri kultura eta kultura instituzionaldua

1. Kultura elitista eta herri kultura

Batetik, doktrinarik gabeko talde-sinismenek, teoriarik gabeko talde-jardunek osatzen dute herri kultura. Bestetik, kultura elitista ez da beste kulturekin batera existitzen; berezko funtsak jakintzarantz zuzendutakoak direnez, beste kulturak bere menpe hartzen ditu. Doktrinadun sinesmena, teoriari lotutako jarduna izanik, kultura horrek gainontzeko kulturei dagokien lekua ezartzen die:

Pour affirmer son originalité et sa prédominance, la culture savante imagine un processus qui va de la culture vécue (sans doctrine et sans théorie, dont la culture traditionnelle est le prototype) à la culture représentée, consciente d'elle-même, dont la culture savante affirme l'autonomie. A un bout, la culture est singulière, à l'autre, elle est universelle. (Dumont, 1995: 148)

Herri kultura eta kultura elitista bezalako kategoriak, dena den, oso dudakoak dira. Bereizketa hori bera da zalantzakoa: zeren arabera ekiten zaio sailkapen horri? Gizarte irizpideei jarraituz (kultura elitista vs herri kultura) ala irizpide etnolinguistikoei? Zalantza hori bideratzeko Gérard Bouchard-en proposamena dugu; izan ere, Kanada eta Quebecoko herritar berriak ikertzen dituen egile horren lan batean alderdi kulturala eta identitarioa bereizten dira, non kulturala kategoria sozialen gain eraikitzen den eta identitarioa, aldiz, inmigrazioaren eskutik agertzen diren zatiketa etniko, linguistikoetan. (Bouchard, 1998: 219-248)

C. Grignon eta J.-C. Passeron-en analisisiek, beren aldetik, kulturaren soziologoen topatu ohi dituzten bi oztoporen berri ematen digute: bata, populismoarena, hau da, klase herritarren kulturekiko neurritz kanpoko lilurara; bestea, legitimotasunarena, gizartean nagusi eta legitimoak diren formek ezartzen dituzten kultur definizioak barneratu eta behin eta berriz erabiltzea. (Grignon, Passeron, 1989)

2. Herri kulturatik kultura instituzionaldua, Michel de Certeau-ren arabera

Kultur arazoak plangintza saioetan txertatzeko eta kokatzeko egiten diren saioez Michel de Certeau-k ohartarazten diguna gogoangarria da guztiz. Certearen arabera, kulturaren birsailkapen teknokratikoan agertzen den iraultze hirukoitza, honako honetan datza:

- Lehendabizi, jatorri eta gizarte arauari –azken finean– herri kulturari-errepairatzeari utzi, oraingoa kudeatu eta etorkizuna aurreikusteari lehentasuna ematean.
- Bigarrenik, lehenago instituzio pribatu eta militanteak zirenak, gero eta gehiago murgiltzen dira egitura estatiko eta plangintzaren kudeaketarako administrazioan.
- Hirugarrenik, hasiera batean gizarte oreka berraztertzeraz zuzentzen ziren kulturaren helburuak, orain teknika, erakunde eta ogibideen antolamenduari begira (animatzaile, kultur arkitektoak, etab.) jartzen dira, helburu berri horiek goitik diseinatzen den politika batean parte hartzen laguntzeko baliagarriak izanik. (Certeau, 1980: 169-173)

Herri kultura/kultura elitista sailkapenak zalantza handiak sortarazten ditu euskal ingurunean ere, hori bai, hainbat berezko ñabardura barne. Interesgarria izan zitekeen, Dumonten eskutik, alderdi sozialak eta etnolinguistikoak ikerketa honetan ere bereiztea, era horretan eremu kulturalak eta identitarioak banatuz; kontua da hemen *euskal kultur eta nortasun* kontzeptu zabala (mugagaitza?) behin eta berriz erabili izan dugula, nahita. Ideia hori, hala ere, erabilgarria izan daiteke etorkizuneko beste lan batzuetan.

Michel de Certearen ideiak gogoraraziz, esan dezagun euskal kulturaren autonomizazioak neurri

handian islatzen dituela egungo kultur kudeaketaren ezaugarriak. Izan ere, euskal eremuan ere bada kulturaren birsailkapen teknokratikoarekin batera agertzen den iraultze hirukoitza. Hau da: a) betiere herri kultura baztertu gabe eta kultur horri uko egin gabe, egungo euskal kultura planteamendu garaikide eta etorkizunekoaren arabera ulertu eta lantzen ari dela; b) euskal kulturaren erantzukizuna militantzia eta boluntarismotik administrazio publikoaren eskuetan dagoen kudeaketa teknokratikora igaro dela, kultur eta hizkuntz normalkuntzarako aldarrikapenek, adibidez, erakusten duten bezala; c) erakunde eta profesionalen goiti-behera burutzen duten plangintza eta definizioaren

eskutik, euskal kultura gero eta teknifikatuagoa eta profesionalizatuagoa dela. Horren guztiaren ondorioz, alegia, hizkuntza arrazionalizatuz, gizarte zientziak teologiaren aurretik kokatuz, zatiketa bat datorrela aurreikusten dute adituek: profesionala eta autonomia izan nahi duen kulturaren eta gizarte bizitzaren eremu guztietan agerikoa den nortasun kolektiboaren artekoa. Jomuga, azken buruan, M. de Certeauk *neutro* baten sorreratzat jotzen duena da, *kulturalarena* (gai honen inguruan, ikus: Itçaina, 2000: 7. atala).

Interesgarria izan zitekeen, era berean, C. Grignon eta J.-C. Passeron abiapuntu hartuta, euskal identitatearen alde lan egiten dutenen lanketa kulturala *populismo/legitimismo* ardatzean non kikatzen den aztertzea; ardura hori, baina, ikerlan honetatik kanpo dago. Euskal gizartearen izenean euren iritzia jakinarazi dizkiguten pertsonen euskal kulturaren adiera zabala azaldu digute, muturreko adierak nahiz horien tartekoak barne hartzen dituen: usadiozko herri-jakintzatik hasita artista gisa diharduten sortzaileen ekoizpen sofistikatoraino, hain zuzen.

Ildo horretatik, gogorarazi behar dugu lan honetan ez direla Euskal Herriko biztanleek dituzten kulturak eta nortasunak aztertu, baizik eta aztergai nagusi izan den *euskal kultura eta norta-*

suntzat herritarrek zer hartzen duten eta horren inguruko zein praktika dituzten. Izan ere, Euskal Herriko biztanleek, ziurrenik badituzte hainbat kultur praktika euskal kulturatzat eta euskal nortasuntzat hartzen ez dituztenak, aspaldian Euskal Herrian ohikoak izanagatik ere erabili izan den *euskal kulturaren* kontzeptuan sartzen ez direlako, edo azkenaldiko etorkinek ekarritako praktika berriak direlako, adibidez. Horiek ez dira lan honen aztergai izan. Aztertutakoa *euskal kultura* kontzeptuan herritarrek barneratzen dutena izan da.

Hautaketa hori, emaitzak eta ondorioak ezagututa, mugatu xamarra dela esan beharko genuke, hemen erabili ditugun hurbilpen metodologiko guztietan. Izan ere, ikerketa kualitatiboan parte hartu duten herritarrei euskal kulturari eta euskal nortasunari buruz modu irekian galdetu zaienean, ikertzaile taldeak erabilitakoa baino kontzeptu zabalagoa aurkitu da. Hau da, ikerketan zehar egindako zenbait galderetan erabili diren euskal kulturaren eta nortasunaren kontzeptuak, batez ere tradizioa eta sorkuntza kulturalaren inguruko osagaiei eta etnografikoki euskaltasunean koka daitezkeen elementuei egiten die erreferentzia; aldiz, herritarrek era askean azaldu duten euskal kulturaren ideiak baditu beren eguneroko bizitzan presentzia handiagoa duten beste zenbait elementu.

Nolako kultura?

Asko dira Euskal Herriko kulturaren adieraz kezkatu direnak, herrigintzaren jardun kulturaletik nahiz ikerlan zientifikoaren eremutik begiratuta. Eta, Joxe Azurmendi filosofoaren hitzak aintzat hartuz gero, ez da harritzekoa gure kulturak horrenbeste kezka sortu izana:

Euskal kultura ez da txikia bakarrik. Urratua da, puskatua. Katea-kateaturik bizi da. Luzaro zanpatu dute. (Azurmendi, 1992: 569)

Beste ikuspuntu batetik, 1994an irakurritako doktorego tesi batean euskal kultura kontzeptuaren esanahiaz hainbat galdera egiten ziren:

...nola mintza gaitezke, egungo Euskal Herrian, herri kulturaz? Nola mahaigaineratu herri kulturari buruzko eztabaida, herri honen eguneroko errealitatean baino gehiago oroimenean irauten duten eredueta mugatu gabe, baina aldi berean euskal herri bezala orainean eta etorkizunean geure burua garatzeko premia aintzat hartuz? (...)

...erabili ditugun ardatz edo hipotesiei nolabait atxikiz: batetik, euskal kultura kultura popular gisa azter daitekeela, hots, klase popularren kultura gisa. Bestetik, euskal herriaren errealitatean, euskal klase popularren bizitzan zehazki, bestelako kultur agerpenak ere aurki daitezkeela (...) Hirugarrenik, *euskal kultura, kultura popularra den aldetik, bestelako kultur agerpen popularrekiko harremanean egoteaz gain, eragin handia izan dezake haietan, erreferentzi-gune garrantzitsua bihurtuz.* (Amezaga, 1995: 269)

Euskal kulturaren izaeraren gaineko zalantza eta proposamenok azaldu eta gero, egile berak aipatzen digu euskal kulturak beste kulturekiko dituen osagai berezigarriak direla sarritan berresten direnak, XX. mendean gai horretaz egin diren formulazio nagusietan:

...bereizgarritasunaren inguruan eginak direla. (...) euskal herria zer den definitzeko, bera besteengandik bereizten duena bilatu beharra ez da nahikeria hutsa izan, bere izaera bera mehatxaturik ikusi duen gizatalde baten autotopaketa logikoa baizik. (Amezaga, 1995: 270)

Eta, egileak egile, halako aipamenetan hainbat elementu ezberdin lehenetsi izan dira euskal kulturaren ardatz gisa: Sabino Aranarentzat, arraza; Arturo Campi3n zein Txillardegirentzat, euskara; Federico Krutwing-entzat, etnia; Jose Miguel de Barandiarantzat, "historian zeharreko kultur jarraipena". (Amezaga, 1995: 270)

Azpiatal hau bukatzeko esan, ikerketa honetan, beraz, ez da ondorio garbirik atera *Euskal Herriko kultura eta nortasunen* eta *euskal kultura eta nortasunaren* arteko harremanaz, bi termino horiek sinonimoak ez direla eta beraien zedarrirpena korapilatsua dela argitzea ez bada. Azken buruan, hemen jaso izan direnak Euskal Herriko gizartearen usteak dira eta iritzi horietan oso aukera zabala dago.

4.1.2. Nortasun kolektiboak nola ikertu?

Euskal kultura mugatzeak dakartzan zailtasunak ez ezik, *euskal nortasun* terminoa ere zein labana den agerian gelditu da ikerketa honetan. Nortasun kolektiboen gaia oso agerian dago, egun, gizartean zein gizarte zientzietan. Azken hamarkadetan Europa mendebaldean ezagutu den inmigrazioak, identitate kultural eta nazionalai, identitate desberdinen arteko harremani eta horien bateragarritasun eta bizikidetzari buruzko eztabaida sutuak ekarri ditu.

Nortasun eta erreferente kulturalen bila

Nortasun edo identitate kontzeptua puri-purian dago eztabaida teoriko nahiz filosofikoetan eta, hartzen duten hedapenari zein jorratzen diren motiboei erreparatuta, eztabaida horiek nahikoa orokortuak dirudite:

La question identitaire est plus que jamais d'actualité, sous une forme ou sous une autre, dans la plupart des sociétés contemporaines, qu'il s'agisse des sociétés dites avancées du Nord ou des sociétés dites sous-développées du Sud. Au-delà de la diversité des situations, et notamment des formes d'expression qu'elle peut prendre, cette saillance de l'identité me paraît relever d'une problématique générale... (Coulon, 2005: 1)

Gizaki edo erkidego ororen oinarri-oinarrizko premia direla dirudi, nonahi, norbera nor den, bizitzan zertan den, norantz doan erantzun ahal izatea...

...como la vida es un peregrinaje, el mundo ante nuestras puertas es semejante a un desierto, sin marcas, ya que aún resta darle su sentido por medio del vagabundeo que lo transformará en el camino hacia meta donde se encuentra el sentido. Esa "introducción" del sentido ha sido llamada "construcción de la identidad". (Bauman, 2003: 46)

Are gehiago krisialdi garaietan, alegia nork bere nortasuna eta erreferenteak argitzeko sentitzen duen grina inoiz baino handiagoa denean. Izan ere, gizarte konplexu eta teknikoki garatuetan euskarri sendo eta ipar argi baten premiak inoiz baino nabarmenagoa dirudi, hartara nortasuna funtsezko erreferentzia bihurtuz:

...la tendencia social y política característica de la década de 1990 fue la construcción de la acción social y la política en torno a "identidades primarias", ya estuvieran adscritas o arraigadas en la historia y la geografía o de génesis reciente en una ansiosa búsqueda de significado y espiritualidad. Los primeros pasos históricos de las sociedades informacionales parecen caracterizarse por la preeminencia de la identidad como principio organizador. (Castells, 2001: 52)

Gizartean horren garrantzi handia duen gaia izanik, nortasun edo identitateak eremu zientifikoan ere oihartzun ozena lortzeak ez luke inor harritu beharko. Gizarte zientzietan sarri gertatzen den bezala, baina, oso jorratua den kontzeptu baten gaineko adierak eta lan-ildoak asko eta ezberdinak izan daitezke, horren erabilerak aplikatua nolabait zailduz.

Nortasunak ikertzean aintzakotzat hartu dira, *nortasun kolektiboaz* gizarte zientzietako

hainbat adarretako autoreek landu dituzten ikuspuntu teoriko batzuk, horrela eginez gogoeta horiei zehaztasun, sakontasun eta hedadura zientifiko handiagoak ematea bilatuz. Izan ere, nortasunaren gaiak azken hamarkadetan izan duen eraldaketa sakonaz eta, egun, sortarazten dituen iritzi ugari eta kontrajarriez jabetuz gero, erreferente teoriko horiei erreparatzea guztiz beharrezkoa delakoan gaude.

Nortasuna, modernitatetik post-modernitaterako igarobidean

Identitatea edo nortasunari buruzko auzi teorikoetako bat bi ikusmolde nagusi ezberdinetatik eratorria da, hainbat egilek azaltzen duten bezala: modernotasunaren garaian bultzatu zen *primordialismoa* edo *esentzialismoa*, batetik, eta postmodernitatearen pentsamenduari dagokion *konstruktibismoa*, bestetik:

Distinguiremos entre dos formas de formulación teórica y de movilización política de las identidades colectivas, que denominaremos una visión esencial y una visión constructiva. (Revilla & Carmona, 2002: 396)

Primordialismo edo *esentzialismo* adieran, nortasuna finkatu eta organikotzat jotzen da; hau da, aurre-emanan, lehenetsia edo "berezkoa" den zerbait bezala ulertuta. (Croucher, 2004: 36). Ikuspuntu hau oso antzekoa da hainbat egilerengan:

El primer modelo supone que cualquier identidad tiene cierto contenido intrínseco y esencial definido por un origen común, una estructura común de experiencia o ambas cosas. (...) En lo fundamental, la lucha en torno de las representaciones identitarias se conforma aquí como la propuesta de una identidad plenamente constituida, independiente y distintiva en lugar de otra. (Grossberg, 2003: 152)

En la visión esencial de la identidad colectiva, ésta se sustenta en rasgos de origen de las personas y formula una unidad a priori de la identidad y del conflicto: la condición de ser mujer, de un grupo étnico, religioso o cultural, gay o lesbiana, se constituye como requisito de pertenencia a alguna identidad colectiva. (Revilla & Carmona, 2002: 396)

Primordialismotik konstruktibismorako igarobidean instrumentalismoa garatu zen, zeinak nortasuna interes politiko edo ekonomikoan menpe kokatzen zuen, hau da, *baliabide-jomugan* arteko kalkulu arrazional baten arabera, Sheila L. Croucher-ek dioen bezala. Dikotomia hori gainditzeko 1992. urtera arte itxoin beharko zen, alegia Katheen Concen eta bere lankideek etnizitatearen formulazio *konstruktibista* bat kaleratu zuten arte; harrera ona izan zuen kontzeptu horren definizio berriak ikuspuntu *primordialista* eta *instrumentalista* bere baitan hartzen zituen batera, elkarri lotuta:

...ethnicity itself is to be understood as a cultural construction accomplished over historical time. Ethnic groups in modern settings are constantly recreating themselves, and ethnicity is continuously being reinvented in response to changing realities both within the group and the host society. Ethnic group boundaries, for example, must be renegotiated, while the expressive symbols of ethnicity (ethnic traditions) must be repeatedly reinterpreted. (Conzen et al., 1992. In Croucher, 2004: 128)

Hartara, *primordialismoaren* ahulezia eta inkontsekuentziari eta ikuspuntu horri *instrumentalismoak* emandako muturreko erantzunari aurre egiteko garatu zen *konstruktibismoa* (*constructivist* edo *social constructionist*):

El segundo modelo (konstruktibismoa) subraya la imposibilidad de esas identidades plenamente constituidas, independientes y distintivas. Niega la existencia de identidades auténticas y originarias basadas en un origen o experiencia universalmente compartidos. Las identidades son siempre relacionales e incompletas, están siempre en proceso. (...) La identidad es siempre un efecto temporario e inestable de relaciones que definen identidades marcando las diferencias. De tal modo, aquí se hace hincapié en la multiplicidad de las identidades y las diferencias antes que en una identidad singular y en las conexiones o articulaciones entre los fragmentos o diferencias. (Grossberg, 2003: 152)

En la visión constructivista, no hay condición esencial para la pertenencia a la identidad... (...). En el primer caso, las identidades se construyen de una vez y para siempre: se es musulmán, vasco, gay o mujer. En el segundo caso, la identidad se construye en un proceso que requiere la movilización de valores. (Revilla & Carmona, 2002: 396)

Gaur egun, ikuspuntu *konstruktibista* zientzia-komunitatean nagusituz doa, atzean gelditu diren beste garai bateko planteamenduak gisa *primordialismo* edo *esentzialismoa* eta *instrumentalismoa* ulertuz.

Bilakaera kontzeptual hori aintzakotzat hartu beharko dugu, ez bairik gabe, ondoko orrietan landuko ditugun gogoetetan, zer-nolako aukerak nagusitzen diren –edo batera agertzen diren– Euskal Herriko herritarrengan aztertzerakoan.

Nortasunaren inguruan kontzeptu nahasmen handia dago herritarren artean eta iker-tzaileek hemen egindako aukerak, kontzeptuak mugatu eta erabilitako metodologiaren bidez aztergarri egin nahi izan dituzte. Horrek, bista-takoa denez, errealitate konplexu bat sinplifikatzera eramán gaitu, eta agian, neurri batean

desitxuratzera ere bai beraz. Horregatik, nortasunari buruzko informazio bilketaren zati bat kategoria dikotomikoetan oinarritu da, herri-tar taldeak *euskaltasun-erdaltasun* ardatzaren arabera sailkatzean adibidez. Honela, errealitatean nahasiagoa eta konplexuagoa den fenomeno batez jabetu eta hori ulertu nahi izan dugu. Hala ere, honek dakartzan mugak onartuta, erabilgarri iritzi diogu informazioa horrela jasotzeari, batez ere ikerketa kualitatiboaren bidez kontzeptu horiek modu sakonagoan eta konplexutasunak jasotzeko aukera handiagoe-kin aztertu direlako.

4.1.3. Izenaren eta lurraldearen korapiloa

Zatiketa administratiboak hainbat errealitatean duen eraginaren jakitun, ikerketa honen planteamendua, antolaketa eta inkestako zenbait galderen erredakzioa bera ere Euskadiko Autonomia Erkidegoa (EAE), Nafarroako Foru Erkidegoa eta Iparraldea oinarri hartuta egin dira, hau da, hiru lurralde horien arabera egin da zatiketa nagusia, nahiz eta gero azterketa Euskal Herri osoa abiapuntutzat hartuta egin. Zenbait kasutan, hala ere, litekeena da nortasunaren eta kulturaren inguruko iritzi eta jarrerak zerikusi handiagoa izatea beste faktore batzuekin –zonaldeko euskaldun dentsitatearekin, esaterako– lurralde administratiboarekin baino. Beraz, ziurrenik kasu guztietan ez da lurralde zatiketa hau azterketarako aldagai egokiena izan. Hori dela eta, lurralde administratiboak oinarri hartu izanak lurralde bakoitzaren barneko aldeak

ezkuta ez ditzan, garrantzitsua izan da lurralde bakoitzeko zonaldeen arabeko emaitzak ere kontuan hartzea.

Bestalde, hizkuntza aldetiko zailtasun bat ere kontuan hartzekoa da lurraldearen gaian, Euskal Herria, Euskadi, País Vasco, Comunidad Autónoma del País Vasco, Pays Basque... terminoen inguruan dagoen erabilera nahasgarria dela medio. Izan ere termino horiek ulertzeko hainbat modu daude, eta batzuek baliokidetzat dituztenak ez dira hala beste batzuentzat.

Nahastea areagotu egiten da *euskal, vasco* eta *basque* terminoak lurralde batzuek bere egiten dituztelarik (Euskal Autonomia Erkidegoa, Comunidad Autónoma del País Vasco, Pays Basque), *euskal* horri egozten zaion edukia, kultur, hizkuntza edo beste ezaugarri batzuekin baino, lurralde jakinekin lotzera eraman baitezake.

Basque Country, Pays Basque, País Vasco, Vasconia, Euskadi, Euskal Herria...

Euskal Herria, País Vasco eta Euskadi kontzeptuak nahastu egin ohi dira, Hegoaldean batez ere, eta nahasmen hori 1979tik aurrera areagotu zen, Euskadiko Autonomia Erkidegoa gaztelaniaz izendatzeko País Vasco eta Euskadi izenak Gernikako Autonomia Estatutuan instituzionalizatuak izan zirenean. Ordura arte Euskal Herriaren sinonimo gisa –euskal nazionalismoaren giroetan, bereziki– Euskadi (edo Euzkadi) erabiltzen zen, baina instituzionalizazio hori gertatu zen une beretik aurrera Euskadi terminoa, Nafarroan, urrunekoa eta arrotza da, nonbait.

Bestalde, Vasconia terminoa tradizio handikoa da, Iparraldean nahiz Hegoaldean, egun nahikoa zaharkituta dagoen arren. Hortaz, Arnaud d'Oihénart jurista zuberotarrak (1592-1668) *Notitia utriusque Vasconiae* idazlana argitaratu zuen Parisen, 1637an; egile hori izan zen, euskal lurraldeak bat eginik, Vasconiaren ideia orokortua historikoki azaldu eta ulertu zuen lehenbizikoa.

Bertan zein kanpoan termino hori erabilia izan da, nazioarteko komunitate zientifikoan Vasconia edo País Vasco/Pays Basque kontzeptuez eta bere historiaz esanahi komun bat egonik, entziklopedia handiek erakusten duten bezala. Adibidez, 1958an, Espasa-Calpe argitaletxearen *Enciclopedia Universal ilustrada europeo-americana* izenekoak horrelaxe zioen:

Llámase hoy VASCONIA al territorio que comprende las provincias Españolas de Navarra, Álava, Guipúzcoa y Vizcaya y los antiguos países de Labourd, la Soule y la Baja Navarra, en el departamento de los Bajos Pirineos de Francia. Prescindiendo de otros aspectos: político, económico, estadístico, etc., (...) nos ocuparemos aquí en el nombre y extensión del concepto de VASCONIA, en su historia, en su derecho y, en fin, en su idioma.

The New Encyclopædia Britannica-k (1974) honako modu honetan deskribatzen du Basque kontzeptua:

People who live in both Spain and France in areas bordering the Bay of Biscay and encompassing the western foothills of the Pyrenees Mountains.

Entziklopedia horrek, gainera, probintzi guztiak aipatzen ditu euren geografia, kultura deskribatuz, nahiz eta historiari buruzko zertzelada batzuk Hegoaldeko lau probintziez baino ez duen ematen. Ondoren eta dagokien liburukian, hiru lurraldeak banan-banan deskribatzen ditu: Basque Country-French Pays Basque, Basque Country-Spanish País Vasco [Basque Euskardi (sic)] eta Navarre. Basque Language kontzeptua lantzean, aldiz, lurralde guztiak bildurik hartzen ditu berriz ere.

Frantsesez, *Encyclopaedia Universalis* (1990) delakoak Basques bozari buruz Estatu ezberdinetan beti banatuta egon direla azpimarratzen du. Argi uzten du, halaber, Frantziako probintziak ez direla botere bakar baten menpe inoiz bilduak izan, ezta Espainiakoak ere: *“les provinces basques espagnoles n’ont pas été, dans le passé, réunies par un pouvoir commun”*.

Kontzeptuon erabilera nahasiaz jabetuta eta horien bilakaera historikoa behin aztertuta, euskal zazpi probintzi historikoak izendatzerakoan *Euskal Herria* erabiltzea ezarri zuen Euskaltzaindiak, 2003an:

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa (Beherea eta Garaia) eta Zuberoa batera izendatzeko erabil bedi “Euskal Herria” izena. (Euskaltzaindia, 2003)

Terminoen nahasmena eta horien gaineko eztabaida antzuak saihestu nahirik, hemen, Euskaltzaindiak ezarritako araua betetzearen aldeko hautua egin dugu zazpi lurralde historikoak izendatzeko, hortaz, Euskal Herria-País Vasco-Pays Basque kontzeptuak erabiliz.

4.1.4. Ingurune aldakor baten baitan

Euskal gizartea, gaur egun, ziurtasun eta kontzeptu higiezin gutxi eskaintzen duen ingurune aldakor batean txertaturik dago, beti

mugitzen eta bilakaera etengabe dagoen ingurune batean. Ingurune horretan iragana hautsi den sentsazioak krisiaren irudia agerrarazten digu gogoan. Orain ezbaian jartzen dira kultura eta nortasunaren inguruko hainbat irudi, irudikapen, diskurtso, ideia, kontzeptu eta jakite, duela gutxira arte irmo eta ongi errotuak iruditzen zitzaizkigunak. Ezbaian jartzen da ez bakarrik elementu horien berezko balioa, baita elementu horiek oren azaltzaile edo ordezkoren ere. Orain ez da erraz onartzen euskal kultura eta nortasunaren kontzeptua bakarra denik.

Sistema-ingurune aldakorra

Egungo gizarteak anitzak eta aldakorrak direla esatea topikoa ez ezik, egia ere bada; eta beste horrenbeste gertatzen da gizarte aldaketa sakon baten zurrumbiloen murgildurik gaudela aipatzearekin ere. Egungo kultura nahiz nortasun kolektiboez idazten duten guztiak gizartearen zatiketa eta konplexutasunetik abiatzen dira, euren aztergaiak ingurune egongaitz horretan kokatuz. Baina, inguruabar hori ezaguna izanagatik, ez da arrunta eta eragin argia du nortasunak eratzera:

L'hypothèse selon laquelle la mondialisation, processus séculaire continu, induit un peu partout un mouvement de transformation des catégories d'identification collectives n'est pas nouvelle. Ce qui est nouveau, c'est que nous assistons à une nouvelle phase de ce processus, décelable dans l'accroissement du volume d'échanges marchands au niveau mondial lié à l'évolution technologique et à la chute du socialisme réel qui représentait un frein à leur expansion. Ces phénomènes conjugués bousculent les catégories d'identification collectives les plus visibles. (Dressler, 1999: 111-112)

Baldintza berezi horiek horrela laburbil daitezke, adibidez, Tezanos-en eskutik: 1) aldaketa kultural sakoneko garaia, gizarte industrialetatik gizarte teknologiko aurreratuen paradigma berri batera igaroz; 2) erreferente sozial eta identitario klasikoak krisian daude eta horien ordezkari dira eskema –oraingoz– malguagoak eta pluralagoak agertzen, horren ondorioz nortasun berri eta zatikatuak garatzen direlarik; 3) Estatu-Nazio klasikoetatik orden global berri baterako igarobidean ulertu beharreko aldaketa politikoak; 4) transkulturazio deigarri lotutako egoera arazotsuak (zer gertatzen da *American way of life* delakoa garatu gabeko gizarteetan txertatzen denean?); 5) globalizaziotik eta kultura-aniztasunetik sortzen diren gatazka kulturalak zein normatiboak eta gizarteak integratzeko zailtasunak. (Tezanos, 2004: 37-42)

Eta badirudi, gizartearen eremu guztiak ukitzen dituen aldaketa hori, oso modu azkar eta sakonean gertatzen ari dela:

...en el actual ciclo histórico la transición se está produciendo a tal ritmo y con tanta intensidad que a veces apenas hay tiempo para que se realicen los procesos adaptativos necesarios (...). Lo cual puede producir mayores desacoples, disfunciones y, sobre todo, incertidumbres y ambivalencias en un campo crucial como es el de las identidades, los valores y las creencias. (Tezanos, 2004: 8)

Denok jakina da oraingoa garai astindua dela mundu osoan, bai gizarte alorrean, baita kulturaren eta politikan ere. Aldaketa sakonak eta, batez ere, bizi-biziki dira hainbat arlotan gertatzen ari direnak, ez soilik ekonomian, teknologian eta kulturaren. Aldatzen ari dira arauak, tresnak eta bizi-baldintzak, eta horregatik bizkor eta malgu jokatu behar da datozkigun eskakizunetara egokitu ahal izateko. Halaxe behar du euskal gizarteak ere, gizarte hau partaide

delako, nahitaez, mundu zabalean gertatzen ari den gizarte eta kultur bilakaeran.

Ikerlanean zehar, parte hartu duten pertsonen aldetik ziurtasun falta hori, kontzeptuak argi eta garbi zedarrituta ez edukitzearen sentsazio hori, askotan agertu da, baita ikertzaile taldean ere, atal honetan agertutako hainbat kontzeptu eta ideien adiera eta ulertzeko modu desberdinek erakusten duten bezala.

4.2. EUSKAL KULTURA ETA NORTASUNA, NORA DOAZ?

Ikerketa luze bezain mamitsuak eman dizkion informazioen eta ondorioen arabera, baina era berean zuhur jokatzuz, ideia bat azpimarritu nahi dugu besteen gainetik: euskal kultura eta nortasuna eraldatze-krisialdian daude. Krisi hitzak, gehienetan, egoera estuak dakartza gogora, baina bestelako interpretazioak ere egin daitezke. Krisia, besteak beste, aldaketa eta berrikuntzarako aldia da, akuilu bat, are katarsi bat, garai gordin batetik abagunera eraman gaitzake. Krisiak berezkoak ditu –nola ez– zalantza, noragabea, eztabaida eta gatazka.

Adiera bat edo bestea aukeratzen delarik ere, ikerlearen ikuspuntutik argi dirudi kulturak eta nortasunak –behintzat Euskal Herrian– etorkizunerako aukera asko eta handiak ematen dituztela, hala ondorioztatzen baita ikerketak agerian utzi duen krisi sentsazioetik. Hori dela eta, baikor ikusten dugu itxura batean euskal gizarte osoak bizi duen unea, trantsizio aldia. Ezbairik gabe, trantsizioa ez da euskaltasunaren beharra bakarrik, aitzitik, gizartearen esparru desberdinetan eta nazioarteko toki askotan ere hitz bera dabil ahotan. Nortasunaren inguruko noragabea bideratzeko erantzunak, askotan, kultural bilatzen dira; Euskal Herriaren kasuan, baina, kultura bera ere bidegurutzean dago eta, hartara, nortasunaren inguruko galderei ez ezik gure kulturaren estutasun uneak eragindako itaunei ere aurre egin beharko zaie.

Ildo horretatik eta izena eta izana loturik doazen neurrian, Euskal Herria izenarekin dagoen definizio eza eta nahasmena –arestian azaldu den bezala– ispilu ezin hobea izan daitezke zalantzaz betetako euskal kultura eta nortasunaren egoera islatzeko.

Izan ere, ikerketak azaltzen duen bezala, Euskal Herriaren ideia berberetik hasita ere, gizartean ez dago ulertze- edo irudikatze-modu bakun edo komunik; ez lurraldetasunetik, ezta ikuspuntu etnografiko batetik begiratuta

ere. Euskal Herria lurraldetasunaren arabera azaltzerakoan, *Zazpiak Bat* leloak jasotzen duen ideia dago elkarrizketatu batzuegan, baina irudikapen horri Euskadiko Autonomia Erkidego edo Pays Basque eremuak kontrajartzen dizkiote beste batzuek. Bestalde, ikuspuntu etnografikori erreparatuta, Euskal Herria hobekien islatzen edo ordezkutzen duen eremu sozio-espaziala *Bizkaia/Gipuzkoa ardatza* da, Nafarroa eta EAeko sektore batzuentzat, eta *Iparraldeko barnealdea*, lurralde horretako hainbat jendearentzat. Hortaz, Euskal Herriaren irudikapen sozialak zein pluralak eta ezberdinak diren jabetzean, errazago ulertuko dugu zergatik ez datozen bat euskal nortasun eta kulturaz herritarrek dituzten ideiak ere.

Datozen orriotan euskal kultura eta nortasunaren krisi une hori islatzen duten tentsio puntu batzuei buruzko oharra egingo ditugu; erantzunak eskaini baino, etorkizunera begira euskal nortasunak eta kulturak aurrez aurre izango dituzten erronka nagusien inguruko eztabaida irekitzea dugu xede.

4.2.1. Barne-dilema politikoa

Munduko errito eta erronka berrietara moldatzen ahalegintzeaz gain Euskal Herriak badauzka beste arazo larri batzuk ere konpontzeko. Horietatik, arazo politikoa da, ezbairik gabe, maizenik agertzen dena kultura eta nortasunari buruzko eztabaidari lotuta. Politika eta haren agerpide nahiz adierazpide guztiak ez dira ikerketa honetan agertu, eta horrek nabarmenago egin ditu. Eztabaida guztietan ahaleginak egin dira politika oharkabe eta ikusiez in uzteko, baina ez aipatze horrek berak ikusgai jartzen zuen. Gogotik saiatu arren, taldeetan edo elkarrizketetan parte hartu dutenek gorriak ikusi dituzte politika estaltzeko, saihesteko, alboratzeko edo ez aipatzeko. Eta ahalegin horien tamainak, hain zuzen ere, bistan jartzen du zenbaterainoko pisua duen politikak –EAEn eta Nafarroan, batez ere– euskal kulturaren eta nortasunaren alorrean.

Estatu-nazioen eragina kultura eta nortasunean

Pertenentzia edo nortasun kolektiboa ulertzeko garaian Estatuak duen garrantzia (hiritartasuna, naziotasuna...) azpimarratzen du Croucher-ek. Izan ere, Estatuak berak errealitate politiko, ekonomiko, sozial eta kulturaletan betetzen duen rola bitartez ere gauzatzen da eragin hori. (Croucher, 2004: 41-42)

For some individuals, citizenship or state membership in now and always has been nothing more than a legal arrangement, a formal category, or a response to a blank space on a customs form. For others, membership in a state provides a powerful source of identity and belonging and evokes emotions of pride, loyalty, and devotion. (Croucher, 2004: 187)

Hala ere, egia esan, litekeena da nortasun komun bat eratzeko ahalmen hori Estatu soilari baino Estatu-Nazio kontzeptuari lotuago egotea:

La nation ou le nationalisme, qu'ils soient centraux ou périphériques, exemples privilégiés de l'identité collective moderne, se constituent à la source des institutions dont tout semble dépendre. (Gatti, 1999: 206)

Badira Euskal Herriko kulturak eta nortasunak politikarekin eta erakunde politikoeekin dituzten harremanei erreparatu dieten kanpotik iritsitako ikerlariak ere. Adibidez, Zoe Bray-k, Bidasoa-Txingudiko errealitateaz esaten duena Euskal Herri osora ere –edo horren zonalde askotara, bederen– zabal daitekeela deritzogu; alegia, bere analisia Frantziaren eta Espainiaren arteko mugaren inguruko hiru hiritan egina den arren, ikerlanaren emaitzak –neurri handian– Euskal Herri osora orokortuak izan daitezke:

The French and the Spanish states have left their imprint on the political, cultural and linguistic landscapes and on economic and social development. (...) At the same time, however, all three towns have in common a visible Basque heritage, reflecting their location in the Basque Country. The result is an intermingling of cultural influences that is a source of both stimulation and tension. (Bray, 2004: 19-20)

Aldaketa garai hauetan, alabaina, kulturaren eta nortasunean eragiteko Estatuak duten ahalmena eraldatzen eta ahultzen doa, nolabait, eta sortzen ari diren beste botere-gune berrien artean berbanatzen:

En dépit du fait que ces États-nations continuent à être (...) la référence forte de ce que le terme "identité" veut dire, ces formes de l'être social passent aujourd'hui par une sérieuse recomposition. (Dressler, Gatti & Pérez-Agote, 1999: 9)

Gure ikerketa honetan elkarrizketatuek ez zuten politikako izenik, siglarik edo partidurik aipatu nahi, eta indarkeria eta gatazka ere saihestu egin dituzte. Euskal kulturaz eta nortasunaz jardun nahi zen elementu horiek ukitu gabe, eta ikertzaileek irizpide berberari eutsi diote, bestelako gogoetak behartu ordez.

Baina arazoa, gatazka, zailtasunak –bistan da– hor daude. Isilduagatik ez dira desager-

tuko, ezta garrantzia galduko ere, eta Euskal Herriko egoera bizi edo ezagutzen duen edonork ondo asko daki zer pisu izan duen eta duen horrek guztiak egunerokoan. Arazo politikoak bere aztarna utzi du euskal kulturaren eta nortasunaren hamaika irudi, irudikapen, adierazpen, esakune eta kontzeptutan. Horrek guztiak –nahi eta nahi ez– osatzen du euskal kulturak bizi duen krisiaren edo trantsizioaren inguruabarra.

Nazioa, kultura eta nortasuna

Barker-ek dioenez, nortasun nazionala nortasun kulturalaren adierazpen bat da (Barker, 2003: 25). Hori horrela izanik ere, politika/kultura/nortasun hirukotearen harremanak gatazkatsuak dira askotan, kontzeptuok ideologiaren zerbitzura jarri ohi direlako.

...la identidad cultural vigente en los debates políticos constituye un mito ideológico, donde tanto los rasgos de origen, identidad esencial, como los rasgos adquiridos, identidad construida, se configuran en cada momento histórico particular, en instrumentos ideológicos que soportan la acción colectiva. Derivado de ello, la idea de identidad cultural es tratada de manera sintética y estática... (Revilla & Carmona, 2002: 405)

Nazioa, komunitate bat osatzen duen aldetik, hirukote horren harremanen muinean kokatzen da, horien erreferente ezin garbiagoa da, osagai horiek guztiak bere baitan biltzen batitu: politikoak, kulturalak eta nortasunezkoak edo identitarioak.

La idea de nación, para poder cumplir con la mencionada función simbólica de carácter político (legitimar el Estado existente o legitimar la demanda social de un Estado por el momento inexistente) necesita caracterizarse, paradójicamente, como algo no político. la nación, en el campo simbólico, funciona como la idea de una comunidad social, civil, que existe desde tiempo inmemorial". (Pérez Agote, 1995: 124)

Hain ezberdinak diren osagaiak nazio kontzeptuan bat egitetik –alegia, elementu politiko-ideologiko eta erreferente kultural-identitarioen nahasketatik–, tira-bira sutsu eta arriskutsu asko eratorri dira historian zehar; eta arrisku hori ekiditea ez da erraza:

...el hecho característico de la conformación de la nación como identidad colectiva primordial de la modernidad lo constituye esa "identidad dual": la diferenciación de la ciudadanía como pertenencia a una comunidad política y como miembro de una comunidad cultural, y de ahí, la problematización de la relación entre ambas. (Revilla & Carmona, 2002: 407)

El problema es patente y ha dado lugar a auténticos desafíos cuando a las personas se les impide tener identidades múltiples, combinadas, que son inherentes a la vida social y que son naturales para la mayoría de la gente. (Revilla & Carmona, 2002: 406)

El estado moderno hispánico se montó sobre el "fanatismo de la unidad" y buscó su afirmación por exclusión de los demás, por la negación de la identidad de los demás (las minorías); llenó ese vacío con el espacio que le negó a los "otros". (Henríquez Salido, 2001: 79)

Ikerketa honek argi uzten du Estatuek duten ahalmen handia gizataldeen kulturen eta identitatean eragiteko, jatorri eta iragan komun batzuen aurretik, adibidez. Horren adibide argi bat auzo lurraldeekin dauden harremanetan ikus dezakegu: Nafarroako eta EAEko hiritarrek harreman ugariagoak dituzte Espainiar Estatuko auzo lurraldeekin Iparraldekoarekin baino; Iparraldeko biztanleriak, halaber, Frantziako auzo lurraldeekin ditu harreman ugariagoak –oro har– Hegoaldekoekin baino.

Egunerokotasun horretatik harantzago ere, auzo edo inguruko lurraldeekiko distantzia simbolikoarekin ere –ez distantzia espaziala edo fisikoarekin– beste horrenbeste gertatzen dela argi erakusten digu ikerketak; alegia, nortasun sentimendu nagusitzat Estatuarekikoa (frantsesa zein espainiarra izan) dutenek Euskal Herrikoak ez besteko auzo lurraldeetatik sentitzen dira hurbilen; aldiz, euren burua gehienbat nafar, euskal herritar-nafar edo gehienbat euskal herritar jotzen dutenek Euskal Herriko auzo lurraldeetatik hurbilago sentitzen dira kanpokoetatik baino. Azkenik, ikerlan honetan nazio-nortasunaren atxikimenduak landu ditu-

gunean ere Estatuek eragindako joera sobera ezagunak berretsi zaizkigu: Hegoaldean, Espainiarekiko atxikimendua oso presente dago eta, Iparraldean, Frantziarekikoa.

Komunikazio eta globalizazioaren sasoi honetan Estatuaren eragina –indartsua izaten jarraitzen duen arren– nolabait lausotzen ari da eta, aldi berean, beste eragile batzuk ere gailentzen hasiak dira; nazioartekoak zein Estatu barruko gutxiengoak. Hortaz, euskal kultura eta nortasuna bultzatzeko egungo aukerak handiagoak izan daitezke aurreko bi mendeetakoak baino. Eta hori bi eremutan gerta daitekeela ematen du: bai Estatuaren arteko mugaz gaindi, baita euskal sena duten diasporako kideekin ere.

Hortik aparte, txosten honek ez du beste iritzirik emango euskal kultura eta nortasunaren eta politikaren artean litekeen erlazioaz, solaskideek –lehenago azaldu denez– beste mota bateko hausnarketak egin nahiago izan dutelako. Dena den, beharrezkoa zen politikaren agertze-ez agertze horretaz ohartaraztea, eta XXI. mendeko euskal kultura eta nortasunaren bilakaeran izango duen pisua azpimarratzea,

bilakaera horren nondik norakoa zein den ere. Izan ere, euskal kulturak eta nortasunak nekez eutsiko diote datorkien erronkari, baldin eta ez bada tentsioa leuntzen politikaren alorrean. Beharbada, ez dago iritzi bakar bat gertakizunen hurrenkerari dagokionez (zer konpondu behar da lehenago?), baina argi dago erlazio estua dutela elkarren artean.

4.2.2. Kultura eta nortasun komun baten premia auzian

Askok euren buruari galdera hauek egiten dizkiote: zergatik da beharrezkoa nortasun bati atxikitzea? Ezinbestekoa al da adostasuna nortasun kontuetan? Edo bestela galdetuta, ezin al dira bilatu bestelako estrategiak, elkarrekin bizi eta egoteko modukoak? Hortaz, dilema bat azaltzen da, zenbaitek premiazkoztat jotzen dutelako adiera bakarreko nortasun bat, bere baitan ahalik eta pertsona gehien elkartuko dituen, nortasun hori partekatzen duten guztiek ezaugarri jakin batzuk dituztelarik; beste batzuek, ordea, helburu eta xede berberak zehaztutako esparru bat nahiago dute, eta horra iristeko, bide desberdinak aukeran. Azken ikuspegi horren arabera, euskal nortasuna eremu zabal eta malgu bat litzateke, elementu ugari osatua: gizartea, bizimodua, gustuak, nahiak eta Euskal Herria –nahiz hortik kanpo– egon eta bizitzeko era desberdinak. Norbanakoak bere

nortasun-heldulekuak eta bereizgarriak aukeratu ahal izango litzuzke elementu multzo horretatik.

Euskal Herriko eremu komun horretan pertsona bakoitzak menu moduko bat egin lezake, euskal herritar eta euskal kulturaren partaide sentitzen lagunduko lioketen platerak eta gozagarriak aukeratuz. Argi dago osagai guztiek ez dutela balio sinboliko bera, eta kultura eta nortasunaz planteatzen den definizio zabal honetan ere euskara eta beste osagai batzuk funtsezkoak ageri direla euskaltasunaren definizioan; hala ere, beste ikono batzuk eskura edukitzea eta, bereziki, *neurrirako* nortasun bat eratzeko aukera erakargarriak dira nortasuna eraikitzeo, eta badirudi hasi berria dugun XXI. mendeak hala beharko duela.

Ikuspegi horretatik, euskal nortasunak eta kulturak bizi omen duten krisiak, atal honetako hizpide dugunak, zerikusi zuzena du kultura eta nortasun hori eraikitzeo ereduarekin: eredu horrek, sinbolo edo ikur bakarra bilatu beharko luke euskal nortasun eta kulturarentzat? Hau da, euskaltasunaren ezaugarriak definitu eta horien arabera sailkatuko lirateke herritarrak euskal nortasunaren eta kulturaren partaide edo ez partaide bezala? Edo horren ordez, nortasun eredu horrek eremu eta osagai batzuk bakarrik definituko litzuzke eta norberaren esku geldituko litzateke horien artean hautua eginez euskal herritar sentitzeko bere modua eraikitzea?

Nortasun atxikia eta nortasun lortua

Arestian aipatu da nola *primordialismo* edo *esentzialismo*ak zurruntasuna eta geldotasuna atxikitzen zizkien nortasunari eta kulturari eta nola *konstruktibismo*ak, aldiz, kontzeptu horien ikuspuntu dinamiko, anitz eta irekiak azpimarratzen dituen. Halere, nortasunaren eta kulturaren eraikitze horretan *konstruktibismo*ak ez ditu tradizioak eta historiak duten pisua baztertzeko, bata zein bestea aintzat hartzen baititu:

In spite of the emphasis on multiplicity and malleability, constructivists do not, however, portray identity as arbitrary. Rather, they seek to explain the emergence, variation in, and reconfiguration of different identity/belonging formations by reference to political, economic, and sociocultural conditions. (Croucher, 2004: 38)

Jasotako jatorrizko nahiz egungo elementuetatik abiatuta eta horiek baliatuta, egungo gakoa da guk geuk zer bilakatu nahi dugun definitzea; nola irudikatzen gaituzten eta nola irudikatzen dugun guk geuk gure etorkizuna:

...las identidades tienen que ver con las cuestiones referidas al uso de los recursos de la historia, la lengua y la cultura en el proceso de devenir y no de ser; no “quiénes somos” o “de dónde venimos” sino en qué podríamos convertirnos, cómo nos han representado y cómo atañe todo ello al modo como podríamos representarnos. Las identidades, en consecuencia, se constituyen dentro de la representación y no fuera de ella. (Hall, 2003: 17-18)

Historiak eta egungo gizarte baldintzek eskaintzen dituzten aukerak abiapuntu hartuta, badirudi norberak bere buruaz eta bere nortasun kolektiboaz duen asmoa edo irudikapena nahi duen bezala-edo eraikitzean datzala nortasunaren gakoa, gaur egun.

Hori da, ezbairik gabe, ikerketa honek irekita utzi duen galdera nagusietako bat. Era desberdinetan planteatua, galdera hori ardatza izan da eztabaida taldeetako saio askotan, eta etengabe ekarri du gogora gaurkotasan handiko gai bat, Euskal Herrian ez ezik hemendik kanpo ere azaleratzen dena: gaur egun, nondik eraikitzen du/ditu norbanakoak bere nortasuna/k? Nola aurkezten dugu gure burua? Zerk bereizten gaitu? Lan honen emaitzen argitan badirudi euskaltasunaren definizio gero eta lausoago baterantz goazela, gero eta zailagoa dela beren burua euskal herritartzat duten guztiek partekatuko duten euskaltasunaren ideia bakarrera iristea –eta agian, ez dugula hori nahi ere–.

Aztertu beharko litzateke, lehen-lehenik, nortasun desberdinak nola elkarganatu, zer

egin elkarreraginean jardun dezaten eta beren osagaiak elkartruka ditzaten era naturalean. Agian, aurrenik euskal nortasunaren definizio berri edo egokitu bat beharko litzateke, kontzeptu hartzaileago, irekiago baten bila. Taldeetan maiz azaldu da gizartearen errealitateira moldatu beharra dagoela, euskaltasunaren era eta alderdi desberdinak onartu, barneratu eta besteekin batera egituratu ahal izateko. Eredua ez litzateke, beraz, nortasun bakar eta monolitiko bat, etengabeko harremantetan dauden nortasunak baizik, eta horrela, beharbada, horiek guztiak bere baitan biltzen dituen nortasun batera iritsiko ginateke. Ildo horretatik doa, hain zuzen ere, etorkizunera begira funtsezkoa den zeregin bat, alegia, balizko orenen nortasun hori eragozten duten eragileak aurkitzea eta kontzeptu zabalago eta partekatuago bat zehaztea.

Mugaz gaindiko euskal sentimendua

Nortasunak elkarrekin hurbiltzea dela-eta, esan dezagun Oiarzabal anaiek euskal kultura eta identitatearen baitan Euskal Herriko lurraldetasun historiko edo kulturez gaindiko ikuspuntua aintzakotzat hartzea aldarrikatzen dutela –Totoricaguena, White edo Zulaika bezalako egileei jarraituz–, horrekin munduko edozein lekutan euskal sentimendua duen edonor ere barne hartuz:

Progresivamente, se están empezando a dar los primeros pasos para entender la cultura vasca desde una conceptualización desterritorializada, fluida y dinámica, la cual incluye representaciones y valores identitarios que son producidos y reproducidos, tanto en Euskal Herria como en la diáspora, aunque de forma más tímida. (...)

Así, los vascos proyectan y conforman un atlas identitario cultural que ocupa múltiples lugares geográficos, reconstruyen diferentes discursos culturales, hablan diversos idiomas y dialectos, y representan diferentes grados de asimilación y de resistencia en sus diferentes países de residencia. (Oiarzabal eta Oiarzabal, 2005: 132)

Planteamendu egokia, nonbait, informazio- eta komunikazio-teknologia berriek distantzia fisikoak eta harremanen zailtasunak gutxitu –eta ia ezabatu– baitituzte bizi dugun globalizazioaren aro honetan. Hortaz, zabalkuntza kontzeptual horren ondorioa euskal komunitatearen handitzea litzateke, dudarik gabe.

Askotarikotasuna aurrez aurre; horra euskal kultura eta nortasunak aurre egin beharko dioten erronketako bat. Horretarako, beharrezkoa da euskal irudikaria oraingo dikotomia batzuek libra dadin, *euskal herritarrak/euskal herritar ez direnak* dioena –adibidez– bazter utziz, eta euskal gizartera biltzen diren hainbat ezberdintasun eta desadostasun bere egin dezan. Beste horrenbeste esan daiteke bereizketarako arrazoitzat hartzen diren beste ezaugarri batzuek: lurraldeak, belau-naldiak, jatorrizko herrialdeak eta kulturak, gizarte

klaseak... Kontuan izan behar da XXI. mendean euskal kulturak eta nortasunak erreferentziakoak edukiko dituztela gero eta konplexuagoak diren errealitateak, nahiak, eskaerak eta beharrak. Norberaren bizitza markatzen duten esperientziak gero eta gehiago eta desberdinaoak izango dira, eta horren ondorioz eratzen den izaerak, zatikakoak, alderdi askotariko bizitza edukiko du: euskal herritar sentitu edo izan gaitezke, eta –litekeena– aldi berean gure egingo ditugu izan, sentitu edo jokatzeko beste era asko.

Kulturartekotasunetik eraikitako nortasuna

Nortasun eta kultura homogeenak eta halakoen baitako harreman mugatuak oso atzean gelditu dira, denboran. Egun, aldiz, aniztasuna da mendebaldeko gizarteen ezaugarri nabarmenetako bat:

La fragmentación del mundo convierte en una quimera la representación de la identidad como una totalidad armónica y sin disonancias, con una territorialidad compacta y unas tradiciones aseguradas. (Innerarity, 2003: 69)

El mundo de hoy se caracteriza por la paradoja de que una creciente globalización va acompañada de nuevas diferenciaciones, de que hay mayores relaciones entre un número mayor de elementos. El cosmopolitismo y la particularidad no son opuestos, sino que más bien se complementan y se refuerzan mutuamente. Al desvanecerse el espejismo de una clasificación simple del mundo (...) nos encontramos de nuevo en una era de diferencias entrelazadas. Todo lo que pueda surgir en términos de unidad e identidad lo hará a partir de la diferencia y producido por ella. (Innerarity, 2003: 71)

Nagusitzen ari diren aniztasun eta nahasketa mundu globalizatuan dauden nortasun eta kulturentzat arrisku antzean ulertzeko joeraren aurrean, egile batzuek diote baldintza berri horiek inork ez lituzkeela mehatxutzat hartu beharko, baizik eta aukera bezala ulertu:

No se trata de prescindir de las identidades, sino de conferirles una nueva viabilidad. A nadie debería pedírsele que deje de ser lo que es; únicamente, que no entienda su identidad de manera exclusivista, ni la haga valer en contra del pluralismo que caracteriza nuestras sociedades. (Innerarity, 2003: 78)

Arriskuak arrisku, badirudi eremu urriko kultur eta nortasunek euren etorkizuna kulturartekotasunaren gainean eraiki beharko dutela, ezinbestez. Europako Batasunean kokatzen direnak, batez ere, egitasmo hori “dibertsitatearen dibertsifikazio prozesuan” murgilduta baitago:

In the EU, the diversification of diversity has three main aspects. First, the process of European enlargement will increase the diversity of national identities within the UE. Second, in several member states, subnational political mobilizations promote ethno-regional identities as groups demand recognition as national minorities or as ethnic groups, (...) Third, Europe is and will remain a continent of immigration. (Martinello, 2005: 13)

Nortasun ezberdinak, aniztasun kulturala, Euskal Herrian bizi direnak nahiz diasporakoak, euskara eta beste hizkuntzak, bertakoak eta etorkinak... Etorkizuneko euskal kulturak eta nortasunak hala ulertu beharko dute eta lehen-go garai eta imaginario edo irudikarietakoak diren dinamika dikotomikoak uxatu, horrelakoak, neurri handi batean, gaingiduta geratu baitira gure egunerokoan. Kasu horietako batzuek sakonago hausnartuko dugu hurrengo puntuetan.

4.2.3. Nola aldatu?

Gaur egun krisian dagoen euskal kulturaren eta nortasunaren irudi aldebakar eta hegemonikoak, badu beste tentsio puntu bat: *ireki/itxi* dikotomiaren inguruan sortzen diren sentipen edo iritzi kontrajarriak. Eztabaida-tal-deetan, behin eta berriz aipatzen da euskal

kultura eta nortasuna itxiak diren ideia, beren baitara biltzeko joera duteneko, eta sentsazio horrek sentimendu kontrajarriak eta nahasgarriak sorrarazten ditu.

Euskal kultura eta nortasunaren *ireki/bere baitara bildu* tentsio-guneaz ere ikerketa kuantitatiboak bildutako informazioak aukera zabala eskaintzen digu, kulturaren eguneroko praktikatik zein ikuspuntu sinbolikotik begiratuta. Badaude, adibidez, auzo lurraldeekiko harremanetan Euskal Herriko beste lurraldeekin gehiago edo gehien bat erlazionatzen direnak eta baita –ia proportzio berdinetan– Euskal Herriz kanpoko auzo lurraldeekin gauza bera egiten dutenak. Edo, maila sinbolikora jauzi eginez, badaude Euskal Herriarekiko nortasun identifikazioa Frantzia/Espainiarekiko identifikazioaren aurretik jartzen dutenak, eta alderantziz, estuarekiko identifikazioa lehenesten dutenak, bi multzo horien pisuak ia parez pare agertuz.

Eztabaida taldeetan parte hartutako askok izaera ireki eta malguaren beharra azpimarratzen zuten euskal kultura eta nortasunerako, bestelako kultura, nortasun, hizkuntza, ohitura, ikusmoldeetara eta abarretara ireki daitezzen eta horien adierazpideak bere egin ditzaten alegia. Horrek elkartrukea eta elkar aberastea ekarriko litzuke. Gainera, dagoneko elkartruke hori itzuli ezinezko gertakaria dela aitortzen da, euskal kultura beste

hainbatekin etengabeko kontaktuan baitago: batetik, Euskal Herriak nagusiki bi estaturen eragin sozial, kultural eta politikoa ditu, bestetik, azken hamarkadetako inmigrazio ezberdinek ere beren kultura, hizkuntza eta abar ekarri dituzte, eta azkenik gaur egun baliabide teknologikoek eta komunikazioek mezu eta kulturen topatze horretara garamatzate halabeharrez, eta ez da inongo komunitaterik geratuko joera horretatik alde batera.

Nortasuna, itsaskortasunetik jariakortasunera

Identitate edo nortasun kontzeptua osatzen duten elementu tradizionalak *konstruktibismoak* ere bere egiten dituen arren, elementu horiei *primordialismo* edo *esentzialismoak* ematen zizkien esanahi itsaskor, egonkor eta iraunkorrek zaharkituak eta ekidin beharrekoak dira *konstruktibismoarentzat*, arestian esan bezala. Nortasunaren egungo adiera tradizioetik abiatu abiatzen da, bai, baina, aldi berean, dinamikoa, malgua eta iheskorra da:

...si el "problema moderno de la identidad" era cómo construirla y mantenerla sólida y estable, el "problema posmoderno de la identidad" es en lo fundamental cómo evitar la fijación y mantener vigentes las opciones. (Bauman, 2003: 40)

Hortaz, nortasun edo identitateari modernotasunak itsastan zien zurruntasun eta geldotasunak gaindituta leudeke post-modernitatean, era horretan kontzeptu hori hobeto egokituz egungo gizarteari dagozkion dinamika anitz, zatitu, ireki eta osagarrietara –nahiz kontrajarrietara–:

On observe un certain rejet des valeurs-refuge traditionnelles (morale, famille, fidélité), emblématiques de la dimension de liens solides et durables. C'est sans doute l'engagement à long terme qui est tout d'abord rejeté: le caractère de permanence et de projection dans l'avenir constituant toujours un frein important. (Joffrin, 2003 : 164)

Ixtea edo irekitzeari buruzko eztabaida ikerketa osoan zehar azaleratu da, eta eman diren argudioen larritasunagatik badirudi euskal kultura eta nortasuna bidegurutzera iritsi direla –arestian esan bezala–. Beste adierazle batzuek bezala, itxi edo ireki aukeratu behar horrek aditzera ematen du, nonbait, euskal kulturak eta nortasunak trantsizio-aldi bat bizi dutela.

Irekitze horrek ekar litzakeen ondorioek zalantza eta ezinegona agerrarazten dituzte

elkarrizketatu diren lagunengan: euskal kultura gutxirena eta gutxitua izanik, kalte egingo al dio kulturen joan-etorri horrek? Euskal gizartea, gai izango ote da bere balio kulturalak eta nortasun ezaugarriak gorde, berritu eta indartzeko? Bestela esanda, nola ireki berezko duena galdu gabe? Zenbaiten iritziz badago hori egitea, baina beste batzuk mesfidatiago eta beldur ageri dira, ez ote den galduko honelako kultura bat, ahalegin itzele esker biziraun duena.

Irekitzea, ezinbesteko baldintza

Aldaketak aldaketa, sortzen ari den gizarte zibil globalaren lekukoa da nazioarteko mugimenduen eta erakundeen ugaritzea, Croucher-en esanetan, eta ugaritze hori da, halaber, atxikimendu edo identifikazio mota berriak lantzeko gizabanakoek nahiz taldeek dituzten gogo eta ahalmenaren isla. Bestalde, identifikazio berri horiek ez dute zer ikusirik orain arte ezagunagoak izan diren lurraldearekiko, geografiearekiko edo politikarekiko loturekin. (Croucher, 2004: 35-36)

Mundu mailan orain agertzen ari den gizarte zibil horren identifikazio berriak mugaz haraindiko ezaugarri eta praktika kulturalak dira, alor askotakoak, horien adibideak ugariak izanik: altermundismoa, futbola edo tenisa bezalako kirolak, pop kultura... Azken buruan, betiko erreferenteei itsasten zaizkien identifikazioak ez ezik, muga fisikoa eta espazialak ezinbestez gainditzen dituzten beste nortasun-euskarriak ere gero eta ohikoagoak dira:

Unas (identidades) siguen recurriendo como argumentos a pretendidas afiliaciones vinculadas al territorio, la religión o la raza. Otras aprovechan distintos elementos, pero se apoyan en formas no territoriales de concebir la identidad. En cualquier caso, los procesos de desterritorialización de la cultura y de la identidad parecen aumentar de forma incontestable. (Fernández de Rota, 2002: 52-53)

Hartara, gaur egungo errealitate konplexu eta aldakor batetik abiatzen diren kulturek eta nortasun kolektiboek irekitasunez jokatzeko beharra dute, betiko erreferenteei uko egin gabe, baina bestelako euskarri berriak ere berenganatuz.

Eskarmentu historikoari erreparatuz, ordea, haize berriek komunitate gutxituen nortasun eta kulturei dakartzkien arrisku bidez ohartarazten gaituzte autore batzuek. Ahots horien arabera, orain arteko estatuen kultur eredu orojale iraunkorrari, hemendik aurrera kultur globalizatuaren mehatxu berria gehitu beharko zaio. Eta, hori salatzen da kulturen arteko ukipen egoerak eta euren arteko eraginek dakarten onura onartuta ere:

Zer gertatu da orain arte Estatu-nazioaren sistema asimilatzailearekin? Eta zer gertatzen ari da orain globalizazioaren sistema orobat irenslerekin? Arazoa ez da kulturen arteko elkarrekintza eta mestizajea; hau onuragarria eta beharrezkoa baita berez. Arazoa beste kontu hau da: elkarrekintza hori norabide bakarrekoa dela, eta sistema hegemoniko asimilatzailearen erakarpin-ndarrak beste gainerako azpi-sistemak (batik bat, estaturik gabeko herri-nortasunaren kultura-sistemak) irentsi egiten dituela. Azken hauek ez baitaukate defentsa-mekanismorik haiei buru emateko. Hementxe dago auziaren gakoa. Eta gako honen argitan herri-identitatearen borrokak gutxieneko eskakizun bat dakar oinarritzat: bere nortasunaren garapenak herrian herriko gizarte eta kultura-baliabideak bertako gizarte-eragileen esku egotea eskatzen du, nortasun-elementuen berritze-jarduna barruko indarren arabera eratua izan dadin. Honek ez du esan nahi, noski, kanpoko eraginik ez dagoenik; are gehiago, kanpoko eragin horien premia beharrezkoa izango du dena delako herri-komunitate horrek, aldian aldiko aldakuntzen bilakaeran murgilduko bada. (Odroizola, 2000: 194)

Ezinbesteko irekitze horretatik kultur gutxitua galtzaile ez ateratzearen gakoa prozesu horren gidaritzan dago, nonbait: kultura komunitate beraren herritarrak eta beren kultur eragileak izan daitezen irekitze horren aitzin kokatzen direnak.

Sentimenduak, horrenbestez, nahasiak dira: batetik, harrotasuna, kulturari, hizkuntzari eta ohiturei eutsi zaielako egoera benetan latzetan; bestetik, ezinbesteko irekitzea, gero eta argiago ikusten dena. Azken batean, denek uste dute irekitzea aurrera egitea eta moldatzea dela, eta bere baitan ixtea, aldiz, zaharkitzea eta mengeltzea, baina ez da argi ikusten irekitze horrek zer ekarri behar duen: orain arte arrotz jotzen zena euskal kultura eta nortasunaren parte kontsideratzea? Euskal Herrian bizi diren kultura desberdinen arteko bate-raketa bilatzea? Denborak esango du irekitze prozesu hori nola egiten den eta bide horretan euskal kulturak eta nortasunak zer irabazi eta zer galtzen duten.

Hona iritsita, euskal kulturari aurrez aurre jartzen zaio modernizazioaren eta bilakaeraren

beharra. Zein aukera ditu euskal kulturak etorkizunera begiratzeko eta adierazpide berriak bilatzeko? Noraino egin dezake aurrera? Zenbateraino esperimentatu dezake?

Ikerketan zehar argi gelditu da ez dela bate-erreza tradizioa ukatu gabe, hura eraldatzea eta gaur egungo parametroen arabera interpretatzea.

Maiz, badirudi edozein aldaketa saiok, elementu berrietara irekitzeak, iragana traizionatze-ara garamatzala, ezinbestean. Hala ere, euskal kulturarentzat behar-beharrezkoa da aldaketa biziraun ahal izateko, eta edonola ere, saihestezina da, zenbaiten iritziz. Halabeharrak agintzen du, eta batzuek diotenez, uneko egoera eta ingurua aztertzeak kulturaren aldagarritasuna aztertzea dakar berarekin.

Tradizioaren eta geroaren arteko zubia

Primordialismoa edo *esentzialismoa* gainditu asmoz iraganeko elementuak baztertzeko arriskua gizarte zientzietan une batean presente egon bazen ere, gaur egun ez da halakorik defendatzen. Izan ere, *konstruktibismoan* tradizioaren elementuak ezinbesteko abiapuntutzat hartzen dira, arestian esan bezala:

Ethnicity is a constructed identity, but its construction relies on appeals to primordial sentiments of belonging. It is constructed, in other words, with reference to kinship, blood ties, shared origins, and common ancestry. (Croucher, 2004: 129)

Crawford Young is correct that primordialism and instrumentalism needed to be turned on their heads, but it is also correct that understanding the existence of ethnic groups and the relations between them must incorporate elements of both views. (...) identities are invented, but the invention process is not arbitrary, it does not make ethnicity or any other identity out of thin air, and is far from inconsequential. (Croucher, 2004: 133-134)

Gauzak horrela, euskal kultura eta nortasunaren *ireki/bere baitara bildu* tentsio-gunean irekitzerantz jotzea, egun, ezinbestekoa dela aitortuz, norabide horretan euskal kulturaren hainbat elementu tradizionalak etorkizuneko bidea zedarrizten eta bide horretatik aurrera egiten laguntzen diguten mugarrak izan behar-ko lukete. Hau da, tradizioaren zimenduen gainean eraiki behar dugu geroa, ez zerotik hasita. Ohiturak, tradizioen multzoa... irauarazi eta zaindu egin behar dira, baina horrekin batera beharrezkoa zaigu jakin-mina eta berrikuntza nahia ere esna eten gabe edukitzea, unean uneko kultura adierazpide berriez hornitu ahal izateko. Hala ez balitz, gizartearen zati handi batekiko komunikazioa –belaunaldi gazteenganakoa, esaterako– etenik gera liteke, era horretan euskal kultur eta nortasunaren biziraupena arriskuan jarritz.

4.2.4. Euskaltasunaren muina eta periferia

Euskal Herriko lurralde bakoitzean euskal kultura eta nortasun desberdinak azaleratzen

zaizkigu, gaur egun inoiz baino agerikoago. Dauzkagun datu eta informazio ugariak argi adierazten digute Iparraldean, Nafarroan eta EAEn oso desberdinak direla euskal kultura eta nortasunaren adierazpideen lasterra, bilakera-aldia eta egoera. Areago, euskal kultura eta nortasunaren inguruko irudipenak, adierazpenak eta ulerpideak eurak ere, Hegoaldeko jendearen pertzepzioetan hierarkizatuta daude, eta mailaketa horren gorenean EAE kokatzen da, eztaba daezina den irudi- eta arau-emaile nagusi. Izan ere, nolabaiteko sailkapen bat, oharkabe bezain eraginkorra, zabaldu da goitik behera, hau da, kulturaren eta nortasunaren gune zentraletik (EAetik eta, batik bat, Bizkaitik eta Gipuzkoatik) periferiara (Nafarroa eta Iparraldera, eta neurri batean Arabara). Nolabait euskaltasunaren muina lehenengo lurralde horietan kokatu eta horietako ezaugarri eta adierazpideak *benetako euskal kulturatzat* hartzen dira. Euskal Herriko Iparraldean ere antzeko gertaerarekin egiten dugu topo, non barnealdea da euskaltasunaren ikurra duena, batez ere irudi hori kostaldearen bestelako ezaugarriekin erkatzen denean.

Erdigune eta kanpoalde soziopolitikoak

Nortasun kolektibo orok bi oinarriko estrategia ditu aukeran, bata *baztertzaillea* da eta bestea *bateratzailea/biltzaillea*, edo, aldiz, saiatzten da biak batera aurrera eramaten, neurri handiagoan edo txikiagoan; hori da, hain zuzen, Pérez-Agote-k nortasun politikoari buruz aipatzen diguna:

La logique incluyente provoque l'uniformisation culturelle inclusive d'autres et désactive les identités périphériques.

La logique excluante tend à superposer la particularité culturelle et la territorialité politique.

Ces deux logiques cohabitent dans chaque identité collective et, selon leur degré d'objectivation politique, l'une ou l'autre sera plus visible. (Pérez-Agote, 1999: 32)

Aipaturiko dinamiketarik bat edo bestea nagusitzen denaren arabera, komunitate batean agertuko da ala ez, sektore batzuen joera zentrifugoa. Hari horri jarraituz, *erdigune-kanpoalde* binomioa aintzakotzat har daiteke, zeini Stein Rokkan norvegiarrak adiera geo-espazialek haratagora doan zentzu sozio-politikoak eman dion. Horrela ebaluatzen du Juan Linz-ek egile norvegiar horrek bultzatu zuen kontzeptuaren erabilera:

Ha sido mérito del gran sociólogo y politólogo noruego subrayar que en la vida política existen no sólo las tensiones, conflictos y alienaciones partidistas basadas en los conflictos de clase, en las diferencias de intereses y estilo de vida urbano y rural, y los derivados de la división religiosa o de religiosidad-secularismo, sino los derivados de la tensión centro-periferia. Tensiones entre un centro de poder político, económico, cultural, lingüístico con ambición hegemónica y regiones, etnias, culturas, en la periferia que han escapado o resistido la plena dominación e integración por el centro "constructor" del Estado. (Linz, 1986: 369)

Eta Estaturen kasuak aztertzeko sortua zen *erdigune-kanpoalde* adiera hori bere eginez, Linz-ek nazionalismo periferikoen analisisira aplikatzen du:

...las periferias nacionalistas (...) se encuentran con el mismo problema que el Estado central, también ellas tienen sus periferias de difícil integración y dominación por su propio centro. (Linz, 1986: 370)

Euskal nortasunaren definizio baterako *erdigune-kanpoalde* binomioa erabiltzearen arriskuak ohartarazten digute egile batzuek, euskal diasporaren nortasuna definitzerakoan. Izan ere, binomio horrek euskal herritar sentitzen direnen arteko nolabaiteko *pedigree* kulturala duten eta ez dutenen arteko kategoria hierarkizatuak sortarazten baititu:

...carece de sentido el modelo al que denominamos "centro-periferia". Este modelo está sujeto a un criterio de localización geográfica (jus loci), que concibe que la identidad vasca se crea y conforma desde Euskal Herria, mediante la expansión posterior de valores, símbolos y significados a otros países y lugares de la diáspora, los cuales asumirían un relegado estatus de receptores y meros manipuladores o reproductores imperfectos (a medida que la distancia temporal se agudiza) de esa identidad primigenia, originaria y por tanto "auténtica". (Oiarzabal eta Oiarzabal, 2005: 58-59)

Gaur egun, periferiakoak liriatekeen artean ere onartu eta defendatu egiten da hierarkia hori, gehienetan inplizituki bada ere. Jarrera horrek agerian jartzen du beharrezkoa dela euskal kulturaren eta nortasunaren beste ikuspegiak eta adierazpenak ere azalera daitezen, haietako bakoitza den moduan, hau da, bere ingurunearen eta gorabeheren fruitu gisa; aukera horretan sakondu beharko litzateke. Zeregin zaila da, irudimen-ariketa bat benetan, baina era berean, bide bakarra da nortasun hori hurbilago, egiazkoago eta ukigarriago ager dadin, modu horretan edonork baliatu ahalko baitu bere sentimenduak eta bizipenak egunerokoaren bitartez adierazteko. Beharbada, euskal nortasunak eta kulturak *deslokalizatzer*a edo *deslektuzer*a jo beharko lukete neurri batean, *global pentsatu* (Euskal Herria), *tokian-tokian aritu* (eskualede edo lurraldea) lelopean, nolabait. Izan ere, tokian tokikoa tresna bat izan liteke tentsioak baretzeko eta euskal herritar izateak esan nahi duena

bizitzeko modu sentituagoak, barneratuagoak aurkitzeko.

Ildo horretatik joz gero, argi eduki beharko litzateke etorkizunak ez duela zertan EA Eren bilakaeraren emaitza izan behar, baizik eta Euskal Herriko herrialde guztien bilakaeran datzala, haietako bakoitzean izandako garapen berriek elikatua.

4.2.5. Hizkuntzaren paradoxa

Lehenagoko ataletan euskal kulturak definitio hegemoniko bat izatearen edo ez izatearen inguruko eztabaida aipatu da, baita tradiziozko elementuek euskal kultur eta nortasun berrien planteamenduetan bete behar duten lekua ere. Bada, eztabaida horietan hizkuntzak, euskarak hain zuzen ere, leku berezia du. Izan ere, paradoxa bat topatzen dugu euskararen inguruan:

jende gehienak euskal kulturaren eta nortasunaren oinarrian kokatzen du, zenbaitek zalantzan jartzearaino euskararik gabeko euskal nortasunik edo kulturarik izango ote litzatekeen, baina aldi berean euskaraz ez dakiten askok ere beren euskal nortasuna eta euskal kulturaren parte izatea onar dadin eskatzen dute, euskararen ezagutza euskal nortasunaren eta kulturaren ezinbesteko baldintza denik ukatuz, eta nortasun hori eraikitzeko beste osagai batzuei balio handiagoa emanez.

Euskarari balio sinboliko handia ematen zaio euskal kulturaren definizioan, baina eguneroko errealitatean euskara beren hizkuntzatat ez duten pertsonak edo euskara erabiltzen ez duten kultur ekintzak euskaltasunetik kanpo uzteak arazoak sortzen ditu.

Iritziak ez datoz bat, inondik ere, euskaltasuna gaur egun eratzen duten elementu nagusiak argi eta garbi zehazterakoan: hizkuntza ote? ohiturak eta usadioak dira? bizimodua? euskal herritar izan nahi hutsa? Zalantzarik gabe, zehazte ahalegin horretan hizkuntza –euskara– osagairik indartsuena da, baina adostasuna ez da erabatekoa, gauza onartua delako euskara ez dakiten askok beren kultura euskal kulturaren zatitzat jotzeko eskubidea aldarrikatzen dutela.

Euskal herritar izan ahal izateko bi baldintza garrantzitsuenez galdetuta, euskara ez da lehenetasunen artean aipatua izan (ez erdaldunen, ezta euskaldunen artean ere). Izan ere, nagusitzen diren bi eskakizunak honako hauek dira: *nahi izatea* –euskal nortasunaren adiera konstruktibista hutsa dena– eta *bertan bizi eta lan egitea* –adiera instrumentalizatutako jo genezakeena–, Iparraldean salbu, non *euskaraz jakitea* bigarren lekuan agertzen den.

Hala eta guztiz ere, informazio kualitatiboak argi utzi du euskararen garrantzia, mota guztietako taldeek hizkuntza hori hizpide izan baitute, aldeko jarrera eta iritziak azaltzeko izan, nahiz hizkuntza horrekiko axolagabekeria edo distantzia adierazteko izan. Halaber, garrantzi handia esleitu diote euskarari elkarrizketatuek euskal kulturarekin gehien lotzen dituzten elementu batzuen arteko hautua egiteko –inkestan– eskatu zaienean ere, arrapostuetan euskarari (dantza, pilota, herri kirola, ohiturak, gastronomia eta abarren aurretik) lehenbiziko postua eman diote eta. Era berean, euskal kulturaz interneten ere mintzatzen denean, gehien aipatzen den elementua euskara da.

Zer dela eta, orduan, euskal herritarra sentitu ahal izateko beharrezkotzat jotzen diren lehen baldintzen artean euskaraz jakitearena ez agertzea? Arestian esan bezala, itxura batean kontraesan bat aurkitzen dugu euskarari euskal kulturaren barnean ematen zaion lekuari buruz galdetzean: batetik ukatu egiten da euskara ezinbesteko baldintza denik euskal herritarra izateko edota gauza bat euskal kulturatzat hartzeko, eta bestetik, euskal kulturaren ezaugarri batzuen artean euskara garrantzikoena dela kontsideratzen da. Bildutako informazio –ustez, kontraesankor– horren gaineko irakurketa koherenteagoa egin nahirik, hainbat hipotesi bota daiteke.

Lehendabiziko hipotesia, euskal kultura eta nortasunari buruzko jarrera malgua izatean datza: euskara euskal kultura eta nortasunaren osagai garrantzitsuenetakoa dela uste arren, baliteke euskal nortasunari esanahi irekia (konstruktibista eta instrumentala, ez esentzialista edo primordialista) eman nahi izatea. Alegia, euskal herritarra izateko baldintza, *horrela sentitzea* edota *bertan bizi eta lan egitea* aipatzean, euskal nortasunaren kontzeptu horri malgutasun kutsua ematen zaio, ezbairik gabe; horrela eginda, euskaraz ez dakien bertako hiritarrei eta etorkinei euskal gizartearen partaide izateko ateak irekirik uzten zaizkie; aldi, euskal herritarra izateko euskararen eskakizuna lehenesteak gizartearen zati handiak kanpo uztea ekarriko luke.

Euskararen inguruko ustezko kontraesana ulertzeko bigarren hipotesia, akulturazioarena litzateke. Hemen jaio eta bizi diren pertsonak, euskaraz ez jakin arren, beren burua euskal herritar (soilik edota espainiar/frantziar sentimendurekin batera) ikusten dute, horretarako euskaraz jakitea derrigorrezko baldintzatat ez hartuz. Euskal herritartasuna erdaraz bizi daitekeenaren uste hori *bertako* hizkuntzetatik batek kulturaren eragiteko eta nortasuna eratzeke duen garrantziari –lekuan lekuko hizkuntza orok duten bezala– uko egitea lekarke. Talde-kulturaren zati garrantzitsu bat galtzea; nolabaiteko akulturazioa, azken finean.

Hirugarren hipotesia euskarak duen estatus sozialetik abiatzen da; hau da, Euskal Herrian bizitzeko euskararen premia handirik ez izatean oinarritzen da (zonaldearen arabera baldintzek asko aldatzen duten arren). Baliteke euskal kultura eta nortasunaren herritarrek euskarari ematen dioten leku sinbolikoa handiagoa izatea, eguneroko gizarte baldintzek hizkuntza

horri egiten dion lekua baino (gaitasun maila, erabilerarako gizarte ingurune eta sareak...). Batzuek euskara nahi, nahiko lukete, baina ingurune sozialak ez du hizkuntza horretarantz bultzatzen. Adibide egokia dugu ikerlan honetan: euskara ikasten ari ez diren eta horretarako asmorik ere ez dutenek aitortzen dutenez, portaera horren arrazoia da komunikatzeko euskararen premiarik ez izatea, denek erdara dakitelako eta denbora beste zereginetan ematea nahiago dutelako. Hipotesi horren zioa, azken buruan, euskarak pairatzen duen egoera gutxitu eta bazterrekoa da.

Euskararen inguruko ustezko kontraesana ulertzeko balizko beste azalpen batzuk ezin dira ahaztu, hala nola euskaraz jakitearen premia sentitu arren, norbere buruaren gaitasun falta zuritzearena. Baina halakoak psikologia motibazionalaren pean kokatu beharko lirateke, ikerlan honetatik at geldituz.

Kontraesanak kontraesan, hala ere, bost elkarrizketatutik lauk seme-alabek euskaraz jakiteari ongi deritzote: honezkero badakitela edo –balizko egoeraz galdetuta– jakitea nahiko luke-tela diote. Egoera paradoxikoa, nonbait?

Hizkuntzaren paradoxa bikoitza

“Hizkuntzaren paradoxa bikoitza” esaten dio Pérez-Agote-k nortasun edo identitatearen osagai horren inguruan komunitate gutxitu batzuetan –eta batzuek uste baino sarrago– suertatzen den egoerari:

“Le double paradoxe de la langue”. ...il peut arriver, comme c'est le cas pour l'irlandais et le basque, que nous nous trouvions face à une conscience traumatique de la perte de la langue, qui est revendiquée comme trait différentiel à un moment historique, un trait qui disparaît. Il s'agit du paradoxe du trait. Mais le caractère double du paradoxe provient du fait que si la langue différentielle perd de sa vigueur communicative, une autre langue surgit comme véhicule de communication. Le gaélique est revendiqué en anglais et l'euskera en espagnol. (Pérez-Agote, 1999: 27)

Egile horrek dioen bezala egoera erabat paradoxikoa izanda ere, hori ez omen da nahikoa oztopo kultura batek bere hizkuntza berreskuratzeko dituen bene-benetako asmoak zapuzteko; betiere bide horretan aurkituko diren zailtasunak ugariak direla oso argi izanda:

Cette revendication peut donner lieu à un processus de récupération linguistique de la langue perdue. Le chemin pour atteindre le seuil minimum de reproduction sera rempli de difficultés. (Pérez-Agote, 1999: 27)

Bestalde, ez da soilik eztabaidatzen zenbaterainoko indarra izan behar duen euskarak nortasun eta kultur bereizgarri gisa; horrez gainera, aipatu den bezala, ezbaian dago halaber komunitate bateko kide guztiek osagai komun batzuk izan behar ote dituzten, eta horrek ziurgabetasun puntu berriak dakartzkio hizkuntzaren inguruko gaiari.

Beraz, aurrera begira euskal gizarteak aurrez aurre izango duen erronka garrantzitsuetako bat izango da euskarak zer leku izan behar duen erabakitzea, euskarari nolako papera eman nahi zaion argitzea. Ez ditugu hemen, ikerlanean zehar hizkuntzaren inguruan azaldutako iritzi eta jarrera desberdin guztiak

azalduko baina bai ohartaraziko, herritarrek adierazitakoaren arabera hizkuntzak etorkizunean izango duen betekizunaz seriozki hausnartzeko garaia dela. Alde horretatik, sekulako garrantzia du hizkuntzaren inguruko akordio bat bultzatzeak eta gizarte osoak parte hartzeak hizkuntzari buruzko erabakietan. Hau ez da gauza berria, hala adierazi baita toki askotatik, baina beharrezkoa da berriz ere aipatzea. Euskal gizarteak erabaki beharko du zenbaterainoko pisu eta garrantzia edukiko duen euskarak bere kultura eta nortasunean: euskara izango al da osagairik erabakigarriena euskal kulturaren eta nortasunean? Onartuko litzateke euskara bigarren mailako elementutzat daukan euskal kultura eta nortasun bat?

Hizkuntzak nortasun eta kulturaren betetzen duen lekua

Berezko nortasun eta kultura dituzten komunitateetan, hizkuntza garrantzi handiko osagaia dela onartuta dago pentsamolde ideologiko zein lan-ildo akademiko ezberdinetan. Gaur egun kultur aniztasunaren izenean mundu zabalean ematen ari den kultura gutxituen *revival*-en eskutik, hizkuntzaren gaia halako komunitate gehienentzat hil ala biziko auzi bihurtu da, baina ez kasu guztietan. Izan ere, hizkuntzaren garrantziak dagoen adostasun hori puskatu egiten da nortasuna eta kultura osatzerako hizkuntzari ematen zaion lehentasun-maila zehaztean:

As regards their own language, there are two extremes of the range: either the community loses its language and possibly its separate identity, or maintains its separate existence, together, most usually, with a sense of pride, of innate difference from its neighbours and often with a degree of antagonism towards these and particularly towards the language of the powerful majority. (...)

So at one extreme, the powerless group (...) can integrate or assimilate with another community, usually the powerful, host or majority one. In the process it loses its own identity and language. Such compromise is not necessarily to be condemned, although the most usual reaction is to deplore it as at the very least a loss of human diversity, and at most a crime against humanity. (...)

At the other extreme the powerless community has the objective of retaining its own identity. If they do not wish or are not forced to assimilate, minority communities can either openly defend their distinctiveness, entering into political conflict with their neighbours, or do so covertly, avoiding the extremes of conflict. (Ager, 2001: 160-161)

Halere, egile askoren iritziz, komunitate baten izaeran ezinbesteko ardatz den hizkuntzari ez zaio beti garrantzi maila hori aitortzen. Kasu batzutan, komunitateek beraiek ez dute euren hizkuntza aintzakotzat hartzen, taldearen nortasun komunaren erroak beste osagai batzuetan bilatuz:

Almost inevitably, (...), the motives of powerless language communities must be first and foremost those concerned with their own identity. This is itself that of the language, as for our purposes the community is linked because it finds its own identity in and through the language. This can paradoxically have the effect that the link becomes transparent: the language community does not recognise that it is the language that forms its only link, and is constantly in search of other links such as the political, managing its own affairs and controlling its own territory, or the social such as kinship, neighbourhood or religion. (Ager, 2001: 164)

Euskal pentasalarien artean ere bada hizkuntzari –euskarari– behar besteko arretarik ez emateaz dagoen arrisku handiaz ohartarazten dutenak. Susmo horren sorburua euskal komunitatearen egungo ahulezia politikoa eta kulturala da, zeina estatu-kultura kementsuek eragindako euskal kulturaren higadura eta asimilazioaren ondorioa den:

Euskal kulturaren eta atxikimenduaren egoera gizarte-bizitzako hartu-emanetan ahula baldin bada, nolakoa izango da euskararen erropena gizarte-sare horretan bertan? Euskal historiaren aldetikako sentipen-iturririk jorratu ez den belaunaldi batean nolakoa izango da euskararekiko leialtasun-maila? Euskal Herriaren geografiaz tutik ez dakien eskola-ume batek zer sentituko du nortasun nazionalaren esparruan? Hedabide nagusiaren ildoan nazio- eta kultura-erreferentzien adierazleetan euskaltasunik sumatzen ez duen gazteak zer-nolako nortasun kolektiboa eraikiko du bere izaeran? Eskolako ikasliburu eta curriculumetan (...) euskal izaitearen sentipenak landu beharrean, beste batzuk baldin badira nortasun-harrobi, zer-nolakoak izango dira bihar-etziko euskal gazteen identitate-jarrerak? (Odriozola, 2000: 191)

Hari beretik jarraituz, euskararen inguruan planteatzen diren beste gai batzuk funtsezkoak dira, bai hizkuntzarentzat berarentzat, baita euskal kultura eta nortasunaren bilakaerarako ere. Azpimarratu behar den haietako batek zerikusia du hizkuntzaren erabileraren arazoarekin. Euskarari eman nahi zaion toki gutxi-asko sinbolikoari buruz erabaki bat hartzea presakoa eta larria izateaz gainera, ezinbestekoa da halaber hizkuntza agerikoa, erreala eta ukigarria izan dadin. Bestela, eztabaidak kontu ideologikoagoetara joko du, eta euskararen oraina eta etorkizuna katigaturik geratuko dira haietan, ez aurrera ez atzera. Beste ezer bainoago, euskarak adostasuna eta etorkizunerrako aukerak behar ditu, eta hein handi batean hori funtsezkoa izango da XXI. mendeko euskal kultura eta nortasunarentzat.

4.2.6. Eguneroko kulturaren garapena

Ikerketa honetan azaldu diren gaien artean, eguneroko kulturarenak berebiziko indarra eta garrantzia izan du. Tradizioa eta sorkuntza kontzeptuen aldean, elkarrizketatuen arteko askok eguneroko bizipenak eta elementuak aukuratu dituzte euskal kulturaz eta nortasunaz jarduteko orduan. Ikuspegi hori EAEn azaleratu da inon baino nabarmenago, kultura artearekin, musikarekin edo dantzekin lotu beharrean, bertan eman den definizioak zerikusi handiagoa izan baitu norbanakoak bere inguru hurbilenean bizi, sortu eta irudikatzen duenarekin: gastronomia, nortasuna edo izaera, koadrila, agurrak eta beste asko.

Kultura bizitzeko, ulertzeko eta bereganatzeko modu honek eremu berri bat irekitzen du

ikertzeko eta esku hartzeko. Hala ere, tradizioa eta sorkuntzarekin batera bizi den arren, egunerokoaren eremu hori bigarren mailan egon da, kulturaren adiera lausoago bat balitz bezala, beharbada ez zegoelako beste eremuak bezain egituratua eta instituzionalduta. Baina kulturak eta nortasunak badute tokia egunerokoan, areago, bertan egokitzen diren eran eta hartzen duten itxurarekin baliagarriagoak dira

norbanakoarentzat, errazago molda dezakeelako berezko kontzeptu bat euskal kulturaz eta nortasunaz. Dumont-en eskutik arestian azaltzen genuen bezala, kultura mota dikotomikoak parez pare jartzea litzateke: *hurbileko* kultura eta *bigarren* kultura, kultura *barreiatua* eta *instituzionaldua*... Eta kontzeptu-bikote horietako bakoitzaren lehenengo aukerak indar bereziarekin agertu zaizkigu EAEn.

Nortasuna eta kultura egunerokotasunetik abiatuta

Arestian esan dugu *esentzialismo* (edo *primordialismo*) zein *instrumentalismo*aren ahuleziak gainditzeko asmoz *konstruktibismoa* sortu zela, ikuspuntu berri horrekin aurreko bien edukiak aintzakotzat hartuz eta uztartuz. Croucher-entzat *konstruktibismo*aren balioa, halaber, ikuspegi horrek duen hurbileko, testuinguruko eta eguneroko dimentsioa azpimarratzean datza:

...the construction of ethnic identities and ethnic group relations takes place under specific circumstances and can only be understood through a careful examination of those circumstances—for example, who has access to political, economic, and cultural resources, who does not, who lives where, who works where and with whom? (Croucher, 2004: 128-129)

*Konstruktibismo*an gailentzen den ideia hori ez da guztiz berria, alabaina. Azken buruan, kulturaren adierazpen artistiko batzuek bazeukaten goraiapatuta dagoeneko XX. mendeko 50. hamarkadan herrikoitasun eta egunerokotasunaren balio kulturalaren garrantzia; *pop* artearen kasua, adibidez.

Euskal kontzientzia komun bat eraikitzean egunerokotasunak duen garrantzia hain da handia, ezen euskal gizartearen zati bat (EAE) arakutzen duten batzuentzat dimentsio hori bera baita eraikitze horretan pisurik handiena duena:

...la conciencia del Nosotros penetra desde los mecanismos sociales gestados en la vida cotidiana y sobre el humus estructural del imaginario que representa el "somos porque estamos". La consecuencia más importante es que la institucionalización de lo que representa la vida inmediata aparece como el universo que representa mejor que ningún otro los mínimos comunes con los que la sociedad vasca crea y busca su cohesión. Son, de esta manera, los vínculos sociales de la sociabilidad inmediata –pueblo, barrio, familia, amigos, trabajo, vivienda, etc.– los que generan la definición fuerte de la vivencia identitaria de quiénes somos en la sociedad vasca. No ocurre lo mismo con todos aquellos signos que, siendo significativos, son la representación de alguna de las realidades que coexisten en la sociedad vasca; por ejemplo, la lengua o la política. (Gurrutxaga, 2005: 200)

Hala ere, nahiz eta solaskideen azalpenetan garrantzizkoa izan, egunerokoa oso ikerketa eremu ezezaguna da oraindik ere, arestian esan

den bezala. Haatik, horrek ez du eragotzi behar egunerokoak dituen aukera handiak gauzatzea eta etorkizunean eremu nagusietako bat izatea.

Egunerokoa eta nortasun malguak

Arakatzeko teorikoaren ildoetan egunerokoari lekua eginez, nortasunaren ideia berri bat ari da lantzen, zabalagoa eta malguagoa, alor identitarioan gertatzen ari diren aldaketa eta egoera berriak hobeto ulertzeko egokiagoa izan daitekeena. Helburua, azken finean, honako hau da: orain arte landu izan diren ikuspuntuentzat harrapaezinak ziren egoera identitarioak bilatzea eta kokatu ahal izatea. Lan-ildo horretan ulertu behar da, adibidez, *nortasun malgua* kontzeptua, *nortasun sendoenaren* kontrajarria, alegia; kontzeptu horren oinarrian daude, besteak beste, gizartearen zentro/periferiaren, gizartearen forma ikusgarri eta ikusezinen eta mugaren ideiak:

...nous sommes devant de formes d'identité nous montrant que, plutôt que dans un de deux pôles de l'opposition nous/eux, c'est dans l'indétermination des relations sociales que de nombreux sujets procèdent à la fabrication de leurs identités, cette indéfinition étant le trait où s'affirment leurs stratégies de socialisation. (Joseph, 1988 : 11-33. Gatti, 1999: 214)

...les modalités souples de l'identité sont, fondamentalement, ce que les fortes ne sont pas. C'est-à-dire : invisibles, transfigurant le centre, oscillant et jouant avec les limites, se déployant dans des cadres spatialement et temporellement très restreintes. Dépourvues de durée et d'unité, difficilement localisables, elles possèdent, néanmoins, une forme d'être caractéristique. Deux traits mineurs (la quête des frontières, la double courant d'implication dans le collectif) et deux traits majeurs (l'invisibilité sociale, la réappropriation des limites) configurent leur singulière axiomatique. (Gatti, 1999: 217-222)

Eta *nortasun sendoen* ertzean egun eraikitzen diren *halako nortasun malguak* begi bistakoak dira euskal gizartearen honezkero –edo, EAEn, behinik behin–, autore batzuen aburuz:

La cultura del presente, la que nos permite interpretar en nuestro caso la producción de la conciencia del Nosotros en el presente vasco, es (...) una cultura de frontera; significa expresado de otra manera, ser conscientes de que habitamos escenarios abiertos, híbridos, donde lo único sólido es la "frontera" (...). La frontera es el territorio donde se vive o por elección o por necesidad, a ella le acompañan la confusión, la incertidumbre, la ambivalencia, lo que demuestra que no es un espacio fácil, sino complejo y difícil, un escenario de sobreoferta identitaria, de sobreoferta de valores, de supermercado del sentido. (Gurrutxaga, 2005: 103)

Las identidades aparecen dentro de un escenario del que emerge la diversidad de posiciones ante los mismos hechos. No podía ser de otra manera si pensamos en algo que ya hemos señalado, el pluralismo como matriz simbólica y como referente estructural del territorio de la diversidad vasca. De esta forma, es como no deben extrañarnos definiciones identitarias fuertes coexistiendo con otras más débiles, ni tampoco las identidades duales que emergen como la respuesta de posiciones intermedias ante el mismo hecho, que a algunos les lleva a pronunciarse "tajantemente" y a otros a huir de la respuesta. (Gurrutxaga, 2005: 200)

Gaur egun, egunekoari erokoari dagozkion kultura *hurbilak* eta kultura *barreiatuak*, nortasun *malguak* eta nortasun *bikoitzak* azpimarratzen dira... Oraindik ikusteko dago nola garatuko diren egunerokoak sortzen dituen irudiak eta diskurtsoak –berauek askoz hibridoagoak, zehaztugabeak eta egituratu gabeak–, eta nola txertatuko diren, beste osagaiekin batera, XXI. mendeko euskal kultura eta nortasunaren definizioan. Guk uste dugu badaudela horretarako aukerak eta aprobetxatu egin behar direla, bereziki egunerokoaren eremuak gaitasun itzela duelako sinergiak eta adostasun-guneak sortzeko, desberdinak –eta batzuetan kontrajarriak– diren ikuspuntu, iritzi eta aukerei topatzeko lekua emanez. Leku egokia da tentsioak eta asaldadura baretu daitezen, eta horrelako sentimenduak ohikoak izaten dira euskal kulturaz eta nortasunaz jardutean. Soilik horregatik balitz ere, merezi luke egunerokotasunaren eremu hau landu eta arakatzeko, hemen bertan duden etorkizunari aurre egiteko ideien bila.

4.2.7. IKTen erronka eta aukera

Honezkero gogoeta honen bidea urratzen goazela, ezin dugu aipatu gabe utzi Informazio eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) eskutik euskal kulturari eta nortasunari zabaltzen zaizkien egoera berriak.

Gizarte guztiak etengabeko bilakaeran daude, behin eta berriz itxuraldatuz. Hau ez da gauza berria, ezta Euskal Herria salbuespena ere. Joan den mendean aldaketak asko eta itzelak izan ziren, baina XXI. mendearen hasieran jada indartsu ate joka ditugun aldaketa-asmoek ezaugarri bereziak izango dituzte. Horien artean nabarmentzekoa da, IKTek espazio eta denbora dimentsioetan piztu duten krisia. Berria den guztiarekin ohi den bezala, berrikuntza eremu horren eskutik erronka eta aukera berriak ere agertzen dira, orain arteko joko-eremuaren baldintzak irekiz.

Nortasuna eta kultura, espazioaz eta denboraz gaindi

Gizarte modernoetako hainbat balio, erreferente eta harreman mota ari dira gaudituta gelditzen, bereziki gizarte garaikideetako Informazio Teknologien garapena azkartu eta hedatu zenetik. Era berean, ohikoak ziren espazio eta denbora bezalako erreferentziek ere ez dute honezkero orain arte izandako balio bera gordetzen:

Este tiempo lineal, irreversible, medible y predecible se está haciendo pedazos en la sociedad red, en un movimiento de significado histórico extraordinario. (Castells, 2001A: 511)

Los cambios en las relaciones de producción, poder y experiencia convergen hacia "la transformación de los cimientos materiales de la vida social, el espacio y el tiempo". El espacio de los flujos de la era de la información domina al espacio de los lugares de las culturas de los pueblos. El tiempo atemporal como la tendencia social a la superación del tiempo por la tecnología desbanca la lógica del tiempo de reloj de la era industrial. (...)

A lo largo de la historia, las culturas han sido generadas por gentes que compartían espacio y tiempo, en las condiciones determinadas por las relaciones de producción, poder y experiencia, y modificadas por sus proyectos, luchando entre sí para imponer a la sociedad sus valores y objetivos. Así, las configuraciones espaciotemporales fueron decisivas para el significado de cada cultura y para su evolución diferencial. En el paradigma informacional, ha surgido una nueva cultura de la sustitución de los lugares por el espacio de los flujos y la aniquilación del tiempo por el tiempo atemporal: "la cultura de la virtualidad real" (...) Esta virtualidad es nuestra realidad porque es dentro de la estructura de esos sistemas simbólicos atemporales y sin lugar donde construimos las categorías y evocamos las imágenes que determinan la conducta, inducen la política, nutren los sueños y alimentan las pesadillas. (Castells, 2001B: 419-420)

Esta es la nueva estructura social de la era de la información, que denomino la "sociedad red" porque está compuesta por redes de producción, poder y experiencia, que construyen una cultura de la virtualidad en los flujos globales que trascienden al espacio y al tiempo. (Castells, 2001B: 421)

Hartara, euskal gizartearen kultur praktikan zein nortasun kolektiboetan aldaketa horiek sakon eragingo dutela pentsatzea guztiz zilegia da, batez ere, aldaketen aurrean helduak baino irazkorragoak diren gazteengan.

The Internet, as a transvernacular form of communication, can assist Basques to survive as an identity and culture –as a People– precisely in this era of globalization and of the information society. (...) we urge certain reflection, and even compromise, among the Basque cybergroups and servers in the common effort of creating a shared Basque vernacular community. (Alonso & Arzo, 1999: 305-306)

Deigarria da, guztiz, euskalgintzak eta, oro har, euskararen komunitateak IKTn eremuko hainbat adarretan jarri duen arreta eta duen parte hartze handiak (foroak, weblogak...), batez ere euskarak beste eremu arruntagoetan duen presentzia txikia kontuan izanda, hedabideena edo aisialdiarena kasu. Euskal kulturak eta nortasunak egun bizi duten krisialdiari erantzun sendoa eman nahia ote, *hordagoa* nolabait botaz?

Euskal kulturak eta nortasunak, halaber, badute honezkero berezko esparru bat *errealitate-birtual* horretan, ikerlan honetan interneta-

ren arakatzeari ekin zaion azpiatalak erakusten duen bezala. Izan ere, komunikaziorako euskarri horren bitartez Euskal Herriko geografia, jatorria, hizkuntza, gastronomia, erakundeak, pertsonaiak eta bestelakoak, aipatuak eta eztabaidatuak dira munduan barne eta hainbat hizkuntzatan. Eta, gogoan izan behar dugu, kultura eta nortasun kolektiboak eratzen direla, besteak beste, *besteek gutaz* duten iritzien bitartez, eta kanpoko ispilu hori –IKTei esker– inoiz baino unibertsalagoa da, gaur egun; hori da, hain zuzen ere, kanpoko erreferentzien marko berria, non, gaurtik aurrera, euskal eremu kultural eta identitarioa eraiki beharko den.

Telebista globalaren eragina

Sobera ezaguna zaigu telebistak duen ahalmena balioak eta iritziak transmititzeko zein kulturizazioan edo sozializazioan eragiteko. Telebista globalaren sorrerarekin gaitasun hori areagotzen da, egoera korapilatsuago bihurtzen da, kultura arrotz eta urrunetako osagai berriek berez konplexua den prozesua aztoratu egiten dute eta:

...la globalización de las instituciones de la televisión plantea varias cuestiones cruciales sobre la cultura y las identidades culturales, de modo que la globalización de la televisión constituye un recurso proliferador tanto para la deconstrucción como para la reconstrucción de las identidades culturales. Es decir, que la televisión se ha convertido en un recurso de primer orden para la construcción de los proyectos identitarios. (Barker, 2003: 20)

Telebista globalaren eraginak, alabaina, kultura eta nortasun bakar baterantz lerratu partez, horien aniztasunaren alde egiten omen du:

...la televisión global no produce simplemente una cultura dominante o hegemónica con sus identidades asociadas de una manera clara y tajante. Antes bien, la relación entre globalización, televisión e identidades culturales es una relación compleja, en la que entran en liza toda una serie de identidades diversas... (Barker, 2003: 278)

IKTk aniztasun kultural eta identitarioa bultzatzearen adibide ezin ederragoa agertzen da satellite bidez emititzen duen Canal Vasco telebista kateak euskal diasporan eragindako ondorioetan, Amezagak jaso duen bezala:

Canal Vascoren erabilerak bi motatako esperientzian izan dezake eragina. Lehenari, Euskal Herriaren inguruko diskurtso orokortzaile eta sinbolikoa osatzea ahalbidetzen dio, euskal komunitatea ordezkatzeko duten ikurrak eta komunitate abstraktu gisa irudikatzen duten diskurtsoak hedatzen dituen neurrian. Bigarrenari, aurreko harremanetan oinarritutako komunitatearen lilura eskain diezaioke, aipatu dugun esperientzia digitalaren bitartez. (Amezaga, 2004: 194)

Bertan bizi diren herritarren zein euskal diasporaren talde nortasuna eta kultura eraikitzen eta trinkotzen zeresan handia izango dute teknologia berriek, kultur eta nortasun anitzen merkatu berriari duintasunez eta irauteko bermeaz aritu nahi bada, behinik behin.

4.2.8. Belaunaldi berriek parte hartzea

Aurreko puntu batean azaldu denaren haritik, XXI. mendeko euskal kulturak eta nortasunak premiazkoa izango dute gazteenek beren bilakaeran parte har dezaten; hori da aurrera egiteko bidean aurkitzen den erronka larriaren bat.

Behin eta berriz aipatu da euskal kultura eta nortasuna bidegurutzean aurkitzen direla, zalantzen eta zailtasunen zioak ugariak eta ezberdinak izanik: iragan zein etorkizunaren osagaien arteko hautua eta oreka, lokala eta globalaren arteko tira-bira, irekitasuna *versus* bere baitara biltzekoa, politikaren zama astuna, hizkuntzen lekua, betiko nortasun sendoen alboan sortzen diren nortasun malguak... Eta horrek guztiak moldatu egiten ditu –neurri handi batean– gazteen bizimodua, asmoak eta itxaropenak. Hala ere, litekeena da eraikitzen ari den gazteen kultura eta nortasun horietan eraginik

handien dutena IKTak izatea –batez ere, beste belaunaldi helduagoekin alderatuta–.

Kontuan izan behar dugu gazteei espazioa eta denbora kategoriak ezaugarri berriekin agertzen zaizkiela. Are gehiago, haien artean kategoria horiek lausotzen eta eraldatzen ari dira. Teknologia berrien aurrerakuntzek eta komunikabideen garapenek bestelako moduak eta bideak ematen dituzte inguruarekin harremanetan jartzeko. Egun ez dago mugarik munduko edozein tokirekin harremanetan jartzeko eta murriztu da, halaber, beste errealitateetara iristeko denbora. Jakina da fenomeno hau globalizazioaren alderdi bat dela, eta dagoeneko, euskal gazteak globalizazioaren aroan sozializatzen ari dira; hasiak gara ondorioak argi eta garbi ikusten: gazteak beste inor baino gehiago mugitzen dira eta toki gehiagotara bidaiatzen dute, eta teknologia berrien bitartez erraz lortzen dituzte lehenago ia eskuragaitzak ziren informazioak, irudiak eta testuak. Harreman birtualak izan ditzakete munduko beste muturrean dagoen beste pertsona batzuekin, baita kultur industria globalean murgildu ere. Horrek guztiak, nolako ondorioak izango ditu euskal gazteen nortasunean? Nora eta nola aldatzen ari dira euskal gazteak? Aro globalizatu honetan, nola definitzen dute euskal kultura?

IKTen eremu berriak

Jakina da internetek komunikazio zein harremanetarako bide berri zabalak eskaini dituela, eta aukera berri hori erabiltzaile mota askok baliatu nahi izan dutela, nola enpresa multinazionalak hala *altermundismoaren* aldeko gizarte mugimenduek, batzuen eta besteen erabilera eta xedeak zeharo kontrajarriak izan daitezkeen arren. Gazteak dira bitarteko berri horri harrerarik beroena egin dietenak, horren bitartez errotik ezberdinak diren komunitate berriak aurkitzea jomuga dutelarik:

...il n'est pas étonnant de constater la multiplication de "tribus" et autres communautés médiatiques sur Internet. (...) des lieux virtuels de cyber-rencontres entre inconnus autour de thèmes agglutinants. (Jauréguiberry, 1999: 177)

Hartara, azpimarratzekoa da ireki den leiho paregabea –arestian aipaturiko– *nortasun malguko* taldeek harremanak areagotu eta presentzia soziala (modu birtualean bada ere) izan dezaten:

Dans bien des cas, c'est moins un souci de débat et d'ouverture qui anime leurs participants qu'un désir de communion et d'échange entre égaux. Ce qui est alors recherché, ce n'est pas la contradiction mais la fusion, ce n'est pas la remise en question, mais la valorisation de soi. (Jauréguiberry, 1999: 178)

Eta IKT horiek kultura eta nortasunean zer punturaino eragingo duten da egungo adituek egiten duten galdera; baita Euskal Herrian bertan ere:

...zer gerta daiteke aurrerantzean talde nortasunaren arloan, komunikabideak "estatu-nazionalak" ez diren bestelako eremuak eraikitzen hasiak diren honetan? Horixe baita, hain zuzen ere, egungo globalizazio ekonomiko, politiko eta kulturalerako joerek zein teknikaren aurrerakuntzak dakarten errealitatea, Interneten edo satelite bidezko telebistaren hedapenak erakusten duen legez. (Amezaga, 2004: 191)

Galdera horiek gaur-gaurkoak dira, eta honezkero erantzuna ematen ari zaie. Gazteak erantzuten ari dira beren tresnekin, beren erreferentziez eta kontzeptuez baliaturik, euskal herritar gutxi edo asko sentitu, euskara gutxi edo asko jakin eta euskal ohiturekin eta tradizioarekin harreman zuzenagoa edo urrunekoagoa eduki. Eta, gurpil zoro baten modura, hemen egiten du topo euskal kultura eta nortasunak, berriz ere eta aurrez aurre, *ireki/bere baitara bildu* tentsio gunearekin.

Baina etorkizuna gogoan duen kultura eta nortasun batek ezin ditu bere gazteak esku hutsik utzi –arestian ohartarazten genuen bezala–. Arrisku handiegia litzateke arbasoen kultura baino ez transmititzea. Aitzitik, tresna erreal eta kontzeptualak eman behar dizkie, helduleku bat izan dezaten bizitzen ari diren trantsizio eta negoziazio garai honetan, XXI. mendearen hasieran. Ezin da ahaztu funtsezkoa dela –batez ere– gazteei laguntzea, haien belaunaldia zubia delako iraganetik etorkizunera, gaurkotik biharkora.

4.2.9. Kanpoko euskal herritarren ekarria

Kanpoko euskal herritar nori esaten diogun argitu behar dugu, lehendabizi, kategoria horren pean bi motatako kasuak biltzen ditugu eta. Batetik, bizilekua Euskal Herriko lurralde historikoetatik kanpo dutenak daude, baldin eta eurek edo euren arbasoak jatorri euskaldune-

koa badira; euskal diaspora, alegia. Bestetik, ikerketan parte hartu dutenek behin eta berriz aipatu dute Euskal Herrira datorren inmigratio korrante berria: Europar Batasunekoak ez diren herrialdeetatik –gehienbat, baina besteak beste– etortzen diren pertsonak ditugu, oraingo honetan. Apurka iritsi arren, Euskal Herriko hiri eta herri guztietan nabaritzen da etorkin berrien presentzia. Eta haiekin batera, beste hizkuntza, bizimodu, ohitura eta janzkera batzuk sartu dira gurean. Bi multzo horietako batean kokatzen diren pertsonaiei deitu diegu *kanpoko euskal herritar*.

Zergatik eskaini aipamen berezia bi multzo horiei gogoeta honetan? Euskal kultura eta nortasuna berritu eta aurrera begira jarri behar diren une honetan, zeregin horri ekiterakoan ikuspuntua irekitzea egokiena delakoan gaudelako; alegia, euskal herritarra *bere burua euskal herritartzat jotzen duena* zein *kanpoan sortua izan arren, bertan bizi edo lan egiten duena* direla onartzea. Eta kasu horietan sartzan dira, bete betean, euskal diaspora eta etorkinak, hurrenez hurren.

Egun, internet eta satelite bidezko telebista kateak bezalako Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) berriak eragin handia ari dira izaten diasporaren bilakaeran. Horien bitartez, euskal diaspora inoiz baino gertuago dago Euskal Herri ikertu eta inoiz baino erakarriago sentitzen da bere –askotan, bitariko– nortasunaren euskal sena bizitzera eta sendotzera.

Eta euskal diasporaz, zer?

Autore batzuek ohartarazten diguten bezala, euskal kultura eta nortasunaz arduratzen diren lan askok Iparralde, Nafarroa eta Euskadiko Autonomia Erkidegoa baino ez dute kontuan hartzen, atzerrira joan diren euskaldunak eta euren ondorengoak era horretan ahaztuz; bi hitzetan esanda: euskal diaspora:

...definimos diásporas como poblaciones étnicas dispersadas y desterritorializadas que conforman una identidad colectiva distintiva en referencia a la cultura dominante de sus países de residencia, y donde han constituido identidades, instituciones, y redes sociales específicas a lo largo del tiempo, y a través de diversos espacios geográficos. Según esta breve definición, las comunidades vascas del exterior constituyen diásporas, y más aún diásporas históricas (...) Consideramos las diásporas vascas realidades culturales plurales, lejos de ser comunidades homogéneas y monolíticas, las cuales integran y acomodan emigrantes de diversas regiones, épocas, y generaciones (...) Estos emigrantes aportan sus propios sentidos de vasquidad, y consecuentemente, ayudan a modificar previos significados de identidad vasca que existen dentro de las nuevas comunidades vascas que les acogen... (Oiarzabal eta Oiarzabal, 2005: 24)

Informazioa biltzeko garaian, ikerlan honen eremu demografikoa ere Euskal Herriko lurralde historikoetara mugatu da, marra horretatik haratagoko euskal diaspora erreferenteak, ezinbestez, ahantziz. Hala ere, diaspora horren baitan ere badaude –eta ugari dira– euskal sentimenduren bat dutenak. Hori bai, askotan euskal kultura eta nortasunaren oso adiera propioarekin:

Mientras en el nacionalismo en Euskal Herria se ha restado importancia a la raza, a la lengua y a la religión a la hora de definir y categorizar el "ser vasco", y se ha desarrollado un nacionalismo más integrador y cívico en el que la identidad viene determinada por la residencia y el trabajo en Euskal Herria y por el deseo de trabajar por la cultura vasca, la información (...) nos muestra a la diáspora un tanto anclada en las definiciones aranistas de quién y qué es vasco. La percepción de los vascos de su historia y de su identidad idealiza a los antepasados y a la tierra, creando una fuerte conciencia de grupo étnico y una gran solidaridad entre los vascos. (Toricagüena, 2003: 104)

Euskal kultura eta nortasun malgu, ireki, gaurkotu eta, azken finean, berriak eraiki nahi dugun une honetan, Euskal Herrian bertan jaio eta bizi garenok ez gara nor, euskal herritar izaera beste inori ukatzeko. Are gehiago, irekitze kultural eta identitario orok baztertzaila baino, integratzailea behar du izan. Euskal diasporak, aldi berean *kanpoko/bertako eragilea* den aldetik, rol aparta izan lezake Euskal Herriko berrikuntza kultural eta identitarioan.

Inmigrazioaren gaur egungo fenomenoak, beste hausnarketa bat egitera behartzen gaitu

etorkizunera begira: nola erakarri euskal kultura eta nortasunera, bizimodu hobea egitera etorri diren horiek? Kontuan eduki behar da egoera horretan daudenentzat kultur integrazioa ez dela ardura nagusietako bat. Kolektibo horiek nortasun-gune gisa azaleratzen hasi dira dagoeneko, hortaz, tresnak bilatu behar dira euskal gizartearen haiengana hurbiltzeko gogoia piztu dadin, eta era horretan, etorkizuneko nortasun eta kultur adierazpide berriak adostu ahal izateko, eta testuinguru horretan bi aldeak hartzaile eta emaile aktibo bilakatzeko.

Nortasuna eta kultura inmigratio berrien aurrean

Mendebaldeko egungo gizarte garatuetan gero eta ohikoagoak dira migrazioak, eta migrazio berri horien ezaugarri nabarmenetakoa da harrera herrialdeetako kulturekiko etorkin horiek duten distantzia. Horren ondorioz, iritsi berrien eta harrerako kulturen arteko *kultur talkaz* hitz egiten da, batzuetan; izan ere, adiera ezkorrak oso presente daude. Hala ere, badago harrerako herrietatik migrazio berri horien gainean egin daitekeen beste irakurketa posible bat ere; botilaren *alde beteari* begiratzen dioena, hain zuzen:

Las migraciones contribuyen de un modo esencial al enriquecimiento y a la progresiva modernización de las sociedades de acogida. Se trata de un fenómeno que conduce a la diversidad cultural, un fenómeno que transforma identidades y desdibuja las fronteras tradicionales.

Las migraciones juegan un papel clave en las transformaciones sociales contemporáneas. (...) Su impacto se manifiesta tanto en el ámbito económico como en el de las relaciones sociales, en la cultura y en la política. (Oke, 2004: 9)

Lekuan lekuko kulturaren etorkinek duten eragina gauza jakina da, baina aurkako norabidean dagoen beste eragin mota bat ere aintzakotzat hartu behar da: iritsitako herrialdeetako kulturaz jabetzeak asko lagun diezaiokeela etorkin heldu berriari:

"...la realización de las prácticas culturales de la cultura anfitriona aporta bienestar emocional". Las personas que integran en su vida diaria las costumbres, las celebraciones o formas de conducta propias de la sociedad vasca están mejor psicológicamente. (Basabe, Zlobina eta Páez, 2004: 136)

Euskal kultura eta nortasuna fenomeno horrekin biziko dira, halabeharrez. Horregatik, ezinbestekoa da ahaleginak egitea euskal kulturak eta nortasunak onura atera dezaten XXI. mendeko etorkinek berekin dakartenetik: kultu-

rak, hizkuntzak eta ohiturak. Hau da, zalantzarik gabe, euskal gizarteak bete beharko dituen zereginetako bat, eta lehenbailehen ekin beharko zaio lanari; baita, nola ez, hizkuntzaren ikuspuntutik ere.

101. legearen “mirakulua” Quebecen

Parti Quebecois soberanistak 1976ko hauteskundeak irabazi zituen Quebecen, René Levesque (1922-1987) aitzindari. 1977an 101. Legea bozkatu zuten, *Hizkuntza frantsesaren karta* (Charte de la langue française), zeinak halako neurriak ezartzen zituen: frantsesa hizkuntza ofizial gisa, administrazio publikoaren eta lantegien jarduna frantsesez, seinaleztapen-sistema guztia frantsesez baino ez, etorkinen haurrak eskola frantsesetan ikastera behartuak eta beste. Borroka juridiko zaila izan zen eta auzitegiek artikulu asko ezabatu zituzten, baina 101. Legea indarrean dago. Eztabaida eta zalantza asko sortu dituen legea dela, bistan da; baita etorkinak bertako gizartean txertatze aldetik ere:

Mais une question s'impose. Est-ce que la loi 101, en obligeant aux allophones (ingeles edo frantsesik ez, beste hizkuntza bat duten etorkinak) d'envoyer leurs enfants à l'école française assurerait une meilleure intégration à la société francophone du Québec? Difficile d'y répondre, puisque "l'anglais peut tout de même être parlé à la maison et dans la rue. La mesure fait néanmoins en sorte que, devenus adultes, ces enfants pourront travailler dans un univers francophone". Mais si de nos jours plusieurs allophones semblent bien parler le français et intégrés à la culture francophone, c'est également le fruit de la politique d'immigration québécoise. (Immigrant voices, 2001)

Indarrean jarri zenetik 25 urte pasa zirenean, ikerketa zabala egin zen hizkuntza lege horren ebaluaketa egiteko. Ordutik aipatzen da 101. Legearen *mirakulua* (Plourde, 2000) (Larose, 2001):

- frankofonoek (%80) iraultza lasaia (révolution tranquille) eraman dute eta modernitatean sartu dira, beren arima galdu gabe: gaur egun lana, administrazioa, ikaskuntza eta guzti frantsesez egiten da. Ondorioz,
- anglofonoek (%11) eta amerindiarrek (%1) beren eskubide historikoak atxiki dituzte baina kasik gazte guztiak frantsesa ikasi dute, gizarteak hizkuntza horretan funtzionatzen baitu;
- etorkinek (%8 alofonoak dira, hau da, ingeles edo frantsesik ez, beste hizkuntza bat duten etorkinak) beren haurrak frantsesez eskolatu dituzte.

Azkenean aipatu *mirakulua* akulturazio lasai mota bat da, frantsesaren alde. Harrigarria, gero eta etorkin gehiago iristen direla Quebecera eta zein den ingelesari buruzko presioaren pisua, gogoratzean.

Azken buruan, aldaketa orok argi-ilunak, ekarpenak eta zailtasunak daramatza bere baitan; horregatik, hemen etorkinek zein harre-rako herrialdeek migrazioekin duten kultur eta nortasun erronka berri horren garrantzia azpimarratzea dagokigu; betiere, irtenbide egokiak bilatzen lagungarri gerta litezkeen aukerak aipatuz.

4.2.10. Kultura, XXI. mendeko euskal gizartearen motorea

Etorkizunerako gogoeta eta hipotesien atal honen bukaerara hurbiltzen ari garelarik, hizpide ekarri dugu euskal kultura eta nortasunarentzat erakargarriena izan litekeen zereginetako bat. Izan ere, ikerketa honek agerian jarri du kultura pizgarri edo akuilu bat izan daitekeela euskal nortasunarentzat eta gizartearentzat berarentzat. Ikerketak ondorioztatu duenez, kulturak oinarri eta bide berriak proposatzen ditu,

eta haiei esker euskal gizarteak bere garapena mugatu duten dinamikak gaindi ditzake, horrelakoak oztupo bat izan direlako gizarte hau gara zedin eta gizarte honetako ikuspegi, iritzi eta esperientzia desberdinak hobeto egituratu zitezten eta haien arteko komunikazioa eta elkarlana finka zedin.

Eztabaida taldeetako partaideek diotenez, etorkizunera begira, euskal kultura berriro interpretatzeko eta haren espazioa eta garatzeko aukerak berriro definitzeko saioak egin behar dira, ahalik eta jende gehienari partaide sentitzeko aukera emango dieten parametro berriak erabiliz. Euskaldunen eta ez-euskaldunen gerturatzea sustatu behar da partekatutako espazio kulturalen bitartez. Espazio hauetan erabiliko den hizkuntzaren inguruko akordioak lortu beharko dira. EAeren kasuan, ematen du jende gehienak bere burua eguneroko bizitzan topatzen duela aintzatetsita. Orain arteko diskurtsoan, bazirudien euskara edo tradizioa beza-

lako alderdiek izan zezaketela pisu handiena, baina errealtateak argi uzten du gizartearen lotura egunerokotasunean dagoela eta praktikan duen balio erreferentziala onartu beharko litza-

tekeela. Dena den, hautu hori gatatzekoak izan litezkeen beste elementu kulturalen aipamena saihesteko modua ez ote den zalantza argitu gabe gelditzen garelarik.

Nortasunaren inguruko politika kulturala

Kulturak, nortasunaren pizgarri izango bada, hari berriekin ehundutako diskurtsoan oinarritu beharko du. Alegia, globalizazioa nagusitzen ari den une honetan, eta kulturak eta nortasun kolektiboak –bereziki, talde gutxituenak– bidegurutzean egonik, gai horien inguruko hausnarketa sakonaren premia dago, horren bitartez egoerari irtenbide egokia eskainiko dioten erantzunak aurkitu ahal izateko. Erantzun horiek, baina, tradizioetik zein gaurko egunerokotasunetik edanez eraiki behar dira, betiere aniztasuna eta malgutasuna oinarritzat dituen diskurtso berri batetik abiatuta:

...dado que las identidades son fundamentalmente descripciones hechas en el lenguaje con que nos identificamos, la política cultural de la identidad se puede concebir en términos de redescripciones del mundo social. Es decir, el desarrollo de “nuevos lenguajes” como guías para la acción tiene unas consecuencias pragmáticas deseables. (Barker, 2003: 279)

Diskurtso politiko-ideologikoa, historiaren, tradizioaren eta euskal kultura eta nortasunaren beraren inguruan eratu diren zenbait irudi eta kontzeptu, traba izan dira euskal herritar izan, sentitu eta agertzeko modu batzuentzat, eta inoiz eragotzi ere egin dute euskaltasunaren beste adierazpide horiek azalerrateza. Horren ondorioz, eta beste esparru batzuk bezala, kultur eremua –adierarik zabalenean– estaturik eta motz geratu da, bere indar guztiak gartu ezinda. Gaur, aldiz, aukera berriak irekitzen zaizkio, kultur sorkuntza eta ekoizpenaren bidez, tradizioa berrikusiz eta berrirakurriz, edo kultur adierazpen egunerokoenak baitaratuz. Martxan hasia den eta jada agerikoa den prozesu horrek adierazpide, irudi eta, batez ere, erreferentzia berriak ekarriko ditu. Horixe beharko du euskal gizarteak XXI. mendean.

Horrezaz gain, Euskal Herrian nonahiko eta noiznahikoa izan den egoera politiko gatatzekoak bideratu eta gairidituko litzatekeen une beretik, euskal kulturak lortuko lukeen gidaritzara orain artekoa baino handiagoa izatea ez litzateke harrigarri gertatuko. Izan ere, ikerlan honetan azpimarratu denez, gatatzekoak eztabaida

eta ekimen kultural eta identitarioa baldintzatu eta mugatu ditu. Hortaz, gatatzeko horren korapiloa askatuz gero, pentsatzeko da euskal kulturagintzari eta nortasuna berritzeko ahaleginei aukera erakargarriak zabalduko zaizkiela.

Egun, lurralde batzuetan euskararen gaineko interesa berpiztu den une honetan eta, beste lurralde batzuetan, euskarazko gaitasuna duten eta hizkuntza horretan alfabetatuak direnen kopuruak areagotu direnean, pentsa daiteke garai hau egokia dela, beharbada, euskal kultura eta nortasunaren aldeko ahaleginetan euskara tresnarik egokienetako bat izateko; hizkuntza hori euskal kultura eta nortasunaren ardatz nagusi bilaka daitekeela. Baita ere, aurrerago jotzeko eta sakon aztertzeko zer dela-eta herritarren parte bat euskararen aurka agertzen den, edo –sarriago gertatzen dena– zergatik kokatzen den horretatik kanpo, euskara guztiz alde batera utzita. Euskal kulturaren eta nortasunaren berritzean eta horien berpizkuntzean hizkuntzak, euskarak, bete lezakeen rola garrantzia behin eta berriz azpimarratzea ez da hutsala, errealtate bati dagokion irakurketa objektiboaren ondorioa baizik.

Hizkuntza, kultura eta nortasuna gizarte aldaketaren zurrumbilaoan

Erkidego edo komunitate baten hizkuntzaren inguruan dauden jokaerak –hizkuntza politika, adibidez– eta talde horren gora-behera soziokultural eta politikoak harremanetan daudela aipatzen digu Robert L. Cooper-ek, argi utzita hizkuntza gertaera horiek ulertu ahal izateko azkenekoak ere ondo ezagutu behar direla eta aurrenekoek bigarrenetan eragiten dutela:

La planificación lingüística no puede entenderse fuera de su contexto social o de la historia que dio origen a ese contexto. (...)

La planificación lingüística que se ocupa de la gestión del cambio, es en sí misma un ejemplo de cambio social. (...)

La planificación lingüística contribuye al cambio promoviendo nuevas asignaciones funcionales de las variedades lingüísticas, cambios estructurales en esas variedades y la adquisición de esas variedades por las nuevas poblaciones. (Cooper, 1997: 216, 218)

Euskal kultura eta nortasunaren trantsizio une hau gizarte aldaketa mota bezala ulertuta, litekeena da euskararen normalkuntzarako egungo ahaleginak aldaketa horren elementutzat hartu ahal izatea:

No es de extrañar que el cambio social acompañe a la planificación formal de la lengua, pues la planificación formal, relacionada con la gestión del cambio, es en sí misma un ejemplo de cambio social. En un mundo estable, de completo equilibrio, en el cual cada día se parece al día anterior y al día siguiente, y en el cual todos los integrantes de la sociedad están satisfechos con esa situación, es poco probable que surja la planificación lingüística. (Cooper, 1997: 194)

Garai batean Campiónek eta, geroago, Txillardegik egin bezala, gaur egun ere gai berarekin kezka –soziala eta zientifikoa– adierazi duten egileak ugariak dira, eta horiek denek euskara jarri dute berreraikitze horren zutabe; hona hemen adibide bat:

Hizkuntza bezalako hedapen handiko sistema egituratu eta egituratzaile sendo bat edukitzeak, jakina, garrantzia handia du, kultura batek bere batasunari eta iraupenari eutsi ahal izateko. Bereziki, Lotmanek dioen legez, kultura bat autobaieztapen unean aurkitzen delarik. Izan ere, hizkuntzak –bestelako sistema batzuek bezalaxe, hala nola sistema politikoak, erlijiosoak, e.a.– kultura hori eremu askotara hedatzen duelarik, kulturaren batasuna bera hedatzen du, errealitatea ezagutzeko eta haren aurrean jokatzeko erizpide bateratuak, eremu ezberdinetara hedatuz. (Amezaga, 1995: 276)

Hari beretik, beste gogoeta bat egin behar ko litzateke, ez ote den euskalduntzea bezain premiazkoa –edo are premiazkoagoa– gizarte guztiak barneratu dezan euskara guztion ondare dela, eta ez herritar batzuenak bakarrik. Ideia hori hedatu ezean, euskara normaltzearen egiten den guztia ezerezean geratuko da. Garaia da, beharbada, hizkuntzarekiko jarrerak aldatzeari ekiteko, izan ere, bestelako jarrerak lortzea eta guztien ahaleginak helburu horretara bideratzea bide bat izan liteke etorkizunean euskara normal-normal erabil dadin esparru denetan.

Aztertu behar ko litzateke nolako aldaketak ekarriko lituzkeen norabide berri horrek hizkuntz estrategian, eta orobat, zein litzatekeen era egokiena ez-euskaldunengana jotzeko eta haien sentimenduetara iristeko. Inork ez du ezbaian jartzen euskarak erreferentzia gisa duen garrantzia, baina era berean, ikerketak erakutsi du etorkizunerako gakoetako bat izan daitekeela euskal hizkuntza eta kulturarekiko harremana zein jarreretatik abiatzen den lantzea.

4.2.11. Azken buruan, zer?

Kultura eta nortasun kolektiboaren ikuspuntutik, zer ote da Euskal Herria? Ba ote da

bertan euskal kultura eta nortasun beregainik? Eta, baiezkotan, zein da edo zeintzuk dira izaera horren, gure nortasunaren euskarriak? Euskal kultura eta nortasuna zerk osatzen duen eta nola eratzen denaren adiera ezberdinak daudela gizartean oso argi erakutsi digute ikerlan honen emaitzek. Ezberdinak ez ezik, paradoxikoak ere badira, hainbat kasutan.

Pluraltasun horretan, euskal nortasunaren adieretan primordialismoaren lekuko diren ideiak honakoak ditugu: pertsona batek bere burua euskal herritar gisa definitu ahal izateko bete beharreko baldintza nagusiak *Euskal Herrian sortua, arbaso euskaldunak izatea* edo *abizen euskaldunak izatea* bezalako usteak. Iritzi horren aldekoak Iparraldean gehiengo dira, baina kutsu primordialista hori –proportzio apaltsuagoan bada ere– Nafarroan, euskaraz ez dakitenen edo euskal nortasun sentimendurik ez dutenen artean ere nagusitzen da.

Euskal herritar izateko bete beharreko eskakizuna *Euskal Herrian bizi eta bertan lan egitea* dela esatea instrumentalizatzen jo dezakegu. Adiera hori EAEn gailentzen da, batez ere, etorkiengan edo bitariko nortasuna (euskal herritarra eta espainiarra) dutenen artean.

Euskal nortasunaren ikuspegi kronstruktibista beste uste honetan agertzen da: euskal herritartzat izateko baldintza nagusia *euskal herritar izan nahi izatea* dela pentsatzea. Pentsamolde konstruktibista hau EAEn, Nafarroan, euskaraz dakitenengan, familiak eta eurek bertan jaiok direnengan edo euskal herritar-nafarra zein gehienbat euskal herritar sentitzen direnengan gailentzen da.

Euskal nortasunerako funts hain ezberdin horien gizarte banaketa oso adierazgarria da eta, nonbait, paradoxiko samarra ere bai. Izan ere, euskal kultura eta nortasunean txertatu ahal izateko dauden adierarik irekienak (*euskal herritar izan nahi izatea*) euskaltasunaren azpimunduan nagusitzen direnak dira; alegia, azpimundu horretakoek dituzten baldintzak betetzen ez dituztenei eskua luzatuko baliote bezala. Bestalde, erdaltasunaren azpimundukoak dira, paradoxikoki, betetzerik ez dituzten baldintzak gehien aipatzen dituztenak (emanak datozen baldintzak, norberak jasoak eta aldatu ezinezkoak, hain zuzen); hau da, euskaltasunetik urrun bizi dira eta ez dute aukerarik antzematen azpi-mundu horretara sartzeko.

Adiera instrumentalista (*Euskal Herrian bizi eta bertan lan egitea*), besteak beste, EAEn bizi diren etorkinengan gailentzea guztiz ulergarria da, euren burua euskaltasunarekin identifikatu beharrik gabe, gizarte horretako kide sentitzeko aukera ematen dielako. Horrela, euskaltasunaren esparru geografiko eta administratibotzat hartzen duten horretan (EAEn), gainerako biztanleekin homologaturik ikusten dute beraien burua eta gizarte horretan integratuak senti daitezke.

Bestalde, ikerlan honen hainbat emaitzaren arabera, badago euskal nortasunaren sentimenduari –intentsitate ezberdinekin– atxikitzen zaion gehiengo bat, Iparraldean eta EAEn (biztanleriak adierazten duen nortasun etniko/nazionala bakuna, bitarikoa edo hirutarikoa izanik ere): gehienbat euskal herritar edo neurri berdin edo ezberdinetan –baina batera– euskal herritar eta espainiar/frantsesak sentitzen direnena, hain zuzen. Nafarroan, aldiz, euskal nortasun hori (euskal herritarra edo, batera, nafarra eta euskal herritarrarena) lau herritarretatik batek baino ez du partekatzen.

Euskal nortasuna komun duten eta bestelako nortasundunen (espainiar/frantsesa nahiz soilik nafarra edo, batera, nafar-espainiarra) ezaugarrietan sakontzen badugu, ezin dugu inolaz ere esan bi sektore horiek berdinak direnik, hala sorlekuz

edo familiaz nola hizkuntzaz. Labur esanda, bate-tik, euren nortasun etniko/kulturala euskaltasunaren inguruan eratzen dutenek eta, bestetik, erdaltasunaren arabera eratzen dutenek bi azpimundu nahikoa ezberdinak osatzen dituzte. Biak kultura eta nortasun *sendoak* liriateke, nonbait.

Oker geundeke, hala ere, bi azpi-mundu edo –Berger eta Luckman-en kontzeptua baliatuz– bi unibertso sinboliko horiek zeharo banatuta eta isolatuta egotearen ideia lerro hauetan transmitituko bagenu. Izan ere, Iparraldean eta EAEn nortasunik ugariena bitarikoa da (euskal herritarrena gehi estatuarena); alegia, muturreko bi azpimundu horien artean kokatzen dena. Hirugarren azpimundu horrek muturreko bi azpimunduen adierazpen eta ezaugarri ia guztiak bere egiten ditu, proportzio ezberdinetan eta *continuum* luze eta nahasi bat osatuz; kultura eta nortasun *malguak* liriateke, hain zuzen. Nafarroan, bestalde, euskal herritartasun eta espainiartasunaren arteko aldeak arrakala bihurtzeko arriskua duen arren, azpi-mundu horiek lotzen dituen beste atxikimendu mota bat ere badago: nafartasuna, hain zuzen. Izan ere, Nafarroarekiko atxikimendua egon badago beren burua nafar huts, nafar-espainiar edo nafar-euskal herritartzat jotzen dutenen artean ere, batzuek eta besteek Nafarroari buruz nahikoa ikusmolde bereiztuak dituztela ahaztu gabe.

Beraz, Euskal Herriko lurralde guztietan muturreko kultur eta nortasun ezberdinak eta –neurri handian– kontrajarriak nahikoa hedatuta dauden arren, bada ere denon arteko elkarbizitza eta integrazio kultural eta identitarioa bultzatzen duen masa kritikoa zabala; mutur horiek elkarrekin lotzen dituen, nolabait.

Ikerlan honetatik erator litekeen ondorio bat da Euskal Herriko lurralde eta hiritar guzti-guztiak batzen dituen beste ezer ez dagoela, eta interpretazio hori arretaz haztatu behar da. Izan ere, edozein gizarte moderno eta garaikidetan balio eta ikuspuntu kontrajarriak, aniztasuna, desadostasuna eta abar, jaun eta jabe dira; hori, eguneroko osagai arruntenetatik kontzepzio ideologiko abstraktuen eta transzendentetaraino. Alde horretatik begiratuta, beraz, Euskal Herria ez da salbuespena, mendebaldeko edozein gizarteren egoera kultural eta identitario aniztetara lerratzen baita.

Baina, estatuak diren herrialdeen kasuan ez bezala, Euskal Herriko lurraldeen arteko ezberdintasunak elkarrekin josi edo batu litzakeen hari sendo baten falta ageri-agerian gelditzen da

lan honekin –adibidez, denentzako hiritar status bat bera–; alegia, Euskal Herriak ez du erkidego edo giza komunitate bati Estatuak ematen dion naziotasunaren lotura ofizialik, sinbolikorik, kulturalik, identitariorik... Hori bai dela, errealitate estatalekin parekatuz, Euskal Herriko puzzlearen zatiak ondo txertatzeko dagoen ezberdintasun handia; handiena, seguru asko.

Euskal Herriko hiru lurraldeen (Iparralde, Nafarroa eta EAE) arteko ezberdintasunak agerikerikoak izanik, ezin dugu ahaztu, bestalde, hiru lurralde horietako bakoitzaren baitan dauden aldeak ere ez direla txikiagoak. Izan ere, Arabako zonalde batzuek Aramaiorekin edo Gipuzkoako zonalde batzuekin, Nafarroako Erribera Malerrekararekin, edo Iparraldeko kostaldea barnealdearekin alderatuz gero, zer dute batzuek eta besteek komun? Partekatzen dutena eremu politiko-administratibo berean kokatzea da, gehienbat; eta egitura ofizial komun batek duen halako eragina areagotzen da eremu hori Estatuaren denean. Alegia, konparatiboki, Euskal Herriari falta zaiona.

Badaude, dena den, Euskal Herriko lur guztietara hedatzen diren osagai eta ezaugarri kultural eta identitario bertsuak: euskaltasunari atxikirik agertzen direnak, hain zuzen (euskal herritarra izan nahi izateko sentimendua eta nahia, hizkuntza, usadioak...). Halakoak pisu eta proportzio demografiko ezberdinetan agertu arren, bai Iparraldean, Nafarroan eta EAEn, baita lurralde horietako bakoitzaren zoko guztietan ere, izan badira. Badaude, azken buruan, arbasoengandik jaso diren elementuak eta –egungo baldintza berriei egokiturik– euskal kultura zein nortasuna birsortzeko, eraikitzeko eta bizirauteko baliagarriak direnak.

Dena den, euskal biztanleen eguneroko praktikak nahiz maila sinbolikoko joerak zentrifugoak edo zentripetoak izanik ere, Iparraldearen, Nafarroaren eta EAEn arteko harremanak oraingoak baino handiagoak izatea nahiko luketena gehiengoa dira hiru lurraldeotan (Iparraldean gutxiatik bada ere). Ezberdintasunen gainetik badirudi hari eta interes komun bat egon bada goela, lotura hori mehea eta hauskorra izan daitekeen arren. Horrezaz gain, mugaz gaindiko harremanak areago daitezten Europako Batasunetik bultzatu diren baldintza berriek abagune egokia sor dezakete hiru lurralde horien arteko hartu-emanak hedatu eta sendo daitezten.

Abagune hori baliatuta edo, euskal kultura eta nortasuna hainbat norabiderantz mugitzen

ari direla erakusten digu ikerketa honek. Aldaketa horien artetik azpimarratu behar da euskaltasunaren muinean koka ditzakegun zenbait osagaien berpizkundera ikerlanean barne antze-man dela; batez ere –baina, besteak beste–, euskararena.

Euskal jatorrikoa izatea, euskaraz etxetik jakitea, euskal herritar sentitzea, Euskal Herriko lurraldeekin identifikatzea, euskaraz jakitea nortasun elementu garrantzitsutzat jotzea edo horien antzeko beste ezaugarriak elkarri loturik agertzea berariazko euskal ikusmoldearen –unibertso sinboliko– edo *euskal azpimunduko* partaidetza zedarritzen du, ez era hertsia eta determinatzaile batean, baina bai indarrean dagoen gizarte joera sendo gisa. Eta azpimundu horren inguruko osagai batzuk beste azpimunduetan –batez ere, *azpimundu mistoan*– agertzea ez da salbuespen ideografiko hutsa.

Izan ere, *euskal azpimunduan* erdal giroko arrasto ugari aurkitzea frantziar eta espainiar Estatuetan nagusi diren gizarte eta kulturek eragindako kulturizaziotzat jo behar dugun bezala, ikerketak erakutsi dizkigun *azpimundu misto* edo *azpimundu erdalduneko* euskal kutsuko elementuak *euskal azpimunduaren* berpizkundera eta hedapen gisa ulertu beharko genituzke. Adibidez, norbera erdalduna izanik seme-alabek euskara ikas dezaten nahi izatea edota kanpoan jaiotakoek euskal herritar izateko baldintza nagusia –familia edo jatorriaren bitartez jasotako beste ezaugarrien ezean– bertan bizi eta lan egitea dela adieraztea, ez al da *euskaltasunaren* eremura hurbiltzeko gailentzen ari den joera baten ispilu?

Hari beretik eta euskararen ezagutzari dago-kionez, datuek erakusten digute euskaraz pixka bat baino ez dakitenak EAEn *erdaltasunaren* eremuan kokatzen diren bitartean, Nafarroan eta Iparraldean, aldiz, *euskaltasunaren* bihotzean agertzen direla. Euskaldun berrien kasua ere aintzakotzat hartzekoa da; izan ere, Nafarroan eta Iparraldean euskaldun berriak *euskaltasunaren* muinean agertzen diren bitartean, EAEn *azpimundu misto* eta *azpimundu erdaldunerantz* jotzen dute. Ezberdintasun horien interpretazioa, arestian esandakoaren ildotik, hauxe izan daiteke: Nafarroan eta Iparraldean euskaldun berri edo euskaraz zertxobait jakitea *euskaltasunaren* ondorio eta horren eskutik egindako ahaleginaren emaitza izan daiteke; EAEn, aldiz, euskal sen handirik ez duten azpimunduetan ere euskararen presentzia aurkitzea *euskaltasuna* hedatzen ari izanaren lekukoa litzateke.

Hartaz, *euskal azpimunduaren, erdal azpimunduaren eta azpimundu mistoaren* arteko igarobideak eta jarioak egon badaudela agerian gelditu da, *euskaltasunaren* higadura/berrreskurapen tentsio-gunearen ingurukoak, hain zuzen. Esan bezala, batetik, *euskal azpimundu* horretara biltzen diren batzuen euskal kutsuko osagaiak –euskararen ezagutza, kasu– higaturik agertzen dira (ez dakite euskaraz); bestetik, baina, *euskal azpimundu* horretatik at kokatzen den hainbat jende –EAE, batez ere, baina ez bakarrik– euskaltasunaren ezaugarri batzuk bere egiten hasia da. EAEko biztanleriarengan, oro har, agerikoa den azken joera hori, Iparraldean eta Nafarroan ez da argi agertzen; dena den, azken lurralde bi hauetan gero eta euskal herritarragoak sentitzen direnen kopuruak areagotzen ari dira

gazteen artean; datu hori, Iparraldean, higadura/berrreskurapen tentsio-gunearen norantza-aldaketa omen da, hainbat elkarrizketatutako esan digutenari jaramon egitekotan.

Bukatzeko esan, ikerketa honek argi utzi duela ere euskal senaren osagaiekin batera beste eduki kultural eta identitario ezberdinak bizi direla, Euskal Herriko zoko guztietan. Azpimultzo kultural eta identitario guztien arteko elkarbizitza posiblea dela, ez dugu dudarik egiten, aldi berean Euskal Herriaren berariazko izaera bat gorde eta bizirauteko behar diren baldintzak errespetatuz.

4.3. ONDORIO LABURTUAK

ONDORIO LABURTUAK

Ikerlan honetan parte hartu duten milaka herritarren iritziak behin bilduta, aztertuta eta horiek guztiak erreferente teoriko zein ikertzaileen iragazki edo galbaheren bitartez interpretatu ondoren, honako ondorio laburtuak atera daitezke:

- ▶ Euskal Herriko gizartean egun dauden kultura eta nortasun adierak oso ezberdinak dira, edukiz eta euren esanahiez. Ezberdintasun horiek lurraldeetako berezitasunek, tradizioek, unibertso sinbolikoek, estatuek bultzaturiko akulturizazio/kulturizazioek, norberak egindako hautuek eta horien guztien nahasmenak eragindakoak dira. Eta izena eta izana loturik doazela kasu honetan baieztatuz, Euskal Herriaren gaineko definizio beretik hasten dira ezberdintasunak.
- ▶ Euskal kultura eta nortasunaz dauden adierak ere oso ikuspuntu kontzeptual ezberdinetan oinarritzen dira: primordialista (edo esentzialista), instrumentalista zein konstruktibistan, hain zuzen. Ikuspuntu kontrajarri horien banaketa sozial ezberdina nabarmentzen da, batez ere elkarrizketatuen lurraldetasun, jatorri eta euskaltasun/erdaltasun sentimenduaren arabera eraikia.
- ▶ Euskaltasunaren mendetako usadioekin batera, aspaldian gurean dauden edo

gurera iritsi berriak zaizkigun erdaltasunaren hainbat elementu kultural eta identitario Euskal Herriko kultura eta nortasunean zeharo erroturik ditugu, gaur egun.

- ▶ Pluraltasun hori, alabaina, ez da soilik Euskal Herriko gizartearen berezko ezaugarria, gizarte garaikide guztietan agertzen baita. Kultura eta nortasun kolektiboaren ikuspuntutik begiratuta, beste gizarte edo erki-dego garaikide batzuetatik Euskal Herria bereizten duena eraketa juridiko, administratibo edo politiko komunik ez izatean datza; alegia euskal lurralde, azpi-gizatalde eta azpi-kultur guztiak batzen dituen egitura formal edo ofizial partekaturik ez izatean, ezta horiek ekarriko luketen ezinbesteko eragin kultural eta identitariorik ere.
- ▶ Lurralde guztiek komun dutena euskaltasuna da, euskaltasunaren esparrutzat denek jotzen dituzten hainbat osagai, neurri ezberdinetan bada ere, Euskal Herriko leku guztietan agertzen dira eta.
- ▶ Hori ez ezik, inguruko auzo lurraldeekiko praxi eta sentimenduekin alderatuta, Euskal Herriko lurraldeen arteko eguneroko harreman-jarioa eta hurbiltasun sinbolikoa ere gailentzen da, neurri aipagarrietan, herritarren gehiengoarengan; lotura horiek ahulak eta hauskorak izanagatik, errealak ere badira.

- ▶ Euskaltasunaren elementuen artetik euskara da ezinbesteko osagai edo erreferentea. Izan ere goraiatu, gaitzetsi –gutxi batzuen kasuan– nahiz indiferentzia adierazi arren, hizkuntza hori diskurtso mota guztietan egon da presente. Hortaz, euskararen inguruko hausnarketa bultzatzea eta adostasuna bilatzea ezinbestekoak dira ikuspuntu ezberdinak dituztenen arteko elkarbizitza ahalbidetzeko: asmo idealetatik hizkuntza egoera gordinera, nahiz aldeko jarrera sutsuetatik indiferentziazkoetara, kokapen guztiek behar dute integratu diskurtso berri batean, hizkuntza osasuntsu biziko bada.
- ▶ Euskal kultura eta nortasunaren gaineko diagnosian badago adostasun handia euskal eremu hori krisialdi, trantsizio eta, etorkizunari begira, bidegurutze batean dagoela esaterakoan. Euskal gatazka politikoa oztopo bat izan da egoera hori gainditzeko eta euskal kultura eta nortasun berri bat garatu, eraiki eta premia berrietara egokitzeko ahaleginetan; gatazka hori behin betiko gaindituz gero, aurrera egiteko aukera berriak irekiko lirateke.
- ▶ Euskal kultura eta nortasunak aurrera egingo badu malgutasunez jokatu beharra dago Euskal Herriaren barruko izaera eta ulerkera ezberdinekin; hau da, euskal kultura eta nortasunaren ideia malguagoa egin eta bere mugak zabaldu, horren adierak lekuan lekuko berezitasunak ere bereganatu ditzan. Era horretan egun dagoen euskal kultura eta nortasunaren inguruko erdigune/kanpoalde dikotomia gainditua litzateke. Onartu beharreko pluraltasun horretan *kanpoko* euskal herritarrek ere (euskal diasporak zein etorkinek) badute zer esanik.
- ▶ Horren ondorioz, nahasketa kulturala eta bitariko (edo askotariko) nortasunak gero eta zabalduagoak egongo dira gurean, gure kulturak eta nortasunak aberastuz. Horregatik, euskaltasunaren azpi-kulturan honezkero agertzen den jarrera malgua, *eskua luzatuaren* jarrera, sendotua eta zabaldu behar da, halaber, ohiko nortasun sendoekin batera sortzen ari diren nortasun malguak eta eguneroko erreferente kulturalak euskal kultura eta nortasunera biltzeko.
- ▶ Globalizazioaren garai honetan nazioarteko eraginak halabeharrezkoak dira eta horiek gure egiteko modu propioa garatzea da gakoa, horien aurrean era itxian jokatuz gero gureak egingo zuen eta.
- ▶ Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia berriek (IKT) euskal kultura eta nortasunaren eremua biziki astindu dute honezkero, aldi berean berau erronka zein aukera berrien eskura jarri. Aurrerago ere, garapen horiek baliatu behar dira, ezinbestez, euskal eremu kultural eta identitarioa garatzeko eta eguneratzeko.
- ▶ Euskal gizarteak berezkoa duena galdu gabe irekitze prozesua burutuko badu, prozesu hori batez ere euskaltasunetik gidatu behar da, nahiz eta bestelako adierazpen kultural eta identitarioek ere euren lekua izan behar dutela gogo onez onartu. Azken buruan, tradizioaren zimenduen gainean eraiki behar da geroa, ez soilik kanpoko ezaugarrietatik edo zerotik hasita.
- ▶ Ikerketa honek agerian jarri du kultura pizgarri edo akuilu bat izan daitekeela euskal nortasunarentzat eta gizartearentzat berarentzat. Ikerketak ondorioztatu duenez, kulturak oinarri eta bide berriak proposatzen ditu, eta haiei esker euskal gizarteak bere garapena mugatu duten dinamikak gaindi ditzake.

Bibliografia

- AGER, Dennis (2001). *Motivation in language planning and language policy*. Clevedon-Buffalo, Toronto, Sydney. Multilingual Matters.
- ALONSO, A. & ARZOZ, I. (1999): "Basque identity on the Internet" in Williams A. Douglass et al.: *Basque Cultural Studies*. Reno. University of Nevada. (295-312).
- AMEZAGA, Josu (1995). *Herri kultura: euskal kultura eta kultura popularrak*. Leioa. Euskal Herriko Unibertsitatea-Universidad del País Vasco.
- AMEZAGA, Josu (2004). *Satelite bidezko nortasunak. Latinoamerikan Canal Vasco ikusten*. Donostia-San Sebastián. Utrisque Vasconiae.
- AMSELLE, J.-L. (2001). *Branchements. Anthropologie de l'universalité des cultures*, Paris, Flammarion.
- APPADURAI, A. (2001). *Après le colonialisme. Les conséquences culturelles de la globalisation*. Paris, Payot.
- AZURMENDI, Joxe (1992). *Espainolak eta euskaldunak*. Donostia-San Sebastián. Elkar.
- BARKER, Chris (2003). *Televisión, globalización e identidades culturales*. Barcelona-Buenos Aires-México. Paidós.
- BASABE, Nekane; ZLOBINA, Anna & PÁEZ, Darío (2004). "Integración socio-cultural y adaptación psicológica de los inmigrantes extranjeros en el País Vasco". *Soziologiazko Euskal Koadernoak Cuadernos Sociológicos Vascos 15*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco.
- BAUMAN, Zygmunt (2003). "De peregrino a turista, o una breve historia de la identidad" in HALL, Stuart & DU GAY, Paul (comps.) (2003) *Cuestiones de identidad cultural*. Buenos Aires-Madrid. Amorrortu Editores.
- BRAY, Zoe (2004). *Living boundaries. Frontiers and Identity in the Basque Country*. Brussels. Presses Interuniversitaires Européennes.
- BOUCHARD, Gérard (1998). Le Québec et le Canada comme collectivités neuves, *Recherches sociographiques*, 39 (2-3).
- CASTELLS, Manuel (2001A). *La era de la información: Economía, sociedad y cultura. Vol. 1. La sociedad red*. Madrid. Alianza
- CASTELLS, Manuel (2001B). *La era de la información: Economía, sociedad y cultura. Vol. 3. Fin de milenio*. Madrid. Alianza
- CERTEAU, Michel de (1980). *La cultura au pluriel*. Paris. Christian Bourgois Ed.
- CLASTRES, P. (1980). "De l'ethnocide" in *Recherches d'anthropologie politique*. Paris, Editions du Seuil, p. 47-57.
- COOPER, Robert L. (1997). *La planificación lingüística y el cambio social*. Cambridge, etc. Cambridge University Press.
- COULON, Christian (2005). "Penser les questions identitaires en ce début de XXI^{ème} siècle: Quelques hypothèses de travail". *Institut Cultural Basque-Euskal Kultur Erakundeak* antolatutako hitzaldia. 2005/09/16, Baiona (argitaratu gabea).
- CROUCHER L., Sheila (2004). *Globalization and belonging. The politics of identity in a changing world*. Lanham, Maryland (etc.). Rowman & Littlefield.
- DRESSLER, W.; GATTI, G. & PÉREZ-AGOTE, A. (eds.) (1999). *Les nouveaux repères de l'identité collective en Europe*. Paris & Montreal. L'Harmattan.
- DUMONT, Fernand (1994) [1968]: *Le lieu de l'homme, la culture comme distance et mémoire*. Québec. Bibliothèque Québécoise.
- DUMONT, Fernand (1995): "Entre la culture dispersée et la culture institutionnalisée" in *Le sort de la culture*, Montréal, Typo, [Questions de culture 3, Institut québécois de recherche sur la culture, 1982].
- Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca/Academie de la Langue Basque (2003). *Euskaltzaindiaren Arauak III*. 139. araua (2003ko uztailaren 18koa).
- FERNÁNDEZ DE ROTA, José Antonio (2002). "Identidad y ciudadanía en un mundo pluricultural" in Luis ÁLVAREZ MUNÁRRIZ & Fina ANTÓN HURTADO (Eds.): *Identidad y pluriculturalidad en un mundo globalizado*. Murcia. Godoy. (45-57)
- GATTI, Gabriel (1999). "Limites de l'identité et identités des limites: les modalités souples de l'identité collective" in DRESSLER, W.; GATTI, G. & PÉREZ-AGOTE, A. (eds.): *Les nouveaux repères de l'identité collective en Europe*. Paris & Montreal. L'Harmattan (197-225)
- GRIGNON, Claude; PASSERON, Jean-Claude (1989). *Le savant et le populaire, misérabilisme et populisme en sociologie et en littérature*, Paris, Gallimard, Seuil.
- GROSSBERG, Lawrence (2003). "Identidad y estudios culturales: ¿no hay nada más que eso?" in HALL, Stuart & DU GAY, Paul (comps.) (2003) *Cuestiones de identidad cultural*. Buenos Aires-Madrid. Amorrortu Editores (148-180).
- GURRUTXAGA, Ander (2005). *La producción de la idea del nosotros: somos porque estamos*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco.

- HAGÈGE, C. (2000). *Halte à la mort des langues!*. Paris, Odile Jacob.
- HALL, S. (2003). "1. Introducción: ¿quién necesita "identidad"?" in HALL, Stuart & DU GAY, Paul (comps.) (2003) *Cuestiones de identidad cultural*. Buenos Aires-Madrid. Amorrortu Editores.
- HENRÍQUEZ SALIDO, Maria do Carmo (2001). "Identidad 'versus' no identidad gallega" in HERMOSILLA ÁLVAREZ, M^a Ángeles & PULGARÍN CUADRADO, Amalia: *Identidades culturales. Actas del Congreso Internacional Identidades Culturales*, (Octubre 1999). Córdoba. Universidad de Córdoba (55-86).
- Immigrant voices (2001). http://www.canadianhistory.ca/iv/1945-1971/loi101_2.html
- INNERARITY, Daniel (2003). "Políticas de la identidad" in SANPEDRO, Víctor & LLERA, María del Mar (Eds.): *Interculturalidad: interpretar, gestionar y comunicar*. Bellaterra. Barcelona (69-80).
- ITÇAINA, Xabier (2000). *Catholicisme et construction identitaire. La construction religieuse de la référence et de la compétence identitaires*, These pour le doctorat en science politique, Institut d'Etudes Politiques de Bordeaux. Université de Bordeaux IV.
- JAUREGUIBERRY, Francis (1999). "Le moi, le soi et internet" in DRESSLER, W.; GATTI, G. & PÉREZ-AGOTE, A. (eds.): *Les nouveaux repères de l'identité collective en Europe*. Paris & Montreal. L'Harmattan (175-179).
- JOFFRIN, Laurent (2003). "Les valeurs des français: l'idéologie du rejet" in SOFRES *L'état de l'opinion*. Paris. Ed. Seuil.
- MARTINELLO, Marco (2005). "Towards a Post-Ethnic Europe" in BOSSWICK, Wolfgang & HUSBAND, Charles: *Comparative European Research in Migration, Diversity and Identities*. Bilbao. University of Deusto.
- LAROSE, Gérard (zuzend.) (2001). *Le français, une langue pour tout le monde. Une nouvelle approche stratégique et citoyenne*. Commission des Etats généraux sur la situation et l'avenir de la langue française au Québec. Gouvernement du Québec. (285 p.) http://www.etatsgeneraux.gouv.qc.ca/COM1-021_Rapport_final.pdf
- LINZ, Juan J. (1986). *Conflicto en Euskadi*. Madrid. Espasa Calpe.
- LUQUE DURAN, J. de Dios (2005). "Lenguas minoritarias y lenguas en peligro de extinción" in *El Figídor* 25 (Revista cultural, Universidad de Granada).
- OIARZABAL, Agustin M. & OIARZABAL, Pedro J. (2005). *La identidad vasca en el mundo*. Bilbao. Erroteta.
- ODRIOZOLA, J. M. (2000). *Nazio-identitatea eta eskola*. Bilbao. BBK Fundazioa.
- OKE, O. B. (2004). "Presentación" in BASABE, Nekane; ZLOBINA, Anna & PÁEZ, Dario: Integración socio-cultural y adaptación psicológica de los inmigrantes extranjeros en el País Vasco. *Soziologiako Euskal Koadernoak-Cuadernos Sociológicos Vascos* 15. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritz-Gobierno Vasco.
- PÉREZ AGOTE, Alfonso (1995). "Nación y nacionalismo: La politización de la identidad colectiva" in BENEDICTO, J. y MORÁN, M. L. (eds.) *Sociedad y política. Temas de sociología política*. Madrid. Alianza (109-238).
- PÉREZ AGOTE, Alfonso (1999). "Theses sur l'arbitraire de l'être collective national" in DRESSLER, W.; GATTI, G. & PÉREZ-AGOTE, A. (eds.): *Les nouveaux repères de l'identité collective en Europe*. Paris & Montreal. L'Harmattan (19-32).
- PLOURDE, Michel (zuzend.) (2000). *Le français au Québec: 400 ans d'histoire et de vie*. Conseil de la langue française. Les publications du Québec, Fides. Montréal, Québec. (516 p.)
- REVILLA, Marisa & CARMONA, Sergio (2002). "En los tiempos de la identidad: Las dimensiones cultural y política de las identidades colectivas" in Luis ÁLVAREZ MUNÁRRIZ & Fina ANTÓN HURTADO (eds.): *Identidad y pluriculturalidad en un mundo globalizado*. Murcia. Godoy. (393-422)
- SERRES, M. (1991). *Le Tiers-Instruit*. Paris, François Bourin.
- TEZANOS, José Félix (2004). "Prólogo: Tendencias en identidades, valores y creencias" in TEZANOS, J. F. (ed.): *Tendencias en identidades, valores y creencias*. Madrid. Sistema. (7-13)
- TEZANOS, José Félix (2004). "Revolución tecnológica y cambios socio-culturales. Nuevas identidades en las sociedades tecnológicas avanzadas" in TEZANOS, J. F. (ed.): *Tendencias en identidades, valores y creencias*. Madrid. Sistema. (33-62)
- TOTORICAGÜENA, Gloria (2003). *Diáspora vasca comparada. Etnicidad, cultura y política en las colectividades vascas*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritz-Gobierno Vasco.
- TOURAINÉ, A. (1996). "Faux et vrais problèmes" in Michel WIEVIORKA: *Une société fragmentée. Le Multiculturalisme en débat*. Paris. Editions de La Découverte.
- WIEVIORKA, M. (2001) *La Différence*. Paris. Editions Balland.